

# JESUS'EN BILLA

Iganderoko gogoetak

GAZTAÑAGA'tar JESUS



EUSKERAZAINZA

**JESUS'en BILLA**

**Euskerazaintza**

Gaztañaga'tar Jesus'ek

## **JESUS'en BILLA**

Iganderoko Berri ona  
ardatz duten gogoetak

**Euskerazaintza**

EUSKERAZAINTZA  
Getaria kalea, 21  
I.S.B.N.: 84-7394-013-X  
Depósito Legal: BI-1014-91  
Irar-lanak: IMPRENTA INDUSTRIAL, S.A., Sondika.

## EDUKIA

Aurkezpena .....	9
Erabillitako liburu ta idaztien zerrenda .....	18
A aldia: Mateo Donearen Berri Ona ardatz dalarik ...	21
B aldia: Markos Donearen Berri Ona ardatz dalarik ..	143
C aldia: Lukas Donearen Berri Ona ardatz dalarik ...	263
Jaiak eta Santuen egunak .....	383
Igandeen aurkibidea .....	423
Gai nagusi batzuen aurkibidea .....	437

## AURKEZPENA

### Liburu au zer da?

Izenburuko “Jesus’en billa” bi itz oietan adierazi nai izan ditut asmoak eta liburu onen muiña; baita beste gauza geiago ere.

Jesus bera, Aren bizitza ta Aren erakutsi edo irakaspentak aalik ongien ezagutzea da, noski, sinistun dan edozein kristauk egin bear duan gutxien-gutxieneko egiñaala. Kristauak zer jakin bear-ko ditu, izan ere, Kristo’ri dagozkionak ez ba’dira?

Ori oiñarritzat arturik, gauza bera besteei, –bai sinistunei, bai sinisgabeei– ezagutzera emateko eginkizuna du apaizak bere gain. Ezagutu-eraztea ez ba’da ere, ezagutzera ematea, eskeintza egitea, Jesus’en eta Aren gauzen berri ematea: orra apaiz-lanaren muin-muiñeko zerbait garrantzitsua, pozgarri ta aberasgarria bai, baiña aldi berean erantzukizunez astuna ta eragozpenez betea.

Nolabait ere Jesus’en berri ematea da liburuaren elburua. Nolabait ere berri eman, au da, zerbait bederen esan Jesus’i buruz. Ezer arrigarririk asmatu dugula esateko ametsik gabe, ordea; sakontasun bitxiak aurkitzen ibilli gabe, aalik sotillen.

Jesus'en berri ematea, berriz, azkenik ez duan saiaketa da, ez bai-dezakegu bere sakontasun osoan ongi ezagutu; askoz gutxiago eman dezakegu Aren osotasunaren berri, ezta osotasunez eman ere Aren berri. Orregatik idatzi dut buru-buruan "billa" itza: au da, Jesus obeki ezagutzearen "billa", eta aldi berean Aren berri obeto ematearen "billa" nabillela, alegia.

Mailla ta alor orotan ez-ezik, aldi ta une guztietan ere badi-tugu gizakiok gabeziak eta utsak ugari; geurongan lenengo ta gure inguruan urrena. Ainbeste ta ainbeste dira "ez dauzkagunak", baiña guk bear ditugunak eta nai ditugunak, orregatik gabiltza guztiok beti ain larri zerbaiten irrikaz, zerbaiten eske, gudan ez dauzkagunen billa.

Orrela bada, mugatuak geranez gizon-emakumeok, gure izatearen muiñean ezarririk daukagu billa ibilli bearra. Egia esateko, ez gera bakarrik: landare ta abereak ere, bizidun diranez beintzat, -bearrak eraginda-, ez daukatenen billa dabilta etengabea, oartzeke baiña billaketan beti. Batetik bestera ez ba'dabilta ere, billa ibiltze edo billaketatik bizi dirala esango nuke.

Adimendun eta ezagueradun geran gizakioi, ez dauzkagunen utsunea mingarri zaigun bezain aberasgarri ta atsegin izaten zaigu, billaketaren ondoren aurkitzen ditugun izpiak eta apurrak geureganatzeak ematen digun poza. Guri ere eragiten digu bearrak, ez gutxi eragin ere, eta ondorioz, oartzeke sortzen zaizkigu billaketak; eta mesedegarri zaizkiguke noski.

Baiña oarturik eta jakiñean ekingo ba'genio billaketa orri era aspergabea, orduan izango litzaiguke benetan giza-mailako ekintzarik jasogarriena. Eta Jesus'i dagokionez, bere be-tean eta osoan ezagutzea beiñere lortzerik ez daukagunez,

geiago ta obeki ezagutzearen billa saiatu bear genuke. Billa ibilli naiz urterik urte: ona emen billaketa ortako urrats batzuk.

### Egunkariaren muga estuak

Nola, noiz eta norako eratuak izan diran esatea ere, bearr-zkoa dala iruditzen zait, gogoeta auek beren giroan egoki ulertu aal izan ditzan irakurleak.

Iruña'ko "Diario de Navarra" egunkarian astero orrialde bat atera oi zuten aspalditxotik: 1970 baiña leenagotik noski. Eta Irigarai'tar Aingeru il zanean, Garde'tar Martzelino apai-zaren esku jarri zuten orriaren ardura 1983'ko Dagonillaren 31'tik. Eta egun artaz aurrera, Garde'k, Oñatibia'tar Dunixi'k eta nik, aal ainbat guztia idatzi bearra leporatu genuan bakoitzak, asteak astea laister bai-du.

Zer gai ar nezakean, asterik utsegin gabe idatzi aal izateko? Ar nezana ar nezala, utsegiteke jarrai-eziña gertatuko zitzai-dan, auxe izan ezik: Iganderoko Ebanjelioari buruzko gogoeta laburren bat, alegia. Eta alaxe erantsi nion nere buruari astero idazteko lotura, sei urte ta geiagoan jarraituz. Elkarrekin asita-ko lanbidean ni bakarrik eta umezurtz utzita, betiko bizitzara joanik ditugu bai Oñatibia ta bai Garde: izan bitzate an zorion betea ta emendik nere eskerronik egiazkoena.

Gauzak onela, 1983'ko Abenduaz asi nituan 'B' aldiko Berri Ona edo Ebanjelioen azalpenak, 1984'an jarraituz; urrena 1985'ean 'C' ta 1986'an 'A', orrela iru aldiak buruturik ere aurrera jarraitzeko. Ain juxtu ere goian aipaturiko egunkarian eta beti txoko berean agertu dira astero "Berri Ona" izeneko atal jakiña betetzen dutelarik.

Bigarrenkoz ere buruturik ditudan arren iru urteak edo aldiak, lenengo txandakoak sartu ditut liburu ontan, utsuneren batzuk bete-bearrez gero egiñak eta tartekatuak izan ezik. Ala ere gai bitxiren bat ikutzekoan, bereziki ezarri dut zein urtetan idatzia dutan, garaiko giroaren lekuko gerta dadin; eta ez dala gerokoa, ikusiaz gaiñera aldaturiko eraskiña.

Gai 'bitxiren' bat idatzi ba'dut ere, ez beza iñork uste auskalo zer arrigarri. Iganderoko irakurgaietan Jainkoaren itza xeru-xeru irakurri ondoren, "au gertatu zan"... "ori adierazi nai dute"... besterik esan gabe gelditzeko ordez, emengo arazo ta bearretan orain Jesus'ek zer esango ligukean, aztertu nai izan dut. Gaur emen bizi geran euskaldunoi ere argi egin nai digula, alegia; gaurko euskaldun "aurreratuok" ere, argi guztia geuregan ez daukagunez, egiazko bizi-poza ematen duan argia ar genezakeala "atzerrien argi" dan Nazaretarragandik, bizi dan Maisuagandik.

Bestalde ikerketa sakonak eskeintzeko toki egokia ez da izaten egunkaria, era askotako mugak bai-ditu. Luzeran ez-ezik, gaien erabilkeran eta idazkeran ere badira zenbait muga, asteen bein izan arren, nolabait egunerokoaren giroan oreturik joan bear bai-dute idazlanek.

Eta azkenik, oker edo zuzen, baiña egun eta ordu jakiñetaz beranduago epea luzatzerik eza, besteak beste, ez da mugaketarik txikiena. Egia esan, jakiñeko epeak ez du gutxi eragiten, bestela burutuko ez genituzkean lanak egitera, baiña bai ederki estutzen eta beartzen ere gaituala azken-orduan!

Bestetik, luze-laburrean ere estua izaten da muga, jakiñeko lerro batzuen esparru igaro-eziña, alegia. Orrela, bada, ezagun izango dira askotan ere mugaketa ugari oien aztarnak.

Baiña guztia aitortzeko, esan dezadan beste au ere: orain liburu egiñik ematekoan, ez ditudala leen izparringi edo egunkarian agertu bezala, deus aldatu gabe ta beren artantxe ekarri liburura; zenbait ikutu ta orraztu emanda, baizik, garaian garaiko giroari uko egin gabe, ordea. Leengo neurrietatik apur bat luzatu ere bai zenbaitetan, borobiltzeko asmoz.

Egunkarian agertu gabeak ere badira tartean, batez ere Igandez gaiñerako Jaien eta Santuen saillean. Auek luzeago dira, eta eliz-itzaldiak beren osoan ere bai bakan batzuetan, oso gutxi.

### Nortzuentzat idatzia dan

Nere saiaketa-billaketak edo diranak dirala, astero egunkariaren orrietan banatzen ziran Napparroa'n barna bereziki, eta oso gutxi andik kanpora. Udazkenean ego-aizeak begirik gabe barreiatzen eta sakabanatzen ditu gure zugaitzen orbel origorrixkak. Alaxe barreiaturik zitezkean nere jarduntxoak ere iñorentzat mesederik gabe. Orregatik batu ditut orain, eta A, B ta C aldiak, iru sortatan bildurik, liburu eginda eskeintzen dizkiek euskaldun fededunei. Jakiña, idatzi ere beren garaian kristau euskaldunei sinismen-giroko serbitzua eskeiñi nairik idatziak bai-dira.

Ain juxtu ere Jesus'i buruz eskeiñitako jardunak diranez, eta gaiñera Aren berri eman nairik bildutako apurrak izaki, ziur nengoke, iñori ez diotela kalterik egingo; ezta sinisten ez dutenei ere, gogo onez irakur ba'litzate. Baiña zuzen-zuzenean nik gogoan izan ditudanak, -iganderoko meza-itzaldietan aurrean euki oi ditudan eliztarrak ba'lira bezala- Jesus'en-

gan sinisten duten kristauak dira bereziki, iñor baztertu nai ez dutan arren.

Eta guztia euskaldunei eskeintzen diet, euskaldunentzat bai-ditut buruan erabilli ta landu: euskaldunak gogoan ditudala, alegia. Ez nezakean bestela egin, euskal-orrian euskeraz izaki. Geiago oraindik: ausnartu ta sakondu ditudan neurri apal ortan, euskeraz pentsatuta idatzi ditut, gazteleraz naiz edozein erderatan pentsatu ta idatzi ondoren, euskeratzera jo bearrik gabe. Buru-errotan euskeraz eioak dira, beraz, eta euskeraz oretuak.

Astean astekoa idazten nuan aiñean, aurreko larunbatean ez bezalako zerbait esatea ez zitzaidan ain zailla. Iru urteren burura, ordea, ez da batere erraza, ez orixe!, gauza ber-berak ez izanik ere, oso antzekoak bein baiño geiagotan atera gabe gertatzea. Eta sinismen-giroko ondorioak, bizitzarako jokabideak eta kristauon eginkizunak aipatzera sartu ezker, nola ez gauza berdintsuetara jo azkenean?

Irakurleei, ordea, igande bakoitzari dagokiona baiño geiagorik, ziur aski, jarrairan irakurriko ez dituztenez, eramangarri gerta dakizkieke banaka artuta; au da, asterik aste edo tarteka irakurtzen ba'dituzte, ez zaizkie ain berdintsu irudituko. Izan ere, geroago adieraziko dugunez, iru urteren joanean astero banaka idatziak izaki, irakurleak ere egokierarik onena, iru urteren buruan izango du aste bakoitzean bat ausnartzeko.

Ordu askotako egiñaalen emaitza izaki, bide batez beste norbaiti bederen lagundu ba'lezaio ere, or ipintzen dut bilduma au euskaldunen eskuetan. Urterik urte jarraitzera bezala, orain sorta egiñik ateratzera ez dit gutxi bultza zenbaiten eragiñak. Apaturiko lankide ta adiskide biek lagundu zidaten geiena asiera beretik.

Gerora beste apaizen batek edo bestek ere bai, esan didate pozik irakurtzen dutela astero, baiña oso gutxiren berri iritxi zait, Napparroa'n zabaltzen danez eta napparrekin nik artu-eman aundirik ez izaki. Nork jakin, izan ere, eguneroko baten orriak zenbaten eta zeñen eskutara eltzen diran? Nere eskerrik onena aitortu nai diet Jimeno'tar Pedro ta Apezetxea'tar Juan apaizei, gogotsu irakurtzen dituztelazko albisterik eldu bai-zait andik edo emendik, eta egia esateko, jarraipen-indarra eman didate.

Bestalde, auxe idatzi zidan batek 1988'ko azillaren 13'an Tafalla'tik: "*Zure asteroko Ebanjelioa ere irakurtzen det. Laguntzen dit, nere itzalditxo gertutzen. Jarrai orrelaxe. Beti aurrera!*" Goiburu'tar Gotzon Pasiotarraren adiskidetasunezko bultzada zan. Urtea joan eta urtea etorri lan berean jarraitzeak, aspertzeko arriskua dakarrenean, norbaiti bederen idazlanek on egiten diotela jakiteak, poz ematen du. Ea orain apaizetaz gaiñera, kristauengana ere iristen diran billaketa auek, eta Napparroa'tik kanpora ere bai.

### Liburu au nola erabilli

Azalpen au egin bearrik ez dut apaizentzat, igandez igande lan ortan ari diranez gero. Gaiñerako kristauentzat edo apaiz ez diranentzat doaz oar argigarri auek.

Iru zati nagusi ditu liburuak, aurkibidean eta liburua eskuetan erabiltzean nabarmen ageri diranez:

Lenengo zatia: A aldia, Mateo Donearen Ebanjelioa jarraituz.

Bigarren zatia: B aldia, Markos Donearen Ebanjelioa gai dala.



Irugarren zatia: C aldia, Lukas Donearen Ebanjelioa jarraiki.

Aldi bakoitzaren asiera, Eliz-urteaz batera izaten da: "Abendua" izeneko garaia, Azaroaren azkenetan ala Gabonillaren aurrenean asita. Zati bakoitzaren sarreran aurkituko ditu irakurleak, zein urtetako zein egunetan asiko diran Abendua, Garizuma, Pazkoa ta Urteko Igandeak, izeneko aldi nagusiak.

Jardun bakoitza, Igande bakoitzari loturiko azalpena dalarik, ez dira bata bestearen ondoren jarraian asko irakurtzeko, berez beintzat. Orrela ere egin lezake, noski, ala nai duanak.

Aste bakoitzean bat irakurtzea litzake egokiena, nik esan bear ba'nu. Zergatik? Igandean Mezatara joatean, zer aurkituko dugun jakin gabe ta ezeren aztarrenik gabe joanda, dana ustekabekoa gertatzen da. Aldez aurretik irakurri ezkerro Igande bakoitzari dagokiona, jakiñean joango litzake mezentzulea; au da, nolabait ere girotuta. Eta orduan atsegiñago gertatzeaz gaiñera, arreta geiago jartzea ere errazagoa da; baita zerbait geiago gogoan artzea ere.

Nola aurkitu, ordea, Igande bakoitzekoa? Zati bakoitzaren asieran daude garai bakoitzaren zeaztasunak. Azken-orrietan dago Aurkibidea, eta an aurkitzea ere ez da zailla.

Bestetik, oso garrantzizkoa ta gauza aberasgarria da kristauen sinismenarentzat, Igande bakoitzari dagokion Ebanjeliozatia ere irakurtzea. Gero Mezatara entzutean, askoz obeto artuko du aurrez irakurrita joan danak. Jardun bakoitzaren asieran dago, zein zati dan, eta ITUN BERRIA bere etxean daukanak, antxe aurkituko du zati bakoitza.

Eta besterik ez. Jesus'en inguruko billaketan sartu ditudan orduak on egin didate. Beste edozeiñi ere, Jesusi dagozkion gogoetak egiteak berak egingo dio onik aundiena, gure jardun

auk baiño osasungarriagoa. Bide ortan, berriz, norbaiti lagungarri gertatzen ba'zaio bilduma au, pozik baiño pozikago nindeke.

Errezil'en 1991'ko Otsaillaren 18'an

Erkizia'tar Domingo "Doatsu" izendatzearen urteurrenean.

## Erabillitako liburu ta idaztiak

Bein edo beste ezik, iñoren liburutatik ez dut zatirik itzez-itz artu. Irakurrietaz baliatu bai, gauza bera edo antzekoak era batera edo bestera esateko. Eskuarlean erabilli izan ditudanak, geixego ala gutxixego ba' da ere-auek dira zerrendan:

- Apaolaza'tar Agustin beneditarraren "Bibliarekin otoitzean" sortako "San Markos'en Ebanjelioa".
- Apaolaza'tar Agustin beraren "Bibliarekin otoitzean" "Asiera".
- Apaolaza'tar Agustin beraren "Irtera".
- Argaña Goikoetxea'tar Karlos kaputxinoaren "Omi-liak", euskeraz eta gaztelera, iru urtetako mintzal-diak.
- Arriola ta Arana jesulagunen "Palabra de Dios viva".
- B.A.C. liburu-sortako "Evangelios" lau Ebanjelioen itzulpena ta oarrak, Alonso, Leal eta Paramo jesulagu-nek egiñak.
- Borobio ta lagun-taldearen iru liburuak: "El riesgo de predicar".
- Burgaleta Jesus, "Homilías dominicales" (PPC).
- Coughan Peter eta Purdue Peter jaunen "Comentario al Leccionario Dominical".
- Durand Alfred, S.J. "El Evangelio de San Mateo" (Verbum Salutis).
- Durand Alfred, S.J. "El Evangelio de San Juan". (Verbum Salutis).

- "Eucaristia" orriak Igande ta Jai bakoitzerako.
- Garcia Avilés Rafael J., "Llamados a ser libres. No la ley, sino el hombre". (Edi. "Almendo", Córdoba).
- Gotzai-idazkiak: Euskalerriko Gotzaienak, 1985-86-87'ko Garizumak.
- Guichou P. "El Evangelio de San Juan". (Verbum Sa-lutis).
- Gutierrez Guillermo, S.J. "Homilías para el Lecciona-rio" (Sal terrae).
- Huby Joseph, S.J. "El Evangelio de San Marcos" (Verbum Salutis).
- IDAZTEUNA edo BIBLIA, osoa naiz zatiak, EUS-KERAZ:
- Olabide'ren "ITUN ZAR ETA BERRIA"
- Kerexeta'ren "EUSKAL BIBLIA"
- Duvoisin'en "BIBLE SAINDUA"
- IRAKURGAIK, Mezatarako euskeralpena (Elizba-rrutikoa).
- ITUN BERRIA (ORIXE ta Zugasti)
- ITUN BERRIA (Elizen arteko Biblia)
- Jeremias Joachim'en "Las Parábolas de Jesús".
- Martín Descalzo J.I. "Vida y misterio de Jesús de Na-zaret" (Sígueme).
- "Mintzo ta Kantu", Mezatarako lagungarriak.
- Monloubou Louis'en "Leer y predicar el Evangelio de S. Marcos".

- Pagola'tar Jose Antonio'ren "*Jesús de Nazaret*", Jesus'en bizitza. Pagola'tar Jose Antonio'ren "*Aprender a vivir*".
- Pagola'tar Jose Antonio'ren "*Buena Noticias. Escuchando el Evangelio*".
- Pagola'tar Jose Antonio'ren "*Construir sobre la roca*".
- Telletxea ta Berrondo: "*San Inazio, bakarrik eta oinéz*".
- Telletxea ta Lekuona: "*Erkizia ta Aozaraza, Martiriak*".
- "Vida Nueva" aldizkarian astero agertzen diran gogoe-tak.

Mateo Donearen Berri Ona izango dugu aldi ontako ardatz.  
Argibide batzuk, datozen urteetan noiz eta nola erabili A aldia:  
Abendu-aldia: 1992'ko Azillaren 29'an asi, eta jarraitu ondoren

**1993'gn urtean:**

Urteko Igandeak, Urtarrillaren 13'tik, 7 Igande  
Auster eguna, Otsaillaren 24'an  
Pazkoa eguna, Jorraillaren 11'n  
Espiritu Santua, Loraillaren 30'ean  
Urteko Igandeak, Ekainillaren 13'tik, 11'gn Igandea

Abendu-aldia: 1995'eko Gabonillaren 3'an asi, eta jarraitu ondoren

**1996'gn urtean:**

Urteko Igandeak, Urtarrillaren 7'tik, 7 Igande  
Auster eguna, Otsaillaren 21'ean  
Pazkoa eguna, Jorraillaren 7'an  
Espiritu Santua, Loraillaren 26'an  
Urteko Igandeak, Ekainillaren 7'tik, 10'gn Igandea

Abendu-aldia: 1998'ko Azillaren 29'an asi, eta jarraitu ondoren

**1999'gn urtean:**

Urteko Igandeak, Urtarrillaren 10'etik, 6 Igande  
Auster eguna, Otsaillaren 17'an  
Pazkoa eguna, Jorraillaren 4'an  
Espiritu Santua, Loraillaren 23'an  
Urteko Igandeak, Ekainillaren 6'tik, 10'gn Igandea

Eta era berean izango dira 2001-2002, 2004-2005 urteetan ere.

## Esnatzeko ordua da

*Zaudete erne, prest egon  
zaitezten. Mt 24, 37-44*

Joan zan igandean, Kristo errege eguna ospatuz, bukaera eman genion eliz-urteari. Biarko eguna dugu eliz-urte berriaren asiera, urte osoaren joanean Jesus'en bizitza ta egintzak gogoratuz ospatzeko.

Eta Jesus'en Jaiotza ospatu aurretik, gertuera-egunak ditugu orain, Abendu santuan edo Etor-aroan. Urte ta mende luzez iraun zuten zai Israel erriko zintzoek: Mesias Salbatzaillea noiz etorriko zitzaien zai.

Zertara etorri bear zuan? Gure mundu au, –guk askotan nai genukean bezala– dana pake, dana zorion eta dana zero biurtzera? Ez, ori ez. Mundu au uts eta akatsez betea izango da azke-nera arte; sorroan tarteka landare txarrak izaten diran antzera.

Baiña ez al dugu pakerik bear? Bai noski. Dana bareturik eta pake oso egiñik, ori ez digu emango Jesus'ek. Egiazko pake jatorra izango baldin ba'dugu, eta pake iraunkorra izan de-

zagun, bidea erakutsi digu Berak: ortara etorri bai-zan, "gauza guztiak Aitarekin adiskidetzera, Gurutzeko odolaz pakeak egiñik zeru-lurretan diran guztiekin".

Aldez aurretik Isaias igerlearen aoz adierazita dauzkagu pakearen ezaugarriak: pake-lanerako "golde biurtuko dituzte ez-patak" ( iltzaille diran tresnak ), "gari-sororako igitai biurtuko, lantzak" ( iltzeko diranak ). Eta ori gertatuko litzake gure artean, Jesus'en bideak jarraituko ba'genitu guztiok.

Jan-edanetan, geiegikeria ta lasaikerietan ibiltzeko ordez, erne bizitzeko deia egiten digu Jesus'ek: "Gaua badijoa, eguna gaiñean dugu... Lotatik esnatzeko ordua da... Ken ditzagun illunpetako egintzak; ibil gaitezen jator, egun-argitan bezala". Auxe dugu Abendurako dei berezia.

Onela, ardura-gabeko lotatik esnatuta, erne bizitzen saiatu bear dugu. Jesus'engandik argia ta indarra artuta, gu guztiok egin dezagun zerbait, gure inguruan pake-giroa izan dadin; dana aserrea ta borroka izateko ordez, barkapena ta laguntza, poza ta alaitasuna zabalduz egingo bai-dugu pake-giroa.

"Zatoz, Jesus, gure pakea!" Egin gaitzazu pakegille Zurekin.

## Biotzetik dator pakea

*Biotz-berritu zaitetze. Mt 3, 1-12*

Gauza zaarrei muzin egiñik, berriak nai izaten ditugu alor guztietan ere: jantziak, bideak, etxeak, oiturak, danak berriak nai ditugu. Eta bein zaartu ezker, oso nekez berritzen ditugu gauza oiek.

Eta gure biotzak, zer? Berritu ote ditzakegu gure biotzak? Bai, sendalariek berritu aundiak ematen dizkiete biotz nekatu ta zaurituei. Baiña beste biotz-berritze bat aipatzera gatoz emen, ez aragizko biotza, beste zerbait baizik, Bataiatzailleak eta Jesus'ek eskatzen digutenez.

Izan ere auxe da Joan'ek Jordan ibai-ondoan eta Jesus'ek edonun egiten zuten dei zolia: "Biotz-berritu zaitetze!". Zer esan nai du, ordea, biotz-berritze orrek? Gure gogo, barneko jarrera, barruko giroa berritu ditzagula, gero ondorioz gure jokatibideak eta egintzak ere ohera aldatzeko.

Abendu-aldi ontako biotz-berritzeak, itz utsetan gelditzeko ordez, jakiñeko zerbait zeatza aldatzera ta obetzera eramán

bear gaitu danok. Egiatzko pakearen billa jokatzea, ez litzake aldaketa txarra izango.

Gure inguruan, gure errian, gizartean, Euskalerrian eta munduan ez dago pake jatorrik: ainbeste ixillu, aserre, borroka ta indarkeria ikusten ditugu izan ere! Zer egin? Dana bestek pakeratu zai egon? Ez da naikoa.

Pakea ez dute diruak eta irabaziek egingo, pakea ez dute armek eta gudaldiek ekarriko, pakea ez dute agintariak bakarrik egingo. Egiturak eta agintariak aldatzea bakarrik ere ez da naikoa, pakea izan dadin.

Bere pentsakera ta asmoak besteei gogorrean ezarri nai dizkienak, ez du pakerik ekarriko. Pakerako ez-baiña, eraso ta guduketarako bideak dira.

Besteei eragiñez eta kontuak eskatuz ere ez dator pakea. Bakoitzak bere biotz-barnetik sortu bear du pakearen egarrria. Zu ta ni jarri gaitezen pakean eta adiskide Jainkoarekin; eta orduan, gure senideak begirunez eta maitasunez artzen saiatuko gera.

Aserre, gorroto ta ilketak, biotzetik sortzen diran era be-rean, biotzetik sortu bear ditugu pakerako gogoia, besteengana-ko maitasuna ta serbitzu ere. Bestela ez dugu pakerik egingo. Eta orixe bai dala biotz-berritzea, Jesus'en eskolan beintzat.

## Egintza salbagarriak

*Itsuek ikusten dute, elbarriak badabiltza... Mt 11, 2-11*

Askatasuna ta pakea nai ditugula, esango dugu guztiok. Baiña jartzen al ditugu ortarako bideak eta egiten al ditugu ortarako egiñaalak?

Itz ederrez eta eskeintza bikaiñez beteta daude bazterrak, eta jendeak aspertuta. Adibidez Jesus'ek, bere nortasunaren eta eginkizunaren ezaugarritzat, zer jarri zituan? Astiro ta sikonki aztertzeak da.

Ez aberastasunak eta ez indarra, ez agintea ta ez lege zorrotzak, ez zama aundiak eta ez zigorketak, ez zituan artu Jesus'ek bere eginkizuna betetzeko bidetzat. Argi ta garbi aitortu zion Joan Bataiatzailleari:

*"Itsuek ikusten dute, elbarriak badabiltza, lenenardunak garbi gelditzen dira, gorrek entzuten dute, ildakoak pizten dira, eta beartsuei berri ona otsegiten zaie". Auek dira Jesus'en*

ezaugarriak eta auek dira bere jarraitzaileenak ere. Auek dira Erreinuko ezaugarriak.

Ez da naikoa, “Jauna, Jauna!” esanez ibiltzea bakarrik, eta ez da naikoa gaur, “Askatassuna! Askatasuna!” oiuka ibiltzea ere. Egintzak bear ditugu gaur, askatasunezko egintzak. Baiña ez guk geuk nai duguna egiteko askatasunez, eta besteei loturak ezarriz, gaur geiegik egiten dutenez .

Bizia, bear dutenei; osasuna ta pozbidea, berdintasuna ta laguntza, jatekoa ta ikasketak bear dituztenei: beren bearretan laguntzea da lenengo. Giza-eskubideak zaintzen, gizonezko ta emakumezko bakoitzak bere izen ona ta askatasuna izan ditzan; batez ere umetxoek –eta areago jaio gabeko aur-gaiek– bear dute ardura aundiko babesa.

Gizakien, taldeen eta errien nortasuna ere begirunez zaintzekoa da, ziñezko pakea izango ba’dugu. Bestela, berriz ere goitik beera ta beetik gora, indarkeriak eta zigorrak, erasoak eta ilketak, baiketak eta diru-kentzeak, espetxeetako oiñazeketak eta belaunetako tiroak... izango dira.

Gizakiak eta taldeak, bakoitza bere irabazi ta berekoikeriak utzita, besteei on egiten, leialaki serbitzu egiten, eta besteak goratzen asi bear dugu. Ortatik ezagutuko gaituzte, Jesus’en bide berean gabiltzala, Jesus’en egintza salbagarriak egiten ba’ditugu.

## Erria salbatuko duana

*Jesus... Berak salbatuko du erria bere pekatuetatik. Mt 1, 18-24*

Orain 1986 urte dirala, asko ziran Israel errian Salbatzailea itxaro ta eskatzen zutenak; eta asko ziran “salbatzaile” agertzen ziranak. Gaur ere salbazioa ta askatasuna bear dituzten erriak asko dira. Gure Euskalerrria’k ere bear aundia dauka. Gure artean badira, gaiñera, “salbatzaile” ta “askatzaile” agertzen zaizkigun taldeak, beraiek diotenez.

Zertatik askatu? Nola askatu? Ortxe dago arazo larriaren kakoa edo giltza. Ziñez ausartak, zaratatsuak, borrokariak eta ekintzaile sutsuak badira gure artean, bai gidariak eta bai taldeak; ezin ukatu.

Giza-biotzaren barneko loturetatik, aserrearen eta gorrotoaren loturatik, gerekoikeria ta agindu-naiaren lokarritik askatu nai al dute gure erria? Diru-zalekeriaren eta ondo bizi-naiaren egarritik, besteak engañatu ta makurtu-erazi naiaren zapalke-tatik askatzera al datozkigu? Ez!

Lotura sakonenak baztertuta, aazturik utzita, gizartean dauzkagun kanpoko lokarrietatik askatzeko ustetan dabilta. Indarra dutenak eta agintzen daudenak kendurik, aien tokian berak jartzea dute elburu. Baiña ori, beraientzat bakarrik litza-ke askatasun, ez besteentzat.

Dalako askatasun ori lortzeko bideak, berriz, bi eratakoak dira geienetan: engaiñua ta gezurraren indarrez, eta arma ta ilketen indarrez. Gure arteko giroa sakonki aztertzen ba'dugu, orixe ageri da garbiro.

Eta guk zer esan? Indartsuenen eta gogorrenen esku jarri nai dutela Euskalerrria, jendeak eta erria bildurtu-eraziz. Orain geienen iritziak oinperatuta, armen indarrez erasotzen dutenek, gero zer egingo lukete? Garbi dago: dakiten gauza bakarra, au da, indarraren indarrez danak lotu.

Orrelakoengandik ez dauka askatasunik gure erriak, ez dauka buru-jabe izaterik, ezta pakerik ere. "*Jesus ezarriko diozu izena, Berak salbatuko bai-du erria bere pekatuetaik*". Kristauontzat, —eta beste guztientzat ere bai— Jesus'en itzak eta bizitza dira askatasunerako bide nagusia.

Obeki esanda, Jesus da bide ori, ain zuzen ere "Jainkoa gu-rekin", Jainkoa gizon eginda, Jainkoa gizon-emakumeak askatzen eta jasotzen. Jainkoa gizakiagan eta gizakia Jainkoagan ikus ba'genitza, elkarrentzat askatzaille izango giñake.

## Eguberria, alperrik ote?

*Aintza zeruetan Jainkoari.  
Pakea lurrean gizakiei. Lk 2, 1-14*

Galdera bitxia irudituko zaie geienei. "Galdera ori, bai, dala alperrikakoa! Eguberriak gertatzen zaizkigun bezain eder eta atsegin izanik, zertara dator galdera ori? ez kendu Eguberriak!" Onelako zerbait esango lukete kristauek. Ez al zaizu ala iruditzen? Sinismena ta Jesus ajola ez zaizkienek ere, ez ote berdin?

Eguberriak dirala-ta, elkarri agur egin eta zorionak opa izan dizkiogu: eskutitez, Gabonetako agur apaiñak bidaliz, urrutizki-ñez deituta, ikustera joanez... "Zorionak!" esanez ibilli oi gera egun auetan. Sendian bilduta, pozik eta elkartasun-giroan egiten ditugu bazkariak eta afariak, goxoak noski. Eta ez dago gaizki.

Elizkizun argitsuak ere bai, elizak betean, abesti alai ta xu-meak ugari abestuz. Meza ederrak, zaratatsuak, bioztiak, gogoan-garriak izan oi dira Eguberri-jaietakoak. Aalik apaiñen jantzita, jai-giro alaian, "Jaiotzatxoa" ikusiz, Mezatan Jaunartzerik egingo ez ba'dugu ere, Aurtxoari muin emanez... Gaizki dagoanik ezin esan, baiña... naikoa ote da, sinisten duan kristauarentzat?



Gaiñontzean besterik zer? Etxeetan “Jaiotzatxoa” ipiñi apain eta txukun txoko batean... zugaitza dotoreki ta argitsu apaindu; gauza garestiak erosi jateko ta edateko, jazteko ta opariak egiteko, zeñiek baiño zeñiek garestiago ta geiago erosi ere. Bai, au guztia ere bai, sendiak dezakean baiño geiago zenbaitetan. Nork ukatuko du, auxe dala Eguberrietan gure etxeetako giroa?

Eguberriak ontarako baldin ba'ditugu, alperrik da Kristo'ren Eguberria. Jainkoa gizon eginda, aurtxo jaio zan Jesus lenengo Eguberrian. Auxe da Eguberria'ren muiña. Eta Jesus, aurtxo jaio zanean, zerbaitetarako jaio zan. Nola ta zertarako? Ez noski, gure Eguberrietako giroan; zearo bestela baizik: dotorezia, apainduria ta gauza garestien kutsurik gabe, beartsu ta apal jaio ere.

Belen'en jaiotzean, ez zan egin jakintsu, aberats, agintari, ospetsu ta indardun. Soil-soillik ezur eta mamizko aurtxo egin zan, era guztietako gizakiak salbatu nairik. Eta ortarako, gizaki biurturik, giza-kiekin elkartasun estuan sartu zan. Aurrerakoan, gure neke, lan, oiñaze, eziñak, egiñaalak, naigabe ta pozak, ez ditu kanpotik eta goietatik bizi Jainkoak: gurekin eta gure barrutik bizi ditu Jainkoak Jesus'engan, Berekin artu bai-gaitu.

Eta ala ere gizakiak, geienak beintzat oraindik beartsu dira, zapalduak, giltzapetuak, tirokatuak, gosez illak, zori txarrekoak dira. Mundu zabalera begira, gutxienak dira gauza ugariz oparo ornituta bizi geranak. Eta jakiña: batzuen eta besteen artean, tirabira ta borroka geiegi, eta elkartasunik ez, laguntzarik eta maitasunik ere ez. Non dugu Jesus'en Eguberrietako senidetetasuna?

“Aintza zeruetan Jainkoari, pakea lurrean gizakiei...” Auxe da Jesus'en Eguberrietako mezua. Eguberriak, benetakoak eta ongari izango zaizkigu, Jesus'ekin batera, gure senideekin, –beartsuekin batez ere– biotzez eta egitez elkartzen baldin ba'gera, geure buruei zerbait-zerbait ukatuta, egiazko laguntza emateko.

## Guraso ta seme-alabak

*Nazaret deritzan errian gelditu ziran bizitzen. Mt 2, 13-15. 19-23*

Senar-emazteek bearrezko dituzte, beren maitasunaren frutuzat eta beren elkartasunaren aberasgarrizat, aur bat edo beste. Izan ere, bikote ezkonduaren osogarri dira seme-alabak. Eta bestela, zeñien bakar gertatzen diran, utsunearen goibeltasun garratza eraman eziñik bien artean, beti norbaiten zai bezala.

Eta aldi berean, seme-alabek askoz bearrezkoago dituzte beren gurasoak, deus gutxi bai-dezakete txikiek aita-amarik gabe. Gurasoek zer ematen dieten galdetuta, onela erantzuten dute txikiek: “Etxea, jana, jantziak, jostailuak... ematen dizki-gute gure gurasoek”.

Erantzun ori egia danik, ezin ukatu; gaiñera ez dakite txikiek, zenbat neke ta lan kostata ematen dieten ori guztia beren aita-amek. Baiña ontantxe dago, agian, akats aundi bat. Bai, era guztietako gauza asko ematen dizkiete gaurko gurasoek beren erraietako umetxoei: asko, gauza-gauzak geiegi ez ba'dira...

Eta lasai geldituko dira askotan, gauzak eta gauzak emanaz, eskatzen duten guztia umeen eskuetan jarritz. Orra, ordea, aur eta gaztetxoek berekoikeriari, irrikari ta gauzak euki-naiari bultzatzen eta indar ematen ari dirala gurasoak oartzeko. Nork aseko ditu gero oien irrika ta eske azkengabeak, "eskubidezkoak"?

Lan asko egin -aal ba'dute biek, aitak eta amak- eta aurreratu-tako diruz, gauza ugariz inguratu oi dituzte seme-alabak. Baiña naikoa ote da? Ez ote dute beste bearrik? Askotan ez al dute egiten, gauzak emate ori, umeek pakea eman dezaieten? Gero ez al dira aita-amak beren erosotasun eta askatasunaren billa ibiltzen, aurrak gauza artean aseta utzirik?

Bai al dakite, ordea, gaurko gurasoek maitasuna ematen? Bai al dakite seme-alaben onerako sakrifikatzen, eta bete-betean aientzat bizitzen? Aske edo libre ibilli naiago dute zenbaitek beintzat, beren arazoetaz buru-belarri arduratuta, ez umeenetaz.

Aita-ama ziñez elkar-maiteak bear dituzte beti seme-alabek: maitasunean, elkartasunean, apaltasunean eta elkar-laguntzan eredu ta ixpillu diranak. Ikasten, pentsatzen eta lan egiten, elkar-izketan eta elkar-lanean irakatsiko dietenak etxeko txokoan.

Gauzak baiño areago, babesa ta bultzada, barkapenaren samurtasuna ta poza eman bear dizkiete gurasoek. Eta elkarrekin egindako otoitza ere bai noski, bai etxean eta bai elizan, Jainkoaren maitasuna ere biotzean suma dezaten oso txikitandik. Onelaxe bakarrik sartzan da maitasun-giroa biotz-ondoraiño ta antxe oiñarritzen da: bestela... aizeak eramaten die.

Nazaret'eko Familia txit santuak argitu ta babestu, elkartu ta maitasunez goza ditzala guraso ta seme-alabak euskal-senedietan.

Urte Berri  
Maria, Jainkoaren Ama

## Maria'k gogoan jaso ta ausnartu

*An aurkitu zituzten, Jose, Maria  
eta Aurra... Lk 2, 16-21*

Urte Berri dugu batetik, urtearen lenengo eguna, urte berri baten asiera, gertaera onek dituan berri-poz eta ametsez giro-tuta. Eta badu bere garrantzia 365 eguneko aldi bati asiera aalik ongien emateak. Lenengo ongi asi bear bai-dugu, gero ala jarraitzeko.

Egun ontan badirudi guztiok berriago, alaiago, gazteago, besteekin adiskideago ba'giña bezala ibiltzen gerala goizetik gauera. Bai, besteei "Urte Berri on!" esanez, guztiok elkarri zerbait ona opa ta eskeintzen diogula. Ordu batzuz bederen, ez al ditugu nolabait elkarren senideago bezala nabaitzen geure buruak?

Gutxixeago ala geixeeago, baiña sinismenik ez dutenen arte-ra ere zabaltzen da giro bitxi au. Kristauontzat ez al du, ordea, zerbait geiagorik eta sakonagorik bear? Bai noski. Eguberri zortzigarrena danez, Jesus jaio-berria dugu ospakizun guztien

ardatza. Eta egun ontan era berezian Maria'rekin: Jesus eta Maria, biak.

Jaio ta zortzigarren egunean, erdaintzuntza egin eta Jesus izena jarri zioten, "Jainko salbatzaille" esan nai duan izena. Orra or zein laixter asi zan lenengo odol-tantoak ixurtzen guztion Salbatzaille-Eroslea! Eta egun auetako gertaera ta itz zerutar arrigarri "guztiak gogoan jaso zituan Maria'k, bere biotzean ausnartuz". Orrela, Jesus'en Salbatzaille-lagun da Maria guretzat.

Kristauok, ordea, eta ain maitale gartsu izan gatzazkion euskaldunok ere bai, aaztuxea daukagu azken-aldi ontan zeruko Ama gurea. Garai batean legunkeria geiegiz, agian umeen erara, axaleko jaiera arifnez, itz-jario ugariz eta abestiz... agertzen genuala Ama Birjiña'ganako maitasuna? Oso sakona ta ongi ausnartua ez zala gure jaiera? Akatsak bazituanik, ezin ukatu, baiña zerbait benetan ona ere bazan eta obeak izaten ez zigun gutxi laguntzen.

Egokiera bikaiña dugu gaurkoa, sakonago ausnartuz, obeto ezagutu dezagun. Izan ere Jesus'ek zerbaitegatik nai izan zuan "emakumeagandik jaiotzea", Maria ama biurturik, arengan gizon egitea, eta ama baten bidez munduratzea. Ugari dira, noski, Jainkoaren arrazoiak eta asmoak; aipa ditzagun bi beintzat.

Gizaki guztiok, baiña emakumezkoek era berezian dituzte alderdi on edo doai batzuk: barrukoi, arrera oneko, arduratsu, biozti, bigun eta atsegin, bizi-emaille, jainko-zale... izatea, adibidez. Aberastasun bikain auek gu guztiok aintzat arditzagula nai du Jainkoak; eta gogoan izan dezagula, Bera dala guzti auen iturri.

Bestetik, Jainko aundia Maria'ren bidez etorri ba'zaigu, guretzat ere Maria Birjiña dala biderik egokiena, Jainkoagana bildur gabe urbildu gaitezen. Berritu dezagun Amaganako jaiera gartsua!

## Eguberri ondoko 2

### Beretarrek ez dute onartu

*Beretarrengana etorri zan, eta ez zuten onartu. Jn 1, 1-18*

Gizakiontzat zienez gauza aundia da itza. Izan ere gure adimena, gure barneko iritzi ta gogoak, itzaren bidez ateratzen ditugu besteen aurrera. Eta itzaren bidez egiten ditugu kidekoekin gure artu-emanak.

Orrela, gizakiok dugun aalmenik bikaiñearen bide adierazten du Joan Ebanjelariak Jainkoaren jakinduria, itzaren bidez alegia. Gauza guztiak ezagutzeko aalmena, eta ez diranak izatera ekartzeko aal guztia duan Jakinduriari, Itza esaten dio: mundutarroi agertu zaigun Itza.

Guztiak ezagutzen dituan eta guztia dazakean Itza, ez da urrutikoa, eta ez da zearo izkutuan gordea; gure artean, gizakion maillan eta neurrietan azaldu zaigu: "Itza aragi egin zan, eta gure artean jarri zuan bizilekua". Orra Jainko aundia, ezur eta mamizko gizon egiñik.

Auxe da ain zuzen, Eguberri-aldian bereziki gogoratzen eta ospatzen dugun gertaera arrigarria. Jakinduria ta aalmen zinez aundiak bear zitudan, “aragi eginda”, au da, gure izaeran gizon eginda agertzeko.

Igerleen bidez oso aspalditik adierazita zeukaten judutarren artean. Eta gogo biziz itxaro zuten Israel’go zintzoek. Argiro adierazi zuan Bataiatzailleak, “*zuen artean dago*” esanez. Baiña nola artu zuten?

Or dago giza-biotzaren misterioa. Samiñez aitortzen dute Joan Ebanjelariak eta Paulo Apostoluak, beren garaiko ta beren odoleko judutarren itsumena edo sinisgogorkeria: “*Beretarrangana etorri zan, eta beretarrek ez zuten onartu*”. Eta oraindik ere ez dute Jesus onartzen.

Aspergabe otoitz egin bear genioke Argi ta Salbatzaille dugun Jesus “judutarrari”, bere odolekoak argitu ditzan eta Bera ezagutzera eraman.

Baiña aldi berean guk ere zer azterturik ba-daukagu. Kristau gera, sinisten dugu eta aitortzen dugu Jesus, otoitz egiten diogu... Naikoa ote da?

Sakonki ta zorrotz aztertu bear ditugu gure barruak. Leku egiten al diogu gure iritzietan, gure biotzetan, gure oituretan, gure jokabideetan? baietz esango diogu itzez, onartzen dugula; baiña gure bizitzak ez ditugu Jesus’en antzeko biurtu. Nun dira gure egizaletasuna, maitasuna ta elkar-laguntza?

Orain kristauok gera “beretarrek”, eta... ez dugu bete-be-tean onartzen.

## Errege-eguna Jaunaren Agerkundera

### Sinistea ta ikustea

*Sortaldetik  
gatoz gurtzera Mt. 2, 1-12*

Bukatu zaizkigu Eguberri-aldiko jai zerutar zoragarriak: gaur da azken-eguna, izarra ta “Erregeak”, urre-intzentsu-mirrak, opariak eta abesti bereziak naasian dirala. Urtebetera arte, agur!

Etxeetako senditar-elkartzeak, otordu goxoak, erosketa garestiak, jostailu ta erregali bitxiak, abesti alai ta sarkorrek, bat eta bi baiño geiagoren gau-pasa zaratatsuak... eta besterik, zer?

Ori guztia, besterik gabe, naikoa ote zan kristauarentzat? Artzaiek eta Sortaldeko aztiek, arrera apal gartsua egin eta sinismen aundiz gurtu zuten Aurtxo-Jainkoa; eta gogoan gelditu zitzairen betiko, aztarna sakona ezarriz, aldaketa aundia eragin bai-zien.

Kristauoi, berriz, urteroko ospakizun auetan betiko gertaera ber-berak gogoratzen ditugunez, dana ezaguna iruditzen zaigu. Eta orrela, ez diogu arreta berririk jartzen. Urte bakoitzean

guk gogo berria jartzen ez ba'dugu, ordea, zer aberastasun aterako diogu Aurtxo-Jainkoaren agerketari? Urte ta egun guztiak ere berdintsuak izaten dira, baiña guk urte, egun eta ordu bakoitza berri-berri bizi ta bete bear dugu bakoitzean: ez dago beste erarik.

Azter dezagun Sortaldeko aundizki aien jokabidea. Zeru-goietan nolerebaiteko izar edo agerpen bereziren bat ikustean eta barnean dei sarkorren bat nabaitzean, Norbait arrigarriaren billa atera ziran. Ikusi gabe sinistu zuten, bazala norbait jaio-berria, eta aurkitu arte ez zuten etsi zailtasun eta eragozpen askoren artean ere. Geiago oraindik: begiz ikusi, uste ez zuten bezalako aurtxo bat ikusi arren, berriz ere sinistu egin zuten, ikusten ez zuten Norbait sinistu ere. Bai jarraibide ederra eman zigutela!

Zeren atzetik ote gabilta? Zer ote da, guk jarraitzen diogun izarra? "Ondo pasatzea", "bapo bizitzea", jate-edatea, dirua ta aberastasunak, gozamen-jolasa... zeren billa gabilta? Orrela jokatuz, ez dugu aurkituko Jesus Jainko-gizona. Sinistu egin zuten lenengo; eta urrena, sinistu zutenaren billa saiatu ziran aspertzeke. Ala lortu zuten Jainko izkutua aurkitzea Jesus'engan.

Elizan ainbeste irakurgai ta itzaldi entzun dituztenez, ezerk ez ditu arritzen eta kezkarazten: dana badakitela iruditzen zaie kristatauei. Eta ondorioz, naikoa ta benetan sinisten dutelazko ustean, betiko epelkerian jarraitzen dute, geiago saiatu ta berritu bearrrik ikusi gabe. Bitartean, Kristo era berezian deika ari zaie bere Agerkunde egunean: Zatozte, argitu, berritu!

Aurtxo-Jainkoak argituta, pozez zorutzen eta berriturik, "beste bide batetik itzuli ziran". Baita bizieraz aldaturik ere, artu zuten argiaz guztiei argi egiteraiño. Eta kristauok ateratzen al dugu Kristo'gandik argirik, gure bizieraz guztiei argi egiteko?

## Era berriko biziera

*Jesus, Joan'engana etorri zan bataioa artzera. Mt 3, 13-17*

Oso atsegin izaten zaizkigu gauza berriak. Bai, gai ta alor askotan beintzat oso berri-zale gera. Baiña badira zenbait gauza, berritza gure esku dauzkagunak, eta berritzen ez ditugunak.

Esate baterako, gure bizitzak edo gure bizierak, berritu ditzakegu urte batetik bestera. Baiña ez ditugu berritzen. Naiago izaten dugu beti berdin jarraitu, artuta dauzkagun oiturak eta jokabideak aldatu gabe.

Orain asi dugun urte berria, egia esan, egokiera ederra genuke, gure pentsaera ta jokabideak berritzeko. Bestalde, Jesus'en Bataioa gogorazten digun egunak, bizieraz aldatzera ta berritzera dei egiten digu.

Gure buru-biotzetan erabilli ta ausnartu egin bear dugu Jesus'en Bataioa. An sartu zan Jesus Jordan ibaiko uretara, ez zintzo ta santuekin batean, pekatariekin batera baizik eta bera

ere pekatari ba'litz bezala. Gero Gurutzean "pekatu biurtuta" bizia eman zuana, pekatari artean dago.

Pekaturik ez zuana, besteen pekatuak garbitzen ari zan, urak gure zikiñak kentzen dituan antzera. Eta Aitaren aitopen zerutarrak argiturik eta Espirituak indarrez beteta, era berriko biziera egiten asi zan. Bere ama ta Nazaret'eko biziera utzirik, bizi-bide ta lan berriak artu zituan.

Bere ingurukoen mailla berean, ezer gabe atera zan mundura: ez aginte, ez apaiz-mailla, ez aberastasun eta ez talde indartsuen babesik ez zeraman.

Orrelaxe esku-utsik, baiña Espirituaz beteta asi zan Jainkoaren berri ematen eta Aitaren maitasunezko aurpegia erakusten. Bai bide berria!

Batetik Jainkoaganako begirunea, maitasuna ta poza gainezka zituan. Eta bestetik, pekatariei barkatzen, gaixo ta naigabetuak pozten, beartsuak maitatzen eta jasotzen, guztiei laguntzen eta on egiten asi zan. Bete-beteen besteentzat bizitzen asirik, ala jarraitu zuan bizia odoletan eman arte.

Jesus'en Bataio bera artuak gera gu ere, urez eta Espirituaz bataiatuak bai-gera. Orregatik, guk ere era berriko biziera eraman bear dugu: sinismen biziz eta otoitzez argitutako biziera. Eta gero, barkatuz, poz emanez, gaixo ta naigabetuak alaituz, beartsuei lagunduz eta guztiei on egiñez, beteko dugun biziera. Au bai litzakeala era berriko biziera ongarria, aberatsa!

## Jainkoari igeska

*Gizakia ez da ogiz bakarrik  
bizi. Mt 4, 1-11*

Estu ta larri bizi da gaurko gizakia, lanean eta jolasean beti presaka dabil. Atsedean artu nai duanean ere, urrutira joanez eta presaka, atsedean-aldia bukatuko zaion bildurrez. Nor dan bai al daki, bera nor dan bai al daki gizakiak gaur.

Trepeta edo tresna aundiak badira orain, atal eta kurpila ugariz ornuak, eta beren lanean asten diranean —elkarri ain loturik daudenez— kurpilla bakoitzak ez dauka gelditzerik. Kurpillatxo oietako baten antzera dabil gaurko gizakia gizartearen burrundak eraginda.

Egon-eziñez dabilhela, zertan ari danik ez daki; eta kurpillatxo bat egiñik dabillen gizakiak, bera sortu duana, bizi-erazten eta ibil-erazten duana, nor danik ere ez daki. Gaiñera, ez du ezagutu nai, eta pentsatu ere ez du nai. Bere gaiñetik eta bera baiño geiago danik, ez du iñor ikusi nai.

Eta gizaki askok, –lenengo gurasoek asieran bezala– Jainkoa aiña izan nai dute: txarraren eta onaren neurri ta mugak ezartzea ere beraiek egin nai dute. Naiaren irrikaz eta ustearen ustez, beraiek baiño aaltsuago ta jakintsuago dan Jainkorik, ez dala sinistra edo uste izatera irixten dira.

Orrela, berriz, egiazko Jainko aundia, aazturik eta baztertuta, ez dala uste izatera eldu oi dira. Jainkoaren begiratu sarkorrari, iges egin nai diote. Pentsatu gabe, aaztuta, ez dala esanez edo badala ukatuz, Jainkorik gabe lasai gertatuko dirala koan. Baiña zertarako igeska ibilli?

Bakardadera jo zuan Jesus'ek, Aitarekin elkar-izketa egitera. Guk ere bakoitzak geure barnean, bakardadea egin bearra daukagu, inguruko zarata, ixtillu ta presa guztietatik iges egin da. Egokiera bikaiña datorkigu Garizuma ontan, bakardadean pentsatzeko, maite gaituan Jainkoa aurkitzeko... Izan ere, *“Ogiz bakarrik ez da bizi gizakia, Jainkoagandik datorren itz guztitik baizik”*, Nazaretarrak gogorazi digenez.

Igeska ibiltzeak ez digu iñolako onik egingo. Billa ibiltzea da ziñez burutsuki jokatzeta. Billa dezagun, beraz, gure biotzeko bakardadean gure Aita aundi ta maitasunez betea. Ori esaten digu Jesus'ek: *“Jauna, zure Jaungoikoa gurtuko duzu, eta Berari bakarrik serbitzu egingo diozu”*.

## Gure begiz ikusia...

*Antz-aldatu egin zan: eguzkia  
bezain dizdizari zeukan  
aurpegia. Mt 17, 1-9*

Zer da gizakia? Zer eta nor ote gera? Egiaz eta benetan, zer gera gu? Itxura bat eta beste artzen ditugu gizakiok, au ta ori generala iruditzen zaigu. Uste asko ditugu. Baiña egiazko gure izaera, nolakoa ote da? Zer da gure izatearen muiña?

Ez dira galdera deusezak, garrantzi aundikoak baizik. Galdera sakon oien erantzun-billa idatzi dute Garizuma'ko “Gotzai-eskutitza” Euskalerra'ko Apezpikuek. Buru-biotzen bizigarri diran gogorapenak bildu dituzte, guztiok arretaz azter ditza-gun.

Beti ere bai, baiña batez ere aldi ontan, gizaki edo mundutarrok or gabiltza jo ta ke, gu geurok baiño goragoko ta aundiagoko iñor aitortu nai ezik. Onela, guztion gaiñeko norbaiten aunditasuna aitortzeak, gizon-emakumeon nortasuna ta nagusitasuna, gutxitu egiten dituala uste dute askok.

Mendi-gaillur goituetara igotzea, elburu txalogarrizat daukate gaur askok. Eta goietara igo aal izateko, goruntz begiratu bear dugu begiz, baiña baita gogoz, biotzez eta irrika guztiz ere. Bestela, beti beean geldituko giñake, bakoitza bere txoko itoan, beetasun itogarrian tinkatuta.

Beeko sakonetik lurraren gaiñean oiñez, baiña goruntz begira abiatzen dan mendigoizalea dirudi Jesus'ek. Izan ere, guztien gaiñeko bere Aita begien aurrean duala, bere Aita beste iñori menpetasunik gabe bizi zan. Beste ezeri ta iñori menpetasunik ez, baiña bere Aitari bai. Eta orregatik jokatu zuan beti libre, bere Aita izan ezik, beste iñoren loturarik gabe, askatasun osoan.

Arrazoi dute Apezpikuek itz auetan: Egiatzko bakarra Jainkotzat artzen eta gurtzen dutenak bakarrik dira gai, beste ezeren morrontzapean ez erortzeko. Au da askatasuna! Bestela, gauza askoren uztarpean geundeke, oarkabean ba'da ere.

Jesus mendi-gaillurrean antz-aldaturik eta zearo argitsu, izkutuko Jainkoaren agerpen ikusgarri, bai eder eta bikain, bai aundi ta zoragarri agertu zitzaiera Pedro'ri ta lagunei! Betiko gogoan artu zuten irudiaren zirrara sarkor galdu-eziña.

Onela mintzo da Pedro: "*Geuk entzun genuan mendi santuan... geure begiz ikusi genuan Aren aunditasuna...*" Oroitzapen bizi ta sakon arek eman zion indarra, gero Jesus'en aitopena neke ta oiñaze artean egiteko.

Guk ere sinismen-begiz ezagutzen ba'dugu Jesus, argitsu biurtuko dugu gure bizitza, eta on egitearen argiz poztuko ditugu lagun urkoak eta gizartea.

## Beti egarriz, zeren billa?

*Jainkoaren doaia zer dan ba' zeneki, zerorrek eskatuko zenioke. Jn 4, 5-42*

Egon-eziñez eta larri dabil gaurko-gizakia. Aurrerapen arrigarrien bitartez, politika-aldaketen bidez eta borrokaren indarrez, biziera obetzea ta zoriona eskuratzea uste zuan. Baiña usteak ustel gertatu zaizkio askotan, geiegitan.

Askatasuna ta berdintasuna lortu dituala uste izan duanean, or gertatu da gaurko gizakia lotura berrien menpean: diktadura berriak, lanik eza, gaitz eta gaixotasun berriak, ez al dira lotura itogarri geiegi, gizartea ziñez zoriontsu izateko?

Emakume samaritarra, askatasun eta atsegin-billa ibillia, bost senar izan ondoren, seigarrenarekin bizi zan; baiña iturriko uraren egarriaz gaiñera, gauza sakonagoen egarriz jarraitzen zuan emakumea dugu, beraren itz eta jokaeratik ageri danez.

Eta galdera bi oso sakonak egin zizkion Jesus'i; au da, kezka bi oso mamitsuak azaldu zizkion. Batetik, Jerusalem'go elizan ala Garizin mendi santuan, nun gurtu bear zuten Jainkoa?



Eta bestetik, “*badakit etortzekoa dala Mesias, Kristo, eta da-torkenean, Arek adieraziko digu guztia*”.

Oraingo gizon-emakumeak ere etengabeen billa dabiltzala, esaten digute Euskalerrri'ko Apezpikuek beren Eskutitzean: “segurantzi billa, eta beti babesik gabe; argira deitua ta zalantzaz kezkatua; bizitzeko jaioa ta iltzera beartua; gauza guztiei irten-bidea billatzen diena ta bere buruari irtenbiderik aurkitzeko gai ez dana; egi-billa dabillena, eta bere buruari etengabeen iruzur egiten diona; askatasunaren egarri, eta askatasunaz baliatzeko bildur dana; mundua menperatzeko gai, eta bere buruaren jabe izaten asmatu ezin duana; maitasunerako egiña, eta berekoikeriaz kaxkartua...”

Ez eta bai, argi ta illunez, on eta txarrez oreturiko norbait gera bakoitza, goiko ez-bai oiek adierazten digutenez. Norbait ulerteziña gera geuretzat: Kristo Jainko-gizonagan bakarrik gerta gaitezke ulergarri geure buruentzat eta besteentzat.

Pentsa dezagun eta geure barnea sakonki aztertu: Oarkabean ba'da ere, gizakiok ez ote gabiltza Jainkoaren billa? Ez ote da Jainkoa, gure galdera ta amets sakonei, erantzuna eman dezaiekean norbait bakarra? Beste nork ematen digu osoko erantzunik?

Jainkorik ez dala esan, esan genezake; ez ba'litz bezala, aaztuta utzi genezake Jainkoa; baiña ori egitean, ez al dugu gizakia, erantzunik gabeko galdera uts eta larria?

## Begiak argi, biotzak itsu

*Itsu ba' ziñate, ez zenukete pekatu-rik, baiña “ikusten dugu” diozute... Jn 9, 1-41*

Argitarako dira gure begiak: argitan ibiltzeko egiñak gera. Aldi ontan gau-zale ta illunpetako bihurturik baldin ba'dabil ere gaztedia beintzat, argia da gizakion giroa, argitarako bai-gera.

Gure adimena ere ez da illunpetarako. Argia bear du gure adimenak eta argia nai izaten du: dana ikusi, dana ulertu, dana argi ta garbi artu nai izaten dugu adimenaz edo buruaz. Baiña bitartean, zenbat gauza gertatzen zaizkigun illunak eta gure adimenaz argitu eziñekoak!

Era edo gisa bitakoak dira itsutasunak: begietakoa da bata, jaiotzatik naiz bestela, ez-bearrez begietako argia galdu duanarena; bestea, berriz, barruko itsutasuna, adimenekoa naiz biotzekoa da. Bietan zein ote da bildurgarriena? Biak txarrak, baiña barruko itsutasuna da kaltegarriena, askotan ere garrantzi aundirik ematen ez diogun arren.

Jaiotzatik itsu zan bat ikustean, au galdetu zioten Jesus'i: "Au itsu jaiotzeko, zeñek egin du pekatu, onek ala bere gurasoek?" Eta Maisu zerutarraren erantzuna: "Ez onek eta ez onen gurasoek". Izan ere, Jainkoa ez bai-da norbait zitala, pekatu-rik egin duana bereala zigortzeko. Ez du ori nai, alderantziz baizik.

Itsua-ren begiak argitzean, eskale gizagajo aren biotza ta barrua ere erabat argitu zituan Jesus'ek. "Sinisten dut, Jauna" esanik, aurrean auspeztu zitzaion Nazaraterrari. Eta pozik bezain kementsu egin zuan Jesus'en aldeko aitordpena farisaitar zorrotzen aurrean, aien zigorrez izutu gabe.

Farisaitar eta erlijio-gidari-ek, argi zeuzkaten begiak, baiña illun zeuden aien adimen, gogo ta biotzak. Erantzun zorrotza eman zien Jesus'ek: "Itsu ba'ziñate, ez zenukete pekatu-rik; baiña 'ikusten dugu' bai-diozute, irau- egiten du zuen pekatuak".

"Begi-bista ona, baiña elkar ikusi-eziña", aspalditik salatzen zuten euskaldunek eta orixe gertatzen da gaurko gizartean. Begiak argi, baiña gogo ta biotzak illun... Ikusteko gogo bizia da lenengo: geure buruak eta Jainkoa –ain misterio sakon diranak!– ezagutu nairik, benetako gogorik gabe ez bai-gindezke gauza aundirik egitera eldu.

Egoki mintzo dira Euskal-erri'ko Apezpikuak: "Gizakiok menpeko biurtzen gaituana, zerbait sakona da, pekatua alegia... Maitasun osoz, utsean, iraukortasunez eta bete-betean maitatzeko gai ez izatea da pekatua, gizakiok barne-muiñetan itsutzen gaituana... Jainkoa, maitasun salbatzaillea danez onartzeak aterako gaitu pekatutik, eta ondorioz itsutasun kaltegarritik".

## Il eta gero? Bizi!

*Piztuko da zure anaia. Jn 11, 1-45*

Jatorrizkoa dugu bizi-naia. Nork ez du bizi nai? Bizirik irauteko egarria, ez al daramagu or barne-barnean? Bizi, beti bizi nai genuke. Baiña aldi berean, guztiak iltzen dira: gure adiskideak eta maiteenak ere iltzen zaizkigu. Zu ta ni ere ilko gera; alperrik da ezetz esatea, alperrik da aaztu nai izatea.

Gure il-bearraren edo eriotzaren aurrean, zer jokaera artzen ote dugu? Bildurra ematen digu, noski, eriotza gogoratzeak; izutu egiten gaitu, il bear dugula pentsatzeak. Eta zer egiten dugu orduan? Ez pentsatu. Baiña naikoa ote da ez pentsatzea?

Eta eriotzaren aurrean, zerk ematen digu bildurra? Ziur aski, gure eskuarteko gauzak utzi bearrak izutzen gaitu geienik. Gauzak eta adiskideak galdu, gure gorputza il eta desegin... Bai, ori bai. Eta gero zer? Gero... gero gerokoak!

Bizirik gaude orain, baiña zergatik bizi gera? Nik ez dut ekarri nere burua bizitzara. Zuk ere ez zeurea. Nork ekarri gaitu? Eta zergatik irauten dut bizirik, bizia nik eskatu ez ba'dut?

Bizia utsean eta opari, nork emana dut? Erantzuna eskatzen duten galdera sakonak dira, oiñarrizko galderak.

Sakonago ta larriagoak dira beste galdera auek: Eriotza zer da? Gure gorputz-bizitzaren bukaera bai, baiña... gauza guztien azkena al da guretzat? Gure aurretik ildako guztiak ere zero deuseztu edo ezereztu al dira? Eriotzean desegingo ta deuseztuko ba'gera erabat, zertan ari gera on izaten eta on egiten? Zertarako da gure bizi-nai sakon ori? Bizi-naia bai, eta gero bizirik ez? Ez dira utsaren urrengo arazoak, sakonak eta larriak baizik, eta beraz, sakonki pentsatuz aztertzeak dira.

Erantzunik gabeko galderak dira, biziaren jaun eta jabeak argitzen ez ba'dizkigu. Bai argitu ere, zorionez! Lazaro piztu zuan Jesus'ek, askoz bikaiñagoa dan ekintza burutu zuan berbera piztu zanean. Ondorean pozik esaten dugu: Bizi da!

Jesus piztu zala sinisteak, guztiz aldatzen du gure jarrera. Jesus piztuak emandako itza dugu: *"Nigan sinisten duana, illik ere, biziko da... Nigan sinistuz bizi dana, ez da iñoiz ilko"*. Ez gera deuseztuko ta ezereztuko! Biziko gera!

Bizia maitatu bear dugu indar guztiz, oraingo bizia, gero-koaren asiera. Eriotzaren aurka ta biziaren alde jokatu bear dugu: ilketak, gudaldiak, gosez iltzeak, aur-galtzeak, zaar-ilketak, gizaki ta errialde aulak iltzeak... Ugari dira oraintxe, ta-malez.

Borroka egin dezagun kementsu ilketa guztien aurka ta biziaren alde. Gu ta besteak orain eta gero, bizi gaitzela, bizi!

## Gurutzean gure salbazioa

*Gurutzean jostera eraman zuten.  
Mt 27 30-61*

Igande oni giro berezia dagokio. Izan ere, "Erramu-eguna" ez bai-da erramu-adar eta bestelakoak artuta elizan ibiltzeko eguna bakarrik. Askoz sakonagoko zerbait ospatzen dugu kristauok: Jesus'en Gurutzeko eriotza alegia. Eta ori bada zerbait.

Jesus izeneko nazaretar ura Gurutzean il zutela, eta guri zer ajola? Ainbeste iltzen zituzten oiñaze latz izugarri aietan! Baiña Jesus ez zan beste edozein bat: Jainko gizon egin dugu, gizakion neke ta oiñazeak ez-ezik, baita gure gauzarik ikaragarriena dan eriotza ere Beregan artu zuana.

Gure mundu ontako okerrak, zuzengabekeriak, txarkeriak eta ilketak, guztiak bere gain artu zituan; gure errian ixurtzen duten giza-odola, ezartzen dituzten oiñaze-aldiak eta zapalke-tak, izkutuko oiñaze ta malkoak ere bere gain artu zituan, eta gurekin batera darama guztien oiñazea.

Jainkoaren izenean ari ziralakoan, gaizkilletzat epaituta eramán zuten Jesus Gurutzera, eriotz lotsagarri ta mingarria emateko. Eta bi gauza agertzen eta ikus-erazten ditu Gurutzeak: gizakion kaxkarkeria, gorrotoa, gaiztakeria, errugabeak deusezteko giza-ausardia, besteak iltzeko dugun gaitasun beltza, batetik.

Bestetik, berriz, Jainkoaren maitasun muga-gabea, gizakiak beren kaxkarkerian ezagutu ta errukiz artzen dituana. Bai: Jainkoak guri digun maitasun betea ta erro-errokoa aitortzen du, gure itxaropenari oiñarri sendoa emanez.

Pentsaera ta ideolojiak, aurrerapenak, gogorkeriak, indarrak eta aginteak ez dira gai, iñola ere ez, gizakioi salbazioa ekartzeko. Jainkoaren maitasunak bakarrik salba gaitzake, ain zuzen ere bere indar adiskidetzailleaz eta gizakion aldeko bere buru-eskeintzaz edo opariaz.

Jesus Gurutzean iltzen... Auxe dugu gure salbaziorako gertaerarik nagusiena, berealako Piztueraz elkartuta. Izan ere or agertzen zaigu gizakia bere bakardade ta lur-jotze osoan. Baiña aldi berean or ageri zaigu Jaungoikoa, baztertuen eta gurutz-iltzatuen Aita, guganako bere maitasun neurrigabeaz gaiñezka.

Jesus gurutz-iltzatuak ez gaitu gure ez-bear eta pekatuetatik kanpora aterako mundu-aldi ontan. Baizik-eta gure gaitz eta sufrimentuetan gaitu salbatzen, Berak gure eziñak artuz eta guri ber-piztearen itxaropena emanez. Eta munduko ibillaldian gure bide-lagun izateaz gaiñera, laguntzaillerik ziurrena dugu gure bizitzako gurutzea azkeneraiño eramán dezagun.

## Pazkoa Eguna Jesus'en Piztuera

### Piztuarengan sinistea

*Piztu egin bear zuan illen  
artetik. Jn 20, 1-9*

Gauza ta eragozpen asko menperatu ditu gaurko gizakiak: izadiaren indarrak eta gaitz askoren kalteak oinperatzera eldu geraorain. Baiña besteak beste, bada zerbait gu baiño askoz aaltsuagoa, menperatu ezin duguna; eta aldi berean berak gu menperatzen eta zukutzen gaituana: eriotza.

Eta eriotza menperatu ta zapaldu ote du iñork? Zorionez, BAI! Oiñaze ta atsekabe izugarrien artean gurutz-iltzatu izan zanak: bai, Jesus'ek garaitu du eriotza. Bein betiko zoriontsu piztu zan eta bizirik irauten du betiren betiko. Au da garaipena, au da zoriona, au da berri ona, au da egun berria!

Zer ote da, ordea, Jesus Piztuagan sinistea? Ez da esaldi soil bat, "Jesus piztu dala sinisten dut" esan eta kito egitea. Bizia ta eriotza, bizi-naia ta il bearra, etengabeko borrokan ari dira guregan. Zer nagusituko da? Jesus'engan bizia nagusitu zan bezala, guran ere bizia gertatuko da garaille ta nagusi.

Gure itxaropenaren oiñarririk sendoena da Jesus'en Piztuera. Orain badakigu eriotzari aurrez-aurre begiratzen, ez bai-du berak azken-itza. Biziak du azken-itza, eta Bizia, ez oraingo au bakarrik: emengo bizitza baiño bikaiñagoa ta iraunkorra-goa da.

Ez al gaude oituta, Jesus'en Piztuera aotan erabiltzen, urtero ospatzen? Baiña ikutzen al ditu gure biotzak, dardaratzen al du gure barnea? Ez al gera otz-otz gelditzen?

Kristo Piztuarekin adiskidetasunean bizitzeak, zearo berritu zituan Apostoluen bizitzak. Era berriko gizaki alai, ausartak, gizaki kementsu ta ekintzaille biurtu ziran. Eta gu zergatik ez? Gure sinistea, axalekoa dalako, ez ote da? Ziñez eta benetan sinistu ba'geneza...

Baiña guztiak ez dira piztuko Jainkoaren betiko bizitzara, zoritxarrez. Jakiñean eta bete-betean, zuzentasuna ta maitasuna bere bizitzatik batzertzen dituanak, ez du betiko askatasun osoa lortuko.

*"Ni naiz Piztuera ta bizia: Nigan sinisten duana, illik ere biziko da"*. Egia au barru-barrutik eta indar guztiz sinistu bear dugu. Geiago oraïndik: Piztuta bizi dan Jesus'ekin gogoz eta biotzez elkartuta bizi bear dugu.

Kristo Piztuak ez digu uts egingo, guzti-guztien onerako piztu bai-zan. Guri dagokigu Arengana jotzea, judutar geienei gertatua nai ez ba'dugu guretzat, piztuta ikusi arren, ez bai-zuten sinistu ta ez onartu. Gure benetako sinistu-naia agertu bear diogu, eta berari argia eskatu: "Sinistu dezadala sakonki, Jau-na! Sinistu zaitzadala nere aalmen guztiz!"

## Ikusi gabe sinistea

*Zorionekoak, ikusi gabe sinisten dutenak. Jn 20, 19-31*

Biotzez eta benetan sinisteko bidean, lagun ona dugu Tomas, arako Apostolu sinisgogor ura: iltze-zuloak eskuetan eta saietsean ezpata-zuloa bere begiz ikusi ta eskuz ikutu ezik, ez bai-zuan sinistu nai. Ezin zuan sinistu, benetan ezin.

Aren sinisgogorkeria ederki ulertu zuan Jesus'ek, gurea ere ezagaturik daukan bezala. Baiña bai egoki sinistu-erazi ziola Maisuak, guri ere pozik sinisteko bideak egiñez: *"Ikusi nauzulako sinistu al duzu?"*

Orixe da gure irrika ere: sinistuko baldin ba'dugu, dana ikusi egin nai dugula, dana geure eskuz ikutu nai. Baiña ori ez da sinistea. Aurtzarotik gogoan izango dugu, noski, Kristau-lkasbide edo "Dotriña"ko galde-erantzun ura: *"Zer da sinismena? Ikusi ez duguna, egitzat eukitzea, Jainkoak agertu digulako"*. Ori ere bai, baiña geiago da Jesus'en naia.

“Ikusi nauzulako” esan zion Tomas’i. Jesus piztuta, bizirik ikusi zutelako, bota zituzten bildurrak eta bete-betean jarraitu zioten bai Tomas’ek eta bai beste Apostolu ta ikasleek. Zenbait gauza egitzat eukitzea baiño leen eta pozikago, Jesus bera sinistu zuten, egi-egiaz bizirik betirako ta zoriontsu.

Ala esan zien Pedro’k: “*Jesukristo, ikusi ez duzutelarik ere, maite duzute; ikusi gabe, Beragan sinisten duzute, eta esan ezin-alako poz aundiz alaitzen zerate*”. Lenengo kristauak ez-ezik, millaka ta milloika kristauak sinistu dute gerora, beren bizitzak berritzeko indarra ateratzeraiño sinistu ere.

Gutxi ziran Jesus ikusita sinistu zutenak. Asko ziran, berriz, ikusita ere sinistu ez zutenak. Bitartean, “*Zorionekoak, ikusi gabe sinisten dutenak*”, Jesus’ek argi ta garbi aitortu digunez. Eta onelaxe, ikusi gabe, baiña aalmen guztiz jarraitu diotenak, kementsu aitortu dutenak, beren odola emateraiño leial iraun dutenak, milloika dira. Zu ta ni, zergatik ez?

Gaiztakeria ta pekatuaren indarrak, eta eriotzaren nagusitasuna, bere Piztueraz garaitu dituan Kristo, bizirik eta gure lagun aurkitu ta nabaitu bear dugu. Orduan bai zabaldu aal izango ditugula gure inguruan Jesukristo’rez poza ta pakea.

Argia eska dezaiozun, Bera obeki ezagutzeko ta gertuago aurkitzeko. Eta indarra lortu dezagun Beragandik, maitasun-egintzak ugaritzera eraman gaitzan gure sinismen bizi ta gartsuak. Apostolu ta lenengo kristauak bezala, gu ere sinismen sutuak eraman gaitzala elkarrekin Jainkoari otoitz egitera ta senidetasun estuan guztia elkarri ematera.

## Piztua, nola aurkitu?

*Ogia zatitzean ezagutu zuten.  
Lk 24, 13-35*

Gaurko kristauontzat ere gauza egokia da, oso egokia izan ere, Jesus’en ikasleen jokabideari begiratzea. Asko ikas genezake aiengandik, batez ere Pazkoa dala-ta.

Irakasle ta buruzagi zuten Jesus ura, il eta illobian sartu zuten ondorenean, lur jota gelditu ziran ikasleak, Kristo’rez adiskideak: gidari ta babes, eta maisu zutena galduta, umezurtzen antzera gelditu ziran kezkatu ta goibel.

Nola dabilta orain kristau asko? Jainkoa ta sakramentuak, Jainkoaren Itza ta sinismena, Jesus’en eriotza ta Piztuera, eta beste gauza asko dauzkate bein eta berriz entzunak. Baiña oietatik ateratzen al dute argirik eta pozik, kristautasunean leialki jokatzeko? Bakoitzak bere eginkizunak betetzeko ta senidetasun-giroa zabaltzeko, gogorik bai al daukate?

Eta zer egin, Jesus piztua aurkitzeko ta Arengandik indarberritua artzeko? Gauza arrigarri ta mirarizkoen zai egotea, al-

perrik da. Meza, elizkizunak, otoitzak eta dana uztea, oso erraza da, baiña... iñolako argi ta pozbiderik emango al dio kristauari dana uzteak? Ez noski, ez diola emango.

Zer egin, beraz? Billa ibilli bear du kristauak, aspertu gabe billa. Eta bi gauzatan ibilli ere billa. Batetik, Kristo'ren bizitza ta erakutsiak ezagutzen saiatu bear dugu Ebanjelioko itzak irakurriz eta entzunez. Eta orduan, pozik nabaitzen ba'dugu; gure biotza sutan jartzeko edo berotzeko zerbait sentitzen ba'dugu, zuzen gabiltza: gurekin dugu Jesus piztua bizi-bizirik.

Goibel eta etsita zijoazen ikasle bi aiek, baiña gogoan zuten Jesus, eta Ari buruz ari ziran izketan; eta sutan bezala berotu zitzaizkien biotzak. Jainkoaren Itza ausnartzeak, argia, poza ta indar-berritua emango dizkigu guri ere; baiña etsi gabe, billa ta billa gogotsu saiatzen baldin ba'gera.

Bestetik, Emaus errixkara zijoazen ikasle bi aiek, nola ezagutu zuten Jesus? Ain zuzen ere "ogia zatitzean", au da Azken-afaria berritu zienean. "Orduan ireki zitzaizkien begiak, eta ezagutu zuten Jesus", egiaz piztuta berriz ere bizirik.

Iganderoko Mezatan egiten dugu guk ere "ogia zatitzea", Jesus bizi-bizirik gurekin dugula. Guk ere, gogo biziz, irrika aundiz, Jesus piztua aurkitu nairik eta billa joaten ba'gera, orduan aurkituko dugu gurekin Kristo piztua; eta orduan indar-berrituko gaitu, benetan kristauki joka dezagun, sinismenez argiturik eta itxaropenaz poztuta.

## Buruzagirik trebeena

*Ni naiz atea. Nigandik sartzen dana, salbatuko da. Jn 10, 1-10*

Badira zenbait beti guztien aurretik nai dutenak, besteentzat aintzindari edo gidari izan nai dutenak. Onelakoentzat, berak dira argienak, eta besteak, gidari-bearreko galdu buru-gabeak dira. Zori txarrez, jendetza aundiak daramazkite gaur batzuek beren atzetik,itsu-itsuan eta lilluraturik eramanez.

Beste zenbait, berriz, –eta emen sartzen dira jenderik geienak– taldean ibiltzekoak dira: norbaiten atzetik, erantzukizunik artu gabe, artaldearen antzera ibiltzen oituak. Gidaria bear dute, baiña zein da guztiontzat bide-erakuslerik onena?

"Ardi galduak bezala zenbiltzaten..." esaten zien Pedro'k bere garaikoei. Artzairik gabeko ardi galduen gisara dabil gaur jendea, eta batez ere gazteak. Buruzagi ona ta zuzena bear dute, gazteek; ezagutzen dute bear ori, baiña... gidari trebe ta eredugarriarik ezin dute aurkitu... Nai ote du egiazko gidaria?

Bitartean, Jesus'ek esana egi-egia gertatzen da orain ere: *Leen etorri ziran guztiak, lapurrak ziran eta arrapatzaileak..., ostu, il eta ondatzera etorriak".*

Arretaz aztertzekoa da, gaztediari zer eskeintzen dioten gaur zenbait irakasle, idazle, zinegille, politikari ta agintarik: dirua, aberastasunak, gozamina, jolasa, edariak, drogak, aurgaltzea, indarkeria, borroka ta dana desegitea, gogoak emandako guztia egiteko "askatasuna" edo sasi-askatasun engaiñagarria...

Ez al da egia, gauza oiek eskeintzen dizkietela gazteei? Ez al da ziñez egia, begi ta belarrietatik sartzen dizkietela gauza oiek, eskeintza lilluragarri engaiñuzkoen sareetan lotzeraiño? Gero nola askatuko dituzte beren buruak sare oietatik?

Itxura ederreko eskeintzak, baiña gero uts gertatzen diranak. Pentsatzeko aalmena kentzen diete, beren buruak zaildu ta trebatzeko gaitasuna moteltzen, eta beren buruen jabe izatea eragozten diete. Lapurreta bizia da ori, ondamen makurra.

Benetako balio iraunkorra duanik ez diete ezer ematen. Jesus'ek bakarrik ematen die zerbait ona: "*Bizia ugari izan dezaten etorria naiz Ni*", itz ematen bai-digu argi ta garbi.

Jesus piztua bizi dala ta gurekin dugula bide-lagun, ziñez eta benetan sinisten ba'dugu, gure Artzai ta Buruzagitzat artuko dugu, beste iñor baiño ziurrago ta onuragarriagotzat artu ere.

Beragandik aterako dugu argia, biziera zuzentzeko ta biotzak berritzeko, gizonago ta emakumeago izateko... Bera dugu buruzagirik trebeena gaur ere mundu naastu ontan.

## Ni naiz bidea, egia ta bizia

*Jauna, ez dakigu nora zoazen, eta nola jakin bidea? Jn 14, 1-12*

"Aitaren etxea" dugu elburu nagusia, azkeneko jomuga. Orren billa goaz, oarkabeen ba'da ere. Eta ziur egon bear dugu, azken ori baiño aruntzago edo urrutirago, ez daitekeala iñor joan bere aalmenez eta indarrez beintzat. Aitaren etxea...

Eta an "*bizitoki asko dira*", esan digu Jainko-Semeak. Ez noski, lekurik edo tokirik dagoalako an; ezta guk bear dugulako ere. Emen bear dugun lekua bezala, egoteko tokirik ez dugu bear izango. Baiña Aitaren etxean, askorentzat ez-ezik guztientzat bada bear ainbat sarrera. Jesus piztuari esker eta Aren antzera, izaera berri bat izango dugu guzti-guztiok.

Nor da, ordea, Aita? Nor da Semea, Jesus? Ezagutzen al ditugu kristauok? Jesus'ek esan digunez, Bera ezagutzea ta Aita ezagutzea, gauza bera da. Zer egiten dugu Aita-Semeak ezagutzeko? Ezagutu ezik, edo gutxienez ere, ezagutzen benetan saiatu ezik, oso zaila da Aita-Semeengan sinistea.



Azkeneko elburu edo jomugara elduko ba'gera, bidea jakin bear dugu. Legorrean, basamortuan, mendietan, itsaso ta aide zabaletan, bearrezkoa zaigu bidea jakitea, zuzeneko bidea jakin ere, eta ez edozein bide galdu. Munduko arazo naastuen artean ere bearrezkoa zaigu zuzeneko bidea jakitea.

Eta ona emen Jesus'en itz garbi, zeatz eta ziurrak: "*Ni naiz bidea, egia ta bizia*". Munduko bide galdu ta naastuen artean, Jesus dugu BIDEA! Jesus'i jarraituz, Aren antzeko izanez, zuzeneko bidean goaz Aitagana. Eta bide oberik ez dago.

Bide ontan, berriz, Jesus da argi egiten digun EGIA. Jesus'ek azaldu digu ta Berak ikus-erazten digu Aitaren EGIA, seme-alabentzako maitasun betea. Berak ikus-erazten digu "gure egia" ere, gure izaera mugatua ta Aitaren dizdira: Aitaren Egiaren egiazko izpi generala, alegia. Ortatik gorako aunditasunik ez dugula, baiña egiazko jainko-izpi ori baiño gutxiagorik ere ez.

Azkenik, Jesus dugu gure bizia. Gero bai Aitarengan, baiña baita orain dagoaneko ere emen lurrean. Nolako bizia, ordea? Jateko, edateko, jolaserako, atsegiñerako, dirua irabazteko, besteen gaiñetik igotzeko, eta abar, bizi danaren bizia ote da?

Merezi al du bizitzea orrelako bizitzak? ez al da bereala uts biurtzen? Oso besterik da Jesus'ek eskeintzen digun bizia: beti berritzen ari dan bizia. Gerekoikeriari aurpegi emanez, besteei on egiteko bizitzea; gizonago ta emakumeago izanez bizitzea; gure buruen jabe izanez eta osotasunean bizitzea; poza zabalduz bizitzea...

Au da, beraz, Bizia izan dezagun, Egiak erakusten digun Bidea.

## Egiaren Espiritua

*Eskatuko diot Aitari, eta emango dizue beste Laguntzaille bat. Jn 14, 15-21*

Egia oso ederra da besteei eskatzeko, baiña zeñien zailla dan nork berak esateko ta bizitzeko! Badira zenbait, egia osozorik berena dutela uste dutenak. Urruti ateratzen duten al-dizkari baten izena, "La pura verdad" da, egia uts-utsa beraiek bakarrik ba'leukate bezala.

Aotan eta idazkietan asko erabiltzen du gaurko munduak "egia" itza, baiña zeñien izkutaturik, zapaldurik eta loturik dagoan egia! Bai adiskide gutxi dituala egiak! Nun da egia? Nork esaten du ta non ageri da? Egi-itxura guztiak ez dira, gero, egia!

Bitartean, gezurra dabil nagusi, arro ta zaratatsu, bai itzetan eta batez ere egiteetan. Orain bertan or ariko dira buruzagiak, politikariak eta taldeak, berena bakarrik ontzat ematen eta bestena txartzat jotzen ausarditsu, ori ausardia ba'litz bezala eta

ez koldarkeria. Or jarraituko dute beren gauza guztiak onak, besteenak zearo txar eta kaltegarri dirala oyukatzen...

Albiste-bideak ere ez daude ixilik: egunkari ta aldizkariak, irratiak eta ikustirradiak, egiak argi ta garbi zabaltzeko bide on ote dira? Obe litzake ta obe genuke, egiaren serbitzuan ari ba'lira! Bitartean, zenbat eratako indarrak ote dabilta or, berriak eta albisteak aukeratzen, geitzen eta gutxitzen, aldatzen eta engaiñu-bide lilluragarri biurtzen? Aztertuko ba'genitu...

Agintarien aldetik ere argi ta garbi azaltzen ote digute egia, dan bezala, aldaketarik gabe? Orrela jokutzen duten ziurtasunik ez daukagu: beeko ta goiko, guztiengan ez beintzat.

Egiarik gabe, egiaren argirik gabe, ez dezakegu ez pakerik eta ez adiskidetasunik izan gizartean. Egiaren orde, gezurra ta engaiñua nagusitzen zaizkigun giro ontan, aserrea ta gorrotoa ta borroka pizten dira, azkenean gizakiak eta erriak erretzera.

"Egia, berez da iraultzaillea" esaten zuten euskal-aldizkari batean. Eta alaxe da, baiña luzarora; gero, azkenean, nagusitzen da egiaren argia. Bitartean, egiaren billa ibilli bear dugu guztiok, egia eskatzen eta zabaltzen, egia esaten eta egiaren aitopengarbia egiten. Guztiontzat argi osasungarri izango ba'da, egiaren billa ere guztiok egin bear dugu lana.

"Eskatuko diot Nik Aitari, eta emango dizue beste laguntzaille bat, beti zuekin izan dadin: egiaren Espiritua". *Zeiñen bearezkoa zaigun, ongi ezagutzen zuen Jesus'ek. Orregatik bidali zien Apostoluei. Ezagun izan zuten gerora.*

Egiaren Espirituak babestu gaitzala gezurraren erasoetatik, egiaren argira elkartu gaitezen pakerako bidean.

### Zoazte... Ni zuekin.

*Ni zuekin nauzute egunero,  
munduaren azken-eguna  
arte. Mt, 28, 16-20*

Ez da txantxetako agindua, garrantzi aundikoa baizik, Jesus'ek bere ikasleei eman ziena: "Zoazte ta egin ikasleak errialde guztietan". Erri batean edo bestean bere iritzia zabaltzea, eta toki mugatu batean jarraitzaille ta ikasleak egitea ez da arrigarri: asko izan dira orrelakorik egin dutenak. Baiña eguzkipe zabaleko lurralde guztietan... Nork agindu lezake ri?

Agindu ori eman aurretik, beste itz auek esan zizkien: "Aginpide osoa eman zait zeru-lurretan". Orrela bakarrik ulerenezake agindu ain zabal eta sakona, gizaki guztiei eskeintzen bai-die bizieraz aldatzea Irakasle berriaren bidean.

Moises'ek Sinai mendian artu zituan amar Aginduak arlosatan idatzita, Jaungoikoagandik artu ere. Ona orain Jesus ere aginduak ematen, baiña ez arlosatan ezarrita, sinismenaren argira buru-biotzetan idatzita baizik. Ori adierazten du, noski,

“ikasle” izateak: bere gogoz artzen duala Jesus’i jarraitzea. Ain zuzen, buru-biotzak aldatu bear bai-ditu Aren ikasle izan nai duanak.

“*Ni zuekin nauzute egunero, munduaren azken-egunera arte*”. Esan zien, eta gaur guri gauza bera esaten digu. Garai artan aiekin, gaur gurekin eta gerokoan beste batzuekin, baiña beti bizirik. Izkutuan eta ixilik, baiña egiaz eta benetan beti gure ondoan, gu barruz argitzen eta bere indarez babesten.

Goibeltasunak, etsipenak, gaiztakeriak eta pekatuak gu zapaldu ez gaitzaten, nor lagun oberik Jesus baiño? Une guztietan gurekin daukagularik, gu gera sinismenaz Berarekin bat eginda jokatu bear dugunak.

Gezurak eta gorrotoak eta indarkeriak, ainbesteko indar zakarra duten aldi ontan ere, ziurtasun auxe ematen digu “gurekin” dagoanak: askoz aaltsuago ta baliotsuago dirala egia ta maitasuna. Geiago oraindik: guk menperatu ditzakegula pekatuzko indarrak, bizi danak eta zoriontsu piztu zanak lagunduta. Pekatu ta txar guztiak menpera ditzakegu Berarekin.

Jakinduriazko ta goi-arnasezko espiritua eman dezaigula Aitak Bera obeki ezagutzeko, eta Berak bidalitako Semea ere obeki ezagutu dezagun.

Eta Jesus gurekin dugun ezkerro, ez gindezke lotan egon: “*Zertan zaudete or, zerura begira?*” Jainkoak guztia eginda emango digulakoan, ez gindezke egon. “*Zoazte!*” agintzen digu, geure buruak Jesus’en ikasleago egin ditzagun eta Aren antzekoago egin ere. Eta aldi berean, besteei ere bide berean lagundu bear diegu.

## Barneko irakaslea

*Pakea zuekin... Artzazute Espiritu Santua. Jn 20, 19-23*

Irakasle edo maisu ugari dabilta zaratatsu ta itz-jarioka. Beraiek esatera, ia dana badakite; eta askotan beraiek bakarrik dakite guztia. Orrela sinistu-erazi nai digute beintzat. Asko dira gaiñera, tamalez, guzti-jakin oiei itsu-itsuan jarraitzen dietenak. Ain itxura ederrean mintzatzen dira!

Ez ote daude gaur gizaki ugari, zer bear duten ez dakitela? zer nai duten ere ez dakitela? Aspaldi artan Paulo Doneak esana gertatzen zaie noski: “*Beren gogoko maisuak billatzen ditzute, belarrien atsegingarri...*” egia dan ala ez begiratu gabe.

Irakasle nazaretarrak ez zuan orrelako losintxarik eta kunktuleriarik belarrientzat. Beraren irakaspennak zabaltzekoan, entzuleei atsegin ala gogor eta latz gertatzeari ez zion begiratu. Entzuleen ziñezko onari ta jasokuntza jatorrari begiratu zienez, egia irakatsi zien beti argi ta garbi.

Baiña ulertzen ez ziotenez, biderik egokiena jarri zien: “*Beste laguntzaille bat, Pozemaillea bidaliko dizuet... Egiaren Espiritua datorkenean, Berak zuzenduko zaituzte egia osoraiño*”. Belarri ta begientzat mintzatzera ez zetorkean noski, egia ta bizia bezain izkutua ta ikusteziña danez, buru-biotzetara zetorkean baizik barne-muiñik sakonenera.

Suaz eta espirituaz bataiatuak izan ziranean, orduan artu zuten Espiritu Santua, eta Aren doai ta emaitzez beteta gertatu ziran Apostoluak eta Ikasleak. Eta Espirituak gogorazten zizkien Jesus’ek esanak; eta Arek argi egiten zien barne-mauiñetan, obeki sinistu zezaten; sua ta indarra ere Berak ematen zizkien ekintza jatorretarako.

Buru-biotzetan eta gizakien barruenean era arrigarriz argi egin zien Apostoluei. Eta bai benetan argitu zituala! Kristauoi ere gaur argi egiten digun Espiritua, orixe dugu barneko irakasle ta gidari zerutar arrigarria. Entzun eta jarrai ba’genezaio...

Pekatuak ekarri zuan naasketa zatitzaillea adierazten digu Babel torrea egiten ari izan omen ziranean elkar ez-ulertzeak. Ona orain Espiritua gizakien buru-biotzak baarnetik argitzen eta maitasun berean batzen. Orra Espirituaren barne-lana.

Esan dezaigun Eliza’rekin batera: “Bete, argi doatsu, zintzoen biotzeko zirrikurik barnena... zure bidez ezagutu dezagula Aita, ezagutu dezagula Semea, eta bien Espiritu orrengan sinistu dezagula beti benetan”.

Apostoluak eta ainbeste milloika kristau barrutik argitu dituan Espirituak, gu ere argitu gaitzala ta egi osoraiño eramana.

## Gure Jainkoa

*Jainkoak bere Semea bidali du mundua salbatzera. Jn 3, 16-18*

Zer adierazten dute bi itz oiek? Gauza asko adieraz ditzakete. Esate baterako, bakoitzak badugula geure “jainko-txikia”. Au da, batzuek dirua, besteek agintea, urrengoek indarra, auek beren gorputza, aiek beren gozamina... daukatela beren jainkotzat arturik; eta arentzat bizi dirala.

Ez dute aitortu nai izango, eta ezetz esango dute, baiña ortxe dute beren nagusia; orrek lotzen ditu ta menpean artzen, askatu eziñeko eran.

Beste era batera ere uler genitzake goiko bi itz oiek. Au da, zuk eta nik, eta beste askok, bakoitzak gure erara ta neurrira ar genitzake. Guri osasuna, dirua, lasaitasuna ta babesa eman bear dizkigun norbait dala uste dezakegu. Larritasun eta arriskuetatik aterako gaituan norbait... Gure utsak beteko dituan norbait...

Ez al dugu ala uste izaten?

Baiña ori ez da Jainkoa. Izatekotan ere, “gure” zerbait izango da, guk asmatua edo guk nai genukeana. Egiazko Jainkoa, ordea, oso besterik da: gure neurritz gorako norbait guztiz bikaiña.

Egiazki nor den jakiteko, Jesus’i begiratu bear diogu, Arek ekarri bai-digu Jainkoaren berri. Ez digu esan, ordea, Jainkoa bere baitan zein den aundi, aalitsu ta bikain danik; alperrik irakastea zitekean, gure buru txiki auetan ez bai-genezakean ez artu ta ez ulertu, era guztietara aundiegia bai-da.

Beste zerbait biziagoa ta argitsuagoa esan digu, zerbait guretzakoa esan digu. Jainkoa nor dan guretzat, orixe irakatsi digu Jesus’ek: *“Ain maite izan du Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman dio... Jaungoikoak ez du bere Semea, mundua galtzera bidali, mundua salbatzera baizik”*.

Aita, Semea ta Espiritu Santua dan Jaungoiko irukoitza edo irukoa, gu maite gaituan norbait da: gure zoriona nai duana. Maite gaitu, baiña gu maitagarri geralako edo gu atsegin gatzazkiola, ez. Bera guztiz ona dalako baizik, eta orrela, onik dugun guztia, Berak emateraiño maite gaitu.

Irutasuna nola dan ulertu eziñik saiatzeak, ez gaitu argituko ta obetuko. Zein den maitasun aundia duan guretzat, eta zein den maitale sutsu agertu zaigun..., orixe da sinisten eta ezagutzen saiatu bearreko gauza. Ortatik aterako dugu obeak izateko poza.

Jesus, Jainko-Semearen antzera, seme-alaba leial eta jator izaten aalegindu bear dugu Irutasunaren aurrean: obeto ezagutu sinismenaz, eta maiteago dugun seme-alaba izan. Eta aldi berean, gure kidekoentzat senide on izaten ere leiatuz gartsuki.

## Pekatua kendu

*Jainkoaren Bildotsa: pekatua kentzen duana. Jn 1, 29-34*

Okerrak, gaizatakeriak, zapalketak, lapurretak, zuzengabe-keriak eta beste antzeko itzak erraz erabiltzen ditugu aotan. Batez ere, beste norbaiti egozteko edo leporatzeko baldin ba’da ere, erabiltzen ditugu itz oiek; baiña... “pekatua” itza ez dugu aipatu nai, ezta gogoratu ere.

Itz ori gorrotatzeak eta baztertzeak, ordea, ez dute pekatu-rik kentzen. Pekatua bizi-bizirik dago gure biotzetan –bakoitzaren biotzetan!– eta egitura ta erakundeen barruan, bai gizarte-ko, bai politikako ta bai ekonomia alorreko erakundeen barnean. Or dago ta guztiok artzen gaitu.

Lege ta agindu batzuk austeak bakarrik ez da pekatua, zerbait sakonagoa baizik. Jesus’en erakutsiak eta bizitza aztertu besterik ez daukagu. Auxe aurkituko dugu: Jainkoa ez onartzea edo aintzaz ez artzea da, gure Aitatzat ez eukitzea, eta ondorioz, aren seme-alabak ere ez onartzea.

Bakoitzak bere burua aunditzat artzea da pekatua; bere burua naiko aaltsutzat arturik, Jainkoari aurka egitea ta bere kidoko diran gizakiak baztertu ta lotzea, bera baiño gutxiago ba'lira bezala.

Gure Aita, gure etorkizuneko azken betea dan Jainkoari bizkar ematen edo muzin egiten diogunean, pekatari gera. Bestetik, gure senide ditugun gizakiei, gure indar-apurrez, jakitez, itzez eta gorputzez gaitz edo kalte egiten diegun neurrian ere pekatari gera.

Eta ori dana "*kentzen duan Jainkoaren Bildotsa*" da Jesus. Barkatu ta ostera adiskidetu bakarrik ez. Kendu egiten du pekatua, gurea ta guztiena, mundu osoko pekatua kentzen du. Garbitzeaz gaiñera, kendu egiten du.

Gure biotzetik, gizartetik, erakundeetatik eta mundutik okerrak eta gaiztakeriak, zuzengabekeriak, au da, pekatuak kentzeko bideak egiten ditu. Ona emen Jesus'en aalmen berezia, guztiontzat pozgarri dana.

Gugandik ere kendu nai ditu pekatu guztiak. Jesus'engan sinisten dugunoi, zerbait geiago eskeintzen eta eskatzen digu: Beragan sinisten dugunez gero, guk ere Jesus'ekin batera, pekatua kentzen egiñaal guztia egin dezagula indar guztiz. Au da, geure ta besteen pekatuak kentzen saia gaitezela, egitez eta bizitzaz.

Eta ez mingaiñez eta itzez bakarrik.

Uste dugun baiño geiago egin genezake Jesus'ekin batera, bai geuregan eta bai besteengan.

### Dei bizia: "Zatozte!"

*Zatozte Nerekin. Giza-arrantzale egingo zaituztet. Mt 4, 12-23*

Gutziz arrigarria da Jesus'en jokabidea, bai orduan eta bai orain. Zenbait aldiz izketaratu ziran, noski, Galilea'ko arrantzale aiek Jesus'ekin: bai Pedro ta Andres anaiak eta bai Santiago ta Joan anaiak. Baiña beren ogibide zan arrantzuan jarraitzen zuten.

Egun batez, alai ta jator, baiña sendo ta ziurtasunez, dei bizi au egin zien: "*Zatozte Nerekin!*" Zeiñen itzal aundikoa ta sarkorra izango zan dei ura! Sareak, txalupak eta gurasoak ere utzita, jarraitu egin zioten. Gero geiagok ere bai, azkeneraiño jarraitu ere iraupentsu ta zintzo.

Orain ere etengabea deika ari zaigu Jesus. Galilea'n bezala ez ba'da ere. Kristauoi dei egiten digu bereziki, gu ere "giza-arrantzale" izan gaitzen. Bai, guk ere Jesus'ekin batera, Aitaren berri ona zabal dezagula, eta Aita onaren seme-alaben senidetasuna egin dezagula gizartean.

Lasaitasun eta epelkeriak utzita, –Apostoluek beren gauzak utzi zituzten antzera– gogotsu ta ziñez jarraitu bear genioke. Baiña zer da “jarraitzea”? Jesus’ek maitatu zuan Aita bera maitatu guk ere, Aren antzera begiratu gizakiei, Arek bezala on egiñez maitatu beartsuenak... Orixe da jarraitzea.

Eta guk egin bear genieke dei beste askori, aiek ere “jarraitzaille” izan daitezen. Baiña... apaiz, eliz-gizon eta kristauok auzartzen al gera beste iñori dei egiten? Batez ere umetxoei ta gazteei egin bear genieke Jesus’en dei bera: “Zatozte!” Bai, zatozte gurekin... zatozte Jesus’ekin...

Igande au egokiera bikaiña da nexkato-mutikoei dei egiteko. Ain zuzen, “Aur misiolarien eguna” bai-da. Kristauen arteko aurrak, benetan misiolari izaten asteko eguna bai-dugu. Nola, ordea, umetxoak misiolari? Beren otoitzez lenengo: sinismenik ez duten umeen alde otoitz egiñez alegia; eta beren egiñaalak eskeiñiz urrena. Zein umetxok ez lezake egin orrenbeste?

Gizon-emakume guztien alde otoitz egin zuan Jesus’ek. Guk ere guztien alde egin dezakegu otoitza. Eta zer esanik ez, umetxo kristauak ere beren biotz garbiz egin dezaketela. Txiki diranean, beste ume errukarren alde otoitz egiten dutenek, on aundia egiten diete urrutikoei, eta beren buruei aundiena. Auek bai elduko dirala gero ziñezko jarraitzaille ta misiolari izatera.

Leialki errantzungo ba’genio Jesus’i... eta umeei “Zatozte!” esango ba’genie era sinisgarrian... Orra or egin-bear bikaiñak bi, bakoitzaren esku daudenak: kristau elduon esku, bereziki.

## Non dago zoriona?

*Onela erakusten zien Jesus’ek:  
Zorionekoak zuek... Mt 5, 1-12*

Zori txarreko izan nai duanik, ez da iñor. Zori ona nai dugu guziok, zoriontsu edo zorioneko izan nai dugu. Bai al da gauza oberik zoriona baiño? Zorion-egarriz bizitzea, ez al da bidezkoa gauza gizon-emakume guztiontzat?

Baiña aldi berean, zeñen gutxi diran, benetan zoriontsu diranak! Batez ere gazteak, presa bizian dabilta algaraz eta zartaz bazter danak betetzen.. Baiña gazte geienen aurpegietan zorionaren dizdirarik eta argirik ez da ageri: zorionak ematen duan baretasunik ez daukate.

Eta ona emen Jesus, zoriontasunak eskeintzen eta zorionbidea erakusten: “Zorionekoak... zoriontsuak... beartsuak, otzanak, pakegilleak, biotzez garbiak, zuzentasunagatik erasotuak...”

Bide goxo ta leguna dala dirudi, itzei begiratuta. Gauza gogorragoak ziran Amar Aginduak, zorrotz egindako amar debeku bai-dira. Jesus’ek erakusten digun zorion-bideak, biguna ta

beraxka dirudi, baiña ez da ala. Izan ere Amar Aginduak ongi betetzeaz gaiñera, aurrerako ta geiagotarako deia bai-da.

Zergatik ote dira ain gutxi, Jesus'en zorion-bidea artu dutenak? Ona ta bikaiña bai, baiña zaila dalako bide ori. Bi irrika nagusik daramate gaurko gizakia: Aginteak, indarrak eta indarkeriak batetik, eta gozamen eta atsegiñaren egarriak bestetik. Askotan biak elkartuta dabiltza, gaiñera.

Onelako giroan eta orrelako jendeentzat, zoritxarrekoak dira beartsuak eta auen lagunak, otzanak eta apalak, negar egiten dutenak, biotz garbiz eta zuzen jokatzen dutenak, errukitsuak eta pakegilleak. Auek guztiak, deusezak eta balio-gabeak omen dira, indardun arroentzat noski.

Zearo bestela erakutsi digu Jesus'ek, bere bizitzan egin zuan bezala: *“Zorionekoak, biotzez garbiak, errukitsuak, negar egiten dutenak, zuzentasunaren gose-egarri diranak, zuzengatik erasotuak...”* Sinisten ote diogu, baiña biotzez eta egitez sinisten ote? Sinisten diogula, agertzen ote da gure bizitzan?

Non dago zoriona? Ez dago gugandik kanpora, ez dago besteak indarrez zapaltzeko arrokerian, ez dago sabel betean, eta soin-azaleko atsegiñetan ere ez. Ortan billatzen dutenek, egi-egiaz itzegingo ba'lute, itxuraz kontrako atsekabe gordeak azalduko lituzkete: ziur egon baietz.

Nork bere biotzean aurkitu bear du zoriona. Bai, diruaren loturarik ezak eta apaltasunak, garbitasunak eta errukitzeak, pakegintzak eta barkatzeak ematen duten poza, biotz-barneko baretasuna, ongi egiñaren lasaitasun zoriontsua...

Or aurkitu zuan Jesus'ek zoriona, eta or aurkituko duguk ere: alperrik ibilliko gera ortatik kanporako billaketan.

## Lurraren gatza ta argia

*Zuek zerate lurraren gatza, eta munduaren argia. Mt 5, 13-16*

Gatza ez da gauza aundia, ez da garestia, baiña bearrezkoa da. Gure janari ta edariek, -aorako bizigarri ta atsegin izango ba'dira-, bearrezkoa dute gatza. Gatzik gabeko jakiak, geza ta motel gertatzen zaizkigu ao-sapaian.

Bestetik, gatzez ongi gazitutako arrain eta okelak, ez dira usteltzen. Ustelduko ez ba'dira, beraz, bearrezkoa dute gatza. Galilea aldean zebiltzan Apostolu ta gaiñerakoek ederki zekiten gatzaren bearra zer zan.

*“Zuek zerate lurraren gatza”* esan zien Jesus'ek eta orain guri gauza bera esaten digu. Apalki ta ixilik urtzen da gatza, zarata ta itxillu aundirik gabe, baiña barnetik gazitzen ditu janari, edari ta gauzak.

Gauza bera eskatzen digu kristauoi Jesus'ek: gatz bizigarria izan gaitzela elkarrentzat. Nekaturik eta aspertuta, gogorik gabe, etsipenean erorita, gezaturik dabillen jendearentzat, izan



gaitezela gatz zuzpergarria. Nola? Gure itxaropenetik datorki-  
gun poz eta alaitasunez.

Sinismenez argituta, otoitzez indarturik, maitasun-egintzaz  
gazituta, aldendu ditzagula gugandik eta besteengandik, arro-  
keriaren eta gerekoikeriaren ustel-kutsuak; au da, pekatuaren  
ustelkeria astindu ta uxa dezagula aalegin guztiz.

Makinen eta orduen, laneko ta jolaseko presaren loturapean  
itota dabilta gizon-emakumeak orain. Jende artean asko ibilli  
arren, bakoitza oso bakarti da gaurko giroan. Lagun-artearen  
eta elkartasunaren pozez gazitu bear dugu elkar; gizartea ere  
bai.

Baiña... kristauok non dugu alaitasuna, non ditugu poza ta  
zoriona? Zertarako balio dugu, kristauon eta ala ez diranen ar-  
tean? Gatzaren bizitasunik eramaten al dugu gizartera, oztuen  
eta sinismena galdu dutenen artera? Ez al gaude kristauok ere  
naikoa gezatuta? Jesus'ek gazitu bear gaitu, bestela...

*“Zuek zerate munduaren argia”*, esaten digu Jesus'ek  
gaurko kristauoi. Eztabaida ta zalantza, aserre ta gorroto, bo-  
rroka ta ilketak, gezur eta saldukeriak nagusi dabiltzan mundu  
naastu ontan, dana illun eta beltz dago; dana ez ba'da ere, as-  
ko bai.

Non da argia? *“Zuek zerate argia!”* Bai, zuk eta nik, *“go-  
seari gure ogitik ematean, beartsuari aterpea, billutsari jantzia  
ematean..., orduan zure argia, illunpean zabalduko da, eguer-  
dia bezala...”* Argi ta gatz ote gera kristauok, eta zenbateraiño  
ote gera gure buruentzat eta besteentzat?

## Legea bete ala osotu?

*Legea baztertzera ez-baiña, betetzera  
etorria naiz. Mt 5, 17-37*

Gizakiok askatasun-zale geranez, legeak ez zaizkigu atse-  
gin eta ez dugu legerik nai izaten. Geiago oraindik: zenbait  
gauza, legez debekaturik daudela jakitea naikoa da, andik edo  
emendik guk autsi nai izateko. Ukatzerik ez daukagun giza-  
grina bat da.

Orrelakoxeak gera. Eta legeak, loturatzat artzen ditugunez,  
kendu egin nai izaten ditugu; eta kentzerik ez daukagunean,  
austen, oinperatzen eta baztertzen saiatu oi gera. Gizarteko le-  
geentzat, orrelakoxe jarrera ta jokabidea erabiltzen ditugu. Eta  
giro au gogortu egin da giza-mailla ta alde askotan.

Eta Jainkoaren legeak, zer dira guretzat? Ez da galdera  
deuseza! Nola artzen ditugu Jainkoaren Aginduak eta nola ar-  
tu bear genituzke? Gure ametsak eta askatasun-egarriak lotzen  
eta estutzen dituzten lotura itogarritzat artzen ditugu askotan.  
Kristau ta ez-kristauei galdetu bear, beren iritzia. Zer esango?

Orrela itogarriztat artu ezkeru, eramane eziñeko zama astunak gertatuko zaizkigu: ez da arritzekoa. Baiña orrelakoak ote dira Jainkoaren asmoak? Zer erakusten digu Jesus'ek?

Gu gera, eta ez Jainkoa, legeak itogarriztat artzen ditugunak. Jainkoak gure askatasunerako laister-bidetzat jarri dizkigu, lege-bide oietan ibilliz, gure buruen jabe izan gaitezen askatasun jatorrean. Auxe ageri da Jesus'en bizitza osoan.

Bestalde, Legeak bere itzetan esaten zuana zeazki betetzea bakarrik ez zuan egin Jesus'ek. Moises'en garaitik zetozen aginduak, kendu ta baztertu gabe, bete egin zituan Nazaretarrak, eta osotu ta aberastu gaiñera. Nola?

Iñor ez iltzeaz gaiñera, itz mingarririk ez esan urkoari, eta alderantziz, laguntzen eta on egiten erakutsi digu. Jainkoari opariak eskeintzea baiño leenagokoa zaigula, esan digu Jesus'ek, elkarrekin pakeak egitea.

Ezkontza ez naasteaz gaiñera, gizezko ta emakumezkoek elkarri asmo txarrez begiratzeko orde, begirunez, leialtasunez eta maitasunez begira dezaigula bata besteari, guztiok elkarri.

Jainkoaren izena begirunez erabil dezagula, eta ziñik egin gabe, egia beti argi ta garbi esan dezagula, "*bai danean, bai, eta ez danean, ez*", besterik erantsi gabe.

Farisaitarren antzera, legeen azala ta itxura betetzeko orde, osotasunez artu bear ditugu Aginduak, eta esaten dutena, gogo onez eta pozik egin. Onelako leialtasunez gabiltzanean, orduan izango gera aundi zeruetako erreinuan.

## Indarra ta borroka, ala...

*Ez egin gogor, gaitz egin dizunari.  
Maitatu etsaiak. Mt 5, 38-48*

Borroka egin bear izaten du, gose dan abereak, bera ta beretarrentzat janaria lortuko ba'du. Borroka egin bear izan oi zuten asierako gizaki aiek ere, artean erdi-abere basati ziran garaietan, biziari eusteko.

Millaka urte daramazki gizakiak lurraren gaiñean, basatike-riak utzi ta gizabidea aurkitu nairik. Abereen antzera, borrokalaria itsu izateari uko egiñik, gizakiago ta gizakoiago izatearen billa, alegia. Eta billaketa ortan iñork bultza ba'dio goruntz gizakiari, Jesus izan da geienekoa.

Artutako kalteari berdiñean erantzutea, eta aal ba'da geia-  
goz ordaintzea, legetzat bete izan zuten antziñako garaietan; eta alaxe salatu zuan Jesus'ek: "*begiari begia, ortzari ortza*" ordain ematen ziotela, eta "*etsaiak gorrotatzen*" zituztela, oiturari jarraituz, baiña ori ez dala Jainkoaren gogoko bidea.

Zer esango ote liguke gaurko mundutarroi? Indarrez eta borrokaz nagusitu nai dute gizakiek, taldeek, erriek eta nazioek; eta era berean langilleek, sindikatuak, ikasleek, emakume-taldeek, politikariek eta partiduak, agintariek eta beekoek... Okerago dana oraindik: nagusitzea lortzeko, berriz, bestea borrokatu ta zapaltzea ez dan biderik ez dakite, gizarte ontan ageri danez.

Orrela jokatzeko joerarik beti izan du gizakiak, tamalez. Joera ta griña oiek neurritatu ta lotzerik ez dugu lortu kristauok. Eta bitartean, indar eta antolaketa berri bat sortu da, bere nagusitasun eta garaipenerako lege nagusizat auxe duana: gure jarraitzaile ez diranak, arerio ta etsai diranez guretzat, orrelakoak borrokatu, zapaldu ta desegitea.

Zenbat eratako talde ta jendek ez ote du orrela jokatu? Baiña ukatzerik ez dago, marxismo-komunismoak indar berezia eman diola, eta politika-lege biurtu duala, izkutuko jokaera ugaritan.

Pakerik eza, bildurra, egon-eziña, ondo-eza, gosea, elkar desegitea beste gauzarik ez dakar borrokazko jokabide orrek, ikusi nai duanak ikusi, bai gure inguruan eta bai urrutietan.

Izaera berriko mundu bat, giro berri bat sortzen digu Jesus'ek, guztiz berria: *“Ez egin gogor, kalte edo gaitz egin dizunai; zuk, on egiñez erantzun, gaizki egin dizunari... Maita itzazu zure etsaiak ere...”*

Au bai dala gauza berria, bide berria! Orrela egin ba'geneza...! Askoz zoriontsuago gindezke guztiok. *“Izan zaitzte ononak, zeruetako Aita on-ona dan bezala”*.

## Ez larritu biziaz

*Ez al zerate zuek, egaztiak baiño geiago? Mt 6, 24-34*

Lanik eza ugaritzen ari da, bizitza gero-ta garestiago daukagu, irabaziak urritzen doaz, ikasketak goraka, jan eta jantzi bearrak igotzen, osasuna zaintzea ez dago merke... Eta beste gauza asko jarriko dituzu irakurle orrek, gaurko bizitzaren zailtasunak eta nekeak adierazteko.

Eta oraindik ere, guztiok lasai ta oparo bizi ba'giña bezala, *“ez larritu biziaz”* esatea, geiegizko eskaera burugabea irudituko zaizu bear ba'da. Bai, alakoxe giro estu ta larriak inguratzen gaitu izan ere. Gaiñera, daukagunarekin etsitzeko ordez, bearrrik gabeko bear asko erantsi dizkiegu gure buruei, ongi pentsatu ezkerro, ukatzerik ez daukagun egia, ageri danez.

Ori dana orrela dalazkoa ukatu gabe, Jesus'en garaian askoz beartsuago ta errukarriago ziran jendeak, Berari entzuten eta jarraitzen ziotenak beintzat. Eta beartsu aiei esan zien Jesus'ek: *“Ez zaitzte kezkatu biziaz... ez ibilli kezketan, onela*

esanez: 'zer jango dugu, zer edango dugu? eta zer jantziko?'  
Itz arrigarriak dirala? Geiegizko eskaerak dirala?

Orduan eta orain, biziari eustekotan, beti egin bear dugu lana; ori ez dago ukatzerik. Eta beti saiatu bear dugu aurrera egiten, gizadia jasotzen eta izadia edertzen. Zer esan nai digu, beraz, Jesus'ek? Neurri egokian arduratu gaitzela biziareta geure buruaz, eta ez geiegi, au da, larrizeraiaño ez beintzat.

Ardura ta kezka oiek ez gaitzateela estutu, ez gaitzateela larritu ta ito. Ez daitezela izan gure ardura nagusia. Izan ere, "zein da zuen artean, kezkaren kezkaz bere bizia pixka bat luza dezakeanik?"

Beste arrazoi bat sakonagoa ta pozgarriagoa eman digu Jesus'ek: "Zeruko zuen Aitak badaki, guzti oiek bear dituzutela". Seme-alaba jatorren sinismena ta uste osoa ba'geneuzka Aita onagan, lasai ta larritasunik gabe biziko giñake zailtasunen artean ere.

Eta zer egin? Egonean lasai egon bear al dugu, Jainkoak dana emango digulakoan? Ez, ez. Utikan utzikeriak eta alperkeriak! Garbiro esan digu Kristo Irakasleak zer egin: "Billa itzazute lenengo, Jainkoaren erreinua ta Aren zuzentasuna, eta beste gauza oiek geigarri emango dizkitzue".

Saiatu ta billa ibilli... Egiazen billa, Jainkoaren naia ezagutzearen billa, pakearen billa, zuzentasunaren billa, beartsu ta errukarrien onaren billa, okerrak zuzentzearen billa, besteei on egitearen billa... eta ez zera larrituko. Kezkatu zaitez lagun urkoaz, eta Jainkoa arduratuko da zutaz.

## Sendo ala kolokan?

*Arkaitz-gaiñean eraikitako etxea ez zan erori. Mt 7, 21-27*

Nolako oiñarriak, alako iraupena izango du etxeak, zalantzarik gabe edonork aixa ulertzen duanez. Eta etxegille bi jarri zizkien Jesus'ek begien aurrean ixpillutzat, bieci begira zerbait sakona irakasteko asmoz. Gaurko ere berdin balio du adibideak, arretaz ikasten saiatu nai ba'dugu.

Ondar mugikorren gaiñean jaso zuan batek bere etxea. Bai gauza erraza orrelako lana: oiñarriak jartzeko edo zimenduak ateratzeko, arkaitza puskatu bearrik ez eta ondarreran zuloak egiten nekerik ez... Baiña erraz eraiki baldin ba'zuan ere etxea, askoz errazago erori zitzaion lurrera: oiñarrietako ondarrak euriak eraman zizkionean, aixa bota zuan aizeak. Uraxe bai izan zala gizonaren ondarena! Lan guztiak alperrik!

Bigarrenak ere egin zuan bere etxea, baiña euri-jasada ta aize gutien erasoan artean ere zutik iraun zuan onen etxeak. Izan ere, etxegintzan ari zanean, lanari ta nekeari iges egin gabe, arri gogorra urratu ta puskatuz, arkaitz mugieziñari itsatsi bai-zizkion etxe-oiñarriak. Eta arkaitza ez da kolokatzen ondarra bezala. Ortxe dago iraupenaren eta ondamenaren aldea.

Zertara dator adibide au, ain ulert-erraza ta garbia? Auxe da Jesus'ek ateratzen duan ondorioa: *“Nere itz auek entzun, eta betetzen ez dituana, bere etxea ondar-gaiñean eraiki zuan gizon buru-gabearen antzekoa da. Egin zuan euria, etorri ziran ugoldeak, atera zuan aizea, jo zuten etxe ura, eta erori egin zan: aundia izan zan aren ondamera”*.

Gauza bera zeukan esanik Moises'en aoz: *“Bedeinkapena eskeintzen dizuet gaur, Jaunaren, zuen Jaungoikoaren aginduak aditzen ba' dituzute; eta madarikapena eskeintzen dizuet gaur, Jaungoikoaren aginduak aditzen ez ba' dituzute, eta gaur agintzen dizuedan bidetik saiesten baldin ba' zerate”*.

Egokiera ona genuke orain gure sinistea ta kristautasuna sakonki aztertzeke. Nolakoa ote da egiñik daukagun etxea? Nola eratua ta oiñarrtua ote dago gure kristau-izaera? Aldi ontan ez al dabil naikoa... kolokan, erori-ez-erori zalantzan?

Aurrekoengandik oitura onak artu genituan; etxean, errian, lagunartean eta elizkizunen inguruan guztiak berdin ikusten oitu giñan: elizkizunik beiñere utzi ez, egun-argitan etxeratu, eliz-gizonen aurrean begirunez mintzatu, Pazkoazkoa zintzo egin, neska ta mutil gazte askok illero aitortu ta Jauna artu...

Oitura oso onak ziran, ezin ukatu. Eta asko laguntzen ziguten, benetan balio zuten. Baiña orain nun ditugu? Zer gertatu zaigu? Biziera ta oiturak erabat aldatu diranean, kristau-oiturak ere aldatu egin dituzte askok, leengo jokabide jator aiek utziz. Eta inguruan besteek utzi dituztenean... ia “erori da gure etxea”.

Oiturak baiño oiñarri sendoagoa aurkitu bear dugu: Jesus'en itza entzun eta irakurri, eta argia, iraupena ta laguntza eskatuz, egunero otoitz egin biotz-biotzez. Jesus da arkaitza, itsatsi gakizkion gogo biziz.

## Meza zertarako?

*Opariak ez-baiña, errukia  
nai dut Nik. Mt 9, 9-13*

Ori da galdera!, esango dute zenbaitek. Ez da, ordea, galdera txarra, zuzeneko erantzun egokiaren billa benetan saiatzen ba'gera. Egia da, “Meza zertarako?” esanik, askok utzi dutela Igande ta jai-egunetan entzutea: gauza aundia egin dutelakoan batzuek, alperrrikako zama bat utzi dutelakoan lasai besteek...

Jo dezagun atzera: orain ogei urte, elizak betean etortzen ziran kristauak Mezatara. Jakiñekoa zan, bai, erri aundietan asko gelditzen zirala Igandeetan elizara joan gabe. Baiña erdi-maillako errietan eta txikietan, ia bat bakarrik gelditu gabe, guztiak ikusten genituan elizako aulkietan, silletan eta koruan.

Ortaz gaiñera, urtero astebeteko “Gogo-jardunak” ia-ia eliza guztietan. Au da, aste osoan egunero itzaldiak izaten ziran sinismenari, Sakramentuei ta kristau-bizitzari buruz, eta elizak bete egiten ziran zaarrez eta gaztez. Eta zer zan, berriz, Aste Santua, Gurutzbide ta elizbira jaierratsuz borobilduta?

Eta orain zer? Nun ditugu elizkizun jendetsu aiek? Orain gutxi gora-beera ogeiurte dirala asi ziran gazteak, ortxe ogei

urte ingurukoak ain juxtu ere, elizkizunei ta erlijio-gauzei muzin egiten; aurrena, irakasle ta ikasleak, beste gaietan ikasitako jendeak, alegia, eta urrena erri txikietako ta gaiñerakoak. Eta asi ba'ziran asi erlijio-betekizunak uzten, bai utzi ere! Bein utzitakoak, berriz, oso ere oso nekez artuko ditu elizbideak.

Aldaketa asko izan dira ortara eragin dutenak: ikasketak, lana, ibillerak, politika, aurrerapenak, jolaskerak... Eta guztien artean inguruko giroa aldatu dutenean, kristau asko leengo bizierako ta oituretako eldu-leku ta eusgarririk gabe gertatu dira. Aurreko Igandean aipatzen genuan arkaitz sendoaren gaiñean eraikita ez bai-zeuzkaten beren sinistea ta kristautasuna.

Aurtzaroan gurasoengandik eta eliz-bizitzatik oituraz, bizieraz eta urtez-urte artutako sinistea ta kristau-izakera zituzten geienek, eta besterik ez. Bakoitzak pentsatu al zituan gauzak bere buruz? Elizan entzunak ausnartu al zituan bakoitzak bere gauza bezala? Sinistea ta kristau izatea, bakoitzak bere ezur eta mami eginda al zeuzkan ber-berak egindako otoitzez eta erabakiz? Ain zuzen, auxe guztia falta zan: bakoitzakberetzat artzea.

Egia da, bestetik, kristaumentzat gauzarik garrantzizkoenak ez dirala elizkizunak, ezta Meza santua bera ere, besterik gabe beintzat. Ona emen Jesus'en itz sakonak: "*Opariak ez-baiña, errukia naidut Nik*". Au da, errukirik, maitasun-egintzarik, egite onik gabe, ez opari ta otoitz soillak, eta ez Meza utsak bakarrik ez dituala ontzat artzen. Baiña guzti auek uztea bakarrik ere ez.

Meza uztea ta nola-nai entzutea, ez dira naikoak, Jesus il eta piztuarekin benetan elkartzea lortzen ez dugulako. Lenengo kristauen antzera ulertuko ta biziko ba'genu Meza, pozik bilduko giñake sinismena elkarrekin aitortzera; eta orduan indar berezia aterako genuke maitasun-egintza ta egite onetarako.

## Garbitu, sendatu, piztu...

*Amabi Apostoluak bidali zituan  
Jesus'ek... Mt 9, 36—10, 8*

Begirunez eta maiteki "Nazaretarra" esaten dioguna, era berri ta bereziko Irakaslea genuan. Besteak, zenbat-eta ospetsuago, orduan-eta lasaiago egoten ziran beren egoitzatik irten gabe, berengana ikasleak etorri zai. Ala ziran noski, farisearrak e.a.

Alderantziz jokatu zuan Jesus'ek: "*auzorik auzo ta eririk erri zebillen, aien sinagogetan irakasten, erreinuko berri ona otsegiten eta gaitz eta min guztiak sendatzen!*" Zai egoteko orde, Bera irten oi zan alde ta bazter guztietara, eta ez uri aundi ta toki ezagunetara bakarrik; errixka ta auzoetara ere bai.

Eta Berak zeraman eginkizun bera eman zien Amabi lagun aukeratuei bereziki: "*Senda itzazute gaixoak, garbitu legenardunak, piztu illak, uxatu deabruak*". Itz batean, gorputzak eta barruak, biotzak eta buruak sendatzera, eta bizia ematera bidali zituan, Bera ere ortara etorria zanez.

Kristaumentzat, Kristo'ren jarraitzaille geranez, badago eskuak bete lan gure gizarte ontara osasuna ta bizia eramaten. Izan ere, alde batetik ikasketak, jakintzak eta aurrerapen arrigarriak

etengabean aurrera doaz; bestetik, berriz, gizakoitasunean eta gizabidean ez da aurrerapenik ageri: agian, atzerapena geiago.

Salerosle, politikari, agintari, irakasle, idazle, epaille, e.a. oso goiko maillan daude gizartean, baiña oietako askoren jokaerak ez daude oso goian gizatasunez eta gizabidean, makurkeria ta saldukerien bee-maillan baizik, eta ez gutxi ere.

Gero gidari ta buruzagi izango diran gazteen etorkizunaz arduraturik, asi dira zenbait tokitan ikasgai berezizat etika ta gizabidea ezartzen, jakitun bizkor eta teknikari trebe bai, baiña berekoi erdi-basatiak gerta ez daitezen. Zenbatez geiago ez genuke kezkatu bear kristauok, zuzentasuna ta bizi-poza eramaten!

Gorputzez osasuntsu diran asko daude gaur, barruz gaixo daudenak, buru-biotzak kutsaturik dauzkatenak, nolabait ere "ilda" daudenak; garai batekoak "deabruak artuak" bezala, burua bestek janda daukatenak... Eta guzti oiek, sendatzea, garbitzea, askatzea ta piztea emango dizkien norbaiten laguntza bear dute.

Egoera oietatik gaurko gizon-emakumeak ez ditu askatuko ta jasoko, ez aberastasunak, ez gauzen ugaritasunak, ez gozamen zurrunbilloak, ez aurrerapenak... Gauza bakarrak atera ditzake egoera oien atzaparretatik: maitasunak, maitatzeak bestek ez.

Egia esan, orain oso modan dauden gauzak ez dira, baiña auek dira ziñez osasungarri ta bizigarri: xalotasuna, neurribidea ta gartxu izatea, elkar onartzea, begirunea, barkatzea, adiskidetasuna, leial jokatzeta, itzari eustea, poz ematea...

Au da benetako maitasuna, eta maitatzeko gai baldin ba'gera, orixe eraman bear dugu gizartera elkarren artean zabaltzeko.

## Ez bildurtu!

*Ez izan gizakien bildurrik.  
Mt 10, 26-33*

Bildurra ez da lagun ona. Eta bildur geiegi daukagu gaurko gizakiok. Garai batean, Jainkoari omen zioten bildurra kristauek, Arek gogor artu ta zigor latza emango zielakoan. Eliza'ri ta apaizei ere bildur omen zieten, bildur aundia... Bildurrezko erlijioa bizi zutela, esan oi dute kristau askok.

Orrelako zerbait izan da gure artean ia oraintsu arte. Baiña bildur arek benetan estutzen eta larritzen zituanak, oso gutxi ziran. Biziera lasaia zeramaten alorrik geienetan, kezka ta presarik gabeko bizi-tza, askok eta askok beintzat. Zintzoenak eta barrurik estuenekoak bakarrik larritzen ziran, ez besteak.

Oso besterik da gaur. Zenbat dira orain Jainkoaren bildur diranak? Euskaldunon artean ere geienak Jainkoaz aaztuta bizi dira. Geienak ez ditu, beraz, asko kezkatuko ta larrituko Jainkoaren zorrotasunetik letorkean bildurrak. Eta lasaiago bai, baiña zoriontsuago ta bildurrik gabe bizi al dira?

Lanik ezari, gaitz eta gaixotasunei, lanean eta ikasten latz saiatu bearrari, zailtasun eta arriskuei, diruz juxtu samar bizitzeari ta beste gauza askori diete bildurra, edozeinek ere bai, baiña gazteek bereziki.

Gaztediari, kaleetako ixkanbilla ta apurketei, ugarituz doazen lapurreta ausartei, indarkeriari, edozein bazterretako tirokatze ta ilketei, ez al diegu bildurrik aski? Gizarteko erakunde ta agintaritzak, gizartea ta erriak pakean antolatu eziñik ikusteari ere, ez al diogu bildur? Era askotako bildurrak, beraz...

Eta bildur-giro ontan, erlijioa ta elizkizunak uztera jotzen dute askok, jan-edanean eta geiegikerietan ito nairik beren bildurrak. Beste zenbaitek, berriz, erlijioaren eta Eliza'ren itzala ta babesa nai dituzte, zuzeneko bidean egiñaalak egiteari ta benetan saiatzeari iges egiñez.

Ekintza ta lan onik egiten ez digu uzten bildurrak. Gure gizartean eta errietan zuzenbidea jartzen, elkartasuna egiten eta pakea oiñarritzen, ez dugu lanik egingo, bildurrez gabiltzan bitartean. Utikan, beraz, bildurrak!

Baiña bildurrik ez nai izatea bakarrik ez da naikoa. Zerbait baliotsuaren billa jokatzeko gogoia bear dugu, eta norbaitengan sinistu. *“Ez bildurtu... Ez da ezer ere betiko izkutuan geldituko... Txori bat ere ez da erortzen Aitaren baimenik gabe... Txori guztiak baiño geiago zerate zuek”*.

Uste osoa ta poza jar ditzagun ainbeste maite gaituan Aitagan, eta jo dezagun on egitera ta poza zabaltzera Aren babesean.

## Ematearen zoriona

*Bere bizia Nigatik galtzen duanak,  
beretzat aurkituko. Mt 10, 37-42*

“Diru asko ez du izaten batek, besteei asko emanda; dirua, norberak gordeta izaten da...” Onela mintzo oi ziran euskaldun nekazari beartsuak. Eta zer ikusten zuten orrela mintzatzeko? Beren diru-apurrak eta laguntzak elkarri emanez, diru-pillarik ez zutela egiten; emateko orde, guztia berentzat gordetzen zutenak, aiek aberasten zirala diru-pillaz. Bazekiten zer zioten.

Ikusten zutena salatzen zuten. Baiña ez zan inbiriak eragindako salaketa. Izan ere, aien dirutza inbirigarri ba'zitzaien, askoz gorrotagarriago bai-zitzaien aien zikoizkeria gogorra.

Diruzalekeriaz gaiñera ere, beste alor askotan dabil gaurko jende asko berekoikeriaren jostailu; baiña ori bai, itxura ederren azpian. Ain zuzen, eta besteak beste, or ditugu eskubide-borroka guztiak: diruarenak eta jabetasunarenak; langilleenak, irkasleenak, sendagillenenak, ikasleenak, emakumeenak, agintarienak, indarrarenak, errienak...



Zeren billa ta zeren alde dabilta borroka oietan? Besteei aurka eraso, eta aldi berean gauza asko berentzat lortu nairik dabilta: dirua, indarra, eskubideak, askatasuna, nagusitasuna, e.a. nai dituzte, baiña “berentzat”. Ez al da ala?

Eta lorpenak edo ondorenak, nolakoak dira? Aserrea, gorrotoa, elkar desegitea, besteei kentzea, besteak ondatzea... Eta jakiña, benetako pakerik ezin gizartean eta errian; egon-eziña ta larritasuna, baizik, alde guztietan.

Beste bide batzuk ireki dizkigu Jesus'ek, ain zuzen ere egiazko zorionerako bideak. Artzea ta gordetzea baiño askoz zoriontsuago dala ematea, esan digu Berak. Eman... ematea... gure gauzetatik. Gure denbora, gure poza, alaitasuna, gure itza, babesa, laguntza, adiskidetasuna ta geure burua ere besteen serbitzuan jartzea, besteen zorionerako ematea. Ori da zoriona!

*“Bere bizia beretzat gordetzen duanak, galdu egingo du; bere bizia Nigatik galtzen duanak –ematen duanak–, beretzat aurkituko du... Txiki auetako bati ontzi bat bete ur otz ematen dionak, ez du galduko bere saria”.*

Garbi dago, beraz, Jesus'en bidea: ematea da zorion-iturri, ematea da benetako aberastasuna, emateak dakarkigu poza, emateak aberasten gaitu barruz eta barnean. Ez da zorion aundiagorik, ematea baiño. Auxe da Jesus'en eskola. Eta Pedro ta Apostoluak ditugu lekuko edo testigu, asko kostata baiña ongi ikasi bai-zuten Nazaretarraren irakaspen berri ta berritzaillea.

## Xume ta apalen zoria

*Ikasi Nigandik: biotz-bera naiz eta apala. Mt 11, 25-30*

Aundi-nai ta aundizale, ez al gera gizon-emakume guztiok? Bai noski. Indar eta aalmenez, aberastasunez, jakinduriaz eta agintez, gauza guztietan aundi izan nai genuke; besteak baiño aundiago izatea da gure irrika. Nork ez du nabaitzen bere barneko izkutuean orrelako gogorik zerbaitetan beintzat?

Gidari, irakasle, agintari, errege, aberats eta aundizki diranak, gu baiño gerogo ikustean, inbiria sortzen zaigu. Orrelakoak iruditzen zaizkigu zoriontsuenak. Eta guk ere zoriontsu izan nai genuke era berean.

Leen eta orain, gizakiak beti aundi izan nai du: besteak baiño aundiago. Eta ori ez du nai izaten, ain juxtu ere, besteak goratzeko ta beekoak jasotzeko; alderantziz baizik, besteak beeratu ta bera goratzeko. Orrela, berriz, arro ta berekoi biurtzen dira gizaki aundi-zaleak.

Oso bestelakoak dira, ordea, Jainkoaren bideak eta asmoak. Zakarias igerlearen bidez, onela mintzatu zan antziñatik: *“Poztu zaitez, Jerusalem. Or datorkizu zure erregea, zintzo ta*

garaille, asto-gaiñean jarrira apal... Berak autsi ta ondatuko ditu guda-gurdiak, zaldiak eta guda-uztaiak, eta otsegingo du pakea atzerri guztientzat..." Orra aldez aurreko adierazpen garbia!

Jesus da, zalantzarik gabe esanda, garaille datorren errege ori, baiña zintzotasunez eta apaltasunez lortuko du bere garai-pena, eta ez indarrez eta aunditasunez. Orrela otsegingo du pakea, eta apaltasunez beterik egingo ditu pakerako bideak.

Eta nortzuk ziran Jesus onartu zutenak? Pilatos eta Herodes agintariak, apaizak, idazlariak, farisearrak eta saduzearrak... auek -Jerusalen'go gidari ta irakasle ziranak!- auek onartu al zuten Kristo'ren jokabidea? Ez! Eta auetxek artu zuten gutxi-  
nik.

"Bedeinkatua Zu, Aita, gauza auek, jakintsuei ta burutsuei gordeta, jende xumeari erakutsi bai-dizkiozu". Egia esateko, agertu ta erakutsi, guzti-guztiei erakutsi zizkien Jesus'ek, agerian eta iñorentzat mugarik gabe itzegiten bai-zuan. Arroek, ordea, entzungor egin zioten. Baiña orduan bakarrik? Eta gaur?

"Aragi-erara bizi ziran", eta gu ere aragi-erara gabiltza, arrokeria nagusitzen zaigunean. Neketsu ta zail gertatzen zaigu, arrokeria zapaltzea, xume ta apal izateko. Baiña guztiei serbitzu apal eta xumea egiten ba'diegu, ortan aurkituko dugu zoriona: besteak poztu ta zoriontsu egin dituguneko zoriona, alegia.

Orrela lortuko dugu Jainkoa ezagutzearen poza; eta gure nekeak Jesus'ek arinduko dizkigunean, bere adiskidetasunaren poz bizigarria ere gurekin izango dugu.

### Azi onari, lur ona

*Atera zan ereillea, eta azi ona  
erein zuan. Mt 13, 1-23*

Nekazari edo laborarien garaian, azi-ereillea ta lur ongi landua, eta abar, ederki ulertzen zituzten guztiek. Uri aundien eta makinen aldi ontan, berriz, gutxik ulertzen dute azi onaren eta lur onaren arteko lotura estua.

Frutu onik ez dezake eman azi txarrak; azi onak, berriz, lur ona bear du ereiteko, bere garaian ale onak ugari emango baldin ba'ditu, nekazari ta baserritarrek ongi dakitenez.

Ortatik atera zuan Jesus'ek bere irakaspén mamitsua, guztientzat oso aberasgarria: Ale ugari edo frutu onak oparo emateko aalmen indartsua bere barnean duan azi onaren antzekoa dala Jainkoaren itza. Eta Jesus beraren itza ere bai.

Onela adierazita dago Isaias igerlearen bidez: "*Nere aotik ateratako itza, ez da Nigana utsik itzuliko. Nik nai nuana egingo du, Nik agindutakoa beteko du*".

Oparo, aspergabe ta bazter guztietan erein zuan azia ereile batek, Jesus'ek esan zigunez. Orrela bai-da Jainkoaren itza, beñere agortuko ta bukatuko ez dana. Baiña frutu oso ez-berdiñak ekarri zituan: zein tokitan, alako ale edo frutuak.

Bidean eroritako aziak, txoriek jaten dituzten antzera, Jainkoaren itza ere askorengandik, ulertu ta biotzera sartu baiño leen kentzen du Gaiztoak. Aur askorengandik ala kentzen dute gaur, Lenengo Jaunartze ondorenean, sakon sustraitu baiño leen.

Beste batzuk erlijio erraza nai dute, gauza ederrak pozik artuz. Baiña nekea, zailtasunak, saiatu-bearrak eta erasoak datozenean, dana uzten dute. Iraupenik gabe, ezin gauza onik egin, eta ezin frutu onik eman, jakiña danez.

Azi jaio-berria, sasi ta arantzek itotzen duten antzera, gertatzen zaie beste batzuei: gogotsu asi ziran sinismen-giroan, baiña... illunpetako jolas eta gau-pasak, neska-mutillen arteko lasaikeriak, aundizkientzako inbiria ta diru-goseak, lagunarteak, politika-borrokak, eta abarrek, bereala itotzen diete sinismena.

Ale ugari emango baldin ba'du aziak, lur ona bear du. Era berean, arrera ona egin bear diogu Jainkoaren itzari, arrera ona sinismenari, gogotsu arturik eta arduratsu zainduz. Aspergabe eskatu bear dugu sinismena; eta iraupenez otoitz egin, argi ta indar-billa, lur ona izaten lagundu dezaigun Jaunak.

Orrela giroturik lortu aal izango dugu frutu onak oparo ematea: on egiñez, poza zabalduz, elkar zoriontsu egiñez, bateko irurogei, eta bateko eun eman arte.

## Txarra ta ona, elkarren ondoan

*Utzi biak batera azitzen  
uzta arte. Mt 13, 24-43*

Gure mundu ontan deus ere ez dan osoro ta guztiz txarra danik, eta ez da zearo ona dan gauzarik ere. Gure arteko gauzetan txarrenak ere badu zerbait onik, baiña onenak ere ba du zerbait txarrik. Gizakiok gure esku edo irixpidean dauzkagun gauzak, onez eta txarrez egiñak diranik ezin ukatu beraz.

Baiña aldi berean gizakiok, gu bestelakoak gerala uste dugu: batzuk zearo onak eta besteak guztiz txarrak dirala iruditzen zaigu. Geiago oraindik: gu ta gutarrak gerala onak, eta besteak dirala txarrak uste izaten dugu. eta uste orren arauera egiten ditugu banaketa-zatiketak. Zeazki aztertuko ba'genitu gure buruak eta gure jokabideak...

Orrelako epaiketak geiegitan egin izan ditugu kristauok ere; leenago asko beintzat, gutxi gora-beera onela bereiziz: gu kristauok gera onak, eta besteak -sinisgabeak, mahomatarrak,

judutarrak, e.a.– okerrak, gaiztoak, txarrak, kaltegarriak, asmo txarrekoak, biurriak, gaitzestekoak ziran...

Jesus'en Berri Ona obeto ezagutuz eta Eliz-Batzar Nagusiaz gerokoan, ordea, asi gera aldatzen kristauok: batetik, gure erru ta okerrak ezagutzen asi gera; bestetik, zerbait onik bestelako talde guztiengan aurkitzen ere ikasi dugu, eta okerrik ikusten dugunean, barkatzen ere ari gera ikasten. Geiago aldatu bearrik badago, baiña asi ditugu aldaketak poliki-poliki.

Orain, ezkerrekoak dira, agian, eta marxismoaren iturrietan edan dutenak bereiziki, beren taldeko ez diran guztiak etsaitzat arturik, jo ta desegin arteko borroka egiten dietenak. Baita euskaldunak eta euskaldunen artekoak ere.

Jesus'en jokabidea ez da orrelakoa: "*Garia ta iraka edo belar txarra, utzi biak batera azitzen, uzta-garaia etorri arte*". Uzta eldutakoan eta azken-egunean izango da bereizketa. Baiña orduan ere ez, guk egindako epaiketaz. Munduaren azkenean Jaunak egingo du epaiketa bere aingeruen bidez. Guztiontzat obe, gauzak orrela diran, bestela... auskalo zer zuzen-gabekeria egingo genituzkean.

Soroan landare ona ta txarra elkarren ondoan izaten diran antzera, gizakion artean ere elkarren ondoan bizi gera txarrak eta onak, okerrak eta zuzenak, gaiztoak eta zintzoak. Ortaz gaiñera, gutako bakoitzak ere ez dugu guztia ona, txarrik aski bai bai-dugu guregan eta gure egintzetan.

Eta auxe da kendu bear duguna: gudan daukagun txar guztia. Izan gaitzen, beraz, gu landare onak leendabizi, besteentzat onak izanez, eta orrela gutxituko da txarra ta geituko da ona gure gizartean eta gure munduan.

## Sinistearen poza

*Soroan gordetako altxorra aurkitzean, pozez joaten da. Mt 13, 44-52*

Nork ote du beregan sinistearen poza? Nortzuk ote dira, sinisten dutelako, pozik bizi diranak? Eta nortzuk ote dira benetan pozik sinisten dutenak? Asko ote dira? Nola ote dabilta alor edo gai ontan kristauak? Zer ageri zaie beren bizitzei?

Orain 1.600 urte dirala, –kezkatu ta egarriz billa ta billa ibilli ondoren– Jaungoikoa aurkitu zuan Agustin gazte argiak; au da, benetan sinistra eldu zan. Nork neurtu lezake Agustin aundiaren poza? "*Orain bai aurkitu dut atsedena... Jauna, Zuganako egin gaituzu, eta Zugar aurkitu dut atsedena*".

Billa ibilli gabe, kosta gabe, kristau-sinismenean aurkitu ditugu gure buruak eta gure bizitzak. Oartu geranerako, kristau giñan. Jaungoikoa, norbait ezaguna gertatu zaigu aurtzarotik, bere Lege ta guzti. Zer ondorio ateratzen dugu ortatik?

Nolako oroitzapenak daukate kristau askok? Ez al zaie iruditzen, beti begira ta beti gu neurtzen ari dan Norbait dala

Jainkoa? Ez al daukate Norbait zorrotz eta bildurgarritzat? Beti debekatzen eta eragozpenak jartzen ari dan Norbait dala, ez al dute uste? "Au ez egin... Ori txarra da... Ura debekaturik dago... Utzi ori... Kontuz!" esaten ari ba'litzaigu bezala.

Ez da arritzekoa, giro ori artuta, kristauak pozik eta alaitasunik gabe joatea elizkizunetara. Beste jarrera auek ere ez dira arritzekoak: Sinistea, zailla iruditzea; kristautasuna, lege ta debekuz beterik, oso itogarri gertatzea; eta Jainkoa askotan bildurgarri iruditzea.

Baiña Jesus'ek ez digu orrelakorik erakutsi. Oso bestela dira gauzak Berak dionez, guretzako zorionean: "*Ezkutaturiko altxor bat... Arri bitxi bat oso bikaiña aurkitu zuan... Pozez beterik joan, zituan gauza guztiak saldu ta... beretzat erosi zuan soroa, eskuratu zuan arri bitxi bikaiña*". Baiña zer da ori? "*Orrela da zeruetako erreinua*".

Norbait aundia, une guztietan gure onerako maitasunez zaintzen gaituana da Jainkoa; gure biziaren eta zorionaren iturria. Gu alaiago ta obeak izatea nai duan Aita guztiz ona da. Onelakotzat ezagutu bear dugu. Au da benetako sinismena, au da kristautasun jatorraren muiña.

Onela artu zuan Agustin'ek, eta arentzat ez zan altxor eta arri bitxi baliotsuagorik munduan. Guk ere onela sinistu bear dugu Jainkoagan, eta orduan alaiki ta pozik izango gera kristau bizitza osoan itolarririk eta bildurrik gabe.

Or dugu Santiago Apostolua, martiri zorionsua ere. Jesus ain ongi ezagutu zuanez, eta Jesus'en Berri Ona ain gauza aundizat artu zuanez, arentzat ez zan altxor aberatsagorik eta ez zan arri bitxi bikaiñagorik munduan.

## Zatozte! Jan guztiok!

*Zatitu zituan ogiak eta ikasleei eman zizkien. Mt 14, 13-21*

Munduan izugarria da gosea. Emen, berriz, gosea zer danik ez dakigu geienok; gure artean beintzat, 50 urtez beerakoek ez dakite zer dan benetako gosea. Euskalerrian eta inguruetan ez gaitu galduko goseak: gutxiegi jateak ez digu gaitzik egiten. Kalte ta gaitz egiten dizkiguna, geiegi jatea da, jan-edanean geiegi egitea. Gure gizartea aztertu besterik ez dago.

Lanik eta irabazirik ezaren larritasuna ukatu gabe, neurritz gorako jate-edateak dira gizentzen eta asetzen gaituztenak. Bai, aseta bizi gera, eguneroko ogiari ez diote eskerrik ematen gazteek: muzin egiten diote ogiari, eta zeinien erraz bazterrera botatzen duten ogi-zati ederrik!

Eta asetako gure gizarte au, ongi begiratu ta aztertu ezkerro, gose sakon eta astunak jota dago, zearo auldurik egon ere. Ain zuzen, gisa askotako utsuneak dira gizon-emakume ugari indargabetzen dituztenak, batez ere barneko aalmenetan.

Pentsatzeari iges egiten diote, bururik ez dute nekatu nai, egiaren billa ez dira saiaturen, zuzeneko iritzien oiñarririk ez dute billatzen, erabakiak artzeko ta zuzen jokatzeko bidean, ez daukate irizpide sendorik... Eta ondorioz, beren buruan gogoe-tarik eta pentsaketarik ez dute egiten, eta ezin dute.

Jate-edatez sobera aseta, baiña beren buru-biotzak utsik dauzkate. Zer azterketa, zer ausnarketa, zer elkar-izketa egin dezakete jende oiek beren buruekin? ezin dute, ez bai-dira gai ortarako. Barrua ain utsik daukatenez, beren barrura bakardadean begiratzeari bildur diote, gau beltzeko bakardadeari bezala.

Eta zer egiten dute? Aruntz-onuntza ibilli, taldean sartu, bulla ta zarata aundiak atera, jendetza aundiak bildu dantza-leku ta festetan, futbol-zelai ta ondartzetan... Baiña orduan-eta utsago beren buruak, orduan-eta bakarrago gertatzen dira. Orrela, ezin dute ezeren amets aundirik eta pozik aurkitu.

Bestela jokatu zuten Jesus'en entzuleek: ogiaren bearrean gosetu arte, Maisuaren itzak eta irakaspenak entzuten jarraitu zuten irrika biziz. Eta Jesus'ek ere, buru-biotzak janaritu zizkien lenengo, Jainkoaren Erreinuko argitasun eta gogoetak emanaz. Gero eman zien aorako ta sabelerako janaria.

Atzo Euskalerrian Loiola'ko Inazio Donearen eguna zan: Jainkoagana jo zuanean aurkitu zituan barneko argia ta poza. "Zatozte Nigana! Nik aseko zaituztet..." maitasunez, barkapenez, laguntzaz, argiz... Deika ari zaigu Jesus guztion Aita maitatiarengana.

## Zergatik asi zalantzan?

*Ni naiz. Izan biotz! Ez izan bildurrik! Mt 14, 22-33*

Aurrena Elias igerlea, eta gero Pedro ta Paulo Doneak, eredu edo ixpillu oso ederrak ditugu gure sinismenarentzat. Aiek Jaungoikoa nola aurkitu zuten, eta aiek nola sinistu zuten ikusita, aien antzera saiatu bear dugu guk ere, benetan sinistu nai baldin ba'dugu beintzat.

Gauza aundi ta arrigarriak, begiz ikustea nai izaten dugu guk, ziurki ta sendo sinisteko. Baiña gauza aundi-arrigarriak ez dira bearrezkoak sinismena sendotzeko; eta gaiñera, gauza aundi-arrigarriek geienetan ez dute gure sinismena benetan indartzen. Or daukagu Elias igerlearen gertaera: Jaungoikoaren billa joan zan, Moises'i Jainkoak Legeak edo Amar Aginduak eman zizkioneko mendira, mendi santura, Horeb edo Sinai mendira. An gertatu zitzaizkion gauza arrigarriak.

Aize indartsu bildurgarria, mendiak urratuz eta arkaitzak puskatuz; ondoren lur-ikara izugarria, eta gero sua. Orra indar

aundiko gauzak, baiña aietan ez zegoan Jaungoikoa. Izan ere Jaungoikoa ez bai-da gauza izugarrien bidez bakarrik agertzen, ezta geienetan ere. Gauza ta gertaera soil eta apalen bidez adierazten du Jaungoikoak bere gogoia edo bere naia. Alaxe Elias'i ere, aize goxoaren pir-pirrean agertu zion bere naia, eta aize xamurraren pir-pirrean aurkitu zuan Jaungoikoa Elias igerleak. Eta orduan, "*atera zan ar-zulotik, zutik gelditu zan*" erne ta prest jarrita noski, Jainkoaren naia ezagutzeko ta jarraitzeko.

Bestetik, Pedro'ri ta Apostoluei itsasoan gertatua ere entzun dugu. Jesus zanik ez zitzairen iruditu; sorgin edo mamu edo auskalo zer zala uste zuten, an uraren gainean ikustean. Ziur jakin nai zuan Pedro'k, eta orregatik esan zion: "*Jauna, Zu baldin ba'zera, agindu ezaidazu ur-gainean Zugana joateko*". Eskaera ausarta zan, baiña ziur zegoan Pedro, Jesus baldin ba'zan, eta Jesus'ek agintzen ba'zion, aixa joango zala uraren gainean ibilliz.

"Zatoz!" esan zion Jesus'ek, eta Pedro ziurtasun osoz abiatu zan uraren gainean ibilliz joaten. Baiña bereala, olatuen artean bere burua ikusi zuanean, ikaratu egin zan, eta zalantzan asi: Jesus'en aalmena ta agindua aaztuta, olatuen ikaraz, larritu egin zan. Eta urpera joango ez ba'zan, berriz ere Jesus'i dei egin bear izan zion, biotz barne-barnetik ateratako deia: "*Jauna, salba nazazu!*" Eta Jesus'ek eskutik eldu zionean, orduan bai ziur eta lasai aurkitu zuala bere burua Pedro bildurriak, "sinismen gutxikoak".

Beste zerbait ere esan zion Jesus'ek Pedro'ri, guretzat ere balio duana, eta auxe zan: "*Sinismen gutxiko gizona, zergatik asi zera zalantzan?*"

Lurraren gainean, toki trinkoan ibiltzea erraza da. Baiña oso bestelako gauza da itsasoa: an ez dago oiñak jartzeko toki trinkorik, ez dago eldu-lekurik, eta urak gora ta beera ibiltzen dira gu ere alaxe erabilliz.

Eta berean, begiz ikusten ditugun gauzak, egizat eukitzea, erraza da. Begiz ikusten ditugun lagunak eta ontzat dauzkagunak, bat baiña dira; eta onelako lagunei aixa sinisten diegu; onelako lagunekin erraz fidatzen gera. Ori, izan ere, lurraren gainean lasai ibiltzea bezala bai-da.

Zaillagoa da, ordea, ikusten ez ditugun gauzak sinistea. Eta zaillagoa da, begiz ikusten ez dugun Jesus, benetan gure laguntzat artzea, eta Jesus'ekin bete-bete fidatzea. Eta au da sinismena, auxe da sinistea.

Gure inguruan gauza asko aldatu dira, leen ez bezalako gauza ta ateraldi ugari esaten ditu jendeak; leen ez bezalako jokaera lasaiak eta nabarmenak darabizki jende ez gutxik; asko dira, ez apaiz, ez Gotzai ta ez Aita Santuari begirunerik ez dietenak, eta kasorik egiten ez dietenak.

Asko dira, elizkizunak eta kristautasuna, eta dana utzita dabilzanak. Giro ontan, guk zer egin bear dugu? Zer sinistu bear dugu? Itsasoko urak batera ta bestera balantzan dabilzan antzeratsu, gure inguruan ere gauza asko ikusiko ditugu kolokan. Zer egin bear dugu? Ikaratu, bildurru ta dana utzi egin bear al dugu? Ona emen arazo astuna ta garrantzizkoa.

Pedro'k ez zuan ori egin. Biotzaren barne-barnetik, dei egin zion Jesus'i, benetako dei sarkorra: "*Jauna, salba nazazu!*" Ori ta beste eskaera auek edo antzekoak egin bear genizkioke guk ere askotan: "*Sinistu nai dut, Jauna, baiña Zuk argi egidazu... Ondo ezagutu zaitzadala, Jauna... Zu zaitut, Jesus,*

*nerre laguntzailerik onena: emaidazu zure indarra, emaidazu zure eskua...*

Gure usteak, gure indarrak, gure pentsaera ta arrazoiak, askotan kolokan dabilta; gure inguruko jendearen jokaerak ere beti balantzan dabilta. Gure ustea, gure segurantzia ta gure poza, ez ditugu, noski, kolokan dabiltzan gauza oietan jarri bear.

Jar ditzagun Jesus'engan, emen bai-daukagu Bera, beti gure ondoan eta beti laguntzeko prest: "Zalantza ta koloka guztien artean ere, Zugan sinistu nai dut, Jauna. Salba nazazu, Jauna!"

## Aundia da zure sinismena

*Gerta bekizu, nai duzun  
ori. Mt 15, 21-28*

Alde batetik, arrigarririk zer du, ama batek bere alaba ain gaizki eukita, egiñaalik aundienak egiteak? Egiñaal guztiz ez saiatzea, izango litzake arrigarriago.

Baiña beste aldetik, emakume aren jokabideak baditu gauza benetan arrigarriak; batez ere bere sinismena da arrigarria. Bai, Jesus'ek gorralpen bikaiña egiteraiño, onela esanez: "*Emakume, aundia da zure sinismena!*"

Sinismena ez dugu ikusten. Nola neurtu dezakegu sinismena? Besteren sinismena neurtzen, ez dugu asi bear: ori, Jainkoak neurtuko die. Guk geurea, bakoitzak bere sinismena neurtu ta aztertu bear dugu zorrotz.

Sinismen aundikoak dirala, esaten dugu, adibidez, Domingo Erkizia ta Loiola'ko Inazio Doneak, Aita Santua, sastaka il dituzten beizamar Gotzaia ta moja misiolaria. Eta ezin ukatu



ala diranik. Izan ere beren sinismen aundiak eraginda egin zituzten alako eliz-lan bikaiñak.

Jesus'ek berak erakutsi zigun, "*Jauna, Jauna, lagundu!*" esanez, itz ederrak esatea bakarrik ez dala naikoa. Landare onak ale onak ematen dituan antzera, sinismen bizi ta sakona duanak ere, egintza onak egin bear ditu beti, egintza onak aspertu gabe ta ugari.

Baiña orrelako egintza ta lan aundiak egiten ez dituzten askok ere badute sinismena, eta askotan oso aundia. Eta ontan eredu edo ixpillu ederra da guretzat, Ebanjelioan azaldu zai-gun emakumearen jokabidea. Ageri danez, aberastasunik eta jakinduriarik ez zuan; erriko emakume soil eta apal bat zan. Ori bai, bere alaba asko maite zuana; bere alabaren ez-bearrak eta zori-gaitzak zearo naigabetuta zeukana.

Andik edo emendik Jesus'en entzutea bazuan. Bera ez zan judutarra: Liburu Santuetatik eta Jerusalem'go elizatik egiatzko Jainkoaren berririk ez zuan artu. Eta ala ere, zeñen sinismen aundia! Jesus'i sinisteko, askoz arrazoi ta egokiera geiago zituzten judutarrek; eta bitartean, judutarrrik geienek ez zioten sinistu Jesus'i. Emakume apal arek, berriz, benetan sinistu zuan Jesus'engan. Ori da arrigarria!

Bestetik, Jesus'ek eragozpen asko jarri zizkion: judutar ez zala, esan zion, eta Bera judutarrentzat etorri zala lenengo; judutarren erlijioa ta Jainkoa'rekiko gauzak, mai-gaiñeko jana-riak bezala, etxekoentzat dirala, eta ez zakurrentzat...

Eta ala ere ez zuan etsi ama arek: sendo iraun zuan bere sinismenean, sendo iraun zuan bere otoitzean edo eskarian, itz auek adierazten duten bezala:

*"Egia diozu, Jauna. Baiña... txakur-kumeek ere jaten dituzte beren nagusien maitik eroritako ogi-apurrak"*.

Etxekoentzako janari onik, ez diete txakurrei ematen, noski; baiña apurrak eta kondarrak berenik bai, ematen dizkiete. Gauza bera eskatzen zion ama arek Jesus'i, onela esan izan ba'lio bezala: "Egia diozu, neri ez dagokit, eta ni ez naiz nor, eta nik ez dut meriturik zure laguntza artzeko. Ori ala da, Jauna. Baiña Zu ain ona zeran ezkerero, izan ezazu erruki nere alabarentzat, eta senda ezazu, arren".

Orrelako sinismen aundiz, eta orrelako uste osoz, eskatuko ba'genizkio Jaunari guk ere gure etxekoentzat, gure lagunentzat eta gure lagun ez diranentzat, orduan oparo emango lieke Jesus'ek bere laguntza. Juxtu-juxtu guk eskatua, eta guk nai dugun bezala ez ba'da ere, beste era bikaiñagoan, eta guretzat eta guztientzat era mesedegarrian emango liguke Jaunak. Orrelakoa al da gure otoitza? Orrelakoak ote dira gure eska-riak?

Baiña etsi gabe ta ain benetan eskatzeko, sinismen bizi ta sakona bear izan zuan. Eta sinismenak eragin zion alako mesede, au da, alabaren osasuna lortu arte, eske ta otoitzean jarraitzera.

Kristau-errian ere ez dira guztiak egintza arrigarriak egiteko gai. Baiña zenbat eta zenbat kristau apal, aitonak eta amonak, aitak eta amak, etxe askotako osaba-izebak; eta beste kristau asko dira, Jesus'engan duten sinismen bizi ta sakonetik argia ta indarra ateratzen dituztenak. Baiña zertarako? Ez-bearrak eta zailtasunak, etsi gabe eramateko; eguneroko lanean jarraitzeko; gaitzak eta miñak aserretu gabe eramateko bakarrik ez: baita Jainkoari eskeiñita, alaitasunez eramateko ere.

Gauza arrigarririk ez, baiña etxean pakea jartzen saiatzen diranak, eta edozeiñi laguntzeko beti prest bizi diranak; beren inguruan poza ta alaitasuna zabaltzen dituztenak. Onelakoak ote gera gu? Eta zergatik ez?

Eta ez dira, guraso ta jende elduak bakarrik, orrelako indarra ateratzen dutenak sinismenetik. Badira, eta gero-ta geiago, neska-mutil gazteak, Sendotza artzeko benetan berritu dutenak beren sinismena, eta gero, zintzo jarraitzen dutenak; geiago oraindik: beste gazteei bide berean laguntzen ari diranak, poza ta pake-giroa zabaltzen dituztenak.

Jesus berari eska dezaiozun, emakume arek bezain gogotsu, argitu dezaigula sinismena; ezagutu dezagula Jesus bera ta ezagutu bere itza. Sinismen aundiko biurtu gaitzala danok, ez-bearrak eta nekeak eramateko, indar izan dezagun; eta barkatzeko, on egiteko, besteak alaitzeko, eta kristau-sinismenaren poza zabaltzeko indarra, atera dezagula sinismenetik. Ala izan bedi.

## Jesus, nor da neretzat?

*Eta zuek, Ni nor naizela diozute? Mt 16, 13-20*

Ebanjelioetatik asi ta Epistoletan jarraituz, ez da beste iñor, ezta bat bakarrik ere, Jesus aiña aldiz izendaturik eta aipaturik. Beste iñor dala-ta ez da agertu ainbeste liburu, nor dan eta zer egin zuan esanez. Ez da beste izen bat, batzuek alde ta besteek aurka, geiagotan aotan artua ta idazkietan erabilliagoa danik.

Kristauok, berriz, auskalo zenbat bider entzun eta esan dugun Jesus izen ori. Eta aurtzarotik asita gauza asko entzun ere bai Berari buruz. Urteko Igande ta jai guztietan beintzat zer-bait entzuten dugu: egin eta esan zituan gauzaren batzuk Ebanjeliotik, eta gero, ortaz gaiñerakoak.

Ala ere kristauoi galdetuko ba'ligute, "zuretzat nor da Jesus?", zer erantzungo genuke? Non jaio, bizi ta il zan, eta egin zituan gauza nagusi batzuk eta bere Piztuera, ezagunak gertatuko litzaizkiguke noski, gain-gaiñetik beintzat.

Apostoluei bezala guri ere galdera sakonagoa egiten digu Berak: "Zuretzat nor nai Ni?" Zer esango genioke? Pedro'ren itzak entzun ondoren, orain aixa esango genuke guk ere: "Jesus, Zu, Mesias, Salbatzaillea, Jainkoaren Semea, Aita bezala Jainkoa..."

Alaxe da, baiña ori... Pedro'ren erantzuna da. Erantzun ori, Ebanjelioak eta Eliza'k esaten dutena da; zuk askotan entzundako aitorpena; egia da, ongi dago. Orixe dago Ebanjelioan.

Nik, ordea, nere barruan zer pentsatzen dut? Nor dala iruditzen zait? Zer balio du neretzat? Zer esaten dit nere eziñetan eta zailtasunetan? Zalantzan nabillenean, kezka beteta nagoan, nere asperraldietan, zer esaten dit Jesus, izen orrek? Nere ondo-ondoan nabaitzen dutan Norbait al da neretzat? Zer esaten diot? Zer eskatzen diot egunero? Zer esaten diot Jau-nartzean?

Uste izan duguna ez omen dala-ta, Jesus aaztu ta baztertuko ba'nu nere bizitzatik, zer nabaituko nuke? Zer aldatuko litzake nere barruan? Zer aldaketa nabarmenduko litzake nere bizitzan?

Eta nere bizitzak zer adierazten du? Nere izketak, lanak, lagunarteko ibillerak, jolasak, otoitzak, famili-bizitzak, nere bizierak, zer aitortzen dute? Jesus norbait aundia ta ona, nere adiskidea ta laguntzaillea oso gogoan daukadala, eta Aren antzera egiten ditudala gauza guztiak? Zintzo ibiltzeko ta on egiteko, argia ta poza Jesus'engandik ateratzen ditudala?

Ontatik urruti samar aurkituko ditugu geure buruak. Apaltasunez, baiña barru-barrutik esan dezaiogun, gugandik oso gertu daukagun lagunik onenari: "Jesus, argi egidazu, ezagutu zaitzadan. Ezagutu ta sinistu nai zaitut gogo-biotzez. Zuk nere sinismena bizkortu. Zatozkit lagun, zure antzeko izan nadin".

## Dana errazetik, ezer onik ez

*Nerekin etorri nai duanak,  
uko egin bezaio bere buruari.  
Mt 16, 21-27*

Guztia eroso ta gozo, arin eta legun, guztia erraza bakarrik nai izatera jarrita gaude gizon-emakumeok, eta gure gizartea ere bai. Nekea, zailtasunak eta gure buruei gogor egitea erabat utzirik, atsegintsu ta gozoro bizitzea beste ametsik ez dago.

Begiratu bestela, zer gertatzen dan, adibidez, ezkontzan: Senarraren naiz emaztearen akatsak agertzen diranean, lenengo ulertezinak eta zailtasunak sortzean, zer? Elkar ulertzen eta onartzen saiatzeko ordez, anka gora dana! Iñork ez du nekerik nai, iñork ez dio bere buruari gogor egin nai, ezta ezkonlagunaren onerako ta seme-alaben mesedetan ere.

Eta gizarteak eta Agintaritzak? Sustraietara jota, bien eta sendiaren jasokuntzarako gertuera ta irtenbide egokiak eskeintzeko ordez, errazena: ezkontza austeko bideak ireki ta kito. Ortan ote dago gizabidezko osotasun aberasgarria?

Bizitza osorako itza Jainkoari emanik zuten apaiz, lekaide ta lekaime, era guztietako apaizki ta erlijiosoak, zertan gelditu dira ainbeste? Aldaketa aundiak etorri ziranean eta zailtasun bereziak sortu, Gurutzearen laztasunari Jesus'ekin elkartuta iraupenez eusteko ordez, dana utzi erraz-bidean beera.

Seme-alabak azi ta ezitzeak, neke ta buruausteak dituala? Nai duten guztia egiten utzi lasai. Lotura ta zama gertatzen dirala aurrak? Ez ekarri, eta bidean datozenean, bizitzarako atea itxi jaió baiño leen. Jolasa ta gozamina bai, baiña maitasunaren sakrifiziorik ez: ez elkarrentzat eta ez umeentzat. Eta gizarteak... dana onartu ta bultza erraz-bidean beera.

Aitona-amona ta osaba-izeba zaarrak, ainbeste laguntza emanak, eta elbarri ta buruz atzeratuak, bereala etxetik kanpora.

Bizitzak irakatsita, antziñako euskaldunek ederki salatu zuten errazkeria: *“Dana errazetik, gauza onik ez dago”* esaten bai-zuten. Gauza bakarra dator ortatik: gerekoikeria, eta orrek azkenean, Jesus'ek esana dakar: *“Bere bizia gorde nai duanak, galdu egingo du; eta bere bizia Nigatik galtzen duanak, beretzat aurkituko du”*.

Nola lortu ditzakegu gure buruen jabe izatea edo askatasuna ta benetako zoriona? Mintza bekigu Nazaretarra: *“Uko egin bezaio bere buruari, ar beza bere gurutzea, eta jarrai bezait”*. Eta arira dator Paulo Donearen itza ere: *“Eskein itzazue zuen buruak, opari bizi, santu ta atsegingarri Jainkoarentzat. Ori da zuen egiazko gurtza edo erlijioa”*.

Errazkeriak utzirik, geure buruei uko eginda, besteengana irekitzen geranean; besteen onerako, geure buruak sakrifikatzen ditugunean, orduan goaz ongi ta zuzeneko bidean. Orrela aurkituko ditugu gure bizitzak benetan ongille ta zoriontsu.

## Irabazi duzu senidea

*Zure senideak utsegiten ba' dizu, zoaz eta bakarka... Mt 18, 15-20*

Elkartasuna ta batasuna, itz ederrak dira, baiña zuzeneko eran ulertzen ba'ditugu. Bi itz oiek asko erabiltzen ditu jendeak gaur, eta oiekin batean gaztelerazko beste itz bat ere bai, “solidaritatea”.

Oso erraza da itz ederrak erabiltzea. Baiña betetzen al dugu itz oiek adierazten dutena? Or dago koska. Eta jokabideetara begiratuta, auxe ageri da: besteei elkartasuna eskatzea da borrokarien eta taldetxo iraultzaileen lenengo lana, guztiak bereengana bildu-erazi nairik.

Bitartean beraiek zer elkartasun eskeintzen dute? Beartsuen, atzeratuen, gaixo ta elbarrien, eta era guztietako beztertuen jasokuntzarako, zer laguntza ta elkartasun jartzen dituzte? Besteak botatzeko, zapaltzeko ta desegiteko ekintza ta borrokan batuko dituan elkartasuna bakarrik nai dute; au da, beren batasuna. Beste guztia, utsa da oientzat...

Elkartasuna eskatu ta gero borroka zatitzaillea egiñez, ez dago benetako elkar-bizitza jatorrik. Eta ain zuzen ere, besteengana irekitzea, besteei serbitzu egiteko prest bizitzea ta besteekin elkar artzea, auek dira giza-bizitza aberasten duten elkartasun-ekintza egoki ta jatorrak.

Jainkoaren agindu guztien bilduma, ain juxtu ere ontan jartzen digu Paulo Doneak: *“Legea ontan biltze da: Maitatu lagun urkoa zeure burua bezala... Maitatzea da, beraz, Lege osoa betetzea”*.

Maitasunak dituan alderdirik bikaiñenak, besteekiko ardurara, besteenganako elkartasuna ta besteen onaren billa jokatzea dira. Ontara eragiten digu Jesus'ek: *“Zure senideak utsegiten ba' du, zoaz eta aitor-erazi ezaiozu bion artean. Entzuten ba' dizu, irabazi duzu zure senidea”*.

Lagun urkoak on egiten duanean, aitortzea ta poztea eskatzen du maitasunak. Era berean, senidea oker ari danean, oartu-eraztea ta zuzeneko bidera laguntzea da maitasuna. Ori esaten digu Irakasle zerutarrak. Baiña bai zaila gertatzen zaigula askotan!

Agerian salatzea ta atzetik marmar egitea, bai erraz asmatzen ditugula! Maitasunaren kaltean, ordea. Ez geure onagatik, eta bai senidearen onerako, begirunez eta apaltasunez mintzatu senideari... Senideok elkar irabazi bear dugu zuzenbiderako, zuk ni ta nik zu, elkartasuna egi biurtuz.

## Biotzez barkatzea

*Jauna, zenbat aldiz barkatu bear diot? Mt 18, 21-35*

Ez barkatzea, ordaiña ematea, gaizki egiñari gaizki egiñez erantzutea, eta antzeko jokaerak, oso errazak gertatzen zaizkigu. Inork irakatsi bearrik gabe asmatzen ditugu edozeiñek. Abereek ere badakite orrenbeste: norbaitek jotakoan, ozka ta naiz ostikoka asten dira. Baiña ez dakite zer ari diran.

Gizakiok askoz okerragoak gera, jakiñean eta naita ematen bai-dugu ordaiña; edo berdin dana, gaitzari gaitz aundiagoz emandako erantzuna. Eta arro-arro esaten dute talde batzuek, eliza-ormatan au idazteraiño: *“Herriak ez du barkatuko”*. Sinistu, ordea, ateraldi makur ori baiño gauza galtegarriago ta beltzagarrik ez dala gizartean.

Zentzu ona ta sena, beti izan ditu erriak emen eta edonun. Eta erriak badaki gauzak bereizten, eta bear danean barkatzen ere ba daki. Orregatik, ez barkatzera erriari eragiten dioten

oiek, ondamentian amiltzera daramate gure erria. Izan ere, ez barkatzeak, elkar desegiten jarraitzea bai-dakar.

Barkatzea ez da, noski, okerrak eta gaiztakeriak ez ikustea; gaitz egin digutenean, miñik ez artzea ere ez da. Gauza sakona ta bikaiña da barkatzea: ezagutu zuzengabekeria ta pekatua, baiña ordaiñik ez ematea, eta okerragoz ez erantzutea. Nik zuri ta zuk neri kalte egitearen soka itogarria, etetea da. Au bai dala guztientzat mesedegarria, eta auxe da benetako barkatzea.

Bai, benetan zailla ere bada, ordea. Zenbat aldiz egiten dugun, Ebanjelioko morroi biotz-gogorrarena: Nagusiaren barkapen zabala artu, eta berak bere kidekoari uskeria bat ezin barkatu... "Morroi gaiztoa!" esaten dio Jesus'ek.

Ainbeste aldiz eta ainbeste utsegite barkatu dizkigu Jaunak, eta bitartean guk ezin diogu elkarri gauzarik txikiena ere barkatu. Orregatik esango digu guri ere Jesus'ek: "*Zor guztia barkatu dizut, eskatu didazulako. Ez al zan bidezkoa, zu ere zure morroi-lagunaz errukitzea, Ni zutaz erruki naizen bezala?*"

Guk besteei barkatu ezik, ez digu barkatuko Jainkoak. Eta zenbat-eta geiago barkatzen dugun, orduan-eta gizakoiago gera. Ez barkatzeak, berriz, basatikeriara garamazki, eta elkar ondatzearen zurrumbillo galgarrira.

Guri guztiek guztia barkatzea nai dugun bezala, guk ere beste guztiei guztia barkatu bear diegu, Jesus'en bidea jarraituz; baiña ez itzez bakarrik, biotz osoz baizik.

"*Barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegun ezker...*" Ikas dezagula, Jauna, biotzez barkatzen!

## Jainkoa, guk uste ez bezalakoa

*Bekaitzi izan bear al duzu zuk, ni esku-zabal naizelako? Mt 20, 1-16*

Gure aalmen eta indarrak, oso mugatuak dira, guztiz estu ta laburrak. Eta ondorioz, gure uste ta asmoak, gure jokabide ta lanak ere estuak dirala, ezagutu bearrean gaude. Ez noski, gure buruak kaxkar irizteko ta kaxkartasunean goibel eta illun biurtzeko; egia, dan bezala, ezagutzeko baizik.

Bestalde, Jainkoa aipatzen dugunean, bai izketan, bai otoitzetan eta bai iritzietan, gure neurriko ta gure mugak dituana dala iruditzen zaigu. Eta Jainkoa gure neurriak eta iritzia ez bezalakoa da, zabalagoa, oparoagoa, bikaiñaagoa...

Esate baterako, lana ta saria ederki neurtzen ditugu gure gizarte ontan: ainbeste ordu lanean eta ainbesteko lana egiten duanak, ainbesteko saria... Jainkoaren aurrean ere orrela nai dute askok: "Nik ainbeste lan eta otoitz egin dut, ainbeste Meza entzun ditut, beraz... ainbesteko saria eman bear dit... Nik irabazia da... Zor dit Jainkoak..."

Baiña Jainkoak ez ditu gauzak orrela neurtzen. Izan ere, gure irabaziei ta merituei baiño askoz geiago begiratzen die gure bearrei, eta merezi dugun baiño oparoago laguntzen digu. Bastetik, gure neurriak baiño zabalago danak, bere ontasun aundiaren erara ematen digu.

Jesus'ek ederki irakasten digu parabola baten bidez. Goizetik illuntzera bitartean, bost alditan artu zituan langilleak nagusi batek; guzti-guztiei egun-saria agindu zien, eta aiek pozik joan ziran lanera. Egunaren bukaeran, azkenengoak lenengo zirala dei egin eta era berean eman zien lan-saria, bakoitzari agindu zionez: egun-saria edo eguneko bear zutena.

Zer da gauza berezi ta arrigarria emen? Goizetik illuntzera lana egin zutenei, agindutako egun-saria eman zien, bidezko zanez. Ordu gutxiz lan egin zutenei ere, berdin eman zien, bai bearra zutelako ta bai nagusia eskuzabala zalako. Goizekoek ez zioten onartu, besteei ere egun-sari berdiña ematea.

Itz auek jarri zituan Jesus'ek nagusiaren aotan: *“Ez dizut zuzengabekeriarik egin: agindua eman dizut... Bekaizti edo inbiridun izan bear al duzu zuk, ni esku-zabal naizelako?”*

Azken-orduko langilleei bezala, zenbat doai ta mesede aundi ematen ote dizkigu Jainkoak esku-zabalez, eta gu... oartzen ez?

Saia gaitezen otoitzean eta lanean, gure indar guztiz, baiña uste osoa Jainkoagan jarrita, guk merezi baiño oparoago sarituko gaitu-ta guztion Aitarik onenak.

## Itzak ala egintzak?

*Zergalariak eta emagalduek, zuek baiño leen datoz Jainkoaren erreinura. Mt 21, 28-32*

Betiko arazoa da: Itzak ala egintzak, zer dira bearrezkoenak, zer dira onenak, zer dira Aitaren gogokoak? Itz ederrak esatea, itzez eskeintza bikaiñak egitea, gauza oso errazak dira. Egintza onak bear ditugu, ordea, Ebanjelioari zintzo jarraitzekotan.

Zorrozkari epaitu zituan Jesus'ek Israel'go farisearrak, sadu-zearrak, eliz-agintariak eta apaizak, arako itz aiek esanez: *“Egizute, esaten dizuetena, baiña egiten dutenik zuek ez egin”*. Onak bai-ziran itzetan, jakindurian eta irakaspenetan, baiña aien egiteak ez ziran era berekoak, ez ziran ain onak.

Ebanjelio-zati ontan ere zorrotz artu zituan Jesus'ek: *“Zergalariak eta emagalduek aurea artuko dizute... zuek baiño leen datoz Jainkoaren Erreinura”*. Beren buruak jainko-zale, garbi ta zintzotzat zeuzkaten; zerga-biltzaille ta emagalduek, berriz, pekatari aundizat salatzen eta baztertzen zituzten. Eta

Jesus'ek aien alderantziz neurtzen ditu guztien jokabideak eta bizitzak.

Pekatoriak pekatari ez diranik ez du esaten Jesus'ek, eta ortan ez ditu txalotzen: ezta gutxiagorik ere! Baiña beren pekatuak ezagutu, damuaren damuz garbitu ta biotz-berritu zirala-ko, orregatik, bai ziñez txalotzen eta onartzen dituala!

Zer ikasbide ta mesde atera bear ditugu ontatik gaur? Aspaldiko aien jokabideak zorrotzasunez epaitu ondoren, lasai gelditzea, ez da naikoa. "Jainkoa oso ona da... Nik sinisten dut..." eta antzekoak esatea, oso ongi dago. Baiña itz utsetan gelditzeko orde, gure bizitzaren jatortasunak azaldu bear du ori.

Besteak beste, ikastaro eta ikaste-urte berriaren asieran, ba daukagu guztiok zer egiñik. Neska-mutil ikasleek, denborarik alperrik galdu gabe, gogotsu ta pozik ikastea: orixe izango dute ekintzarik aberasgarriena beren buruentzat. Ikasten ikasi, pentsatzen ikasi, beren buruak ezitzen ikasi...

Irakasleek, gurasoek, ezizailleek eta apaizek, berriz, itzezko irakaspenak eman bear dizkiete gazte ikasleei, bai, eta sarkonki eman ere. Baiña batez ere, beren jokabide garbia, saiatua ta zuzena eskeiñi bear diete irakaspen nagusitzat, ez itz utsak.

Beren lanaren bidez, beren zuzentasunaz, beren bizitza osoaz izan bear dute ikasleen irakasle, gidari, jarraibide ta eredu. Beste guztiak, itzik ederrenak ere, aizeak eramaten ditu.

Arrokeria ta itz utsak, ez; ekintza garbiak eta egite onak bear ditugu, bai geure onerako ta bai besteen mesedetarako.

## Erriak eta beren emaitzak

*Uzta ekar-eraziko dion beste erri bati emango dio. Mt 21, 33-43*

Igali edo frutu onak eman bear ditu landare onak; eta frutu onen bidez azaltzen du zugaitzak bere ontasuna. Erri ta erri-aldeek ere emaitza edo frutu onak eman bear dituzte: or jokatzen dute beren ontasuna.

Eta Israel erriari gertatua. -Jesus'ek emen adierazten digunez- munduko erri guztien zentzabiderako da. Ixpillu ortan ikusi bear dute, beraz, gure erriak eta beste erriek beren etorkizuna.

Isaias'ek eta Jesus'ek maasti bat aipatzen dute: nagusiak maitasunez eta ardurarik bizienaz aukeratua ta zaindua, esitua, babestua ta landua... Zertarako? Maats-ale ugari ta onak eman zitzan: ortarako da maastia. Eta an jarritako langilleak, berriz, maastiari frutu ederrak eman-erazteko dira, beren buruak lanaren bidez osotu ta aurreratuz.



Jesus'entzat eta Isaias'entzat, Israel erria da maasti maitatu ori; eta israeldarrak dira maasti-langilleak. Nolako frutuak eman zituzten? Ez da guk asmatua, Jesus'ek asmatua da erantzuna: ale onak ugari emateko orde, maitale aundiaren –Jainkoaren– ordeko igerleak il egin zituzten. Eta jabearen semea –Jainkoaren Semea– ere il egin zuten, maastia berenganatzeko irrikaz. Gauza on guztien emailleari, guztia kendu nai izan zioten.

Zer egin zuan jabeak? Langille gaiztoei guztia kendu ta beste batzuen esku jarri zuan, itz auen bidez ageri danez: *“bere garaian frutu ugari ekarriko zuten nekazariei eman zien”*.

Ain juxtu ere Israel erriari gertatu zitzaion ori: aien erantzun txarraren aurrean, lureko errialde guztietakoei eskeiñi digu bere maastian lan egiteko aukera. Orrela sortu da kristauerria, Israel berria.

Beste zenbait errialdetan ere gauza bera gertatu da: aldi batean oso zintzo ziran kristau-erriak, gaur zearo ozturik, aldatuta daude. Afrika'ko Iparraldea adibidez, eta Europa'ko kristautasuna ere zeñen aul eta murriztua daukagun, garbi ageri da. Euskalerrriak ere ez al du geiegi galdu gai oni dagokionez?

Nolako frutuak ematen ditu gure kristau-erriak gaur? Nola koak ematen ditu Euskalerrriak? Elkartasuna, sinismena, itxaropena, barkapena, elkar-laguntza ematen al ditugu? Obe genuke!

Gure etxeetan, sendietan, Ikastola ta Ikastetxeetan, Erakunde ta Agintaritzan, elkarte ta gizartean, zer ereiten dugun, alako emaitzak jasoko ditugu ondorenean, luzaro baiño leen.

## Zatozte eztaietara

*Aurkitzen dituzuten guztiei, eztaietara dei egiezute. Mt 22, 1-14*

Errege batek bere semearen eztaietara dei egin zieneko parabola esan zien Jesus'ek bere entzuleei; eta ain zuzen ere, erlijio-gaietako gidariei, aurreko Igande bietako Ebanjelio-zatietan ere ageri danez. Onela, judutar-erriaren erantzun txarra ta gidarien errua azaldu zizkien.

Adiskide zitualako egin zien dei Errege arek, baiña deituek muzin egiñez erantzun zioten: *“batzuek ‘beren’ lurrak eta besteek ‘beren’ sal-erosketak...”* naiago izan zituzten, eta besteek morroiak jo ta il zizkioten. Azkenean gudariak bidali bear izan zituan aiek zigortzera ta aien erriari su ematera...

Jesus, Jainkoaren Semea, gaur oraindik ere ez dute Jainkotzat onartzen judutarrek. Jaunaren deiak entzuten, antziñako Igerleen esanak zuzen ulertzen eta sinisten, agindutako Salbatzaillea ezagutzen, ez dute oraindik asmatu. Mesias Salbatzaillearen zai ta zai irauten dute orain bertan ere... *“Zure erri Is-*

rael' ek ezagutu zaitzala, Jauna" eskatu bear genuke aspergabe.

Bide ta bazter guztietatik bildu zituzten eztaietara, deituek merezi izan ez zutenez gero... Are zabalagoa da, noski, Jaunak bere Erreinuko lanetara orain eta betiko eztaietara gero, guztioi egiten digun deia. Ez da aspertzen. Beti ari zaigu deika guztioi, txar eta on, gazte ta zaar. Alde guztietako txikiei ta aundiei. Nolakoa ote da gure erantzuna?

Ez ote gabilta, baita kristauok ere, bakoitza "bere" gauzetan murgildurik? Aberastasunei, gozamenari ta seksuari, jolasari ta diruari, duten zuku edo zumu guztia zurrupatu nairik dabilta asko ta asko. Eta zer? Gizonago ta emakumeago al dira? Beren buruen jabeago ote dira? Benetan zoriontsu al dira?

Ez dira zoriontsu. Orregatik dabilta guztiak beti billa: argiaren, zorionaren, osotasunaren, egiaren, argibidearen, maitasunaren billa dabilta larri ta egon-eziñez. Bai, gizakiak nolabait ere Guztia danaren, Jainkoaren billa dabilta.

Oartu gabe ere, Jainkoaren billa dabilta askotan, eta Jainkoa, berriz, gizakiei deika. Zorion osoaren billa gabiltzanean, ez ote diogu entzungor egiten Jainkoari?

Bitartean, beste zenbaitek, apal eta beartsuek, pozik entzuten dute eguneroko arazo ta "bide-gurutzeetan" Jaunaren deia: "Zatozte eztaietara!" Eta or doaz senidetasun eta maitasunaren "eztaietara".

Gure entzumenak zabaldu, Jauna, eta gure barneak argitu, egunetik egunera obeki ezagutu zaitzagun gure zorion jatorraren iturri garbi bakar ori.

## Misiolarien eta Martirien aukera

*Emaiozute Zesar'i, Zesar'ena, eta Jainkoari Jainkoarena. Mt 22, 15-21*

Zer da Jainkoarena? Zer da gurea? Zer ote da gure-gurea danik eta Jainkoarena ez danik? Jesus'en itzak ditugu onako aukerak: "Emaiozute Zesar'i Zesar'ena, eta Jainkoari Jainkoarena". Baiña bai ote da Jesus'en esaldi bat, au baiño era naastuagoan eta okerrago erabillirik? Bakoitzak bere aldera nai izaten bai-du...

Izkutukoa, bakarkakoa, biotz barnekoa bakarrik nai dute askok Jainkoarentzat. Baiña bakoitzak bere burua, bere gortza, bere iritziak, bera ibillerak, bere ageriko bizitza, bere diru-arazoak, bere irabaziak eta gizarteko bere jokabideak edo politika... ori guztia beretzat nai du gaurko jendeak. Eta ortan sarrerarik ez diote opa Jainkoari.

Oso bestela jokutzen dute leengo ta oraingo misiolariak. Mugarik eta bereizketarik ez dute egiten Berri Onaren serbitzari zintzoek, onela pentsatzen eta erabakitzen bai-dute: Dana

Jainkoagandik dator, dana Arena da... Beraz, Ari dagokio da-na, eta nere bizia ere Jainkoari dagokio...

Berekoien erara uste izan ba'lute, diru-goseen eta atseginezaleen erara jokatu izan ba'lute, ez ziran berealakoan elduko Martiri izatera! Eta or ditugu millaka misiolari euskaldun, mendeetan barna beren bizia besteren serbitzuan eman dutenak, Jainkoarentzat bizi bai-ziran.

Eta guztien artean baditugu euskal-misiolari bi, Errezil'ko Erkizia ta Oñati'ko Aozaraza, Nagasaki'n Martiri illak. Biarko egunez Erroma'n, Urrilla'ren 18'an, biak SANTU izendatuko ditu, beste amalaurekin batean Aita Santuak. Senide beartsuei lagunduz, Jainkoarentzat bizi izan ziran. Ori da zuzeneko autaketa, aukeratze bikaiña!

Orain, ziur baiño ziurrago esanda, Jainkoaren aurrean ditugu zoriontsu, eta gure babesle diranez, otoitzean ari dira euskaldunon alde bereziki. Auxe da "Santu" izatearen alde bat.

Poztu egin bear dugu euskaldun fededunok. Eta fededun ez diran euskaldunek ere poztu egin bear lukete, bi euskaldun aukeratu beren bizitza ta beren sinismena ziñez benetan artzeko gai izan ziralako. Ausardia ta trebetasun galantak bai-dira.

Oiñaze artean bizia ematea merezi duan zerbait, bizia bera baiño baliotsuagoko zerbait izan zan aientzat sinismena. Bizia baiño baliotsuagoztat artu zuten Jesus'engan sinistea, eta aukera orri eutsi zioten azkeneraiño, oiñaze ta erasoak baiño kementsuago.

Otoitz egin bezate gure alde, sinistea benetan ar dezagun, eta sinismena mundu osoan zabaltzeari lagundu dezaiozun gaur eta beti. Ez da bide txarra, gure aukera zuzenekoa izan da.

## Zuzen asmatzeko, zer egin?

*Maita ezazu Jainkoa biotz-biotzez,  
eta maitatu lagun urkoa... Mt 22, 34-40*

Arazo ta gauza guztietan zailena, asmatzea da. Bai: zuzen eta egoki asmatzea. Bai ta ez, zalantzan ibilli ondoren, erdiz-erdi asmatzea, benetan gauza aundia da. Eta asmatutakoan, orduan datorkigu lasaitasun pozgarria.

Bitartean, gure itzetan eta iritzietan, gure egite ta jokabideetan asmatu ez dugulako, zenbat bider damutu bearra izan ote dugu? "Ai, au egin ba'nu! Ai, beste ura egin ez ba'nu! Beste era batera jokatu ba'nu!..." Askotan esan ditugu orrelakoak, zuzen jokatzeko asmatu ez dugulako.

Beti zuzen asmatzeko bide nagusia erakusten digu Jesus'ek. Erraza ez da bide au, baiña ziurra ta guztiz mesedegarria. Bete-beteen eta erdiz-erdi asmatu zuan Berak, eta egoki asmatu dute Aren jarraitzaile Santuek ere.

"Zein da Legeko Agindurik nagusiarena?", galdetu zioten, azpikeriaz eta maltzurki galdetu ere. Eta Jesus'ek ziñez eta be-

netan erantzun zien. Arazorik garrantzizkoena, egin-bear nagusia, Aginduetan lenengoa ta aundiena, gauzarik bearrezkoena ta aberasgarriena, auxe dala, maitasuna, alegia:

*“Maita ezazu Jauna, zure Jaungoikoa, biotz-biotzez, gogogoz, adimen osoz. Au da lenengoa ta nagusiena. Eta bigarrrena, onen antzekoa: Maita ezazu lagun urkoa zeure burua bezala”*. Ez dira edozeiñen itzak, ez dira gizakionak. Jesus'en itzak dira.

Zergatik ainbeste aserre, borroka ta gudaketa? Zergatik ainbeste goibeltasun eta negar? Zergatik ainbeste jende berekoi ta bakarti? Maitasunik ez dutelako. Baiña benetakoa, “dana ematen duan maitasuna”, berekoikeria ta bere burua sakrifikatzen dituana: bestelakoa ez bai-da maitasuna.

Maite ez duana, galduta dabil; gauza asko eskuratuko ditugan, baiña adiskiderik ez du izango, bera maite duanik inor ez du lortuko; bakardadeak eta goibeltasunak menperatuko ta lotuko dute. Geure buruak eta ingurua aztertu besterik ez daukagu.

Ziñez maite duanak, berriz, aurkitu du zuzeneko bidea. Ziur aurkitu du Jainkoaren naia betetzeko bidea, aurkitu du Jainkoaren atsegiña. Maite duanak, zuzen aurkitu du lagun urkoaren ona edo mesedea; poztu du senidea. Eta pozik sakonena lortu du beretzat.

Eta orrela maite duanak, –orrek bakarrik– aurkitu du bere burua, aurkitu du bere osotasuna, aurkitu du bere zorion sakon eta iraunkorra. Maite duanak bakarrik asmatzen du beti ta ziurki, zuzeneko bidea asmatu ta aurkitu ere.

## Bat esan, bestea egin

*Esan, esaten dute, baiña egin ez. Mt, 23, 1-12*

Egintza onak, egia esateko, guztientzat dira mesedegarri: bai norberarentzat eta bai besteentzat. Mailla guztietako gizakien egitekoa da, gaiñera, ekintza onak burutzea.

Baiña nolabait ere gidari edo buruzagi diranak, agintari ta irakasleak, goikoak, besteengan eginkizunen bat, naiz arduraren bat daukatenak... Auek bai dirala nola-nai jokatzetik ez daukatenak! Onelakoentzat izan ziran Jesus'en itzik zorrotzenak eta salaketarik latzenak, beren egin-bearretan zabar ziran.

Bestelakoak, berriz, errukarrienak, gogaikarrienak, gaizkille ta pekatariak... errukirik aundienaz artzen zituan Nazaretarrak: ederki ulertzen bai-zituan auleriak eta eziñak, eta auen ondoriozko utsak, eta pekatuak ere bai.

Arrokeria ta gezurra, ordea, zorrozki salatu ta gaitzetsi oi zituan Jesus'ek bere biotzbera ta ontasun guztian ere. Eta gi-

dariengan ikusten zituanean, orduan-eta zorrozkiago. Orregatik astindu zituan eskribauak, farisearrak, apaizak, lebitarrak, saduzearrak... ain juxtu ere erlijio-gizon kargudun ziranak.

Gaur ere aurkituko luke salaketa-gairik aski gure gizartean. Eta Jesus bezala, erlijio-gizonengandik asiko gera: apezpiku ta apaiz guztiok, besteei irakasten diegun danok, beti ongiegingo ba'genu, sinisgarriago izango litzake gure itza alde guztietan.

Eliz-gizon bat eta bi baiño geiago ez al dira, Jesus'en antzeko laztasunik ez dutenak beren buruentzat, eta alako erruki adis-kidekorrik ere ez dutenak besteentzat?

Zenbait kargudun, gidari ta buruzagi, oso trebe dira "ordena", zuzentasuna ta "kanbioa" oyukatzen. Baiña beren bizitzetan "ordena" gutxi ta naastegeiegi: zuzenbidearen orde, ezberdintasuna ta geiegikeriak pillaka ageri dira. Eta izkutuan?

Guraso askok ere itz ederrak seme-alabentzat, baiña jokabide oker geiegi. Zenbait irakasle, berriz, ikasten eta lanean, beren buruak txukuntzen, besteen begirunean eta serbitzuan, ezitzaille on baiño areago, ez al dira sarritan ondartzaille galgarri?

Ona emen Jesus'en itzak, gaurkotasunez beteak: *"Idazlariak eta farisearrak Moises'en maisu-aulkian eseri dira... Esan, esaten dute, baiña ez dute egiten. Zama astun eta eramanezin alakoak egiten dituzte, eta besteen bizkarrean jarri; beraiek, ordea, beatz batez ere ez diote zamari eltzen"*. Non ez dago antzekorik?

Joka dezagun alderantziz, Paulo donearen antzera: *"Zuen maitez, ez Ebanjelioa bakarrik, baita gure bizia ere zuei emateko prest geunden: ainbesteraíño maite zinduztegun... Gogoan izan gure neke ta aalegiñak: zuetako iñorentzat astun ez izatearren, gau ta egun lan egiñez adierazi genizuen Jaungoikoaren Berri Ona"*.

## Zenbat zentzugabe!

*Zentzugabeek krisailluak artu zituzten, baiña oliorik ez. Mt 25, 1-13*

Zentzudun izatea, gauza aundia da ta mesedegarria. Eta gizaki guztiok izan bear genuke zentzudun, baiña zeíñen ugari diran zentzugabeak! Eta zeíñen ugari diran zentzugabeko gauzak gure jokaeren artean ere! Ain urri ta gutxi ote da zentzu ona, guztiontzat naikoa ez irixteko?

Begien aurreko gauzei bakarrik ez die begiratu bear zentzudunak; une ontakoa bakarrik ez du gogoan euki bear. Biarkoa ta etzikoa ere kontuan artzen dituana, oraingo egiteen eta utsu-neen ondorioak ateratzen dituana; sakonera ta urrutira begiratzen duana: orixe da zentzuduna.

Adibide garbi ta ulertzen errazak jarri zizkigun Jesus'ek: *"Amar neskatxa, bost zentzudunak eta beste bost zentzugabeak..."* Oso ez-berdiñak izan ziran talde bien jokaerak, eta biak ere gureen ixpillu dira, arretaz begiratu nai ba'diegu.

Senar berriari ongi-etorria egitera deitu zieten eta amar neskatxak artara zijoazen. Batzuek geroko kontuak ongi atera zituzten: krisailluak pizturik eta... gaiñera olio geiago ontzietan, ba'da ez ba'da ere. Auek ziran zentzudunak, ez bai-ziran oliorik gabe gelditu gau osoan.

Besteek, berriz, gaua ta afaria ta lagunartea beste gauzarik ez zuten, nunbait, beren buruetan; eta, jakiña, olioaren konturik ez zuten atera. Eta gero? Aitu edo bukatu egin zitzaaien olio; eta argirik ezin egin senar berriari garai egokian. Eta ondorioak? Beren ametsetako lagunarte ta afaritik kanpora gelditu bear izan zutela... Alperrik izan zitzaizkien damua ta negar-zotiñak.

Eguneko gauzei begira bizi da gaur jenderik geiena: jan eta edan, dotore jantzi, jolastu ta gozamenetan ibilli, dirua pillatu, gauza garestiak eskuratu... Orain oraingoa nai dute ta kito! Oraingoaz zorabiatu ta zoratu bete-betean.

Eta gauza oiek ez dute asetzen giza-biotza; geiago esan bear dugu oraindik: legortu egiten digute giza-biotza, oliorik gabeko krisaillua ba'litz bezala. Berotasunik eta argirik ez dute ez berentzat eta ez besteentzat.

Bataioak piztu zigun argiari, nola eusten diogu? Suak errekiña bear duan antzera, gure barruko argiak ere bearrezkoak ditu otoitza ta beste eusgarriak: auek dira gure sinismen-krisailluarentzat benetako olio zuzpergarria.

Urrutira begiratzen du zentzudunak: Jainkoagandik ateratzen du argia, Jainkoagandik ateratzen du itxaropenaren poza; eta bere ingurukoei maitasunaren beroa ta argia zabaltzen dizkie. Au da zentzudun izatea, eta onelakoa sartuko da betiko eztaizoriontsuetara.

## Morrori gaizto ta alperra

*Gutxian zintzo izan zeralako, sar zaitez nagusiaren pozetara. Mt 25, 14-30*

Gaizto ta alper danik, iñork ez du entzun nai. Beti zintzo ta langilletzat artu gaitzatala, nai izaten dugu. Baiña zenbat eta zenbat ote dira gure bizitzan, gaizto ta alper gerala aitortzen duten gure utsegiteak?

Zer egin bear dugu, Jainkoaren Erreinuan bai orain eta bai gero ere sartu aal izateko? Jesus da ongien esan diguna; eta guk obeki uler dezaiogun, parabola edo ipuin baten bidez eskolatzen gaitu, ikasi nai ba'geneza gogo onez eta benetan.

Nagusi batek bere morroiei, ugaritu zezaten, dirua utzi zien; bakoitzari bere neurrian utzi ere. Eta gero kontuak ere, bakoitzari, artutakoen neurrian eskatu zizkion. Bete-beteko erantzuna eman zuten batzuek, artu zuten aiñako emaitza edo etekiña lortuz, bateko bi ateratzeraiño.

Eta onelako langilleak, gartsuki txalotu ta gorai patu zituan nagusiak, gauza gutxian zintzo ta leial izan ziralako. Bai: ausartu egin ziran diru ura arriskuan jartzera; eta ez ziran ego-nean egon: saiatu egin ziran baizik, eta lan egin zuten jo ta ke. Langille on izan ziran.

Beste batek, ordea, artutako dirua, galtzeko bildurrez, lurpean gorde zuan, antxe ziur egongo zala-ta. Ez zan saiatu, ez zuan lanik egin, alperrera jo zuan, errazena egin zuan: ego-nean egotea. Eta au onela gaitzetsi zuan Jesus'ek: "*Morroï gaitzo ta alperra!... Kendu orri diru ori... Bota ezazute kanpo-ko illunpetara*".

Gauza txarrrik eta pekaturik ez dugula egiten esaten dugun guztiontzat, ulergaitz gertatuko da, bear ba'da. Baiña onela dira gauzak Jesus'en erakutsi ta erabakietan. Baiña zergatik orrela? Guk askotan bezala, morroi arek, bere buruari bakarrik begiratu zion, bere lasaitasunari. Eta ez zien begiratu nagusiari ta lagun urkoei. Berekoikeriak galdu zuan.

Kristautasuna ere –ain doai edo ondasun aundia dana– gordeta eukitzen dute askok. Lurpean ez dute gordeko, baiña bai beren kolkoan, eta aurtzaroan artu zuten bezala eusten diote: ez dute argitzen, berritzen eta indartzen. Eutsi, gorde... ez dute pozbiderik eta mesederik ateratzen ez berentzat eta ez urkoentzat.

Elkartean, gizartean, kristau-familian bizi geranez, or bizi bear dugu ta or sendotu bear dugu. Bizigarri biurtu bear dugu guretzat eta besteentzat.

## Kristo, guztien Errege

*Bere jaun-aulki  
ospetsuan eseriko da, ardiak eta  
auntzak bereizteko. 25, 31-46*

Errialde jakin batean izaten dira Erregeak agintari, lurralde mugatu baten esparruan edo barnean, eta ez andik kanpora. Jende-talde baten edo nazio baten gain izaten dute aginpidea Erregeek. Baiña erreinu edo aginte-erri ori beti mugatua izaten dute lurrez, eta jendez ere mugatua.

Eta Jesus, guztien Erregea? Zein ote dira guzti oiek? Lurralde, erri ta jende, izkuntza ta nazio guztien gain du Agintea Jesus'ek. Ain zuzen, Berak esana da: "*Aginpide guztia emana zait zeru-lurretan*".

Bai baiña zergatik eta nolaz izan daiteke Jesus, Errege? Ez al zigun, bada, beartsuen alde zetorrela, bein eta berriz Berak esan: "*Zorionekoak beartsuak... Beartsuei berri ona otsegitera etorria naiz... Zuek ez izan mundu ontako agintari ta erregeak bezala...*"

Ontan ere Jesus'ek ber-berak baiño obeki ez digu iñork argituko arazoa: "*Nere erreinua ta nere Erregetza ez dira mundu ontakoak bezalakoak... Mundu ontako agintariak bezala ba'nintz, eukiko nituzke gudari-taldeak neure burua babesteko...*"

Eta egia esateko, Agintariak, Erregeak, "Presidente", "Secretario General" eta antzekoak dituzten aberastasunak, jauregi ederrak, izkillu iltzaille ta gudari-taldeak, eta beren serbitzuko jendetza aundiak, ez ditu Jesus'ek beretzat nai izan ez leen eta ez orain. Eta iñori ez dio agindu edo eskeiñi onelako gauzarik saritzat, ezta uste izateko biderik eman ere.

Era berriko erreinua, era berriko errege-erria, era berriko jendeak eta agintariak izatea nai du, zuzentasunean eta maitasunean oiñarrituta, eta ez indarrean eta aberastasunetan.

Iñork –eta batez ere agintari ta indardunek– aintzat artzen ez dituan jende beartsuak, ez-jakiñak, lanik gabeak, atzeratu ta zapalduak... auetxek babesten ditu; eta onelakoak zuzenbidez zainduak izango diran gizartea nai du. Orixe da bere Erreinua.

Diru-zaleen eta indardunen ordez, ez-berdintasunen eta indarkerien ordez, zuzenbidea ta maitasuna nagusi izango dituan gizartea du bere Erreinua. Eta gu kristauok artzen gaitu –guri dei egiten digu– jarraitzaille ta laguntzaille izan gatzazkion.

Nola, ordea? Jesus gidari ta indar-emaille dugularik, geuk ere zuzenbidez jokatu, elkar maitatu, serbitzu leial egiñez, barkapena zabalduz, pakearen alde saiatuz, poza ta zoriona sendeengan jarritz...

"*Betor gugana zure Erreinua...*" Egin dezagun Kristo'ren era berriko erria, guztiok gure aalegin-apurra elkarrekin jarrita.

Markos donearen berri Ona izango dugu aldi ontako ardatz.

Argibide batzuk, datozen urteetan noiz eta nora erabili B aldia:

Abendu-aldia: 1990'ko Gabonillaren 2'an asi, eta jarraitu ondoren

**1991'gn urtean:**

Urteko Igandeak, Urtarrillaren 13'tik, 5 Igande  
Auster eguna, Otsaillaren 13'an  
Pazkoa eguna, Epaillaren 31'n  
Espiritu Santua, Loraillaren 19'an  
Urteko Igandeak, Ekainillaren 9'tik, 10'gn Igandea

Abendu-aldia: 1993'ko Azillaren 28'an asi, eta jarraitu ondoren

**1994'gn urtean:**

Urteko Igandeak, Urtarrillaren 7'tik, 6 Igande  
Auster eguna, Otsaillaren 16'an  
Pazkoa eguna, Jorraillaren 3'an  
Espiritu Santua, Loraillaren 22'an  
Urteko Igandeak, Ekainillaren 5'etik, 10'gn Igandea

Abendu-aldia: 1996'ko Gabonillaren 1'ean asi, eta jarraitu ondoren

**1997'gn urtean:**

Urteko Igandeak, Urtarrillaren 12'tik, 5 Igande  
Auster eguna, Otsaillaren 12'an  
Pazkoa eguna, Epaillaren 30'ean  
Espiritu Santua, Loraillaren 18'an  
Urteko Igandeak, Ekainillaren 1'etik, 9'gn Igandea

Abendu-aldia: 1999'ko Azillaren 28'an asi, eta jarraitu ondoren



## 2000'gn urtean:

Urteko Igandeak, Urtarrillaren 7'tik, 9 Igande  
Auster eguna, Epaillaren 8'an  
Pazkoa eguna, Jorraillaren 23'an  
Espiritu Santua, Ekainillaren 11'n  
Urteko Igandeak, Ekainillaren 25'etik, 12'gn Igandea

Eta era berean izango dira 2002-2003, 2005-2006 urteetan ere.

## Abendua 1

### Zeren zai?

*Zaudete erne, ez bai-dakizute  
garaia noiz dan. Mk 13, 33-37*

Urduri ta larri, zai egotea zer dan, ongi dakigu noski. Zenbaitetan pozik eta besteetan bildurrez larri gertatzen gera. Aita, ama, seme-alabaren bat, ziñez maite dugun norbait... itxaro dugunean, pozik baiño pozikago egoten gera zai ta zai.

Meatxuren bat egin dietenak, bat eta bi baiño dira Euskalerrri osoan... Aurrez norbaitek egindako meatxua, balaz tirokatuta betetzen dutela ikustean, -aurreko bizpairu asteetan bezala- larri ta bildurrez zai egon bearra izatea, gauza gogorra da benetan. Zori gaiztoko tirokatzeak eta leerketak!

Gauza askoren utsunea daukagu... gauza on ugari falta zaizkigu... Bear aundiak dauzkagu: lanik eza... egibiderik eza... ziurtasunik eza, ez norbere gauzetan eta ez norbere bizian... aserre ta gorrotoen artetik atera eziña... pakerik eza...

Estu ta urduri dago gure gizarte osoa. Baiña zeren billa dabil? Askatasuna ta pakea nai ditu. Askatzaillea ta salbatzaillea

nai ditu gure munduak. Baiña nolakoak nai ditu? Eta zertatik askatzea nai ote du, eta nolako loturak etenda?

Arazo astun auetaz arduratzea, orra benetan erne bizitzeko aukera ona. Eta erne bizitzeak, auxe ikusi-eraziko digu: geurongan ere uts eta oker ugari dauzkagula... gu baiño aaltsuago dan Norbaiten bearra daukagula... Norbait ori aurki ba'geneza...!

Abendua izeneko aldi berezian sartu gera. Dei bizia egiten digu Abendu santuak, Norbait aundiarengana jo dezagun, Igerleek bezala: "*Zatoz, Jauna! Bear zaitugu!*"

Egun auetan gogoratzekoa da, noski, Xabier Donea, misiolari aundia. Ziñez erne ibilli zan Xabier urrutietako lurralde ugaritan, beti Jaunaren zai ta Jaunari deika. Egiatzko Norbait ori aurkitzeak eragin zion Santu naparrari, poz eta zorion berberak beste askorengana eramatera ta alde askotara zabaltzera.

Lagun egin dezaiola bere Naparroa osoari zerutik, Salbatzaillea aurkitzen eta Aren pozez guztiak alaitzen.

## Ziñezko Berri Ona

*Jainkoaren Seme Jesukristo' ren Berri Onaren asiera. Mk 1, 1-8*

Albiste ta berri txarrak ugari dira gure mudi txiki ontan: ez-bearrak, zauritzeak, lantokiak ixtea, lanik eza, drogaren kalteak, borrokak, ilketak... Eta orrelakoen bildurrez bizi gera.

Giro larri ontan irrika are biziagoz itxaro ditugu berri onak, albiste pozgarriak, gertaera alaiak. Eta onelako berri on eta argitsuen bear aundia daukagu gure Euskalerrri txiki ontan ere.

Liburu txiki ta labur bat idatzi zuan Markos ebanjelariak eta izen aundi au ezarri zion: "*Jainkoaren Seme Jesukristo' ren Berri Ona*". Bigarren Ebanjelioa esaten dioguna da.

Eta Jesus'ek aspaldi ekarri zuan albiste pozgarria, orduan ekarri zuan Berri Ona, zer ote da? Gaurko mundutarrontzat ere balio ote du? Gaur dauzkagun gure arazoan artean ere, benetan berri ona ote da? Eta norentzat ote da pozgarri ta ona? Galdegin dezagun bakoitzak: Neretzat ona al da? Ontzat al daukat?

Galdera sakon oientzat, erantzun billa saiatu bear genuke guztiok aspergabe. Ortantxe jokutzen ditugu geure zoriona ta gure gizartearen zorion-bidea. Utsaren urrengo gauza deuseza ez da.

Jesus'ek ekarrirako berria, ontan bil genezake: Ez gaude bakarrik mundutarrok, geure indar utsen eziñean utzita. Bada Norbait gutaz arduratzen dana, gure zoriona nai duana. Gure bizitzaren gaiñetik eta barnetik begira daukagun Norbait da, Norbait ona, babeslea, maite gaituana. Eta Norbait ori, –Jaungoikoa– gure Aita ona da. Ez al da ziñez pozgarria?

Orregatik, ziur gaudeke, okerra ta zuzengabekeria, oiñazea ta eriotza, ez dituala nai guretzat eta ez zaizkigula gaillenduko ta nagusituko. Alderantziz baizik: Bera gurekin dugularik, txar guztiak guk menperatuko ditugula azkenean eta Arekin batean garaille izango gerala bein betiko.

Zuzeneko bide berrian ibil gaitzke, beraz, Jesus'en Berri Onari esker: egia, zuzentasuna, maitasuna, senidetasuna ta pakea aurkitzeko bidean, eta gizartean jartzeko bidean.

Gogora ekar dezagun Andre Maria, Sortzez Garbia ta Graziaz betea. Gure Ama zerutar onek bai pozik artu zuala Berri Ona! Lagun egin dezaigula gu ere senidetasunezko bidean ibil gaitezen eta mundu kaxkar ontan Berri Onaren giroa egin dezagun guztion artean. Zer litzake gauza onuratsuago ta oberik?

## Argiaren aitorle

*Argiaren aitorpen egitera etorria,  
aren bidez guztiek sinistu zezaten.  
Jn 1, 6-8. 19-28*

Garai batean –eta oraindik urte asko ez dira– kristau sinistun giñan danok Euskalerra osan. Bataiatuak giñalako bakarrik ez; elizkoi ta lege-betetzaille zintzo ere bagiñan. Ortatik sortua da antziñako esaera zaar txit zabaldu ura: “*Euskaldun fededun*”.

Euskaldun eta fededun, gauza biak elkarri lotuta egon dira gizaldi ta mende askoren joanean. Ain zuzen, euskaldun guztiak bai-ziran bataiatuak eta guztiak ziran agindu nagusien eta elizkizunen betetzaille ez nola-naikoak. Orrela, bada, ziñezko euskaldun jatorraren ezaugarri bat zan kristau-sinismena, eta ezaugarri nagusietako bat zan, gizartearen ustez.

Gauzak eta giroa asko aldaturik dauzkagu orain. Euskaldun ugari dira azken-urteotan, sinismenari uko egin diotenak: bataiatuak daude, baiña ez dute kristautasuna ongi ezagutzen; sinismenik ez daukate, edo ez dutela sinisten esanez dabilta.

Ezin ukatu, ordea, euskaldun diranik. Ori garbi dago edonorentzat: euskaldun izatea ta kristau-sinismena, gauza bi ezberdiñak dirala.

Ez-berdintasunari begiratu gabe, zenbat-eta euskaldunago, ainbat-eta fededunago jotzen zituzten beren buruak antziñako euskaldunek. Eta mailla berean giroturik, zenbat-eta fededunago, ainbat-eta euskaldunago zirala uste zuten. Ez, ordea, oraingoek.

Aurreko euskaldunen jokabidetik zearo alderantziz uste dute zenbaitek: zenbat-eta fedegabeago diran, orduan-eta euskaldunago dirala; eta euskaldun diran neurrian, ainbatez fedegabeago izan bear dutela. Eta ez da bat eta biren ixilkako jarduerara, batez ere "Vasconia" liburuaren eta garaikoen ondoren beintzat.

Aldaketa aundi onen aurrean ere kristau-sinistun irautea, ez da gauza erraza. Eta ez al gabiltza askotan, kristau ta sinistun izateaz lotsaturik edo bildurtuta? Gizarteko giroa goikoz beera aldatu dan ontan, gure kristautasuna ta sinistea ez al ditugu geure arterako edo eliz-barrurako gordetzen? Elizkizunetatik kanpora, zertan ageri zaigu kristau defedun gerala?

Jesus'en erakutsiak eta Jesus bera benetan sinisten dituana, poz eta zorionez gaiñezka beteta, sinismen orren aitorle biurtzen da ta pozaren zabaltzaille. Ala gertatzen ote zaigu zuri ta neri?

Auxe da, berriz, Jesus'en aitorle on izatea: Arek sinisten zuana sinistea, Arek maite zuana maitatzea, Arek babesten zuana babestea, Arek egiten zuana egitea; itz batean, Aren antzeko izatea gure bizitzako jokabideetan.

Orrela bakarrik izango gera Argiaren aitorle jator, Joan Bataiatzaillea eredu ta laguntzaille dugularik.

## Erri osoarentzako poza

*Poztu zaitez, graziaz bete ori:  
Jauna zurekin. Lk 1, 26-38*

Urbil ditugu Gabon-Eguberriak, alaitasunezko egunak. Gau ta egun oietan asko izango dira geiegikeriak jan-edanetan, eta bestelako gauzetan ere bai noski. Aurreko urteetakoak gogortu bear...

Geiegikerietan dabilzanek, berak dirala zoriontsuen usteko dute, eta beraiek daukatela pozik aundiena. Bitartean, neurriz gorako jate-edate ta gauza garestietara irixten ez diranei, orrelako gauzarik gabe, pozik eta alaitasunik ez dezaketela euki, irudituko zaie. Okerreko usteak dira biak ere.

Orrelaxe pentsatzera jarrita gaude, ordea, gaurko gizon-emakume ez gutxi: geure buruaz kanpora aurkitu nai dugu zoriona, kanpoan billatzen ditugu poza ta alaitasuna.

Or ibilliko dira ainbeste jende dantza ta soiñu, ixtillu ta algara, orru ta... Baiña gero? Kanpoko algara ta gauzak ez dira

biotz-barneraiño sartzten. Orregatik, uts gelditzen zaie biotza, utsik gelditzen beren barnea.

Benetako ta egiazko pozaren iturria, ez dago kanpoko gauzetan: gure barnean daukagu baizik. Geure barnea pozik, Aita dugun Jainkoarekin pakean eta adiskide; gure lagun urkoekin ere, anai-arreba ditugunez, adiskide ta pakean... Andre Maria'ren antzera. Bai al da zorion sakonago ta aberatsagorik?

“Poztu zaitez, graziaz bete ori...” Ez aberastasun, ez algera, ez bazkari-afari gerestirik, ez etxe dotorerik, baiña Maria ziñez alai ta pozik. Uste al genezake bestela izan zanik? Izan ere Jainkoa berekin bai-zeukan, eta bera Jainkoarekin, alaba zintzo, leial eta maitatia zanez.

Artzain beartsuak ere pozik, “erri osoarentzako poza dakarkizuet” adierazi bai-zien aingeruak. “Erri osoa” ortan sartzten dira beartsuak, ez-jakiñak, baztertuak, gaixoak, zaartuak, deusgabeak, errukarriak... Emen munduko beste iñork emango ez dien poza oientzat ere: “Salbatzaillea etorri zaizue” guztiok argitzera ta berritzera. Orra albiste zerutar bikaiña.

Aundizki, agintari, aberats, arro, zapaltzaille... Oiek ere orsartzen dira “erri osoa” ortan, Jesus Aurtxo-Jainkoaren asmoe-tan. Diran bezalako izanez jarraitzen duten bitartean, ordea, eta Salbatzaillea baiño beren karguak eta diruak naiago dituzten bitartean, ez al dira geldituko ez Salbatzaille ta ez poz?

Besteei dagozkien arazoak begien aurrean jartzea, ongi dago, baiña aien argira, geureak ere aztertze-kotan. Au da, beraz, atera bear dugun kontua: eta ni nola nabil?

**Eguberri eguna  
Jesus'en Jaiotza**

## **Jaungoikoa aurtxo egiñik**

*Salbatzaille bat jaio zaizue gaur:  
Mesias, Jauna. Lk 2, 1-14*

Gabon gaua, Eguberri eguna ta amabost-aldi ontako egunak, giro oso berezian igaro izan ditugu urtero: alaitasuna, poza, abestiak, jan-edan goxo ta garestiak, argiak kaleetan, jantzi berriak, jostailluak, jai ta festak...

Gaizki al daude? Poza, alaitasuna ta jaiak, oso ongi daude. Baiña zergatik ori guztia, jai ta ospakizunekin? Non dago egiazko sustraia? Gauza auetarako bide eman duana, zer da? Eta kristauak bereala erantzungo du: Gabon gauean Jesus jaio zala Belen'en.

Ederki, baiña zer esan nai du jaiotza orrek? Zer esaten dit neri? Orain 1984 urte inguru dirala izan zan gertaera batek, zer-nolako ikuskizuna edo lotura du gaur nerekin? Zenbateko garrantzia ematen diot? Zer ateratzen dut nik nere bizitzarako?

Betiko arinkerietan gelditzeko ordez, sakonki aztertu ta pentsatu bearreko gaia da, aundia, bikaiña ta aberasgarria; gertaera berezi ta arrigarria. Gertaeraren eta ospakizunaren muiña

ezagutuko baldin ba'dugu, ordea, ixil-unea egin bear dugu gure barnean, egun auetako arinkerien artean txoko batzuk egiñez.

Moises'en garaitik aurrera, norbait aundi ta bildurgarritzat zeukaten Jaungoikoa: guztia ikusten duana, zintzo ta oker gabiltzan une guztietan ikusten gaituana; zuzen-zuzena, zorrotz epaitzen duana, gaizkilleentzat zigortzaille gogorra, guztion oso gaiñetik dagoana, gaiztakeriaz eta pekatuaz aserretzen dana...

Orrelako Jaungoikoaren aurrean, berriz, bildurrez ibilli bear: zigorraren bildurrez. Eta... ain bildurgarri omen zanez, gizakiek egiñaalak egiten zituzten Jaungoiko orren begiratutik iges egiteko. Eta iges eziñean, aaztutzen saiatzen ziran, gizakiak Bera naita aaztutzean, Jainkoa ere aaztuko zalakoan... Gaur ere ez al dute orrela uste bat eta bi baiño geiagok? Zer iritzi daukat nik?

Uste ta iritzi okerrak aldatzeko bidea eskeintzen digu Belen'en aurtxo jaio zan Jesus'ek. Izan ere aaltsu ta bildurgarri agertzeko orde, umetxo egiñik gureganatu zan, gureak bezalakoxe odol, ezur eta mamiak artuz. Aurrerakoan, gure maillako dugu Jainkoa, gure odoleko egin zaigu, egi-egiaz gure senide. Eta aurtxoa iñorentzat bildurgarri ez dan antzera, Jainkoa ere ez.

Orrela, aurtxoa apal, atsegin eta maitagarri izaten dan era berean, gure adiskidetasuna ta maitasuna nai ditu Jainkoak; alai ta pozik, xalo ta apal joan gakizkiola Beregan: orixe nai du.

Ixil-unea egin dezagula, bada, Eguberri auetan. Ingura gaitzela Aurtxo-Jainkoagana. Ea orrela nabaitzen dugun gure biotzetan, ainbeste maite gaituan Jainkoa, gure mailla berean gure maitasunaren zai daukagula. Zenbat-eta sakonago pentsatu ta sinisten dugun, orduan-eta poz aundiagoak beteko gaitu barrutik.

## Familia ta pakea

*Jainkoaren Legeak agintzen duana  
bete zutenean, beren erri Nazaret' a  
itzuli ziran. Lk 2, 22-40*

Sendia edo familia, gauza ziñez aundia da antziñatik euskaldunon artean, eta oraindik ere aundia da. Askotan etxe txikiak, diruak urri ta bearrak ugari, Euskalerra osoko sendietan. Baiña aberastasun eder bikaiñak seme-alabetan eta elkartasun-giro bizigarrian.

Aiton-amonak, gurasoak, seme-alaba ugari ta osaba-izebaren bat izan dira sendiaren osagarri, baserrietan bereziki; arrantzaleen artean ere bai, noski. Gizaldien joanean euskerari ta euskal-oitura jatorrei eutsi aal izan diena, sendi-giro gartsua izan da. Bestela... galdurik genituan aspaldi, beste errietako antzera.

Guraso ta zaarrenaganako begirunea, -itzetan eta egiteetan!- sakonki txertatu izan du euskal-sendiak. Lanaren balioa, lanerako gogoia, lanean etzitzea ta zailtzea, sendiak sartu dizkigu barne-muiñetaraiño. Guzti-guztiek ez dituzte artu baiña...

Eta erlijioa ta elizarekiko jarrera gartsua, nola utzi esan gabe? Uts eta akatsak izan dirala? Ezin ukatu. Non ez dira izan? Baiña... sendiak girotu du kristautasuna gugan. Au ere ezin ukatu, osoki ta zabalean artuta beintzat.

Bestelako aize gogorrek sortu dira sendiaren aurka: giza-maitasun sakon iraunkorraren ordezt, aragizko artu-eman soil eta azalekoak; iraupenaren ordezt, arinkeria-jolas utsa; bizia oparo ugaritzeko ordezt, aur-galtzeak koldarki; begirunearen ordezt, lotsagabekeria; elkartasun aberasgarriaren ordezt, etena ta austura senar-emazteen, guraso ta seme-alaben artean...

Euskal-sendiaren etsaiak onela mintzo dira: elizkoiegia, euskal-oitura zaarrei lotuegia, jokabidez estuegia ta itxiegia omen da... Eta zenbat gazteri berotu dizkiete buruak, gurasoen babesa eten eta autsi dezaten, sendia erabat desegiteko bidean?

Bearrezkoa du gizakiak sendi-giro jatorra, Nazaret'eko Sendi Doneak bezala: Jaungoikoagana irekia, lagun urko ta erriagana zabalik biziko dana. Giro onek gozotzen ditu ezieren zailtasunak, bai gurasoentzat eta bai seme-alabentzat.

Sendiak sustraitu bear ditu begirunea ta elkar-izketa, zuzenbidea ta maitasuna, elkar-laguntza, pake-giroa ta gaiñerakoak. Eta gero etxetik kanporuntz zabaldu ere bai.

Egun auek guztiak kristauontzat pakezkoak dira, berarizko pake-eguna bakarra ba'da ere. Eta pakearen oiñarria, lenengoa ta sakonena, sendi edo familian dago. Kristau-sendiak ongi giritzen ba'ditugu Nazaret'eko Famili Santuaren antzera, oieta-tik etorriko dira benetako pakearen egarridunak eta ziñezko pakegilleak.

## Jainkoak bizilekua gure artean

*Itza aragi egin zan eta gure artean jarri zuan bizilekua. Jn 1, 1-18*

Errege ta gudal-buruek beren bizilekua ez zuten erriko jende xeearen maillan, eta gudari soilen artean izaten; gorago ta toki berezian baizik. Eta gauza bera egiten zuten erriek beren "jainko" zituztenekin: "tenplo" edo jauretxeak, au da, jainko-etxeak besteetatik berezita, aparte, gorago egiten zituzten, eta bikaiñago ere bai.

Eta orregatik zan israeldar edo ebertainentzat ain arrigarri, onela bai-zioten Moises'en garaian: "*Ez da beste iñongo erri-tan gertatzen au, gure Jainko aundiak bere bizilekua, gure artean jarri duala...*" Izan ere, Ejipto'tik lurralde berrirako bidean, oial-txaboletan bizi ziran; eta besteen artean bat zan Jainkoarena, eta andik babesten zituan bereziki.

Antxe, beren artean nabaitzen zuten Jainkoaren gertutasuna, andik zetorkien babes berezia. Pozik eta ongi babesturik zeuzkaten beren buruak, sendiak eta gauzak.

Nolabait ere gertu zeukaten arren, izkutua ta ixilla zan Jainkoa, ez bai-zien Berak itzegiten; bere itza ta aginduak, Moises'en eta igerleen bidez bidaltzen zizkien ebetarrei, bein izan ezik Sinai mendiaren oiñean. Baiña garaiak bete ziranean... *"Itza, aragi egin zan, eta gure artean jarri zuan bere bizilekua"*.

Guztiak deusezetik egiteko aalmena duan Jainko aundia, ez da indar itsu bat. Lur-ikarak, aizeak eta itsaso aserretuak ere indar aundia dute, baiña indar itsua da; aurrean duten guztia desegitea besterik ez dezakete.

Jainkoaren indar aaltsu ori, Itza da: guztia ezagutzen duan jakinduria da, eta gizaki guztientzako argia da. Eta jakinduria ta aalmen betea dan Itza, *"aragi egin zan"*, au da, gure aragia artuta, gizon egiñik dugu Belen'go Aurtxo-Jainkoa. Besteen artean bizilekua jartzea baiño askoz bikaiñago ta arrigarriago da, gu bezalako gizaki egiñik agertzea, gure giza-kide egitea.

Gizakiak argitzera etorri zan, baiña *"illunak ez zuan onartu... munduak ez zuan ezagutu... bereengana etorri zan eta bereek ez zuten onartu"*.

Sinisten dutenei, *"onartu zuten guztiei, Jainkoaren seme-alaba izateko eskubidea eman zien"*. Bera gure artera jeixtea bakarrik ez da, beraz; gu jaso egin gaitu bere maillara, Jainko aundiarekin seme-alaben adiskidetasunezko jarrera ta artu-emanak izan ditzagun egi-egiaz, lasai ta pozik. Au da gure zoria! Sinistu ta onartu dezagula biotzez, gogoz eta aalmen guztiz!

Asi-berria dugun "Urte Berri" ontan, Maria'k lagunduta, sakonago sinisten eta ausnartzen saiatu bear dugu, urte osoa egintza on eta garbien frutu ugariz bete aal izan dezagun.

## Urte Berri Maria, Jainkoaren Ama

### Pake-eguna

*Jesus ezarri zioten  
izena. Lk 2, 16-21*

Eguberri-giro bereziaren barnean eta urte berri baten asierak sortzen dizkigun poz eta kezken artean aurkitzen gera gaur. Ain zuzen ere, zer etorriko zaigun eta zer-nolako arazoak aurkituko ditugun aurrez-aurre urtearen joanean, beti gertatzen dira kezkak.

Eta guztiok gauza bat bera nai izatekotan, aixa ta zalantzarik gabe aukeratuko genuke: pakea. Biotz guztietako gurari nagusia onelatsu agertuko litzake: "Besteak beste, pakea. Pakea izan dezagula, beintzat!"

Mundu zabalean toki askotan dabilta gudaldiak, talde-borrorak, eriotz-arriskuak eta ilketak. Eta tiroka larriturik ez dabilzan errialdeetan ere konpondu-eziñak eta tirabirak ez dira gutxi, oso larriak gaiñera askotan. Gutxitzen ari ba'lira, gaitzerdi; baiña larritzen eta gogortzen ari dira ainbatetan.

Gudaldi edo gerrarik iñork ez omen du nai. "Gerrarik ez!" deadar egiten dute alde geienetan. Eta ala ere gerra guztiak



itzaltzerik ez du asmatzen gizakiak, ez dute asmatzen Laterrietako agintari nagusiek, ezta Nazio-Elkarte orokorrak ere.

Geiago ere bada oraindik: tiro ta leerketarik ez dabillen tokietan ere ez dagoala egiazko pake jatorrik. Ez noski, milloika asko goseak iltzen, gaitzen atzaparretan eta sendabiderik gabe, ez-jakintasun eta bizi-eziñean aurkitzen diran bitartean, pakea oso urruti izango da beartsu errukarri oiengandik. Eta jendetza izugarri oiek orrela dauden bitartean, pakerik ezin izan munduan.

Belen'go Aurtxo-Jainkoari, jaio ta zortzigarrenean, erdainkuntzan lenengo odol-tantoak ixuri-eraziz, "*Jesus ezarri zioten izena*". Eta aingeruak aitortu zuanez, "*Onek salbatuko bai-du bere erria pekatuetatik*". Ortara etorri zan, baiña mundutarrok Jesus'i baiña arreta geiago jartzen diegu geuron buruei ta gure gauzei.

Orrela, gizakion pekatuzko jarrera ta jokaerak nagusitzen diran bitartean, emen izango ditugu munduan gerra ta borrokak, baiña ez dugu pakerik izango. Auxe da gure munduaren tamal gaiztoa!

"Emaiguzu pakea!" etengabe otoi egin bear diogu Jesus'i, pakezko Erregeri, eta pakea eskatu bear diogu Maria, pakearen Erregiñari. Eta aldi berean pakerako oiñarriak jartzera ta bideak egitera jo bear dugu, Aita Santuak gogorazten dizkigunak egi biurtuz: begirunea izan gizaki bakoitzari, beartsuenentzat aundiena dalarik; begirunea izan giza-iritzi ta erabakiei, bere eskubideak askatasunean zaindu aal izan ditzan bakoitzak; begirunea egiari, egiak izan bear bai-du giza-iritzi ta erabakien oiñarria, Jainkoa bakarrik dugularik egia osoaren eredu ta iturri.

Erlijiozale ta sinistun geranok eginkizun berezia dugu pakearen aldeko ekintzan. Baiña ez noski, Jainkoa ta bere izena batzuek beren alde ta besteen aurka deituz, baizik-eta guztien gaiñeko jaun aitortuz eta Aren esanera gure buruak makurtuz.

## Izarra ikusi, Aurra aurkitu

*Aren izarra  
ikusi dugu, eta bera gurtzera  
gatoz. Mt 2, 1-12*

"Erregeak" beste ametsik gabe dabil egun auetan jende asko; eta umeak bakarrik ez: aurtzaroko urteak atzean utzi zituztenak ere ez gutxi. Egun auetako ametsak, ontan biltzen dira: "Erregeak", opariak, jostailuak, dotoreziak, jan-edan garestiak, gauzak eta gauzak... Ez ote da orrela? Zuk esango duzu.

Goietara begiratzeko astirik ez daukate orain. Itsumustuan dabiltyza gauzak saltzen eta erosten: dirua pillatzen batzuk, gauzak pillatzen besteak. Izarretara begiratzeko betarik eta gogorik gabe dabilta: izarrak baiña aruntzago, nola ikusi ezer?

Aspaldi artan baziran norbaitzuk, beste era batera jokatu zutenak: "*Aren izarra ikusi dugu Sortaldean eta Bera gurtzera gatoz*". Esan "Iru Erregeak" esaten diegun aiek, beren erosotasunak eta gauzak utzirik, norbaiten billa irten ziran.

Eskuarteko gauzen loturetatik irten eta urrutira abiatzeko, argi berezia ikusi bear izan zuten. Goietako ortzi zabalean argi berriren bat ikusi ba'zuten eta ez ba'zuten, beren biotzetan bai ikusi bear izan zuten izar dizdiratsu ta biziren bat, era indartsu ta sarkorrean deika. Bestela, nondik alako ausardia?

Zerbait ikusi-ta norbaiten billa atera ba'ziran, bai aurkitu ere: *"Etxean sarturik, Aurra aurkitu zuten, Maria bere amarekin"*. Norbait aundiaren billa ibilli ondoren, aurtxo beartsu ta ezerezaren aurrean, benetan argi biziaren dizdira bear izan zuten. Bestela, umetxo aren aurrean nola makurtu aundizkiak? Eta ari nola gur egin eta opari garestia eskuzabalki eman?

Gure inguru-mari auetan gauza geiegiz inguratuta gaude. Eta orrela uste ez duanak, Etiopia aldera begiratu besterik ez dauka, millakak ikusteko goseak iltzen. Bai. gauza geiegik esutzen gaituzte barru ta kanpo, alde guztietatik. Eta ez daukagu tarte ta zirriturik ere izarrei begiratzeko; izarrak adierazten digun Norbait orrentzat ez daukagu lekurik, ez gure biotzetan eta ez gure bizitzetan, ezta gure gizartean ere.

Dana bageralakoan, lekurik ez daukagu Jaungoikoarentzat. Izan ere, ainbeste gauza dauzkagu... ainbeste dakigu... Bitartean, azken-urte auetako pentsalari ta jakintsurik aundienetako batek, -Xabier Zubiri euskaldunak- aitorpenik arri-garrienak eskeintzen dizkigu, *"Gizakia ta Jainkoa"* izeneko liburu berrian. Ez litzake orixe bera ere izar txarra guretzat, irakur ba'geneza.

Joan zaizkigu "Eguberi-jaiak". Etxeetako "zugaitz" apaiñak, "jaiotzatxo" politik kenduko ditugu biar edo etzi, eta zer? Jai zeurutar auetan aurkitu al dugu Aurtxoa? Aurkitu ote dugu gure Jainkoa? Otoitz-aldi ta elizkizun alai argitsuetatik, zer atera dugu? Argitu ta poztu ote ditugu barne-muiñak eta etxeak?

## Gaurko Bataioa

*Nazaret' etik etorri  
zan Jesus, eta Joan' ek Jordan' en  
bataiatu zuan. Mk 1, 6-11*

Aspaldi ez dala, astegunez eta geienetan arratsalde izan dira Bataioak: elizkizun laburra, elizara sarreran, atzeko atean asita, edi-illunpetan, argi ta dizdirarik gabe, talde txikian, aurraren ama etxean utzita, agian aita ere etxean... Ondoren, taldetxoak atsaldekoa egin elkarrekin eta kito. Ez oroigarri ta ez aundikeria, baiña... etxean sinismen-giro jatorra, bizigarria.

Elizkizun ain berezi ta bikaiñari dagokionez, eta ospe geiago izatearren, Igandeetara aldaturik dauzkagu orain bataioak. Orrela, senitartekoak eta gaiñerako eliztarrik aski ere izan daitezke tarteko bataio-elizkizun berean. Egokiera ederra, bakoitzak bere Bataioa ausnartzeko, bai bere aunditasun ederraren aldetik eta bai berak arrerazten dizkigun eginkizunen aldetik.

Baiña zer gertatzen da? Elizkizunak elizkizun, batez ere ondorengo bazkari garestiarri ematen diote garrantzia askok

beintzat, oso erraz nabaritzen zaienez. Ori bai, beren semetxo naiz alabatxo baten Bataioa aitzaki artuta. Baiña sinismen-be-ritzea ta Bataioko eginkizunak berritzea, noizko?

Jordan ibaiko ur epeletan beste askorekin batera sarturik eta Joan Bataiatzailleak burutik beera ura ixuri ziolarik, artu zuan Bataioa Jesus'ek. Ontaraiño, beste guztien berdiñean agertu zan.

Jesus uretatik ateratzean, goietatik zetozen itz sarkor auek zabaldu ziran: "*Zu zera nere Semea, nere Maitea: Zuga dut nere atsegiña*". Orra or Jesus'en aldeko aitorpen bikaiña, Aren nortasunaren azalpen garbia, uka-eziñekoa.

Gure bataioa ere nolerebait Jesus'ekin batean uretara sartzea da: Jesus'en Eriotz-Piztuera zoriontsuen irabazietan buruz aurrera sartzea. Eta gu ere era arrigarrian, Jesus'ekin batera, Aitaren seme-alaba gertatzen gera. Auxe da Bataioaren muiña.

Beraz, zer egokiagorik, gure bizitzan ere Jesus'en antzeko izatea baiño? Egi-zaletasunean, elkartasunean, maitasunean, bizikera garbian, elkarki barkatzen eta laguntzen jatortasunean, gu ere Jesus'en antzeko, Jainkoaren eta gizakien aurrean.

Aurak bataiatzera dakarzkiten gurasoen eginkizun aundi ta astuna: beren aurrei sinismen-giroa biotzetan txertatzea da. Baiña... berak ain otz ba'daude, nolaz besterik berotu dezakete?

Guztiok ere badaukagu zer pentsaturik Kristo'ren Bataioa ospatzekoan, geurea gogora ekarriz. Bestela, zer balio digu "Kristo'renak, Kristo'renak gera" abesteak?

## Garizuma, gaur ere bai

*Jesus, berrogei egunez egon zan basamortuan. Mk 1, 12-15*

Garrantzi ta itzal aundiko gauza izan da Garizuma. Orain ogei urte baiño askoz geiago ez dirala arte, kristau-erri osoan nabari izaten zan, bai noski elizan, baiña baita etxean, barauetan, jai ta jolasetan ere. Giro osoaren aldaketa zan urte oroz.

Mintzaldi ta gogo-jardunak, Gurutzbideak eta elizkizunak, aragi-uzte ta barauak, arreta aundiz artzea zan batetik; zenbait jan-edan, dantza ta jolas uztea zan bestetik. Garizuma ez zan gauza deuseza ta utsa: zerbait ziñez serioa zan.

Orain, ordea, Garizuma'ri baiño arrera ohea egiten dio jendeak Iñauteriei, baita kristauen artean ere. Aurreko egun auetan or ibilli da jendea aurpegiz eta itxuraz aldaturik, gezurrezko jazkera ta itxurapean izkutaturik. Zeren igeska? Eta zeren billa?

Gaur ere badu Garizuma'k bere aberastasuna. Kristau asko dira ziñez eta benetan artzen dutenak. Eta ain zuzen, azterke-

tarako artzen dute aldi berezi au, eta beren buruan aldaketarako.

Gauzak oso arin artuta bizi gera une ta egunik geienetan. Dana erraza nai dugu. Ez dakigu pentsatzen eta arazoetan sakontzen. Otoitzari ta Jainkoarekiko artu-emanei muzin eginda gabiltza. Ez ziran orrela gure aiton-amonak eta gurasoak, gauzaauek arreta arduratsuz artzeari, serio artzeari dagokionez beintzat.

Orain bertan ere badira Japon aldean, Xabier'en garaian eta ondorengo martiriengandik artutako kristautasuna, sakonki ta era latzean bizi dutenak. Aiei, –beraiek diotenez– ariña ta la-saia, errazegia iruditzen zaie gure kristautasuna gaur bizi dugun eran.

Aldi edo garai egokia datorkigu, sakonki pentsa dezagun: Nola bizi naiz? Benetan balio duanik, zer egiten dut? Zertarako bizi naiz? Non aurkitzen dut bizi-poza? Zer egiten dut besteren onerako? Bizitza betea daramat, ala zearo utsa da nere biziera?

Barau ta otoitz egitera eragin zion Jesus'i Espirituak. Guri ere Espiritu Berak eragiten digu orain. Deika ari zaigu Jesus'en itzez: "*Biotz-berritu zaitetz!*"

Gaur ere badaukagu aldatu bearra, pentsakera ta biziera berritu bearrak dauzkagu. Jesus'en itza entzun eta ausnartzeak, eta gartsuki ta iraupenez otoitz egiteak, zin-ziñez lagunduko digute geure buruak eta bizitzak berritzera, aldatzera. Berritzealdatze au, ez bai-da jantziak aldatzea bezala, gain-azalekoa ta erraza, sakonagoa ta zailla baizik: bakarrean egin eziñekoa, Norbait aaltsuaren laguntzaz burutu bearrekoa.

## Entzun ezaiozute

*Au da nere Semea, nere Maitea:  
Entzun ezaiozute. Mk 9, 1-9*

Entzuten jakitea, –edozeiñi entzutea dalarik ere– gauza aundia da. Norbaiti jartzen diogun arreta adierazten du "entzutea" itzak: bakoitza bere baitan itxita egoteko orde, besterengana irekita bizitzea, alegia.

Eta gaur ez dakigu entzuten. Gu geurok gabiltza burrundara ta zarata ateratzen, besteen esanak en tzuteko orde. Mintzatu bai, entzun ez, au da gure joka-legea geienetan, eta gaurko gaitza.

Gogoeta sakonak atera dituzte idatzirik argitara Euskalerrri'ko Apezpiku edo Gotzaiek, guztiontzat aztergai, Garizuma santuari barru-aberastasuna atera dezaiogun laguntzeko guztioi.

Gaurko mundu-giroan, bakoitza bere buruari ta beretzako etekiñari begira bizi dirala geienak, esan digute Apezpikuek. Eta gero zer ageri da gizarte ontan? Iritzi ta pentsakera sako-

nik ez daukagula; gai ta alor geienetan zalantzan gabiltzala; neurketa ez-berdiñak darabizkigula geuretzat eta besteentzat; begirunerik ez diogula edozein gizakiren nortasunari; dirua ta berealako etekin zeatza ditugula jainkotzat, gure “jainko-txikitza”.

Oker eta ondamen oien iturburura jotzen dute gure Gotzaiek eta auxe da ikerketaren muiña: *“Gizakion sorburua dan Jainkoa, batzuek ez dute ezagutzen eta besteek ez dute aintzat artzen; eta ondorioz, norabide garbirik gabe dabil jendea gaur. Eta kristauok ere bai askotan”*.

Bakoitzak geure buruari askotan egin bearreko galderak: Nor naiz ni? Nondik nator? Nora noa? Zer da nere elburua edo azkena? Zertarako nago emen munduan? Zergatik bizi naiz eta zertarako? Ez naiz nere biziaren jabe, ez sorreran eta ez orain.

Beste Norbait da gure iturburu, Arengandik gatoz eta Arengana goaz. Norbait orrek, kristau sinistun geranoi dei bizi au egiten digu: *“Entzun ezaiozute... Nere Semea da”*.

Ezagutu egin bear ditugu Jesus'en itzak, eta itzen bitartez, Jesus ber-bera ere bai. Jesus da illunarentzat argi, zalantzetan sendotasun, auleriarentzat indar... Jo dezagun Berarengana ta... entzun dezaiozun arduraz, gogoz eta pozik.

### Azoka-etxe, ala otoitz-etxe?

*Ken oiek ortik. Nere Aitaren etxea ez biurtu azoka-etxe. Jn 2, 13-25*

Jerusalen'go elizara urbildu zan batean, –joan-etorri asko, gauzen trukaketa ugari– baiña Jainko-zaletasunik eta otoitz-girorik ez zuan aurkitu Jesus'ek. Eta ala esan zuan: *“Ez biurtu azoka-etxe, nere Aitaren etxea!”*

Gaurko elizkizunak ikusiko ba'litu, zer esango luke? Mezatan bakoitza bere aldetik, nai duan garaian sartu, nai duan tokian eta berea egiten... Ez al goaz lege bat betetzera, gero lasai gelditze-ko? Azokan bezala, ez al goaz osasuna ta amesten ditugun gauzak erosteko antzean? Ala, ziñez Jainkoaren billa goaz?

Oraingo mundu-giroak, egia esateko, ez digu jarrera garbi ortara eragingo. Giro naastuaren agerpen auek salatzen dituzte Euskalerra'ko Apezpikuek: Giza-bizia auskalo nola erabiltzea, bai sortu aurretik eta bai ondoren, eta ori diruaren eta indarra- ren bultzadaz; emandako itza jatea, arturiko eginkizunak ukatzea; besteren ondasunak, izen ona ta bizia bera ere gutxi batzuen ser-

bitzuan erabiltzea; gizakien ar-emezko artu-emanak, sendian eta bestela, bakoitzaren griñen arauera erabiltzea...

Gizarteko arazoetan, elkertasuna ta zuzenbidea oiñarritzat artzeko orde, gizarte-mailla ta taldeen arteko borroka darabilkite askok elburutzat, aulenen kaltean. Agintaritzan ere ez dira jokabide guztiak erri osoaren serbitzuan izaten, “adiskideen” mesedetarako baizik, eta berentarrak goratzeko. Eta auen antzeko beste jokaera oker asko ikus genitzake.

Nekaldi latzean oiñaze gogorren artean Gurutzean il ondoren, berriturik piztu zanak, aalmenik aski badu oker aundi oien kontua eskatzeko. Eta gu okerreko bide oietara erori gabe zaintzeko ere badu indarrrik. Orixe nai du ta orixe eskeintzen digu Jesus'ek.

Baiña bai al dakigu Jainkoa benetan aurkitzen gure elizako Meza bakoitzean? Zer da eliza guretzat? benetako “otoitz-etxe” eta “Aitarene etxea” al da? Nolako artu-emanak ditugu Jainkoarekin? Zer esaten diogu? Bai ote dakigu eskerrak ematen, ainbeste mesede aundi artu ditugun ezkerok? Bai al dakigu gure bizitza eskeintzen?

Zer eskatzen ote diogu ta zeinzentzat? Bakoitzak geuretzat bakarrik, eta geienaz ere guretarrentzat? Eliztarrentzat, gaitz egin digutenentzat, sinisgabeentzat, misiolariantzat, gaixo ta elbarrientzat, eliz-gizonak ugaritzeko, eta abar, zergatik ez?

Beste eliztarrekin batera, beste kristau-senideekin batean, bai al dakigu sinismen bera pozik eta biotzez aitortzen? Eta elkartasunean jokatzeko asmorik artzen ote dugu, albokoari “pakea ematen” diogunean? Guztiekin senidetasurean, anai-arreba geranez, zintzo jokatzeko indartzen geranean, orduantxe egin dugu benetako meza ta orduantxe egin dugu eliza ziñezko “otoitz-etxe”.

## Galtzera ez, salbatzera baizik

*Ain maite izan du Jainkoak mundua,  
bere Semea eman dio. Jn 3, 14-21*

Gizon-emakumeak galtzea edo ondatzea, geiegitan egiten dugu mundutarrok geure artean. Orra elkarriz egiten dizkiogun kalteak: milloika gizaki gosez iltzera beartu... gudaldietako ta kaleetako ilketak... ainbeste gizakiri ezarritako baiketak, oiñazeak, loturak, morrontzak, atsekabeak...

Bizira geure indarrrik eta meriturik gabe ekarri gaituan Egileran asmoak ez dira gu ondatzekoak; gure on eta mesedetarako asmoak dira baizik. Zalantzarik ba'genu, ona emen Jesus'een aitorten ziurra: “*Jaungoikoak bere Semea ez du mundua galtzera bidali, salbatzera baizik... Ainbeste maite izan du mundua...*”

Ez da txikia gizakion itsumena: “*Argia etorri zan mundura, eta gizakiek illuna maiteago, argia baiño; okerrak bai-zirran aien egiteak. Eta gaizki egiten duanak gorroto dio argiari, egiteek salatuko duten bildurrez*”.

Nolakoak dira gaurko mundutarron jokabideak? Euskal-erri'ko Gotzaiek onela salatzen dute: egiaren eta argiaren itxuran, okerreko iritzi batzuk dabiltzala ekintzarako oiñarritzat. Eta orrela gizon-emakumeon kontzientziaren balioa bere sus-traitik ukatzeraiño eldu dirala...

Batetik, aurtzaroko lotura ta bildurren ondorio dala kontzientzia, esan zuan Freud austriarrak. Orren ondorioz, gizakiak bere askatasuna lortuko ba' du, arau ta oiturak autsi egin bear omen ditu, batez ere ar-emezko gaietan. Zer gertatu da gero? Gaurko naasteak eta ustelkeriak gizartean. Nork ukatuko?

Bestetik, jokaeren arauketa edo gizabidea, nagusi dan "klaseak" edo gizarte-maillak bere neurrira ezarritako mugaketa omen da, Marx'ek zioanez. Orregatik, gizabidea ta erlijio-maillako arauak txartzat baztertuta, aurkakoa menperatzeko balio duana bakarrik da ona. Eta gero? Etengabeko borrokak... ilketak... Nagusitu diran tokietan, nola eldu dira komunistak agintera?

Gure mundu onen egoera zertara eldu dan ikusita, beste bide bat artu bearrean gaude. Zuzeneko bide-billa gogo onez saiatzen danarentzat, ez dago Jesus'en bidea baiño oberik ez gizartearentzat eta ez errientzat, Aren irakaspenak benetan ekintzara eramango ba'genitu.

## Bildurretik atera gaitzazu

*Orain larri dago nere barrena. Aita, atera nazazu ordu ontatik. Jn 12, 20-33*

Bildurra ez da gauza ona, baiña bai indar aundikoa. Nork ez ditu bere buru-biotzak, bere esku-oiñak bildurraren men-pean lotuta nabaitu izan noizbait ere? Bai ote, bildurra nabaitu ez duanik?

Bildurra sartzen zaigunean, oiñak ezin ibilli, eskuek deus eta ezer ezin ongi egin, begiek ezin garbi ikusi, buruak ezin ulertu, ezin pentsatu... Bildurraren loturak dira.

Eta ez da gaurkoa. Orain zazpireun urte, euskal-jatorriko Bertzeo idazleak, "Don Bildur" izena eman zion asmatutako norbaiti bere idaztietan. Zergatik, alako garrantzia?

Leen bizi omen giñan bildurrez... Gaur, bai, bizi gerala bildur-pean! Egia esateko, orain 20-30 urte arte, eragin aundia zuan bildurrak: Jainkoaren bildurra, pekatuarena, infernuarena, gurasoena, agintariena, irakasleena...

Baiña bildur aien artean eta gaiñetik, gaur baiño alaiago, pozikago bizi ziran zaarrak, gazteak eta erriak. Ez uste izan, Jainkoaren eta infernuaren bildurra astindu ta ukatu dituztelako, ez gaztedia ta ez beste, zoriontsuago bizi diranik. Era askotara lotzen gaitu gaur ere bildurrak. Beste era bateko bildurrak?

Bildurrez bizi dira gurasoak: seme-alaben bildur, non-nola dabiltzan, eta drogaren bildur... Eta guztiok ere bildurrez: ilketak, aserre-gorrotoak, atomozko gudaldia, min bizia, lanik-eza, bakardadea... Ez al da egia, bildurtzen gaituztela?

Orra Jesus ere, gure maillan jarririk, bildurrari borroka egi-ten. Pekatuan ez beste guztietan gure antzeko, bildurra ere nabaitu bai-zuan bere barnean: *“Larri dago nere barnea; eta zer esan? Aita, atera nazazu ordu ontatik”*.

Eriotzaren aurrean bildur zan, baiña uste osoa Aitarengan jarrita, astindu zuan bildurra Jesus'ek: *“Ontara etorria naiz... Aita, goretsi ezazu zure izena... Egin bedi zure naia”*. Orrela, deus ez beretzat, dana besterentzat. Izan ere, *“Gari-aleak, lurrean iltzen ba'da, ale ugari ematen du”*.

Guretzat ere au da bildurra uxatzeko bidea: Aitarengan sinistu, eta, Jesus'en antzera, dana besterentzat ematen saiatu, bai daukaguna ta bai dezakeguna, baita gure bizia ere. Orduan ez dugu ezer galtzeko bildurrik izango.

Gure esku daukaguna ta gerana, gogoz eta naita besteren onerako jartzen ba'ditugu, ez gaude ezeri lotuta; eta zer galdu-rik ez daukagunean, ez dugu bildurrik ere izango. “Bildurra garaitu zenuan Jesus, atera gaitzazu bildurretik!

## Gurutzean josi!

*Golgota'ra eraman eta Gurutzen josi zuten Jesus. Mk 15, 1-47*

Erramu-eguna ez da besteak bezalakoa, oso berezia baizik. Erramu-adarrak eskuetan ditugula abesten diogu: *“Kristo'renak, Kristo'renak gera...!”* Ain zuzen orixe da “kristau” izatea.

Aspaldiko gertaera bat ospatzea ez da naikoa guretzat. Erramu-adarrak, elizan bedeinkatuta, gure etxeetara eramatea bakarrik oso gutxi da. Erramuak bere usaiari bezala eutsi bear diogu sinismen-giroari, elizkizun ontan sakonki berrituta.

Jendetza aundiak Jesus'en inguruan, alaiki ta pozik kantari: *“Bedeinkatua, Jaunaren izenean datorrena!”* Guztiak Jesus'en lagun, jarraitzaille, maitale... Noiz arte? Iru-lagun berru, aldaketa izugarria! Zer gertatu zan bitartean?

Judutar erria samalda aundian, aldatu egin zuten gidariek. Zeiñen erraza dan artaldea batera ta bestera joan-eraztea! Bakoitza oituta ez ba'dago gauzak sakonki bere buruz pentsatzen,



artaldearen antzeko biurtzen dute buruzagiek, orduan eta orain. Naastaille ausarditsu batzuk naikoak dira ortarako.

“*Gurutzean josi!*” deadar egin zuan “erriak” eta Jesus, bere gogoz kontra, bortxatuta, indarrez, gogorrean eraman ondoren, iltzez eta ezpataz, armaz il zuten Gurutzean. Ilketa mingarriagorik ezin: legeetan oiñarriturik eta Jainkoaren izenean babestuta il bai-zuten. Zergatik, ordea? Bi arrazoi nagusi:

Bat: Jaungoikoa guztien Aita dala, guztiak seme-alabatzat maite dituana, erakutsi zualako. Aldi artako erlijio-gizonen iritziak bestelakoak ziran, ordea: Jainkoaren zorrotasuna nai zuten, jendea bildurrez, beren esanera menpean eukitzeko.

Bi: Beartsu, errukarri ta pekatarietzat ere senidetasuna ta maitasuna erakutsi zitualako. Izan ere, zuzenbidea ta maitasunaren gaiñetik, legeak, agintea ta ordena maiteago zituztenek, galduta ikusi zituzten beren buruak giro berrian. Eta ortara eldu baiño leen, kendu egin zuten bizien artetik.

Gurutzean josi zuten eta il, erlijio-zaintzailleek eta aginte-indarrek elkar artuta. Gaur ere gauza bera egingo liokete Jesus’i, eta berdin Aren jarraitzaille leialeei.

Il zuten, baiña ez betiko. Gure zorionerako, piztu zan eta bizirik daukagu. Orregatik, gurutzea ez da guretzat ondamen bildurgarria. Zearo alderantziz, benetan sinisten dugun neurrian, poz eta zorion, alaitasun eta itxaropenik bikaiñenen iturria da: betiko bizitza zorionsuaren ziurtasuna da.

## Jesus'ekin piztea

*Liburu Santuek  
diotena: Piztu egin egin bear  
zuala illen artetik. Jn 20, 1-9*

Piztu danik iñor ez du ikusi gaurko jendeak; nik ere ez dut ikusi ta beste gaiñerako sinistunek ere ez, baiña ez ikustea bakarrik ez da eragozpen garaitu-ezin bat, ez sinisteko. Zenbait jendek, ordea, eta gazteek bereziki, piztuerarik ez dute sinisten. Ezetz esaten dute beintzat.

Galdetu gazte askori ta au edo antzekoak erantzungo dituzte: “Jesus piztu zanik, ez dut sinisten; neu piztuko naizenik ere ez”. Eta lasai geldituko dira, “euria ari du” esatean bezala.

Zer da piztuera? Jesus piztu zala sinistea, zer da? Guretzat –1985’ean bizi geranontzat– nolako ikuskizuna ta balioa ditu Kristo’ren piztuerak? Oiñarrizko galdera auek ez ditzakegu utsean utzi: erantzun egokiak bear dituzte.

Apostoluen eta lenengo kristauen aitopenetan, gauza bi daude garbi ta ziur: Eriotzaren ondoren ere bada bizia, Kristo bizi-rik agertu bai-zan; eta bigarren, Kristo piztua, au da, il ondoren bizi dana, zearo aldaturik edo era berrian ageri zala.

Guk ere ziur egon bear dugu, Jesus piztu zala. Irakurle, zu ta ni baiño burutsuago diran milloika askok sinistu izan dute bi milla urteren buruan. Eta siniste orrek indar eman die, on egiñez bizitzeko; eta siniste ori aitortzearren, beren bizia emateko indarra ere eman die. Zuk eta nik sinistea ere, ez da beraz, burugabekeria; jende burutsuei kemen eman dien egia da.

Baiña, “sinisten dut” esatea ez da naikoa. Jesus’i aspaldi gertatu zitzaion aldaketa arrigarria, egia dala sinistea baiño askoz geiago ta sakonagoa da fedea.

Ziur egon bear dugu, Jesus bizi dala, gure artean daukagula no-labait. Bi edo iru kristau Aren izenean elkaturik ari geranean, bera gurekin ari dala otoitzean; eta argi egiñez eragiten ari zaigula, gure egintza onak burutzekoan.

Barnean gogo onak sortzeko, asmo on eta zintzoetan iraupena emateko, indarra duan Norbait gure ondoan nabaitzera eldu bear dugu. Gure gezur, nagikeria, gerekoikeria ta inbirien loturak askatzeko laguntzen digun Norbait: pekatuen zamapetik ateratzeko aalmena duana, gurekin nabaitzera iritxi bear dugu.

Gu kristauok, gure familiak, elkarte ta taldeak, gure erria, okerren eta zuzengabekeriaren loturetatik askatu nai gaituana da; aserre ta gorrotoen, oiñaze ta eriotzaren kateak eten zituana, guretzat ere askatzaille nabaitu bear dugu. Gure askatasun osorako dei bizia da Jesus’en piztuera.

Guretzat, Kristo piztuagan sinistea, au da: arrazoia ta nagusitasuna ez dituztela azkenean, ez okerrak, ez gorrotoak, ez gaitzak, ez ilketak, ez pistolak, ez eriotzak. Indar guzti oien gaiñetik, nagusi ta garaille atera zan Jesus bere piztueran. Azkenean ere bera nagusituko da, eta gu ere bai, sinismenez Arekin bat egiten dugun aiñean eta neurrian.

## Gaur nola sinistu?

*Zorionekoak, ikusi gabe sinisten dutenak. Jn 20, 19-31*

Alde bietako muturretara jotzea, oso erraza da gizakiontzat; bai, gizon-emakumeon joera bai-da, erdian gelditzeko orde, muturretara jotzea. Eta gaurko gizakien joera are nabarmenagoa da. Onela, atzeratuene, beren aztoratu-aldian, muturrik aurreratuenera jotzen dute; eskubitarrek, ezkerreko ertzera; ez-jakiñek, goieneko arrokeriara...

Gidarien esanak, itsu-itsuan sinisten dituzte politika-alderdi edo partiduetako jendeek. Baimen-gabe ta izkututik ateratzen diran paperetako salaketak, aztertu gabe, oso-osorik egitzat artzen dituzte; ikustirradi edo telebisio ta zineetako gauzak, bete-betean sinisten. Eta ez umetxoek bakarrik.

Erljio-gaietan, ordea, beste muturrera jotzen dute: dana ikusi, dana ikutu, dana azkeneraiño aztertu nai dute. Eta bestela, ez dute ezer sinistuko. Beste gaietan, pentsatu gabe jokatzen

dute, baiña erlijioan dana eztabaidatu nai, azkenean sinistu gabe gelditzeko aitzakien billa.

Jesus'en Piztuera ta ildakoen piztea, ez dituzte sinistu nai gaurko askok. Tomas sinis-gogorraren antzera, dana begiz ikusi ta eskuz ikutu nai dute, dana buruz ulertu nai; ez dute sinistu nai bestela. Eta or dago okerra: Jesus'en piztea ez da begiz ikustekoa, ez eskuz ikutzekoa, ez buruz ulertzeko gauza.

Gutziz bestelakoa da baizik: izkutua, arrigarria, misteriozkoa da, Jesus nola piztu zan. Eta ori sinistu aal izateko, Jainkoaren doai edo aalmen berezi bat dan sinismena bear dugu.

Kristo'ren Piztuera beretzat bakarrik ez dan ezkerro, guk nola bizi, nola geureganatu dezakegu? Geure barnean nabaitu bear dugu, Kristo piztua gurekin eukitzeak damaigun poza; une guztietan gurekin daukagula sinisteak ematen dizkigun ziurtasuna ta segurantzia nabaitu bear.

Siniste orrek argi ta indar izan bear du eguneroko gure bizitzan. Jesus'en antzera, gu ere egiaren eta zuzentasunaren billa, aserre-gorotoen aurka, biziaren alde, beartsuak babesten... saiatu-erazi bear gaitu aspergabean.

Neke ta zailtasunen, eraso ta atsekabeen artean, iseka ta burlen erdian aspertu gabe, bizia babesten, senidetasuna ereiten eta poza zabaltzen jarraitzea, -Jesus'ek egin zuan era berean-, orixe izango da gure sinistearen agerpenik ederrena ta ziurrena, eta guretzat aberasgarriena.

## Zuek testigu

*Jesus'en izenean; biotz-berritzea ta barkapena guztientzat. Lk 24, 35-48*

Burua, pentsatzeko erabiltzen duan jendea, au dana eskatzen asi dala esan bear: itz gutxiago ta egintza on geiago; itzak gutxitzeko, eta egite onak geitzeko itz ederren neurrian; itzetatik egi-tetara jotzeko... Izan ere gaur aiña itz ez da sekulan barreiatu, paper eta liburuetan, irrati ta ikustirratietan, itz-burrundara izugarriak datoz belarrietara.

Itz geiegi dira, guztiak mamitsu ta sakonak izateko; geiegi dira, guztiak egia izateko. Baiña itz-burrundararen bidez buruan sartu ta sinistarazi nai dizkigute zenbait arinkeria ta gezur.

Eredu ta jarraibide bikaiñak ditugu Apostoluak beren egi-teetan. Kosta zitzaien Jesus piztua ziñez onartzea: egia izateko, gauza arrigarria ta ederregia iruditzen bai-zitzaien, Gurutzean il eta illobian sartu zutena ber-bera, berriz bizirik ikustea.

Baiña Jesus beren begiz ikusita, Arekin janez eta edanez, Arekin itzegiñez, Berarekin bizi izanez, lortu zuten zalantzak uxatzea: mamu bat edo ametsetako norbait ez-baiña, Jesus ber-bera zala egiaz sinistea lortu zuten.

Piztea zer zanik ez zekiten. An zeukaten, ordea, berriz ere Jesus beren artean. Era arrigarrian bai, baiña Jesus ber-bera zan ziur baiño ziurrago: ukatu eziñeko egia! Berri ori baiño oberik, zer bear zute beren bizitzak zearo argitzeko?

“Zuek zerate gauza auen testigu” esan zien Jesus’ek. Oso berentzat artu zituzten itz oiek Apostoluek. Bereala asi zan Pedro, bildurrik gabe ta kementsu otsegiten guztien aurrean: “Zuek il egin zenuten zintzoa ta bizi-iturria, baiña Jainkoak piztu egin du illen artetik; gu gera gauza auen testigu”.

Orrela, Pedro ta aren lagunak ixildu-erazterik ez zuten lortu munduko indar guztiek: ez diruak, ez bildurrak, ez nekeak, ez oiñazeketak eta ez zigorrak, ezerk ez zituan aldatu-erazi; ezta ixildu-erazi ere. Itzez eta egitez, azkeneraiño, bizia kendu zieten arte, egin zuten testigutza garbia ta uka-eziña.

Orain guri esaten digu Jesus’ek, guri sinistunoi: “Zuek zerate gauza auen testigu”. Noiz artuko ote dugu kristauok testigu izate ori? Arrigarria zan lenengo kristauen testigutza: Kristo piztua, itzez aitortzeaz gaiñera, egitez lagun urkoa benetan maitatuz, bizia gogorrean kendu arteraiñoko testigutza. Ziñez ta benetan sinistearen indarra zan ori.

“Zuek testigu...” Gure izketak, lanak, jokaerak, ikasketak, ibillerak eta gu ikusita, nork esan dezake, “oiek dira Kristo piztuaren benetako testiguak”?

## Gidari on bat bear

*Artzai onak bere bizia ematen du bere ardien alde. Jn 10, 11-18*

Bakoitza bere buruaren jabe izatea, gauza aundia da noski, baiña oso zailla; gaur zaillagoa da azkotaz ere, eta batzuentzat eziñezko gauza bezala. Eta orixe da egiazko askatasuna.

Nork bere buruz pentsatzeko ta nor bere buruaren jabe izateko bideak, itxi egiten dituzte edozein eratako diktadura guztiek, onela jokatzuz: “Zuek ez pentsatu. Zuen orde, guk pentsatuko dugu. Zuek, lan egin, jolastu... Gu gaituzute zuen gidari”.

Nola jokutzen dute politika-partiduek? Gidari ta buruzagiek berentzat artzen dituzte pentsatzea, aztertzea, erabakitzea, bideak jartzea... Bazkide ta jarrizaillek, goikoen esanak ixilixilik egitea beste lanik ez daukate; eta bestela, kanpora.

Gauza bera egiten dute saltzailleek ere: janari-edariak, jantziak, berebillak, garbigailluak... nai duten guztia eroatera beartzen gaituzte beren itz-jario legunez. Orrela ezartzen dituzte “modak” eta oiturak. Nork iges egin indar oiei?

Batez ere gazteak erabiltzen dituzte zurrunbilloan. Gurasoen, irakasleen eta Eliza'ren esanak baztertu-erazi egiten dizkiete askatasunaren izenean eta itxuran. Eta gero beren esanak sartzen dizkiete buruan marxismo-komunismo ta sozialismotik artuta, abertzaletasunaren izenean eta internazionalismoaren izenean.

Guztiok batera "Beeee!" egingo dugun artalde biurtu nai gaituzte, eta ala biurtzeko arriskuan gaude. Non ditugu, bakoitzak bere buruz pentsatzera eragiten digutenak? Nortzuk dira, bakoitza bere buruaren jabe izatera laguntzen digutenak?

Ziñezko gidari on baten bearrean gaude ainbeste naasketen artean. Baiña naastuko ez gaituana, bere erara erabilliko ez gaituana, iruzurrik egingo ez diguna; pentsaraziko diguna ta gure nortasuna indartzeko bidean eragingo diguna.

Eta Jesus baiño gidari oberik ez dugu aurkituko, onela mintzatuz: "*Ni naiz artzai ona..., ezagutzen ditut nere ardiak; aiek ere ezagutzen naute Ni. Eta bizia ematen dut ardiengatik*". Nork egin dezaiguke, utsean, eskeintza oberik?

Itzez edo irakaspenez, eta batez ere egitez, beti aurretik dijoakigu. Ori da gidaria ta ez, bera atzean gorderik, besteak aurrera bidaltzen dituana. Moda, bildur, arrisku, engaiñu ta naasketeta guztien artean gidari garbia, zuzena, Jesus dugu, gure onerakoa.

Iñori bizia kendu ez-baiña, Berak bere bizia besteren onerako eman zuana. Gidari ziurragorik ez dago, bere bizia beste bizirako ta zorionerako ematen duana baiño.

## Sinistu ta frutu eman

*Nigan dagoanak, eta Ni arengan, frutu ugari ematen du. Jn 15, 1-8*

Iñor gutxi dabil bakarka. Bildurra diogu bakar-bizitzari, bildurra diogu bakardadean geure buruari. Alde guztietan taldean gabiltza gaur: jolas-tokietan, ikuskizunetan, kaleetan, jendez betetako etxeetan, ikastetxeetan, lantegietan...

"Batasuna" ta "elkartasuna" itzak barra-barra erabiltzen ditugu jendeok gaur. Baiña gizon-emakume askoren barruak eta biotz-ondoak, ziñez eta benetan bakarrik daude, utsik eta otz daude. Kristauak ere asko dira beren barnean utsunea ta bakartasuna nabaitzen dituztenak. Egi-egia aitortuko ba'lute...

Arazo ta lan askotan sarturik dabilta, agian; batetik eta bestetik zertara ta noruntz bultzatzen dieten, alde artara makurtuz dabilta ez gutxi ere. Baiña beren barnean lagun zintzorik ezaren utsunea ez al daukate? ez al dute nabaitzen?

Maatsondotik etendako aienak bezala dira: barruz igartuak, bizirik gabeak. Egoki datozkigu Jesus'en irudi biziak, maatson-

doa gai artuta: “Ni maatsondoa naiz, zuek aienak zerate... Ni-gan dagoanak eta Ni arengan, frutu ugari ematen du... Nigan ez dagoana... igartu egiten da...”

Kristauontzat, Jesus da gure buru-biotzetako laguna ta gidaria, bakardadeak eta illuntasunak uxatzeko argi bizia. Artu-eman eta elkar-izketa biziak, adiskide-girokoak, bear ditugu Jesus’ekin, elkartasun estua lortu bear dugu.

Nola? Argia eskatuz, sinismena geitzeko esanez, eskerrak emanez, Aren itza gogotsu irakurriz eta ausnartuz. Orixe da gu Kristo’gan bizitzea: aiena maatsondoari bezala, gu Kristo’ri lotuta bizitzea. Bera gurekin dugun ezkerro, gu gera Arengana jo bear dugunak eta gure gogo-biotzak naita Ari itsatsi bear dizkiogunak.

Jesus’ekin ziñez elkartuta bizi geran aiñean, gure barne-indarrak bizirik iraungo du. Orduan, gure sinismena ez da ezpaiñetakoa bakarrik izango; poza ta indarra izango ditugu, besteekin elkartasuna egiteko; sinismen-argia izango dugu oparo, besteei zabaldu aal izateko. Orixe da frutu onak emateko bidea.

Egia, maitasuna, zuzenbidea, elkartasuna, laguntza ta pakea izango dira gure frutu onak. Ugari ta oparoak izan daitezela! Eta jakin dezagula besteen serbitzuan jartzen: orduan-eta aberatsago ta bikaiñagoak izango dira.

## Alaitasun berezia

*Maitasun aundiagorik ez da, bizia ematea baiño. Jn 15, 9-17*

Algara, soiñua, builla ta zarata ugari alde guztietan... Itxura batean, jendea pozez gaiñezka. Baiña egi-egiaz, alaitasunik bai al dauka jendeak? Ezetz esan bear, asko-askori begira beintzat.

Alaitasun-itxura aundiak bai, egiazko alaitasunik, ordea, iñork gutxik dauka. Illunpetan bakarrik dabillena, bildurrak uxatzeko, kantari asten dan antzera, tristurak uxatzeko dira algara burrundatsuak eta lagunarte zaratatsuak.

Egiazko poz eta alaitasunerako bideak, ez ditu edonork aurkitzen. Aberastasunak, gorputzeko gozamen-jolasak, gidaritza ta agintearen lillurak, jantzi ta dotorezi garestiak, aurrerapenak, tresnak, etxeak... auek dirala uste dute askok, zorionaren iturri; gauza oietantxe dagoala zorion betea. Baiña... zorion sakon eta iraunkorrik ez dute or aurkitzen.

Gauza oiek eta beste geiagok ere ez dute giza-biotza asetzen eta zoriontsu egiten: era egokian erabillita, lagundu dezakete, baiña biotza zorionez ase, ori ez. Begiratu zer gertatzen dan: ezereen faltarik ez daukatenak eta gauza ugariz beteak, oietxek dira, nazkatuta, beren buruak iltzera irixten diranak, eta ez iñola ere, gosearen zamapean ezin bizirik dabiltzanak.

Gure barnean zerbait berria pizten zaigu, Jesus'en itz auek entzutean: "*Ori guztia esan dizuet, nere poza zuengan izan dezazuten, eta bete-betea izan dadin zuen poza*". Eta Jesus'ek badaki zer esan zien eta zer esaten digun.

Aitagandik dator Jesus'en poza: Aren naia egin, Aren adis-kidetasunean bizi; eta Aitaren doai diran bizia ta maitasuna, esker onez artu, eta beste guztiei oparo zabaldu. Or poz-iturria!

Kristo'ren alaitasuna ez da, bizia ta gauzak beretzat gordetzea, guk nai izaten dugun bezala. Zearo alderantziz baizik: besteak poztea, alaitasuna guztiei kutsatzea, zoriona ereitea, dana ematea azkeneraño... "*maitasun aundiagorik ez da, bizia ematea baiño*". Ortan dago poz-alaitasunen egiazko iturria.

Ezurrak, bere tokitik kanpora dagoanean, min ematen digu; bere tokian du atsedean gozo. Guretzat ere, Jesus'en antzera, pakea ta alaitasuna izango ditugun egoera, ontan dago: Aitaren Aginduak eta naia betetzean, eta daukaguna ta gerana, besteei ematean.

Alperrik ibilliko gera bestelako billaketan. Izan ere ez baidago maitasun aundiagorik, eta ez dago alaitasun-iturri garbiagorik. Ortatik datorkigu alaitasun iraunkorra, barnekoa, sakona, aberasgarria, berezia.

## Zerura begira? Bai!

*Jesus, zerura igo zan eta Jainkoaren eskubi-aldean dago. Mk 16, 15-20*

Aspaldiko oarrak dira auek: Goruntz begiratzeko ez dirala gai abereak; beren begiak alboetara ta beeruntz ikusteko eran dauzkatela. Gizakiok bakarrik dauzkagula begiak goruntz begiratzeko era egokian... Ala izango da, baiña arazoa nagusienik ez da aurpegiko begiena, biotz barruko jarrerari dagokiona baizik.

Noruntz begira bizi gera, ordea, gizakiok? Kristauok onela esanez salatu izan gaituzte kanpotik: "Zuek, gerokoari ta zerruari geiegi begiraten diezute, baiña emengo arazoei ta bea-rreri begiak itxi egiten dizkiezute".

Zati bat egia du salaketa orrek. Zerua billa genbiltzan ustean, bizkarra eman diegu askotan kristauok arazo larriei: zuzengabekeriak, okerrak, aserre ta gorrotoak, zapalketak, geiegikeriak e.a. ez ditugu ikusi izan..., zenbaitetan ez-ikusia egingo genien... Oker oiek aldatzen eta zuzentzen, ez gera saiatu, bear aña beintzat. Ori egia da.

“*Zoazte mundu osora!*” esan zien Apostoluei ta gauza bera esaten digu gaur Jesus’ek guri. Berri Ona eramán eta... okerrak zuzentzen eta on egiten erakutsi ta lagundu dezaiegula mundutar guztiei. Orra or zeñien lan bikaiña jarri digun!

Leen Jainkoagana geiegi jotzen gñuala eskean? Leen geiegi begiratzen gñuala zerura? Orra orain goikoz beera aldatu gauzak: Jainkoa ta betiko zoriona ez ba’lira bezala bizi dira gure artean ere asko ta asko, emengo gauzetan buru-belarri sartuta.

Baiña... Jainkoaz eta zeruaz aazteak, okerraren aurka ta zuzentasunaren alde, lan geiago egitera eramán al ditu? Orain, Jainkoaz aaztuta, senidetasuna ta pakea jartzeko gizartean, neke geiago artzen al dute? Ezetz esan bear. Leen orrelako egiñaalik egiten ez zutenek, orain ere ez; eta leen egiten zuten zenbaitek, orain deus ere ez.

Geiago oraindik: Jainkoa ta zerua, ez ba’lira bezala, bazterteak, berekoiago biurtu ditu jendeak, diru-zaleago, nagia-go ta goibelago edo tristeago, elkarren etsaiago.

Betiko zorionean Aita zai daukagula ta Jesus gurekin dugula zerura bidean laguntzaille... Ori guztia aaztutzeak, ez digu mesederik egiten, ez digu indar emango zuzentasuna ta senidetasuna gizakien artean zabaltzen saiatzeko. Jendeek zer esango digutenaren bildurak utzita, Aitagana jo bearrean gaude.

Begira dezagun zerura! Begira dezaiogun Aitari, orain eta gero guztion senidetasuna nai duan Aita onari. Begira dezaiogun Jesus’i, senidetasunean elkar pozteko ta okerrak zuzentzeko, gure laguntzaille bai-dugu. Aitaren maitasuna, Jesus’en laguntza ta betiko zorionaren poza, benetan gauza aundiak ditugu; eta indar emango digute, emengo zailtasunak garaitzeko.

## Zatoz biotzen argi!

*Ar ezazute Espiritu Santua.  
Jn 20, 19-23*

Garrantzi aundiko gertaera izan da Eliza’ren sorreratik kristauon artean, “Pentekostes” izenean ospatzen duguna: Espiritu Santuaren etorrera, alegia. Sinismen gartsua dutenek beti esan izan diote xamurkiro eliz-otoitz au bai abestiz eta bai ixillean: “Gaixoen Aita, etxelagun atsegin, doai-emaille, biotzen argi”. Eta alaxe da izan ere egi-egiaz.

Beste giro bat dago, ordea, nagusiturik orain. “Espiritua” itza bera ere ez dute gogozkoa gaur jendeek, ikusten eta ikutzen ez duguna dalako. Eta begien aurreko ta eskuen arteko gauzak nai dituzte bereziki: jolasekoak, gozatzekoak, besteak zapaltzekoak, pillatzekoak, indarrezkoak, jate-edatekoak, gora igotzekoak...

Diruz erosi eziñezkoak, barnekoak, pakezkoak, itxaropeneko gauzak, bazterrera uzten dituzte askok, geiegik. Izan ere orrelakoak ezagutzeko ta berengan nabaitzeko zoririk ez bai-



dute izan ainbestek eta ainbestek, ez aurtzaroan eta ez gero. Eta ber-berak nabaitu edo beregan bizi izan ez duena, zer den ez daki batek. Eta orixe da gertatzen zaiena.

Baiña Sortalde ta Sartaldeko jendeak, etsipen-giro illunak erasanda, beste zerbaiten billa asi dira... Ekonomiak, politika-aldaketak, ideologiak eta gizarte-borroka etengabeak ez diete argirik egiten, ez diete bizi-poz altxagarririk ematen biotzera.

Egoera ontan bai argitsu dirala Jesus'en itzak: "Aitak nere izenean bidaliko dizuen Laguntzailleak, -Espiritu Santuak- Arek erakutsiko dizue dana, eta oroit-eraziko dizue, Nik esan dizuedan guztia". Laguntzea, irakastea, argitzea... bai bearrezkoak!

Bere barnean Jainkoaren babesa ta Espirituaren argia aurkitu dituanak, indar aundia nabaituko du bere buruaren jabe izateko, zailtasunak eta eragozpenak garaitzeko, on egiteko, sendetasuna zabaltzeko, barneko pakea lortzeko, poza ereiteko...

Eliza'rekin batera esan dezaigun guk ere: "Bidali zure argi-izpia. Bete argiz gure biotzetako bazter illunak... Garbitu, zikin dagoana; busti, legor dagoana; gogor dana, bigundu; okerra, zuzendu; otza, berotu; zauri guztiak sendatu..."

Espirituaren eragiña ta argia oso bearrezkoak zaizkigu kristauoi gaur ere, antziña Apostoluei ta martiriei izan zitzaizkien bezala; bearrezkoak, irtenbide berriak eta argitsuak aurkituko baldin ba'ditugu gaurko ezin eta naaste berrien artean. Bestela, Jainkoaren salbazio-asmoak eta bideak ezagutu eziñik ibiliko gera, askotako ta askoren antzera.

Au guztia, ordea, bestek esan digulako bakarrik ezin uler-tua da. Bakoitzak dei egin bear diogu Espirituari, eta bakoitzak aurkitu bear dugu Espiritu Santua, barneko bizi-laguna ta biotzen argia.

## Jainkoa, bakarti? Ez!

*Bataia itzazue Aitaren eta Semearen  
eta Espiritu Santuaren izenean.  
Mt. 28, 16-20*

Ikusi ez ditugun gauzen irudiak, bakoitzak geure erara egiñak dauzkagu gure barnean. Eta Jainkoa ez dugu sekulan ikusi geure begiz. Orregatik, auskalo zer-nolako irudia daukagun bakoitzak! Auskalo Jainkoa nolakoa dala iruditzen zaigun bakoitzari!

Jainkoa dala-ta, nolako irudia ote dago askoren buruetan? Norbait aundia dala, guztia ikusten duana... aserrea, zorrotza, kontuak eskatzeko beti prest eta zigortzeko zai dagoan norbait bakartia, triste ta illuna...? Orrelako zerbait iruditzen al zaizu? Bai? Ez? Aztertu al duzu, pentsatu al duzu beñere?

Jaungoikoa ez da ori, ez da orrelakoa. Oso okerreko irudia litzake, gisa ortako zerbait edo norbait dala uste izatea. Beti elkartasunean, adiskidetasunean eta maitasunean bizi dan norbait da Jainkoa: Aita, Semea ta Espiritu Santua, iruak elkar ezagutuz eta maitatuz, zorion bete-betean bizi dan Norbait zo-

ragarria da kristauontzat Jainkoa, Jesus'ek erakutsi zigunez beintzat.

Irutasun Donea danez, iruen arteko maitasuna da, edo dana elkarri ematea da Jainkoa. Nola? Ez dakigu, gure buru txiki auetan sartu ezin diralako gauza auek. Baiña nolabait onela adieraziko dugu: bere poz eta zorionez gaiñezka eginda bezala, gure meriturik ikusi gabe, utsean, guganako maitasunez eta bere zorionetik guri ematearren, gu ezerezetik sortu ta munduan jarri ginduan Norbait guztiz aaltsu arrigarria da Jaungoikoa.

Maitasunez sortu ginduanak, beti gure onerako maite gaitu. Eta gu ere elkartasunean nai gaitu: Aita ta Semea ta Espiritu Santua'rekiko adiskidetasunean nai gaitu, zerutar sendian, Bereaiekin zorion berean eta betean betiren betiko.

Irutasun Donea'ren izenean bataiatuak geranez, Beraren urrats edo aztarna sakon eta kendu-eziña daramagu barne-muiñean: Jainkoaren seme-alaba generala adierazten duan ezau-garria; orain izkutuan dagoana, baiña egunen batean bere edertasun osoan argitsu azalduko dana, guk Jainkoa ikusiko dugunean.

Sinismenaren argira bakarrik ezagutu dezakegu, maitasuna dala Jainkoa ta maitasunaren iturri agortu-eziña dala. Ain poz-garria dan egia benetan sinistu ta bizi ba'geneza, obeak izango giñake, eta alaiago ta pozikago biziko giñake; eta gure inguruan senidetasunaren zorion argia ereiteko ta zabaltzeko indarra izango genuke.

Auxe da, beraz, Jesus'ek ekarri digun Berri Onaren muiña. Eta ortatik artu bear dugu zuzeneko irudia gure buru-biotzeta-rako, eta uraxe bai izango zaigula irudi aberasgarria.

## Zeren billa zabiltzate?

*Ikusi zuten non bizi zan Jesus eta  
Arekin gelditu ziran. Jn 1, 35-42*

Billa ibiltzekoa da gizakion jarrerarik aberasgarriena. Gure ezaguera ta naimena, ain zuzen, ez daukatena lortu nairik eta daukatena geitu asmoz, etengabean billa dabiltza. Orixe da izan ere, aalmen oien izaera: geiago ta sakonago ezagutzea, geiago ta sakonago nai izatea.

Jakiñean naiz oarkabeen, baiña beti zerbaiten billa gabiltza gizon-emakumeok, jaiotze-une beretik asi ta azken-arnasa eman bitarte osoan. Eta billa ez dabillena, aseta dagoana, laister nazkatuko da: bukatutako norbait zaartua, ondatua izango litzake.

Guztiok gabiltza zerbaiten billa, baiña ontan dago arazoa edo korapilloa: Zeren billa? Ainbeste neke ta lan, ainbeste ibiltze, arrisku ta amets, zerbaiten billa darabilzkigu, noski. Bai ote dakigu ziurki zer nai dugun?

Dirua, ospea, agintea, nagusitasuna, gozamina, indarra, jolasa, jan-edana, atsedena... Orrelako zerbaiten billa ibiltzen dira geienak; baiña gauza guzti oietatik nai aiña eskuratu arren, izango al luke zorion bete gizaikiak? Izango al luke atsedena osoa?

Ez eta ez. Izan ere, irrikaz amestutako gauza guztiak bere esku euki arren ere, zearo ase gabe irauten duan gose-egarria, edo utsunea nabaituko luke gizaikiak bere biotz-ondo sakoan.

Orregatik, galdera sakonagoa egin bear dugu: gauza guzti oien gaitetik eta azken-azkenean, gure asmoen sakonenean, zeren billa gaitza zu ta ni?

“Zeren billa gaitza?” galdegin zien Jesus’ek, atzetik zi-jozkion bi gazte aiei. Eta aiek galdera mamitsu au egiñez erantzun zioten: “*Maisu, non bizi zera?*” Jesus’en billa zebiltzan eta... Jesus’ekin egon ziran eta Aren lagun egin ziran. Eta Jesus’engana eraman zuan aietako batek, Andres’ek Pedro bere anaia. Ez zan alperrikako billaketa izan.

Kristauok gure otoitzetan, gure elizkizunetan, bai ote dakigu Jesus’en billa ibiltzen? Jesus’ekin adiskidetasunezko artu-eman pozgarri sakonak eukitzera eldu bear genuke. Orixe, bai, litzakeala Jaungoikoa benetan aurkitzea!

Orduan gure senideei ere Jaungoikoagana lagunduko genieke; eta berdin, ingurukoei ta urrutikoei, txikiei ta aundiei, guztiei lagunduko genieke, geu ta umeak ere misiolari biur-tuta.

“Zatozte ta ikusi!” esan zien Kristo’k bi ikasle aiei, eta gu-ri ere dei bera egiten digu. Billa dezagula, beraz, Irakasle zerrutar au, ezagutu nairik eta sinismen-argira ikusiz, ziñez aurkitu aal izan dezagun.

## Sinistu Berri Ona

*Ordua bete da, biotz-berritu zaitezte, sinistu Berri Ona. Mk 1, 14-20*

Lurbira osoko gertaerak bazter batetik bestera ain laister eltzen diranez, non zer gertatzen dan jakiteko irrikaz bizi gera: albiste ta gauza berrien egarri gaitza, jakin-miñak eta berri-pozak jota. Oraintxe ezerk ez gaitu arritzen, ez gaitu ezerk asetzen, eta beti geiago ta geiagoren irrikaz gaitza.

Eta ona emen norbaiten dei bitxia, dei ausarta benetan: *Sinistu Berri Ona*. Ez da nola-naiko albiste edo berri bat, azkenengo, arrigarria. Berri ori, ONA da. Geiago oraindik: besteri entzun bezala, otz-otzean esango dugun albiste bat ez da. Aintzat artu bear dugun berri ona da, SINISTU bear duguna.

Gizaseme gazte bat ausartu zan dei ori egiten; eta aukeratu talde txiki bati bakarrik ez, beste ainbeste berrizaillek egin duten antzera. Gazte onek Galilea ta Judea’ko erri ta jende guztiei egin zien deia, berari sinistu zezaioten.

Geiago ere bada oraindik: ikasle batzuk aukeratu zituan eta “giza-arrantzale egingo zaituztet” esanez, dei ori bera, sinisteko dei ori alegia, eguzkipeko bazter guztietan zabaltzera bidali zituan. Jakiña dago: Jesus ez dan beste edonor izan ba’litz deitzaillea, aspaldi aazturik eta galdurik zitekean dei ori. Eta bere inguruko eskeintza amesgarri guztiak ere aaztuta.

Baiña Jesus zalako, ia bi milla urteren buruan, guganaiño ere eldu da dei sarkor aren oiartzuna. Gaur ere deika ari da, kristau geranoi beintzat: “Sinistu Berri Ona” esaten digu, eta gure bidez beste askori ere esan nai die gauza bera.

Eta Jesus’en Berri Ona ez dira aberastasunak, txaloak, gozamen-jolasak eta antzekoak. Argi ta garbi esanda, Jaungoikoa bera da Berri Ona, albiste ta berririk onena gizon-emakumeentzat.

Guretzat ere Berri Ona ote da Jaungoikoa?. Auskalo nor eta nolakoa dalakoan artzen dugun Jaungoikoa, eta gero ezin “orrelakoa” sinistu. Baiña ez Jainkoaren erruz, gure okerreko ustearen erruz baizik, ez dan bezalakoa iruditzen zaigulako.

Norbait bizia, maite gaituana, gurekin daukaguna... azaldu zuan Jesus’ek, eta Arekin etengabeko artu-eman bioztian agertu zan Bera, gaueroko bakar-otoitzean eta egunezko otoiz agerian.

Gaurko jendea Jaungoikoaren aurrean ain otz aurkitzen ba’da, nork emango dio irudi ohea, pozgarria, zuzeneko ta egiazko irudia? Guk, kristauok, Jaungoikoa sinisteak alaiago, argiago, gizakoiago ta jatorrago egiten gaituan neurrian. Ori litzake siniste kutsakorra, emankorra ta aberasgarria, geuretzat eta besteentzat.

## Itzal aundiko itza

*Arriturik zeuzkan danak, itzal aundiz irakasten bai-zien. Mk 1, 21-28*

Gure gaurko mundu ontan galdurik dute beren itzala, bai itzak eta bai irakaspenak edo erakusaldiak. Zergatik ote da? Aztertu bearreko gaia da.

Mintzatzean eta idaztean, itz ederrak eta apaiñak erabiltzen ditugu. Baiña gero... gure itzak eta irakaspenak edo erakutsiak, ez ditugu betetzen: gaur esan eta biar ukatu, gaur itza eman eta biar jan. Aizean galtzen dira asko ta askoren itzak.

Pake-itzak, elkartasun eta maitasun-itzak barra-barra zabaltzen dira alde ta era guztietara; eta itz oiek balio ez ba’lute bezala, “solidaritza” ta “solidaritatea” itzak dabilta itzetik ortzera; eta zer esanik ez, paperetan! Baiña, nork sinisten ditu? Zenbat-eta dotoreago diran, ainbat-eta utsago gertatzen dira.

Orregatik, ez itzei ta ez irakaspenei ez diete begirunerik eta ez diete itzalik ere gaurko jendeek: ez dituzte aintzat artzen, ez ditugu sinisten... Eta iñork baiño gutxiago sinisten dituzte gaurko gazteek. Ez da arrigarri. Aztertzekoa da, ordea, zer sinisten duten eta nori sinisten dioten, utsean ez bai-daude.

Euskaldunentzat zerbait aundia ta itzalgarrria zan itza. Eta edonorentzat begirunez artzekoa zan euskaldunen itza, baita atzerri urrutietan ere. Bein emandako itza, Gorbea, Aizkorri ta Aralar mendietako arkaitzak bezain tente ta zutik irauten duan zerbait sendoa ta iraunkorra bai-zan gure aurrekoen aoan. Itza itz zan, eta kito! Gauza bera esan ote dezakegu gaur? Obe genuke!

Begiratu gidari ta buruzagi askori: politikan, diru ta ekonomi-gaietan, langille-arazo ta sindikatueta dabilzanei. Gaurko itza biar jan, biarkoa etzi ukatu... Jendea itzez okiturik eta nazaturik egotea, ez da arritzeko gauza.

Sinismen-alorrera jota, zer esan? Beste gai ta arazoetako piakaiztasun eta sinisgogor-giroa, eragozpen gertatzen da sinismeneko egiak sakonki sinistu aal izateko bidean.

Kristauok nola ote gabiltza sinismen-gaietan? Bataioan emandako itza, eta beste Sakramentueta berritu ta sendotua, or daukagu emanik. Gero, ordea, nola betetzen dugu? Nork eusten dio itzari?

Ezagueran sartu ondoren emandako ezkon-itza, zenbatek jan dute? eta "legez" eta agerian ez ba'da ere, biotz barnean sendo eusten al diote? Lekaide ta lekaimetarako itza ere, ezaguera-adiñean emana, zenbatek autsi dute? Areago oraindik: Elizari ta Jainkoari erriaren aurrean emandako itza, apaizetarako itza, zenbat apaiz eta eliz-gizonek jan dute? Eta bein jan duanak, -garrantzizkoan jan ere- geiagotan ere aixa jan dezake kezkarik gabe.

Itza... Jesus'ek bai itzal aundiz itzegiten zuala! Leialtasunez betetzen zuan esandako guztia, eta orrela lortu zituan jendearen begirunea ta itzala. Badaukagu guztiok zer ikasirik aski!

## Eriotza ez, bizia bai

*Asko sendatu zituan Jesus'ek era guztietako gaitzetatik. Mk 1, 29-39*

"*Gaixo ta deabrudun asko sendatzen zituan Jesus'ek*", aitorpen egiten du Markos ebanjelariak. Oiñazez, gaixorik, elbarri zeudenak, Jesus'engana eramaten zituzten eta Arek sendatu egiten zituan, botika ta sendagairik gabe sendatu ere.

Deabrudunak ere eramane oi zizkioten. Nola edo ala, baiña giza-aalmenak baiña indartsuagoko zerbaitek bere menpean zeuzkanak ziran deabrudun aiek; jendengan bildurra sortzen zutenak. Eta Jesus'ek, bildurrik gabe ta aginte osoz, deabruak bidalirik, beren buruen jabe uzten zituan, pozik eta era berrian.

Oiñaze ta gaixotasunen arazoa konpondu gabe utzi zigun Kristo Salbatzailleak. Gaitz guztiak desegiteko sendagai arrigarririk ez bai-zigun sortu. Orrela beraz, oiñaze ta gaitzak beti izango ditugunez, geuk saiatu bearra izango dugu gaixotasunen aurka.

Baiña gauza aundi bat erakutsi digu Jesus'ek: Jaungoikoa ez dala oiñazearen, miñaren, gaixotasunaren eta nai gabearen aldekoa. Zearo bestela baizik: osasunaren, pozaren, zorionaren eta biziaren aldekoa dala Jaungoikoa. Ziur egon gaitezke, ori guztia erakutsi digula Jesus'ek bere egitez eta jokabidez.

Gizakiok, bitartean, eriotzaren alde jokatzen dugu geiegitan. Bakoitzak geuretzat eta gure adiskideentzat, bizia nai dugu noski, baiña besteentzat bizia baiño eriotza naiago dugu. Aitorpen geiegizkoa, aitorpen gogorra dala? Gogorra baiña egiatzkoa. Ikus ditzagun orain-oraingo zenbait jokaera.

Eriotzaren aurka ta biziaren alde aterako gera, itzez; baiña egitez eta benetan, biziaren aurka jokatzen dugu. Zer egiten dugu, gure kaleetan ilketak betiko buka daitezen? Zer egiten dugu, aur jaio-gabeak, ama-sabeletik bizitzako argitara agertu baiño leen, iñork izkutuan il ez ditzan? Bakoitzak geure erosotasuna zaintzea naiago dugu, besteren biziaz arduratzea baiño. Or daude bizi-bizirik arazo bi oiek gure artean.

Oitu egin gera eriotzen eta ilketen aurrean. Or daukagu gosearen arazo larria, beltza: milloika lagun gosearen gosez iltzen ari dira. Batez ere Etiopía lurraldean, egunero millaka iltzen dira ta sei milloi arrisku larrian daude. Era berean Afrika'ko Chad, Mozambique, Sudan, Mali, Angola ta beste zenbait errialdetan. Eta zenbait geiegikeritan lasai jarraitzen dugu.

Eta zer? Nazio aundietako agintariak, iltzeko armak egiten eta saltzen jarraituko dute; guk, berriz, geure maillako geiegikerietan. Eta bitartean, gosea or ari da jendea iltzen eta erosokeria ere bai gizaki jaio-gabeak desegiten. Noiz arte?

### Nai dut: Zaitetz garbi!

*Jesus, nai ba' duzu, garbitu nazakezu.  
Nai dut: Zaitetz garbi. Mk 1, 40-45*

Oso garbi-zale bihurturik gabiltza gaurko gizartean: dana garbi ta txukun nai dugu. Bildurra diogu zikiñari, sekulako bildurra diogu kutsaketari. Kontuz, gero, gu iñork iñola ere kutsatu!

Antziñako giro atzeratuan zenbait gaitz sortzea, ez da arrigarri. Eta azaleko gaitz kutsakorrari zioten bildurrik latzena, sendatzeko ez bai-zuten sendagai indartsurik. Legenarra edo lepra zan oietako bat izugarria, eta oraindik ere bai.

Erria gaitz kutsakor guztietatik zaindu aal izateko, gizartetik kanpora uxatzen zituzten eta urrutiratzen kutsaturiko guztiak: mendiko bakardadean, ez senitartekoen eta ez erlijioaren babesik, errukarriro bizitzera beartuta egoten ziran kutsatuak.

Esan ditugun zeaztasun latzak, naikoak ez ba'lira bezala, judutarren artean beintzat, pekatuaren zigortzat arturik, pekatarizat salatzen eta baztertzen zituzten lepradunak.

Kutsatu oietako bat, lege ta debeku guztien gaiñetik aurrera jota, Jesus'engana urbildu zan ausardi aundiz eta, aundiagoko sinismenez belaunikaturik, onela mintzatu zitzaion Jesus'i: "Zuk nai ba' duzu, garbitu nazakezu".

Ikustekoak izango ziran ingurukoen begiratuak, gizagajo errukarriagandik aldenduz. Jesus'ek, berriz, errukizko begiratu ta maitasunezko itzak eta egintzak: eskua luzatu gaixoari, ikutu legenarduna, eta itz auek esan zizkion: "Bai, nai dut. Zaitetz garbi!" Eta une berean sendaturik eta garbi biurtu zan gizona.

Orra or Jesus, gaitzaren eta pekatuaren aurrean bioztun, txar guztiak oinperatzeko indartsu ta aaldun. Eta aldi berean, lotura oien menpean zegoan gizakiarentzat errukitsu ta maitakor, betio garbitzen eta beti on egiten aspergabe.

Orain azaleko legenarra menperaturik daukagunez, beste batzuk baztertzen ditugu gaur: erderaz ez dakitenak, ez-ikasiak, ez-jakiñak, lanik gabeko beartsuak, drogaren arrak joak, buruz atzeratuak, umeak, zaarrak, lanerako gauza ez diranak...

Eta jenderik geiena iltzera baztertzen duan legenar berria, gosea da gure mundu ontan gaur. Zer egiten dugu?

Aldi berean, ez litzake txarra izango zuretzat eta neretzat, gorputzez osasuntsu gabiltzanez gero, begi zorrotzez gure biotz barruari begiratzea. Dana garbi ote daukagu? Ez ote genioke askotan esan bear: "Zuk dakizu, Jesus, zer daukadan garbitu bearrean. Ikus dezadala ta ezagutu. Nai ba' duzu, garbitu nazakezu, zure gogoko ez diran gauza guztietatik".

## Jeiki ta zoaz!

*Seme: barkatuak dituzu zure pekatuak.  
Jeiki ta zoaz! Mk 2, 1-12*

Galilea ta lurralde artako Kafarnaun, bi izen oso ezagunak dira kristautentzat, askotan aipatuak bai-dira Ebanjelioan. Eta orra gertaera bat guztiz mamitsua ta gu sinismenean sendotzeko egokia.

Ziur aski Pedro'ren etxean egongo zan Jesus eta an asi ziran entzuleak barrura sartzen, dana betetzeraiño. Atez kanpora ere jende asko pillatu zan. Inguru-marian zabaltzen ari zan, nonbait, Nazaretar izlariaren sona edo entzutea, eta egarriz zi-jozkion entzutera. Zerbait berria esaten zualako? Arrigarria zalako?

Eta an agertu zan laukote bat esku-oean elbarri bat zeramatela: bere oiñez joateko gai ez zana, etzanda zeramaten lau lagunek. Eldu ziran ingurura, saiatu ere bai jende-artean bidea irekitzen Jesus'enganaiño irixteko asmoz. Baiña alperrik zan: jendetza ura ez zegoan iñori tokia uzteko, nai baiño urrutiago bai-zeuden.

Oin bakarreko etxetxo aren gaiñera igo, askatu bearrekoak askaturik, zuloan beera soketan eratxi zuten esku-oea Jesus'en

aurrera. Zer pentsatu ote zuten entzuleek? Eragozpenen aurrean etsi gabe, sinismen aundiz jokatu zutela ikustean, –guztiak begira zitularik– ona emen Jesus, iñork uste gabeko itzak esaten: “*Seme, barkatuak dituzu zure pekatuak*”.

Guztiak arritu ba’ziran ere, erne zeuden idazlariak, biziro aserretu ziran, beren baitan onela mintzatuz: “*Zer ari da au biraoka? Jainkoak bestek, nork barka ditzake pekatuak?*” Egia zioten, Jainkoak bakarrik barka ditzakeala pentsatzean. Begien aurrean zeukatena, nor zan, ordea? Ortan zeuden oker.

Idazlariengan, zalantzak baiño areago, zearo zuzenak ez ziran asmoak ikusirik, argi ta garbi eman zien aien galderei erantzuna: “*Lurrean pekatuak barkatzeko eskubidea badutala ikus dezazuten, ona zer egingo dutan: Zuri esaten dizut: Jeiki zaitez, artu esku-oea ta zoaz etxera*”. *Eta perlesiduna bereala jeiki zan eta, esku-oea arturik, guztien aurrean atera zan andik*”.

Zenbait gaixotasun aundi, pekatuaren ondorio ta zigortzat zeuzkaten judutarrek. Eta orra or Jesus’ek, gaixotasuna menperaturik, osasuna biurtzean, naikoa garbi azaldu zuala, pekatuaren aurka zetorrela, pekatua oinperatzera zetorrela.

Are argiago adierazi nai izan zien, ordea; zalantzarik ez uzteko eran mintzatu zitzaizen galdera baten bidez: “*Zer da errazagoa, ‘barkatuak dituzu zure pekatuak’ ala ‘jeiki ta zoaz’ esatea perlesidunari?*” *Entzuleentzat eta guretzat, biak eziñezkoak, baiña elbarria sendatzeko indarra zuan itzak, aalmenik aski bazuan esandakoa egiteko, agerian bezala biotzen izkuttuan ere*.

Pekatuaren ondoriotzat zeukatena oinperatzean, gaitzaren iturri dan pekatua ere zapaldu zuan egiazko barkapenaren bidez.

## Senar-berria ta baraua

*Senar-berria berekin daukate.*  
*Mk 2, 18-22*

Zaarra ta berria, leengoa ta oraingoa, atzokoa ta gaurkoa... betikoa edo gutxienez oso antziñakoa da aldien arteko eztabaida. Obeto esanda, aldi bakoitzaren aldekoen eta aurkakoen borroka da bizi-bizirik dabillena beti jendeen artean. Zer da ohea, leengoa ala oraingoa? Oitura zaarrak ala berriak ote dira obeak?

Leengoei askoz obetzat oso setati eusten diete batzuek, zaarrak beti onak diralakoan; baiña berri guztia ona dalakoan, oraingoen alde itsu-itsuan borrokatzen diranak ere ez dira gutxi. Arazoa ez dago borrokan, eta ez dago ez setan eta ez itsutasunean. Askoz sakonagoa da arazoa, eta irtenbidea ere, beraz, askoz burutsuagoa billatu bear dugu. Izan ere, ez zaar guztia da txarra ta ez berri guztia ona, bietan bai-dira onak eta txarrak. Egoki aukeratu bear!

Leengo txarra uztera ta on berria artzera dei egin zigun Jesus’ek, oiñarri artuz judutarren galdera: “*Joan’en ikasleek eta farisearrek barau egiten dute, eta zure ikasleek zergatik ez?*” Barau egiteko oitura aundia zuten oso antziñatik, bai beren



erruak ordaintzeko, bai mesedeak lortzeko, bai Jainkoari apaltasuna adierazteko. Baiña Jesus'en garaian, Joan'ek zintzoki egiten ba'zuan ere, farisearrek beren buruak eredugarri erakusteko egiten zuten askotan, Jesus'ek nabarmendu zuanez.

Mamitsua da Jesus'en erantzuna: *“Barau egin al dezakete ezta-lagunek senar-berria berekin daukaten bitartean?... Etorriko dira senar-berria kenduko dieten egunak”*. Eztaiak ez dira barau egiteko, senar-berriarekin aldi batean alai egoteko baizik; gero ere bada barau egiteko aukera. Eta Jesus'entzat nor da senar-berria?

*“Leialtasunez artuko zaitut nere emazte, eta zuk ezagutuko duzu Jauna”* esaten digu Oseas igerleak gaurko irakurgaietan, Jainkoa senar eta erria emazte adieraziz. Itun Zaarrean Jainkoa bere erriaren senar aitortzen ba'zuten askotan, orain senar-berri egiñik daukagu Jesus, guztien jarrera ta egintzak berritzera etorria. Eta baraua ere Jainkoarekiko artu-eman jatorra girotzeko eran berritu zuan, eta gure buruen arrotasunerako.

Baraua, barau zorrotza, arrokeria biurtu zuten farisearrek. Eta gaur zenbatek egiten diote parre edo iseka kristau-barauari? Baiña gero barau latzak egiten dituzte, beren buruei jan-edanak gogor ukatuz. Eta zergatik? Beren gorputzen liraintasuna nai dutelako. Barau danik ez dute esango, baiña ala da, arinkeria baiño asmo sakonagorik ez ba'dute ere; orregatik, ez da kristau-baraua.

Geure buruei, geiegikeriak murriztuz, gauza asko ukatzea, mesedegarria da, bai geren buruen jabeago biur gaitezen eta bai gure ukapen-ildurak Jainkoari eskeiñi aal izateko. Nolanai ere, jan-edanetik barau egitea baiño bearrezkoago zaigu, arrokeria, aserre ta gorrototik, arinkeria ta ajolarik ezetik barau egitea. Au da Kristo'ri atsegin zaion eta guri mesedegarri zaigun baraua.

## Gizakia ez da legearentzat

*Gizakiarentzat egiña da Larunbata,  
eta ez gizakia Larunbatarentzat.  
Mk 2, 23- 3,6*

Gizartean elkarrekin era egokian eta pakean biziko ba'gera, bear ditugu legeak, nai ta nai ez bear ditugu gaiñera, iñor ez bai-gera aingeru, akatsik gabe guztiei beti ongi egiteko. Alderantziz baizik: akats asko ditugunez, mugak jarri bearra daukagu legeen bidez, elkar erabat ondatuko ez ba'dugu. Orrelakoak izaki gu.

Gauzak orrela, legeak iñorentzat bearrezko izatekotan, aulenak diranentzat dira bearrezkoen, babesa izan dezaten erakundeen al-detik, indardunek aixa babesten bai-dituzten beren buruak eta gauzak. Baiña legeak askotan indargabeen kalterako gertatzen dira, beetik gora ez-baiña, indardunek goitik beerrako egiñak izaten diralako. Beti ta edonon izan dira orrelakoak; era guztietako dikatuduretara, ordea, geienik eta kaltegarrienak.

Eta gizarteko lege askoren inguruan gertatzen dana buruan daukagularik, Jainkoaren lege ta aginduak ere lotura itogarritzat ez al ditugu artzen geiegitan? Eta orduan, lasai ta zoriontsu bi-zi nai duten guztientzat, gu estutzen eta larritzen gaituan nor-bait zorrotza bezala, ez al dute artzen Jainkoa? Baita kristauoi ere orrelaxe iruditzen zaigu askotan: Aita deitzen diogun arren, aginduen bidez lotu egiten gaituala Jainkoak.

Gauzak, ordea, guztiz bestela dirala, esaten digu Jesus'ek: "*Gizakia ez da Larunbatarentzat, eta bai Larunbata gizakiarentzat*".

Eta Larunbata bezala, beste legeak ere: gizon-emakumeon onerako jarriak dira Jainkoaren asmoetan. Kristauon Igandeak ere guretzat mesedegarri ta alaigarri diran jai-giroa ta lan-uztea ditu ardatz, aldi berean astia izan dezagun Jainkoa lasai ta pozik goraltzeko.

Gai berari jarraituz, au ere esaten digu Jesus'ek: "*Larunbatez, zer da zillegi: on egitea ala gaitz egitea? Bizia salbatzea ala iltzen uztea?*" Gidari legezaleak mutu gelditu ziran. Orduan Berak eman zigun erantzunik baikorren eta pozgarriena, gizon elbarria, beso-igarra sendatuz. On egiteak ez duala, alegia, Larunbata austen eta beste legerik ere ez, eta legeak ez dirala on egitea eragozteko; on-gintza ta egiazko zoriona ematea indartzeko baizik.

Arira datoz Pagola'tar J.A. jaunaren itz sakon auek: "Eli-za'ren lenengo eginkizuna, ez da arau zeatzak ematea. Askoz garrantzizkoagoa da, gaurko jendeei laguntzea, onako au berai-ek aurkitu dezaten: Jainkoak sinistunei ez diela gauzatxo bat bera ere ezarri, gizakien izaeraren eta beren egiazko zorionaren kalterako danik".

Kalterako ez ba'dira, beraz, gure onerako dira. Eta beso-igarrarentzat Jesus bezala, gizaki guztiontzat Jainkoa da lagunik onena, bizitzaren egiazko balioa aurkitu aal izan dezagun.

## Nor ez da errudun?

*Oker eta pekatu guztiak, gizakiei barkatuak izango zaizkie.  
Mk 3, 20-35*

Besteren erruak oso argi ta erraz ikusten ditugu. Okerrak eta erruak besteei leporatzea, errazegi egiten dugu. Eta ori betiko gaitza ez al da guztiongan, bai gizonezko ta bai emakumezko?

Antziñako gaitz zaarra da, nork bere erruak ez ezagutzea. Geiago oraindik, bakoitzak bere gaiztakeriak besteei egozte: Adan'ek Eba'ri, Eba'k sugeari, sugeak... Orrela egotzi zietela elkarri beren errua esaten du Liburu Santuak, eta ori dionean, zerbait sakona adierazi nai digu.

Jesus'en garaian ere berdin: "*Deabruen buruaren indarrez botatzen ditu orrek gaixoengandik deabruak*", leporatu zioten Berari. Eta auskalo zer geiago esan zituzten Jesus'en kaltetan, Aren senitartekoak larritzeraño: burutik egiña zegoalakoan, beraiekin batera eraman nai izan bai-zuten berriz Nazaret'a, antxe leen bezala ixillean egon zedin.

Gaur ere indar aundiko jokaera da erruak besteei leporatzea. Gezurretako erruak ba'dira ere, bota beintzat besteen kaltean. Geienetan, berriz, nork bere erruak estaltzearren, nork bere burua garbitzearren. Gezurretan dala jakinda ere, beti uzten dio bere aztarna kaltegarria egozten diotenari. "Gezurra ere esateko egiña omen da", diote euskaldun zaarren artean. Zoritxarreko gezurra!

Ezerk baldin ba'da-ta, besteak salatzeak eta gezurrezko erruak besteei erasteak, oietxek bai min eman oi ziotela Jesus'i. Orregatik dio: *Oker eta pekatu guztiak barkatuko zaizkie gizakiei, baiña... Espiritu Santuaren aurka birao egiten duanak ez du sekulan barkapenik izango... pekatuaren errudun izango da betiko*".

Jesus barkatzaille aundiaren aoan ez al dira itz oso gogorak? Or agertzen da gure giza-askatasunaren edo aukeramenaren aunditasuna, bere arrisku ta guzti: barkapena lortuko ote du, ala betiko errudun izango ote da? Bakoitzak jokutzen du bere aukera.

Bere arrokerian itsu ta gogor, bere errua ezagutzen ez duanak, barkamenari bideak ixten dizkio. Kristo'ren aldetik barkamena beti gertu dago, baiña... artu nai ez duanarentzat, ez du balio barkamenak: bere erruan galduko da, eta bera izango da errudun eta besterik ez.

Jainkoaren aldetik ez daukagu utsik, beti barkatzeko baidaukagu, Isaias'en bidez ere adierazi zigunez: "*Ni nintzan, Ni, zure gaiztakeriak garbitzen nituana; ez nituan gogoan artzen zure pekatuak*". Perlesiak gizon ura bezala, elbarri ta ibilli eziñean gauzkate gu gizakiok gure erru ta pekatuek. Jeiki-erazita bidal gaitzala Kristo barkatzailleak on egiñez ibiltzera.

## Txikiaren balioa

*Azirik txikiena da mostaza; gero barazki guztiak baiña aundiago.*  
*Mk 4, 26-34*

Gauza aundien zale gera beti gizakiok eta gaurko gizon-emakumeak are aundi-zaleago. Leengoen ekintzak eta markak autsi egin nai ditugu alor guztietan: jakitean, aurrerapenetan, lanean, jolas eta kiroletan, apustuetan... Ori ez legoke gaizki. Baiña ez ote dira ari gaurko gizakiak, txarrean eta kalte-gintzan ere aurrekoen markak austen?

Eguneroko gertaera txikiek ez gaituzte arritzen. Uroldeak, ez-berrak, lur-ikarak, ildakoen multzoak, gudaldi aundiak bear ditugu arritzeko, eta aintzakotzat artuko ba'ditugu ere bai.

Eta ona emen gauza aundi ikaragarriak: milloika gizaki gosez iltzen, milloika lagun ez-jakintasunaren atzaparretan, milloika lanik gabe, milloika sendagairik ezaz il-zorian, etxe ta erririk gabe beti erbestean...

Bitartean geiegikeria galantak gizakion erruz: elkar iltzeko izkillutan erretzen dituzten dirutzak; geiegizko jan-edan eta jantzi garestiak, ibillaldi ta ospakizunetako diru-pillak... Eta dana, goserik eta ez-jakiñean daudenen kaltean.

Diktadurak nagusi diraneko espetxeratuak eta erio-zigorpekoak. zenbat diranik, nork jakin dezake? Eskubitarren diktaduretan asko, ezkerreko diktaduretan askoz ugariago. Zuzen-gabekeriaren erreinu dira geiegitan.

Gure artean bertan, berriz, leerketak eta apurketak, baiketak, lapurretak, tiroak, kaleetako giza-iltzeak... Ain ugari dira gure Euskalerrian!

Gauzak onela daudenez, gure erria, gure gizartea, gure mundua, eta bertako gizakiak, zuzentzeko ta obetzeko, zer egin dezakegu? Auxe da askoren erantzuna: "Nik deus ez dezaket... Dirua ta indarra dituzten agintari ta erakundeek egin dezatela".

Ez du orrela pentsatzen Jesus'ek: "*Azirik txikiena da mostaza, baiña jaiotzen danean, goruntz dijoa...*" Okerrak zuzentzeko, beraz, ez dugu "aundi" izan bearrik. Azi txikiak erein bear ditugu aspertu gabe; txikiak, baiña onak eta ugari. Gure esku dago ori.

Zenbat gauza txiki ta onak egin ditzakegun, txikiak baiña ugari! Egia esan, zuzen jokatu, eskuak garbi euki, barkatu, otoitz egin, eskua luzatu, alai bizi, poza ta irriparra zabaldu, besteen txarkeriak aaztu ta on-egiñak txalotu... Banaka artuta, gauza benetan txikiak dira; guztiz mesedegarriak, ordea.

Kristau sinistedun guztiok onela egingo ba'genu, agintari ta Estadu indartsuek baiñoon edo mesede geiago egingo geniokie elkarri, eta mundu osoari ere bai. Gure ekintzak mesedegarri izatea ez bai-dago beren aunditasunean, beren ontasunean bai-zik.

## Zergatik ain bildurti?

*Zergatik orren bildurti? Ez al duzute oraindik sinismenik? Mk 4, 35-40*

Latza da munduko giroa: lan egitea ta bizitza aurrera ateratzea, ez dira gauza errazak, neke ta zailtasunez beteak baizik. Eta oietaz gaiñera, beste zailtasun asko geitzen dizkiogu elkarri, aserrez eta gorrotoz jokutzen dugunean bereziki.

Aize ta ekaitzez astindutako itxasoaren antzera jarria daukagu mundua: Batzuen agindu-naia, besteen diru-zalekeria, emengoen txikiketak, angoen gogorkeriak, urrengoen erasoak, eta ezin-ikusiak... salaketak...

Giro latz onen aurrean, zer jokabide artzen dugu? Bakoitzak bere burua ta lasaitasuna zaintzeko, iges egiten du arazoan artetik, eta txoko bat egiten du gordelekutzat: eguneroko lana ta txurrutatxoak, an edo emen otordu goxoak, gauero egonaldia ikustirradiari begira, oporrak...

Era ortan bere txokoa egiñik daukanak, lasai bizi nai du: iñori ez dio laguntzarik emango, baiña berari ere pakean uztea

eskatzen du. Pakean utziko diote, baiña barnean ez du pozik izango, ustatun otza baizik.

*“Zergatik zerate ain bildurti? Ez al duzute oraindik sinismenik?”* Galdera auek berak egiten dizkigu Jesus'ek guri ere gaur. Eta guk zer erantzungo diogu?

Larri zebillen Job zintzoa, baiña bere larrialdian, itsasoa baiño aundiago dan Jaungoikoagana jo, eta Arengan jarri zuan bere uste osoa. Ala uxatu zituan bere bildurrak eta izuak, sinismen sendoz zapaldu zituan bere larritasunak.

Gu ordea... Gauzak eta arazoak benetan artzeko bildurrez gabiltza: geure barnera begiratzeak eta geure ustatuna aztertzeak, bildurtuta gauzka; nagikeria ta erosotasuna utzi bear ditugula ikusteak, bildurtu egiten gaitu. Azkenean, benetan sinisteko ere bildurrez gaude. Aul eta bildurti gera, egia aitortu nai ba'dugu.

Zergatik ain bildurti? Gogo biziz eta ziñez sinistuko ba'ge-nu Jesus'engan, laister astinduko genituzke bildurrak. Ain zaarra dan gure bildurrarenak, bereala egingo luke, eta gu, Kristo'ren adiskidetasunean, sinismenaren argi ta pozez indartutako sorkari edo izaki berri izango giñake.

Itsasoa arro ta gaiztoturik izan arren, Apostoluak nola bildurtu zitezkean, pentsatuko dugu, txalupan Jesus beraiekin zutelarik. Itsaso aztoratuaren antzeko dan munduko astin-aldie-tan, zergatik larritu bear dugu kristauok, Kristo piztua beti gu-rekin dugularik? Benetan sinistean, ala ezean dago arazoa: zenbat-eta sinistunago, ainbat-eta bildur gutxiago.

## Zuk, sinistu bakarrik

*Ez izan bildurrik. Zuk, sinistu bakarrik. Mk 5, 21-43*

Askotan esan dut asteroko pentsakizun auen artean: gaur ez dago modan kristau-sinismena edo fedea; alderantziz, “ez dut sinisten” esatea dago oso modan. Baiña... bitartean zenbat arinkeria uts sinisten dituan jendeak, benetako egiak ba'lira bezala! Sinistu, baiña zer? Ortan dago arazoa, or dago koska.

Zenbait egunkaritan esana, zenbat-eta salaketa gogorragoa dan, orduan-eta pozikago sinisten dute batzuek. Izkutuko pa-peretan idatziak, izenik gabeko orrietan zabalduak, baten eta bestearen aurkako salaketaz beteak... oiek bai sinisten dituzte-la, itsu-itsuan sinistu ere gaurko fedegabeek!

Beste zerbait da, ordea, siniste salbagarria. Esate baterako, au guztia: *“Eriotza ez zuan Jaungoikoak egin, eta ez du atse-giñik Jainkoak bizi-en ondamenen. Bizirik irauteko egin zituan Arek gauza guztiak... Illezkor egin zuan Jainkoak gizakia, eta bere izatearen irudi egin zuan...”*

Biziaren jaun eta iturri dugu Jainkoa, gu ziñez maite gaituan Jainko aundia. Bere bizitik eman digu, eta betirako bizi-rik nai gaitu. Au guztia sinisten duana, ez da etsipen illunean eroriko.

Gauza bera ikusi bear dugu Jesus'engan ere. Eriotza menperatuz, biziaren jaun agertu zaigu: *"Ume, zuri esaten dizut: Altxa!"* Eta nexkatoa, eriotza uxaturik, bizi-az gaiñezka beterik jeiki zan.

Gertaera ain bitxiaren aurrean guztiak arritu ba'ziran ere, ez zioten guztiek sinistu, beren itsuan eta biotz-gogorrean jarraitu bai-zuten askok. Bazekian Jesus'ek zer eskatu bere ingurukoei: *"Zuk, sinistu bakarrik"*. Eta alabatxoa gaixorik ilzorian, eta gero ilda zeukan aitak, orixe egin zuan: sinistu. Eta ederki saritu zion bere sinistea Jesus'ek.

Pozik gogoratzekoa da, gaixorik zebillen emakumearen us-te sendoa ere: *"Soiñekoa bederen ukitzen ba' diot Jesus' i, sendatuko naiz"*. Bai sendatu ere !

Jairo izeneko aitak bezala, sinistu egin bear dugu. Bestetik, luzaroan gaixorik zebillen emakume arentzat sendaketa-iturria, zer izan zan? *"Alaba, zure sinismenak sendatu zaitu"*.

Sinistea oztu zaionak, sinismena galdu zaionak, galera aundia du. Benetan sinistek, barruko gaitz askotatik sendatuko gaitu: gerekoikeria, arrokeria, bakardadea, etsipena, goibeltasuna, e. a. sendatuko dizkigu egiazko sinistek.

"Sinistu nai dut, Jauna! Sinistu dezadala!"

## Bizitzen ikasi bear

*Arriturik, onela zioten: Zer da onek duan jakinduria? Mk 6, 1-6*

Gauza asko ikastea ta, ikasketa sakonak egiñez, aurrerape-nak sortzea, txalogarri da. Zertarako ditugu, bestela, gure adimena ta buruko argia? Irakasle edo Maisu ospetsurik ere izan da. Orain bertan ere asko dira jendetza aundien gidari ta maisu izan nai dutenak. Zer eskeintzen dute? Eta zer ematen?

Izan da bat, besterik ez bezalako, "Rabbi", Irakasle, Maisu esaten ziotena, atsedetik gabe irakasten ibilli zana. *"Iñork ez du orrela irakatsi..."* esaten zuten txunditurik eta arrimenez.

Ain zuzen ere Kristo zan Maisu ori. Eta gu "kristauok", izenez, Kristo orren ikasle, jarraitzaille gera. Baiña izanez? zer ikasten diogu ta zertan jarraitzen diogu? Zertan nabari zaigu, Aren ikasle ta lagun gerala? Zertan gera Aren antzeko? Gure bizitzan zerk adierazten du Kristo'rekiko leialtasuna?

Jesus'engan sinistu nai ez zutenak, beren arrimena gordeta, gaizki-esaka ta Ura gutxien saiatu ziran. Gaur ere badira

“dana dakiten oietakoak”, Jesus benetan ezagutu gabe, zaar-tutzat, aspaldikotzat, eskola-gabekotzat baztertzen dutenak. Oiena ez da arritzekoa: ez dira sinistedun edo fededun.

Eta kristauok, zer? Nor da Jesus guretzat? Askorentzat, auxe: aspaldi izan zan norbait berezia, mirarigillea... errukiturik, beartsuei laguntzen ziena... norbait ona, baiña... gaurko mundurako balio ez duana... Ez al dute onelaxe pentsatzen kristau ez gutxik? Bestela pentsatuko ba'lute, nabarituko litzaieke beren bizitzan eta jokabideetan.

Jesus benetan ezagutu ba'geneza... Jesus'i jarraitzen saiatuko ba'giña..., orduan erabat aldaturik izango lirake gure pentsaera ta biotzak, eta zearo berriturik lirake gure bizitzak.

Norbait bizia, gurekin daukaguna, geure barrutik argitzen gaituana da Jesus. Eta balio aundiko bizitza eramaten erakusten diguna: gauzak geuretzat bakarrik pillatzea baiño, ematea obe dala; ordaiña ematea baiño, obe dala barkatzea; gizon-emakumeak maitatzea obea dala, gauzak baiño; gozamen-atsegiñen billa ibiltzea baiño, besteak poztea askoz zoriontsuago dala...

Benetan ikas ba'genezaio Jesus'i, orduan, diru guztiz erosi ez genezakean aberastasuna erantsiko genioke gure bizitzari. Bai, bizierarik aberasgarrienaren Maisu bai-da, onela esanez eta onelaxe izanez: “*Ni naiz egia, bidea ta bizia*”.

Naparroa'ko Zaindari, Fermin donearen egunetan geranez, gogoan izan dezagun bera. Bizitzan zintzoki jarraitu zion Jesus'i, kristau ta bestelako ugari argituz, eta eriotzeraiño izan zitzaion leial. Fermin martiriak lagundu dezaigula mundu-aldian kristauki bizitzen, eta eriotz-orduan itxaropenez bete gaitzala.

### Zoaz, eta otsegin!

*Joan ziran, eta biotz-berritu zitezela, otsegin zuten. Mk 6, 7-13*

Ikasiaren ikasiz eta gertuera onaren bidez, batek bere burua irakasle, sendagille, legelari, jakitun naiz beste zerbait garrantzitsu izatera eraman dezake. Baiña bere burua igerle, iñork ez deza-ke egin. Eta Jainkoaren ordezkoko ere ez.

Ikasbide ederra ar genezake Amos igerleagandik. Gezurrezko igerle zalakoan-edo, ixildu-erazi egin nai izan zuan Amasias apaizak, eta Amos'ek onela erantzun zion: “*Ni ez naiz igerle, ez igerle-seme ere. Artzai bat naiz...*”

Berak ez zuala, alegia, bere burua igerle egin, eta onela zion gaiñera: “*Artaldearen atzetik nenbillelarik artu ninduan Jaunak, eta ala esan zidan: ‘Zoaz, eta otsegin ezaiozu igerle-itza Israel nere erriari’*”. Artzai ta piko-iñausle zana, Jaunak bidali zuan bere itza otsegitera beekoei ta goikoei, erri osoari.

Jesus'ek ere antzeko jokabidea artu zuan: arrantzale ta auen kideko batzuk, ikasketa aundirik, dirutzarik eta gizartean goimailarik ez zuten batzuk bidali zituan bere izenean eta orde.

Zergatik orrela? Argi ta garbi auxe ulertu-erazteko guztioi: Erlijioaren balioa ta Jainkoaren itza, ez dirala gureak; gu zenbat-eta aulago geran, orduan-eta nabariago agertzen dala eragiña edo indarra ta balioa, Jainkoarenak dirala, ez gureak.

Guk, ordea, ikasketaz eta tituluz, diruz eta tresnaz, aurrerapenez eta gauza aundiz orniturik ibilli nai dugu. Ortan dagoala iruditzen zaigu, ortantxe Jainkoaren itza ta erreinua zabaltzeko indarra. Baiña ez da orrela. Egia da bai, lagungarri on izan daitezkeala, neurri egokian erabiltzen ditugunean, baiña indarra ta balioa ez dira gauzenak, Jainkoarenak dira baizik.

Beste nunbaitetik datorkigu sinisgarritasuna; obeki esanda, Norbaitengandik, Jesus'engandik datorkigu, alegia. Arek bidali zituan Apostoluak eta Berak bidaltzen gaitu gu ere, geu biotz-berritu gaitzen eta besteei lagundu dezaiegun obeak izaten.

Eskuak eta oiñak, buruak eta biotzak, aske edo jarein, libre euki bear ditugu gauzen loturetatik: zenbat-eta gauza gutxiago dauzkagun, orduan-eta gutxiago izango dugu zerbait galtzeko bildurra ere. Amos igerlea ta Kristo bezala, gauzen loturarik gabe, zerbait galtzeko bildurretik aske.

Jesus'ek bidaltzen gaituanez, goazen sinismenez argi, itxaropenez pozik eta maitasun-egintzak burutzeko indarturik, Bera gurekin dugu-ta. Berak esaten digu guri ere: "Zoaz eta otsegin nere Berri Ona, Jainkoaren maitasuna ta barkapena, zuen arteko senidetasuna... Otsegin pakea."

### Zatozte... atsedeen artzera

*Artzairik gabeko ardiak bezala  
bai-zeuden, luzaro erakutsi zien.  
Mk 6, 30-34*

Gauza ederra da atsedena. Eta ain zuzen ere udaldiko illabate auek dira atsedeen artzeko, orain izaten bai-dira opor-egunak. Garai batean aberatsak bakarrik ziran oporrak zituztenak; orain, berriz, saripeko lana egiten duten guztiek izendaturik dauzkate egun batzuk, lanik gabe, atsedeen artzeko.

Gizartearen aurrerapena da, zalantzarik gabe esateko. Nekazariak eta arrantzaleak izango dira oraindik ere oporraldi jakiniñik, eta lana eginda bezala sariturik, ez daukatena. Lanaren eta buru-austeen loturetatik eten-aldia egin eta atsedeen artzea, gizakiarentzat mesedegarria da, baita bearrezkoa ere geienetan.

Zer dira, ordea, askoren oporrak? Jan-edanean, ibillian, atseginkeriazko jolasetan, geiegikerian jo ta ke ibiltzea... Eta azkenean, asieran baiño nekatuago; indar geiegi erreta, diru asko



txautu izanaren damuz, atsedetik artu gabe, indarririk berritu gabe... Mesedegarri ala kaltegarri?

Jesus'ek ere bere adiskideei opor-alditxo bat egitera deitu zien: *Zatozte zuek bakarrik, leku baztertu batera, atsedetik pixka bat artzera*". Jateko ere astirik gabe ibiltzen bai-ziran zenbaitetan, jendetza aundiak zituztelako atzetik eta alde guztietatik.

Erriz-erri ibilli ziran, biotz-berritzea ta aldatzea jendeari eskatuz. Nekaturik itzuli ziran eta Jesus'ek atsedena eskeiñi zien: beraiek bakarrik Jesus'ekin, lanak aztertuz, biotzak lasaituz, indarrak berrituz eta elkartasunean poz-giroa sortuz. Ezin atsedetik oberik, orrela gogo-berritzea baiño.

Lan-orduak, ibilli luzeak, jolasak, buru-austeak, arazoak... presaka bizian larri ibiltzera beartzen gaituzte. Igande ta jaiak ere beti ain presaka milla gauzatarako, eta bitartean Mezatarako astirik gabe, Jainkoaz aaztuta. Ez al da ala?

"Ondo pasatzea" beste ametsik gabe ibiltzeko ordeztu, beste gauza batzuk ditugu buru-biotzen aberasgarri: sendi-giroa, adiskide- artea, izadiaren edertasunak ezagutzea, pentsatzeko ixiltasuna, otoitz egiteko tarte bat egitea, zeruko Aitari gure bearrak azaltzea ta eskerrak ematea...

Gauza oiek guztiak, bai bearrezkoak zaizkigula, ardi galduen antzera, burua non dugun ez dakigula ibilli ez gaitzen. Eta, Apostoluentzat bezala guretzat ere, bai atsedetik aberasgarria izango litzakeala, Jesus gure adiskide ain maitati ta maitagarriarekin artu-eman bizi ta bioztiak izatea!

Guri ere dei egiten digu: "Zatozte, nekaturik, lanpetuok, eta atsedetik ar ezazute nerekin".

## Artu, ala eman?

*Eseritakoen artean banatu zituan  
ogiak, bakoitzak nai zuan aiña.  
Jn 6, 1-15*

Bestek emandako gauzak artzea, oso atsegin gertatzen zaigu. Erraza da artzea, nekerik gabea. Eskuak ere, nola dauzkagu? Biak ere artzeko jarreretan dauzkagu, "etxe aldera begira", gauzak norberarentzat biltzeko eran kakotuak: orixe dute beren izatezko jarrera, gero bestaldera naita aldatu ditzakegun arren.

Zerbait besteri emango baldin ba'diogu, eskuen jarrera aldatu egin bear digu: geure aldera begira dauzkagunak, zabaldu ta besteen aldera begira jarri bear izaten ditugu. Bestela ezin ezer eman. Eta aldatze ori beti nekagarri gertatzen zaigu, geure buruari zerbait ukatu bearra ekartzen digulako.

Kristautasuna, zerbait baldin ba'da, ematea da. Guztia eman egin digu Jaungoikoak: bizia, ezaguera, osasuna, barkapena, bere seme-alaba izatea, maitasuna, itxaropena, zorion-egarria, maitasun-aalmena, zorion-aalmena... Zer ez digu eman?

Zeukan guztia ta bera zan guztia eman zigun Jesus'ek ere: Bizia gure alde ta guretzat emateraño. Eta gauza bera irakatsi

digu: "Emazute zuek, eta emango dizuete... Artzea baiño pozgarrigo da ematea..." Sinisten ote diogu benetan? Artzeak eta piltatzeak ez al gaituzte geiegi lilluratzan, emaille on-onak izateko?

Eman-erazi egin zituan aurrena Eliseo'k ogiak, eta gero ugaritu zituan. Ogia ta arraiak eman-erazi egin zizkion Jesus'ek ere mutikoari, eta gero ugaritu zituan. Zerbait garrantziko koa ikas-erazteko asmoz jarriak dauzkagu gertaera auek Liburu Santuetan: emana, ugaritu egiten dala; ematea ugaritzen dala, ez bestelakoa.

"Eman-da zabal zazu munduan frutua..." dasaigu euskal-abestiak. Orrela egin izan du euskaldunak, orrela Euskalerri'ak. Besteei ez aginpide ta ez lur, ez die ezer kendu izan. Eman eta zabaldu bai, ordea, bere izaeraren berezitasunak. Orain zer ematen dugu?

Ogia eman eta ugaritzearen bidez, agortzen ez dan "ogia" ematen digu Jesus'ek Eukaristian, ematea dan kristautasunaren oiñarri ta bizigarri. Orra ordea, ematea dan kristautasuna, guk alderantziz, artze uts biurtuta daukagula: Bataioa, sendotza, barkapena, Jauna..."artu" egiten ditugu. Meza, Jainkoaren itza, itzaldia..."entzun" egiten ditugu.. Dana artzera jarrita gaude.

Zer eman dezakegu? Eskerrak, lanak, otoitzak, gure itza, leialtasuna, poza, jarraibide onak, adiskidetasuna, elkartasuna, gure nekeak, laguntza, babes, gure denbora, geure buruak... Oietatik zer ematen dugu Jainkoarentzat, zer lagun urkoarentzat?

Egia esatea, zuzen jokatzeko, indarkeriaren aurrean tente jartzea, elkartasunaren alde saiatzea, beartsuen alde ateratzea... ori dana ere ematea da. Eta emateko, diru ta aberastasunik ez daukagunok ere, badaukagu zer emanik: gure lana, gure orduak, geure serbitzua, geure burua... baiña EMAN!

## Gure amets nagusia...?

*Egizute lan, baiña ez, ondatzen dan janariagatik. Jn 6, 24-35*

Gaizki bizitzea baiño atsegiñago zaigu guztioi, ongi bizitzea. Eta ongi dago, txarra baiño ona naiago izatea, bidezko bai-da. Baiña... "ondo bizitzea", nekerik eta kezkarik gabe, lasai ta deusen faltarik gabe, "bapo bizitzea"... ez al da ori geientsuen amets nagusia? "Zertarako bizi, bestela?" diote.

Ortarako, berriz, dirua eskuratzea amets eta diruaren bidez... dana! Aldizkari arin eta engañagarrietan, ikustirradi ta zineetan, ez al digute begietatik barrura sartzen, zorion guztiak ekartzen dituala diruak? Nolakoak jartzen dituzte zorionsu?

"Bapo" bizitzeko irrika ta diru-gosea biotzean sartzen direnean, zer? Orduan, nabariak dira ondorenak: arinkeria, gauzak sakonki ikasteko ta aztertze gogorik eza, eta barruko utsa; izan ere, diruz erosten ditugun gauzak, asko izanik ere, giza-kiaren buru-biotzak ase ta aberasteko ez bai-dira gai.

Bestalde, Jainkoa ta sinismena, beste gizakiak eta maitasuna, benetan arduraz artzeko, orrelako gizon-emakumeen burubiotzetan ez dago tokirik, ez betarik, ez gogorik. Orduan, lagun urkoak baztertzea ta oinperatzea datoz, eta gauzak eskuratzeke irrikak itsuturik egotea dator. Arretaz mundura begiratu besterik ez dago, orrelakoak ikusteko alde guztietan.

*“Ez billatu, ondatzen dan janaria; lan egizute baizik, betiko biziraiño irauten duan janariagatik...”* esan zien Jesus'ek bere garaiko entzuleei; eta gaur guri esaten digu, gure onerako esan ere. Asmatuko ote dugu itz oiek geuretzat artzen?

Egun batetik bestera gal ditzakegu diru ta gauzak; beranduenera ere, azken-arnasaz batera utziko ditugu emen. Billa dezagula, beraz, betirako dirauan “ogia”, gure burubiotzak argi ta pozez aberastu ditzakean “ogia”: Aitak bidalitako Jesus Salbatzaillea, alegia, Bera bai-da ogi zerutarra.

Jesus ezagutu ba'geneza ta Beragan sinistu, deus ez litzaiguke ajola izango begien aurreko gauza lilluragarririk: itxura ederrekoak, baiña galkorrek bai-dira, eta emen utzi bearrekoak.

Esku-arteko gauzetaz ase ezkeru, askatasuna, maitasuna ta beste giza-aalmenak, bost ajola! Sakonki ezagutu ba'geneza Jesus, orduan bai, ederki aurkituko genizkioke bere zentzua ta balioa gure bizitzari. Orduan bai aberastuko genukeala gure bizitza maitasun-egintzaz, orain ziñezko poza izan dezagun eta gero betiko zoriona lortzeko.

Gure amets nagusia Jesus'en bideetan jarri ba'geneza, ziur egon!, sekulan ez ligukeala porrotik egingo gure ametsak, ezta ustel gertatuko ere.

## Bizia... Betirako bizia!

*Ni naiz ogi bizia. Ogi ontatik jaten duana, betirako biziko da. Jn 6, 41-52*

Biotz-barneraiño sartuta daukagu bizi-naia. Benetan gauza aundia da bizia. Ez ditugu neke gutxi artzen, bizi-bearrak eta bizi-naiak eraginda. Eta bizitzeko gogoia galtzen zaigunean, errukarriak gu! Ezertarako ta deusetarako ez gera orduan.

Bizitzan edonork izaten ditu asper-aldiak. Baiña garaitu egin bear ditugu ta aurrera jarraitu. Gizon aundi ta latza zan Elias, baiña ontara eldu zan egun batez: *“Aski dut, Jauna. Ken ezaidazu bizia!”* esanez, Jainkoari etsipenezko deadar ori egiteraiño.

Zenbat kristau ta... apaizkiak ere bai, ez ote daude etsipenak jota? Gogorik gabe, aspertuta, ametsak galduta, onelatsu jokatzen dutela: *“Naikoa dut... Aspertu naiz.. Ezin dut... Dana uztera noa: otoitza, elizkizunak, sinismena, elkar maitatzea, on egitea, barkatzea... Dana utzi ta kito!”*

Elias'entzat bezala, guretzat ere, bide bakarra dago: "*Jeiki ta jan!*" Kafarnaun'en judutarrei egin zien dei bera egiten digu Kristo'k: "*Ni naiz biziaren ogia, zerutik jetxia... gizakiak ontatik jan dezan, eta il ez dadin... Ogi ontatik jaten duana, betirako biziko da*".

Egun oroz artzen dugun janariak, berez egiten du bere lana gure gorputzean. Gu oartu ala ez, guk pentsatu ala ez, berez indartzen du gorputza. Mezatan Jaunartzeak ere orrelaxe, artzea beste gabe ta gure aldetik ezer jartzeke, mirariak egitea nai genuke agian.

Baiña gauzak ez dira orrela. Jesus'ek damaigun "ogiak" indartuko baldin ba'gaitu, argitu ta berrituko ba'gaitu, ez da naikoa, berez aalmenik indartsuena izatea. Zerbait jarri bear dugu bakoitzak. Onela dio Jesus'ek: "*Sinisten duanak, badu betiko bizia*". Nola-nai artzea bakarrik ez, sinistuz artzea baizik, eskatzen digu. Errazegia litzake bestela, eta ortan gelditu oi gera.

Gure gogoia, gure naia, gure sinismena jarri bear ditugu. Orduan bai, Elias baiño areago indartuko gaituala, martiriak bezain indartsu egiteraiño gure barruan.

Sinismenez, gogotsu, artu bear dugu Jesus bere osoan. Leningo, bere itzak eta erakutsiak; urrena bere Gorputza ogiaren itxurapean. Orduan biziko gera! Gaitzak eta arrak jango ez duten bizia; ez-bearrak eta tiroek ilko ez duten bizia izango dugu: orain bertatik gudan daukagun bizi goitarra.

Jainkoaren izpi dan bizia, Jesus'ekin artu-emanen argitzen dana; barkatuz eta on egiñez, maitatuz, geitzen eta aberasten dan bizia, orain bertan emen. Eta gero... betirako bizia zorionik beteanean.

## Ogi ontatik jaten duana...

*Nik emango dutan ogia, nere aragia da munduaren bizirako. Jn 6, 51-59*

Milloika asko dira munduan barrena goserik daudenak, goseak iltzeko zorian dauzkanak: ez ogirik eta ez bestelakorik deus ere ez daukate jateko. Pozik jango lukete zerbait, baiña deus ez dute aora eramateko. Geiegi esatea dirudi, egi-egia da, ordea.

Bitartean jan-edanez aseta bizi gera Euskalerra osoan: zeiniek baiño zeiniek janari ta edari garestiagoak iresten ditu emen, eta askotan gauzak eta geure buruak alperrik galtzen gabiltza. Giro ontan, berriz, zer ajola zaigu ogia?

Ogia zer danik ere ez dakite gaurko jende aseek: ogia ez du deusetarako ere aintzat artzen, jan-edanez beteta dabillenak. Goserik dagoanak maite du ogia. Zertarako esaten ote dugu "*Emaiguzu gaur egun ontako gure ogia?*"

"*Ogi ontatik jaten duana, betirako biziko da*", esaten digu Jesus'ek. Baiña zer da ogi ori? Ez bai-digu edozer gauza es-

keintzen: bere gorputz-odolak ematen dizkigu ogi ortan gure buru-biotzen bizigarri, era arrigarrian, baiña egi-egiaz.

“*Nola emango digu bere aragia?*”, galdetzen zuten judutarrek arriturik eta siniskaitz. Ez digu aragi-pusketarik emango, ez bai-zuan orrelakorik esan. Jesus bera da, pizturik eta era arrigarrian aldaturik eta berrituta, gure buru-biotzak janaritzen dituana. Baiña ortarako, “*ogi ontatik*”, Jesus’ek emanetik jan bear dugu, jakiñean eta gogotsu, benetako pozez jan ere.

Guk, ordea, gauzak nai ditugu, eskuak betetzeko ta sabela asetzeko. Bitartean gure barne-muiña, gure biotz-ondoa, utsik daukagu, goibel eta aspertuta gaude. Ez dakigu alaitasuna ta bizi-poza geure barruan aurkitzen, eta gauzetan billatzen ditugu.

Paulo Doneak ere badu esatekorik gure argibiderako: “*Ez zaitzte ardoz bete... Ase zaitzte Espirituaz*” esaten bai-digu. Kristo’ren ogia jateak, au da sinismenez eta gogotsu arteak, emango digu espiritu ori.

Zergatik ez dugu artzen Jesus’en ogia? Edo, zergatik ain gutxitan? Ez da aingeru garbi izan bearrik, ez da gogoz indartsu izan bearrik: ain zuzen ere aulentzat bai-da indar, eta pekatuz kutsatuentzat bai-da sendagai ta garbitasun.

“*Ogi ontatik jateak*”, Jesus piztuarekin elkartuko gaitu, gogo aundiz eta sinistu-nai biziz artzen ba’dugu beintzat. Eta orduan bai, janariak gure gorputza indartzen duan antzera, ogi zerutar onek gure barruko aalmenak sendotuko dizkigula! Zertarako? Egi-zaletasuna, itxaropena ta bizi-poza izan ditzagun, eta gure inguruan zabal ditzagun aspergabe.

## Bizirako itzak

*Nik esan dizkitzuedan itzak, espiritu ta bizi dira. Jn 6, 61-70*

Etengabean eta une guztietan aukera egitea da gure bizitza lur ontan gabiltzan bitartean: zer jan, nola jantzi, nora joan...? Eta sakonagora jota, zer egin? norekin ibilli? noren alde jokatu, ala geure buruarentzat bakarrik bizi?

Bestetik, berriz, atsedenek gabeko borrokan sartuta bizi gera: biziaren eta eriotzaren arteko borrokan, alegia. Nai ta nai ez, aukera egin bearrean aurkitzen gera. Zeren aurka, eta zeren alde jokatu dugu?

Siken errian batzartu zan Israel osoa Josue buruzagiaren esanera. Aukera bat egin bear zuan erriak: inguruko errien jainkoak, irudi bizigabeak, ala Jainko bizia zuten naiago? Berekoikeriaren aldeko lege erosoak zituzten jainko-irudiak utzirik, Jainko bizia aukeratu zuten israeldarrek, bide au zaillagoa zala jakin arren.

Zeren alde dabilta gaurko jendeen jokabideak? Itz ederrak esan arren biziaren alde, eriotzaren alde dabilta beren jokabideetan, sasi-jainko aukeratuak: agintea, dirua, gozamina, indarra, jan-edanak... Eta oiek guztiak “*jainko illak*” dira.

Aukera orrek, berriz, eriotzaren alde jokatzera darama gure gizartea: gosearen gosez iltzera milloikak, tiroz eta armaz iltzera ez gutxi, gaixotasunez iltzera ugari... Samingarriago dana, baita aur errugabeak iltzera ere: errugabeenak eta aulenak iltzera, aur jaio-gabeak iltzera alegia.

Emakume-eskubideen eta askatasunaren izenean, ezkertasunaren aurreratu-izenean, jaio ez diran aurrak galtzea, jainko illak eta eriotza aukeratzea besterik ez da. Ama-sabeleko bizi-iturrira eriotza eramatea zer da, eriotza aukeratzea ez ba'da? Utikan kristautentzat, eriotz-bideak aukeratzea!

Jesus'ek bakarrik dauzka bizirako itzak. Beste edozeiñek, ondamenara ta eriotzera amilduko gaitu; amildu-erazi gaitzake beintzat, oso argi ez ba'gabilta.

Aur jaio-gabeak, aur elbarriak, beartsuak eta errukarriak, egitan maitatuz eta zainduz bakarrik goazke bizirako bidean. Gezurrezko itzak utzirik, ar ditzagun bizirako itzak eta bideak.

## Barrua garbitu, ez azala

*Gaitz aukeratuak barnetik ateratzen  
dira: Aukeratuak zikintzen dute gizakia.  
Mk 7, 1-23*

Aurrerapen eta garbitasunaren garai auetan, garrantzi aundia ematen diogu ageriko itxurari: garbi, apain, dotore ta eder erakutsi nai izaten ditugu geure buruak, baita gure etxeak eta gauzak ere. Eta barrua? Begiz ikusten ez dugun barrua, nola dago?

Gure jokabideetan ere eder azaldu nai dugu. Eta ortarako, legeak betetzen ditugu, oiturarik ez dugu austen, oker aundi nabarmenik ez dugu egiten, lana egiten dugu... Nork esango du, zintzo ta on ez geranik? Gauza bera esango ote du, gure barnea muiñeraiño ikusten eta ikertzen duanak?

Judutarrak ere oso garbi-zale ziran: eskuak, oiñak eta ontziak ongi garbitzen zituzten jan aurretik. Zintzoki betetzen zituzten garbikuntzako oitura guztiak. Orrenbestez, dana egiñik zegoa-  
la uste zuten. Orain bertan ere, otoitzera sartzerakoan, “Intziri-  
arresia” dalakoaren aurrean beintzat, urez ziprizzintzen dituzte beren soiñak, eskuak garbitu ondoren.

Beste zerbait sakonagoa gogorazten die Jesus'ek: "Ez da ezer, kanpotik sartuz, gizakia zikintzen duanik. Barne-  
tik, gizon-emakumeen biotzetatik ateratzen dira asmo txar-  
rrak, lapurretak... Oiek zikintzen dute gizakia".

Gauzak argiago esaterik ez dago: Azaleko garbiketa ez-baiña, gure barnekoa daukagula egin bearra. Gure biotzean dago txarke-  
ri guztien iturburua: andik sortzen dira gure gaiztakeriak, era guz-  
tietakoak. Eta iturburua ongi garbitu ezik –au da, gure biotza gar-  
bitzeke– alperrik da jantziak eta larru-azala garbitzea.

Oitura batzuk aldatu ditugu kristauok: Mezak, sakramentuak  
eta elizkizunak erri-izkuntzan eta obeto egiten ditugu. Baiña gure  
barnea, nola daukagu? Ageriko aldaketa auek, –ezin ukatu– asko  
laguntzen dutela barnea ere aldatu dezagun; oraindik ere ordea...

Aldaketak egin dituzte an eta emen sozialistek eta komu-  
nistek ere, orain berrogei urte ta gaur 1985'ean ez bai-dira  
berdin agertzen zenbait gauzatan: egitura batzuk goikoz beera-  
tu, itz berriak sartu, eskeintza ta itxura aundiak egin... Azaleko  
aldaketak ez al dira, barneko elburu ta jomugak ez aldatzeko?

Bestelako politika-taldeek ere egin dituzte edertze-lanak.  
Baiña bene-benetan zer aldatu da munduan? Beartsuek beartsu  
diraute, agintarien aundikeriak leen bezala, agintarien lagunak  
aberats-berri bihurturik dabilta, gizakientzat begirunerik ez,  
aurtxo ta jaio-gabeen zapalketak ugarituz doaz...

Garbitzeak eta aldaketak, ziñezkoak izango ba'dira, barnetik  
asi bear dute, barrua garbitzetik eta biotza aldatzetik. Gizon-ema-  
kumeok biotzak aldatu bear ditugu, eta ez azaleko itxurak bakarrik.

Erraza da azalean gelditzea; askoz ohea, baiño baita zailla-  
goa ere bada barneko garbiketa ori. Esan dezaiogun zin-zi-  
ñez: "Jauna, Zuk arnas berria ta biotz garbia sortu nigan!"

## Ireki zaitez

*Ongi egiten du dana: gorrei entzun-erazi  
eta mutuei itzegin-erazi. Mk 7, 31-37*

Mendiak zulatuz, sakonak betez eta zubiak egiñez, tren-bide ta  
berebil-bide arrigarriak daukagu. Oso erraz eta arin eldu gindez-  
ke toki urrutietara. Dana urbil daukagu, gaur ez dago urrutirik:  
Gure aurrekoek sinistuko ez lituztekean aldaketak.

Eta legorrez ezin danean, itsasoz ere aukera aundiak daude.  
Erraztasun galantak daude, berriz, eguratsean barna egazkiñez  
arin eta laister ibil gaitezen munduko mutur batetik bestera.

Toki bateko albisteak, berriak eta gertakizunak beste toki  
guztietara bereala eraman aal izateko, zer ez dituzte asmatu?  
Urrutizkiña lenengo; eta itzaz batera irudia ere bidaltzeko, or  
daukagu ikustirratia.

Aurrerapen, tresna ta bide auei guztiei, "artu-emanetarako  
bideak" esaten diegu. Errien ta gizon-emakumeen artean "ar-  
tu-emanak" errazteko ta ugaritzeko bideak dira. Eta ala ere  
zeiñen bakar bizi diran ainbeste gizaki, zaar eta gazte!

Elkar-izketa, trukaketa, elkar-laguntza ta elkartasuna adierazten ditu benetako artu-emanak... Geure iritziak eta gauzak kanpora ateratzeko ta saltzeko, beti gertu gabiltza. Baiña beste itzak, eskaerak, bearrak eta eziñak ezagutzeko, itxita daude gaurko jende asko. Eta zu ta ni nola ote gaude?

Beti on egiñez dana ongi egin zuan Jesus'ek, gor eta mutuari bezala, guri ere dei sarkor au egiten digu: "*Ireki zaitez!*" Geure barrutik kanpora, gurasoentzat, seme-alabentzat, gaxoentzat, beartsu ta goseentzat, goibelentzat, auzokoentzat, urbillekoentzat, ireki gaitzela zabal-zabal.

Gizakientzat itxirik dagoana, Jainkoarentzat ere itxirik egongo da. Ezagun zaie gaurko jende askori: ez alaitasunik eta ez bizi-pozik daukate biotzean; bakardadearen oztasun illunean bizi dira. Jainkoarekiko adiskidetasunaren argia ta gizakideen laguntasuna falta zaizkie. Gor mutuaren antzera, itxita daude.

Urrutikoekin, bear ba'da, itz ederrak eta adiskidetasuna; geure ingurukoekin, ordea, or gabiltza etengabeko borrokan... Gu besteentzat, besteak guretzat, danok elkarrentzat itxita... Alaitasunerako, adiskide izateko, auzo-lagun izateko, ez gera gai askotan. Orrela, lagunartean aberastasun aundia falta zaigu.

Ireki gaitzela lagun-urkoen naigabe ta pozetara. Eta gizakien serbitzu apaletik, askoz errazago irekiko gera barruz gure Jainkoarengana ere. Bai Jainkoagana ta bai senideengana ain irekita bizi izan zan Andre Maria Ama Birjiñak lagundu dezaigula guri ere gure barruak zabal-zabalik irekitzen.

## Nor da Jesus?

*Ni nor naizela diozute? Zu, Mesias zera. Mk 8, 27-35*

Errusi'ko idazle oso ezagun eta ospetsu izan zan Fedor Dostoievski, eta itz gogoangarri auek idatzi zituan: "*Galdera onen erantzunaren gora-beeran egon bear luke gizadi osoak: NOR DA JESUKRISTO?*"

Ez al da asko esatea? Geiegi esatea dala irudituko zaie gaurko irakasle, idazle, buruzagi ta politikari askori. Bai, gizon bati (eta gaiñera, nori ta Jesus'i) garrantzi aundiegia ematea dala esango dute talde oietako ez gutxik. Bitartean, beren gustoko norbaiti emango liokete garrantzirik aundiena. Baiña nori?

Platon, Aristoteles, Zesar, Napoleon, Marx, Lenin, Mao... nori?

Oiek joan ziran eta oien asmakizunen ondorenak ere joanik dira, geienenak beintzat. Egia esan, pentsalarien gogoeta batzuk oraindik ere aberasgarri dira gure buruentzat.



Bestetik, Marx-Lenin-Mao irukoteak asmatu ta landuriko komunismoak irauten du oraindik, indarrean iraun ere 1985'an. Bai al dute, ordea, Jesus'ek aiñako eragin-indarrrik gizon-emakumeen buru-biotzetan, eta beren askatasunean eta zorionean?

"Nor da Jesus neretzat?" Auxe da bakoitzak zorrozki egin bearreko galdera. Besteentzat au ta ori izatea, ez da naikoa: bakoitzak aurkitu bear dugu geure erantzuna. Or jokatzen dugu gure kristautasuna, ortan jokatzen dugu gure zoriona. Ez da utsaren urrengo gauza deus-eza.

Besterik ez bezalako norbait da Jesus: beste guztiak baiño bikaiñagoa ta arrigarriagoa dan norbait. Ia bi milla urteren buruan zerbaitegatik jarraitu diote milloika jende burutsu ta zentzudunek; bete-beteen jarraitu ere. Zergatik? Zerbait bikaiñña aurkitu diotelako, zalantzarik gabe esanda.

Bai: milloika gizon-emakume oiek beren buruen eta bizien aberasgarria ta zoriongarria, Jesus'en bidean eta Jesus'engan aurkitu dituzte.

Eta zenbat millaka izan dira, bai gizonezko ta bai emakumezko, beren biziak Jesus'engatik odoletan emateraiño eldu diranak? Eta ori ez da izan ez diruagatik, ez izen aundiagatik, ez iñork gogorrean ortara beartuta. Beren gogoz, jakiñean eta pozik jarri izan dira ortara: leengo ta oraingo martirien bizitzak eta eriotzak or dauzkagu lekuko, uka eziñeko testigu.

"Zu Mesias zera", erantzun zion Pedro'k. Bai: Jainkoaren Semea da, Salbatzaillea, bere bizia Jainkoari gizakion alde Gurutzean eman ziona, piztuta, bizirik daukaguna; eta Jainkoaren seme-alaben sendi edo elkartean bizi gaitezen, guztioi

laguntzen diguna; elkarren senidetasunean bizi gaitezen guztio, elkar poztearen zorionean lagun duguna.

Beste buruzagietako batzuek, indarrez beartzen dute jendea; besteek berekoikeriaren sua pizten dute gizon-emakumeengan, dirua ta erosotasuna, atsegiña ta gozamina, e. a. eskeiñiz. Azkenean, iraupenik ez duten gauza galkorren morrontzapean lotzen gaituzte.

Geuron buruei ta griñei uko egiten, geuron buruen zalekeriak menperatzen, gerekoikeriaren loturatik askatzen laguntzen diguna; geuron buruen jabe izateko askatasuna lortzeko bidea erakusten diguna: ori da Jesus.

Besteak alaitu ta poztuz, besteak jaso ta aberastuz, bearrik larrienak zituztenei geiena lagunduz ibilli zan Norbait da Jesus. Guri ere gauza bera egiten laguntzen diguna; geuron buruak zorionez aberasteko bide zaillean laguntzen diguna: Ori da Jesus.

Orrela ezagutzen al dut nik Jesus? Orrela artzen al dut? Bera benetan norbait berezia da. Baiña nortzat daukat nik? Nor da neretzat?

## Zein da aundiena?

*Lenengo izan nai duana, izan bedi  
danetan azken eta guztien  
serbitzari. Mk 9, 30-36*

Besteak baiño leenago ta gorago egon, besteek baiño diru ta aginpide geiago eskuratu, zerbaitetan besteak baiño aundiago izan... Orra or leengo ta oraingo gizon-emakumeen irrika bizia.

Beste inñori gaitzik egin gabe, norbera egiñaalean saiatzea ta igotzea, gaitz-erdi litzake. Baiña zer egiten du jendeak? Besteak beeratzen eta zapaltzen ditu jendeak, bera igotzeko; besteak desegiten ditu, bera aundi izateko.

Geien beeratu dituana, geien bota dituana, geien zapaldu ta desegin dituana, uraxe dala uste dute aundiena. Aunditasun kaxkarra da ori, eta kaxkartzen duana. Baiña ortan dabil munda. Zergatik bestela, ainbeste borroka, elkar desegite ta guldaldi?

Zearo alderantziz eta beste era batera jokatu zuan Jesus'ek: *"Norbaitek lenengo izan nai ba'du, izan bedi danetan azken eta guztien serbitzari"*. Orixe egin zuan Berak, besteentzat bizia emateraño, eta orrela ez zan kaxkar agertu, beste iñor baiño arrigarriago nabarmendu zan baizik.

"Zuretzat dana txaloak eta ospea, Jauna. Zuretzat gurutzetik ez!" Ori esan zion Pedro'k, eta Jesus'ek erantzun gogor au eman: *"Ken ortik, Satanas!"* Neke ta erasoak, txistuak eta zigorkadak eta Gurutzea eramateko prest zegoan Jesus, Aita Jainkoaganako leialtasunez, gizakion maitasunez.

Orixe da Jesus: dana besterentzat ematen duana. Eta bide ori erakutsten digu, aundi ta lenengo izan gaitezen. Ez, ordea, gaur dabilzan bezala: politikaz, erriaz, nazioaz, Estuduaz eta naiz Elizaz ere baliatzen dira zenbait, berak aundi izan nairik. Baiña ori ez da aundi izatea. Ori, -egia esanda-, zupatzaille berekoi ta kaltegarria izatea da. Eta zenbat orrelako, gorago-ta geiago?

Jesus'en antzera, aundi izatea, auxe pentsatzea da: *"Zer egin dezaket, erria, nazioa, gizartea, Eliza, gizon-emakumeak pixkabat jasotzeko, pozteko?"* Batez ere bizitzan orrela jokatzea.

Ume ta gaztetxo askok orain asi dute Ikasturte berria. Nola-ko eziera emango diete sendietan eta Ikastetxeetan? Borroka-giroa, besteetaz baliatzea, besteak menperatzea..., zer ikusiko ta ikasiko dute dabilzan tokietan?

Ikas dezatela beste bide au: zoriona ta aunditasuna, besteei on eta serbitzu egiñez lortuko dituztela. Besteak pozten dituzten aiñean, eta orrela bakarrik izango dirala benetan zoriontsu. Besteei serbitzu egitea ta besteak jasotzea dirala, ziñezko aunditasuna lortzeko bideak Jesus'en eskolan beintzat.

## On egitea ez galerazi

*Gure aurka ez dagoana, gure alde dago. Mk 9, 37-47*

Gerekoikeriak eraginda, gauza onak geurontzat eta gure taldearentzat bakarrik nai izaten ditugu, eta besteentzat ez. Zintzo ta on izatea, ez diegu opa besteei, ez diegu ori barkatzen; eta eragotzi edo galerazi egiten diegu besteei egintza onak burutzea. Moises'en eta Jesus'en garaiko batzuk bezala gabiltza.

Kristauon artean ere izan dugu itxitasunik aski: "gu bakarrik onak, eta besteak ez". Orregatik gertatu da askotan, kristau ez diranak eta gu bezalako ez diranak, baztertzea. Ari dira, ordea, gauzak aldatzen katolikoan artean beintzat.

Oso modan dago orain, katolikoan Eliza'ri akats auek egozte: itxitasunean jokatzen duala; zenbait idazle ta irakasle ixil-erazi dituala; beste batzuei eragozpenak eta debekuak jarri dizkiela...

Amaseigarren mende edo eunkadatik dator itxitasun ori, batez ere protestante-motak sortu ziranetik. Protestanteek be-

rena bakarrik ba'zuten ona ta katolikoena txarra, ondorioz gauza bera egin dugu katolikuok protestanteen gauza guztiak txartzat jotzeko bidean. Elkarren arteko etsaitasuna ez da nolanaikoa izan lurralde askotan, orain-aldian artu-emanak legundu ba'dira ere.

Eliza ta katolikuok aldatzen eta zabaltzen ari geran ontan, badira beste batzuk ere osoro itxita jokutzen dutenak. Batez ere Lenin'en eta Mao'ren aolku ta bideak jarraitzen dituztenak, izugarriak dira ortan; baita Euskalerrri ontan ere: beraiekin ez dagoana, aien bidean ez dabillena, aien alde jokutzen ez duana, zearo etsaitzat artzen dute, leen adiskide ba'zuten ere. Eta etsaiak desegitea beste elbururik ez dute beren borrokan.

Taldeak izendatu gabe ere, edonork ezagutu ditzake, nabarmenak bai-dira beren jokabideak. Orrela bada, oien bidera sartzan ez dana, oien esanera burua makurtzen ez duana, oien uztai-zulotik igarotzen ez dana, etsaitzat jotzen dute ta lotsagarri uzten; aserrea sortzen dute orrelakoarentzat: gorputzez bizi dalarik ere, jota utziko dute, gizarterako ilda bezala zokoratuko dute.

Oso bestela jokatu zuan Jesus'ek: *“Deabruak botatzen dabilleni... zuek ez galerazi, ez debekatu”*. Edozein taldetako ta edozein jokabidetako dalarik ere, on egiten ari danean, laguntzen duanean, giza-eskubideen alde lan egiten duanean, diruagatik eta agintzeagatik ez dabillenean... ez debekatu.

On-itxuran, ardi-larruz jantzita, bat esan eta bestea egiñez dabillenaekin, argi ibilli bear dugu, engaiñatu naian ari da-ta. Baiña egiaz eta benetan on egiten duan guztiari –gure taldeko ez ba'da ere– lagundu dezaiogun biotz zabalez.

## Ezkontza, zeinzentzat?

*Senarra ta emaztea, biak aragi bat izango dira. Ez dira, beraz, bi: bat baizik. Mk 10, 2-16*

Aldi ontan ia inork ez du aipatzen ezkontza. Orain aoz-ao ta paperetan, eta agintarien ezpaiñetan dabillen arazoa, ezkontza-austea edo “dibortzioa” da. Ezkontzako osotasuna bazterturik, austea dute elburu, austea eskatzen dute.

Jokabide orrek auxe gogorazten dit: Gure errietan zer geratuko litzake, eraikitzaile ta etxegilleak baztertuko ba'genitu, etxe-ausle ta porrokatzaileen eske asteko? Eta sendagilleak zokoraturik, kaleetako iltzaile edo biziaren desegilleak eskatuko ba'genitu? Ezkontzak austearen aldeko borroka ori, ez al da oso antzekoa, eta ondorio kaltegarri bete?

Egia esateko, beti eztabaidatua izan da gai au: Moises'en aldian eta Jesus'en garaian, eta orain zer esanik ez. Garbiak dira Jainkoaren asmoak: *“Aita-amak utzita, emaztearekin elkartuko da gizona, eta biak aragi bat izango dira”*. Munduan geien maite gaituztenak uztea, –gurasoak uztea– eskatzen di-

gunean Jainkoak, zerbait bikaiñagoaren billa ibil gaitezen, izan bear du ziurki.

Gizonezkoa ta emakumezkoa, bi diralarik ere, biak bat izateraiñoko elkartasunaren billa abiatzea da ezkontza. Eta elkartasun oso erraza litzake, itzez eta paperez, ezpaiñez eta larruazalez, begiz eta eskuz elkartzea bakarrik ba'lit. Askoz sako-nagoa izan bear du, ordea, bien osotasun zorientzurako.

Biak asmo beraren billa, elburu bat beraren atzetik, iritzi ta pentsakerak bateratuz, poz-nekeak elkartuz, gogoz bat eginda jokatzeta... Biotzez bat egitea: ori da ezkontza, egiazkoa noski.

Zeiñentzat da ezkontza? Danen gaiñetik bere jan-edanak, bere edertasuna ta apainduria, bere eskubideak, bere jolas-egarria, azkenen bere burua beste ametsik ez duan gizakiarentzat, ez da ezkontza, ez eta ez! Eta bestela, bera ez da ezkontzarako gai.

Bere griña ta joerei neurri artuz, bere burua ta nortasuna ongi landuz, bere buruaren jabe dan gizakiarentzat, arentzat da ezkontza; bere burua bere osoan ezkon-lagunari opari emateko gai dan arentzat. Eta bestela, gaitasunik gabe dago, eldu gabe dago.

Arazo nagusia ez da ezkontza austearena. Lenengoa ta oiñarrizko arazoa, gertuera ta eldutasuna lortzea da. Arazorik larriena ezkontzaren inguruan, ezkongaiiek gertuera onik eta eldutasunik ez daukatela: ori da latza! Neskatxa ta mutillen eldutasunaren billa egin bear dute borroka gizartean kristauek, taldeek, politikariek eta agintariek. Osotasunaren alde borrokatu bear dute; ez ordea, austearen billa!

Orrelako osotasunean elkartu dan ezkontza, ori bedeinkatzen du Jaunak eta ori ez da austen. Bestelakoa, bere barnean autsia dago.

## Diruaren eta ezaren loturak

*Dituzun guztiak saldu, eman beartsuei,  
eta izango duzu altxor bat zeruan.  
Mk 10, 17-30*

Dirurik ezak lotura aundiak dituala, edonork ikusten du: Ikasketarik ezin, aginte ta karguetara igo ezin, etxe dotore bikaiñik ezin, osasuna galtzean sendagai garestia ezin, gogoak emandako tokietara joaterik ez... "beartsuen arrazoiak indarririk ez du" esaten dute antziñatik euskaldun zaarrek burutsuki.

Ori guztia ez dago ukatzerik. Eta are lotura gogorrangoak ditugosearen gosez bizi eziña ekartzen duan dirurik ezak. Gauza mingarria benetan, bere aragian bizi ez duanak ongi neurtzen ez duana. Baiña oraindik are itogarriago da gizakiarentzat, aberastasunek gizon-emakumeei ezartzen dieten lotura, burubiotzetakoa bai-da.

Gauza asko lortzeko egokiera ematen du aberastasanak eta beste gain nagusitzeko bideak errazten ditu. Dirua da mundu ontako "jainkoa", eta diruak darabilki mundu au. Batzuk berentzat, beste zenbait besterentzako izenean, baiña geienak, diruaren billa

irrika bizian dabilta. Zu ta ni, ez ote? Bakoitzak aztertzekoa da, nola ta zein neurritan.

Gizarte-zale dirala dioten sozialistak, eta “dana danentzat” esaten dutenak, komunistak eta abar, teoria ta itz ederren jabe dira. Erri ta nazioen dirutzak eskuratzeko borrokatzen dira, gero beren eskuz berdintasunean banatzeko itzetan. Gizarte ta erriaren izenean agintaritzaz lortzean, beren buruak ornitzen dituzte lenengo, eskubitar eta kapitalisten gisa ber-berean. Begiratu besterik ez dago edozein lurraldetara, ber-bertatik asita.

Eliz-gizonok ere ez al gera antzeko zerbaitetan erori izan? Geienetan diruz ornitzeko ez, geure eskuz banatzeko baizik. Baiña dirua diru da, eta nolerebait ere dirua nai...

Bitartean, diruak ez du senidetasunik sortzen, ez elkartasunik pizten. Apostoluak, Asis'ko Franzisko, Bizente Paul, Loiola'ko Inazio, Xabier, Erkizia'tar Domingo, ainbeste misiolari, eta orain bertan Kalkuta'ko Teresa, or ditugu eredu bikain guretzat.

Senidetasuna zabalduz, errukarrienak zaindu ta goratuz, ondasunak beartsuei eskuratuz, ez-jakiñak eskolatuz, elkar-maitasunaren poza ereiñez, dirurik gabeko ekintzaille izan ziran aiek, eta orain ere badira orrelakoak, zori onez, alde guztietan.

“*Bai nekez sartuko dirala dirudunak Jainkoaren erreinuan!... Saldu ondasun danak eta eman beartsuei...*” Diru-loturarik ez ba'geneuka, orduan ondasunak galtzeko bildurrik gabe, askatasun osoz ereingo genuke sendietasuna. Eta ez da au ainiako aberastasun bikaiñik, biotz barnekoa bai-da: sitsak eta erdoiak jango ez dutena, eta lapurrek ostuko ez digutena. Auxe bai litzakeala geure-geurea! Jesus'en eskolan, beraz, gauzak alderantziz dira: dirua, lotura da; eta dirurik eza, benetako askatasuna.

## Mugarik gabe serbitzari

*Zuen artean aundi izan duana, bego  
zuen serbitzari. Mk 10, 35-45*

“*Errietako agintari azaltzen diranek, gogor artzen dute menpean erria, eta aundizkiek azpian artzen dute...*” Itz zorrotzak dira ta mugarik gabeak, guztiak artzen dituzten itzak. Baiña ez diote, geiegiak, gezurrik. Jesus'en garaian ala zan noski, eta orain are geiago dala esan bearra daukagu mundu zabalera begiratuta.

Zenbat borroka, gudaldi ta ilketa, nazioen artean, eta baita nazio bakoitzaren barnean ere! Zertarako? Lurralde ta errien nagusi, jaun eta jabe izatea lortzeko irrikaz. Aginpidea lortu dutenean, berriz, zenbat lotura ta indarkeria, aginteari betiko eutsi nairik!

Gauzak ongi ta zeazki neurtuko ba'genitu, auxe agertuko litzaiguke argi ta garbi: ez kapitalismoak eta ez komunismoak, ez diotela serbitzu leialik egiten erriari; erriaz baliatu egiten dirala baizik biak ere, batzuk beren dirutzak ugaritzeko ta bes-

teak beren aginpidea eskutik ez uzteko. Nolabaiteko askatasun-giroan, baiña kapitalismoa sendoki nagusi dan lurraldeetan, oso erraz gertatzen da batzuek beren buruak eta iritziak, sinismena ta zuzenbidea, beren sendiak eta erriak, diruaren trukean saltzea, goitik artara beartuta, naiz eraginda.

Bestetik, askatasunaren ordeztu "langillediaren diktadura" nagusi dan errialdeetan, indarrez eta zigorrez, ero-etxeetara sartuz, giltzaperatuz eta engaiñuz, zapaldurik daukate erria, komunismoak ain berea duan berdintasunaren izenean, 1985'ean oraindik.

*"Orrela ez bedi izan zuen artean... Guztien menpeko ta guztien serbitzari izatea, orixe da zuentzat benetan aundi ta lenengo izatea..."* Bide zaila noski. Baiña auxe da Kristo'ren bidea.

Gizon-emakumeak eta erriak zapaltzea, norbera aien gainean gora igotzeko ta aundi agertzeko, izan daitekean kaxkarkeriarik itogarriena da. Norberaren gizatasuna eldu gabe ta nortasunik gabe dagoala, adierazten du orrela jokutzen duanak.

Gizakiak eta erriak jasotzea, aurrerapenak sortzea, jendeak eskolatzen eta argitzen laguntzea, senidetasuna guztien artean ereitea... Ori da benetan aundi izateko bidea ta ortan ari dira munduan misiolariak: urrutietara joanik, atzeratuen eta errukarrienen serbitzuan, zenbaitek aiñako zaratarik atera gabe.

Guztioi, baiña deirik biziena gaztediari egiten dio Eliza'k Misio-egun ontan, egiazko aunditasun-bidea aurkitu dezan. Beste ekintza-bideen artean bat, bikaiña, misiolariei ta sinisgabeen indar guztiz laguntzea da. Jesus'ek erakusten digun senidetasunezko Berri Ona munduan barna zabaltzen lan egitea, orixe bai dala gaztediaren ametsak betetzeko ta bizi-poza aberasteko ekintza bikain eta txalogarria.

## Ikus dezadala!

*Zer nai duzu Nik zuri egitea? Maisu, ikus dezadala! Mk 10, 46-52*

Begietan argirik ez eukitzea edo ikusmena galdurik izatea, gauza beltza da gizakiarentzat. Beñere argirik ikusi ez duana, gaizki ta motz gertatzen da bere giza-bizitzan. Ikusmena izan duana, baiña gerora galdu duana, are okerrago, noski.

Euskaldunon artean aspaldiko esaera da onako au: *"Begi-bista ona, baiña elkar ikusi eziña..."* Ori bai dala gaitz txarra ta kaltegarria beretzat eta besteentzat! Bi begiak osasuntsu ta argi, baiña... besteen onik ezin ikusi, lagun urkoa ezin ikusi.

Gizon-emakumeen egiazko osotasunera bidean, begietako argia baiña are bearrezkoagoa da, biotzetako argia. Besteen berrak ikusteko, oiñaze ta bearretan laguntza-bideak aurkitzeko, dizdira egiten duan argia, alegia. Au bai argia, diru-pillak baiña balioitsuagoa, munduko diru guztiz ere erosterik ez daukaguna.

Etsita dagoanak, etorkizunari begira ezeren ametsik ez duanak, ez dauka argirik bere barnean: illuna dauka bere biotza. Eta, jakina, gero ezer onik ezin ikusi, ez beretzat eta ez beste-  
rentzat, ez beregan eta besteengan.

Zenbat itsu bizi diran gaurko munduan! Ez ikasteko, ez lan egiteko, ez gizonago ta emakumeago izateko, ametsik eta gogorik ez daukatenak... Bide-bazter batean eserita, bestek zer emango zion zai zegoan Jeriko uri apaiñeko itsua: uraxe baiño are goibelago ta illunago bizi dira gaur ainbat eta ainbat. Ba-  
koitza aztertzeko: nortzuk illunago, zaarrak ala gazteak?

Bartimeo izeneko itsua, begiz illunpean, baiña barruz argi zegoan. Eta orregatik egin zuan deadar larri ura, Jesus zetorre-  
la jakinorduko: “*Jesus, Dabid' en Seme, erruki zakizkit!*” Ixillera-  
zi nai izan zutenean, orduan-eta indartsuago, orduan-eta barruagotik egiten zion dei sarkor ura.

Pozik zan, noski, Jesus'ek beregana dei egin zionean. Eta zein-  
en benetan eta barne-muiñetatik, zein-  
en itxaropen aundiz esan zion: “*Maisu, ikus dezadala!*” Eta Jesus'ek, aalmen guz-  
tiz orniturik, betiko erantzun sakon ura eman zion: “*Zoaz, zu-  
re sinisteak sendatu zaitu*”.

Ainbeste gauza dira guk geurez inola ere ezin ditugunak! Jo dezagun Jesus'en billa. Eta indar guztiz esan dezaio-  
gun asp-  
peltu gabe: “*Ikus dezadala! Zure argia emaguzu, Jauna, Zu obeki ezagutzeko, eta inguruan ditugun gure senideak ikuste-  
ko, urrutikoen bearrak jakiteko. Ikus dezadala, bai, eta sinistu zaitzadala, biotzez argi zegoan itsuaren antzera*”.

## Danetan lenengoa

*Maita ezazu Jainkoa biotzez, gogoz, adimenez eta indar guztiz. Mk 12, 28-34*

Agindu ta debeku, lege ta arau ugari zituzten bete bearre-  
koak judutarrek, gero-ta geiago zituzten gaiñera. Eta obeak izatera pozik jotzea errazteko ordez, itogarri gertatzen zitzaiz-  
kien ainbeste lotura. Orregatik, bidezkoa zan idazlari edo le-  
ge-irakasleak Jesus'i egin zion galdera ura: “*Zein da agindu guztietan lenengoa?*” Nagusia ta garrantzizkoena, alegia.

Eta Jesus'ek, galdera bakarrari, erantzun bikoitza eman zion, Itun edo Lege zaarrean idatzirik zeuzkaten agindu berak artuta: “*Au da lenengoa: Maita ezazu Jauna, zure Jaungoikoa, biotz-biotzez, gogo-gogoz, zeure adimen osoz eta zeure indar guztiz. Eta au da bigarrena: Maita ezazu zure lagun ur-  
koa zeure burua bezala*”.

Mamitsua zan galdera: lege ta agindu guztietan lenengoa, garrantzizkoena, oiñarrizkoa, nagusia jakin nai zuan lege-ira-  
kasleak. Guri ere ez zaigu gaizki gertatuko erantzunik jatorre-  
na ongi jakitea.



Egia esateko, judutarrek bazekiten eta egunero esaten zuten “Xema Israel” edo “Entzun Israel” otoitzean. Baiña geienei ezpaiñetan gelditzen zitzaien, bizitzara edo ekintzara eramanez gabe. Gauza bera ez al zaigu gertatzen gaur kristauoi ere?

Eta agindurik, gauzarik nagusiena, itz batean bilduta, auxe da: maitasuna, maitatzea. Izan ere, gizakiok dugun aalmenik bikaiñena ta nagusiena, ezagueraren argira maitatzea da, elkarrenganako maitasuna da alegia.

Beste iñor baiño maiteago izan bear duguna, Jaungoikoa da, gure Aita, maitasun eta ontasun guztien iturria: aalmen, indar eta gogo guztiz maitatu bear dugu. Eta maitasun ori, itzez eta otoitzez, erlijio-ospakizunen bidez azaldu bear dugu gutxienez eta lenengo; baiña ez da naikoa.

Urruti daukazun gurasoak ziñez maite ba'dituzu, izketaz eta elkar ikustez, pozaren eta esker onaren bidez agertuko diezu maitasuna, zenbat-eta geiagotan obe. Baiña gauza ta egite zaillen bidez ere azaldu bear diezu; bestela, utsa da ori, gero-ta utsagoa, oztutzen eta galtzen joango bai-litzake agerpenik gabe.

Era berean, otoitzez eta erlijio-egintzaz azaldu bear dugu Jainko bakarraganako maitasuna. Baiña ori gutxienekoa da. Ortaz gaiñera, lagun urko guztiak maitatuz egiztatu bear dugu ziñezko jainko-zaletasuna, bestela ez bai-dago egiatzko maitasunik.

Ontan dago Jesus'en irakaspen edo mezauaren argi berria: Jainkoa ta gizakiak maitatzea, agindu bat berean lotu zituala. Jainkoa ziñez maitatu-naiak eramango gaitu beste gizakiak maitatzera, eta elkar maitatzean maiteko dugu Jaungoikoa.

## Bear zuanetik eman du...

*Beste guztiek baiño geiago eman du  
alargun gaixoak: bizitzeko zeukan  
guztia eman du. Mk 12, 38-44*

Gauzak eskuratzea, gauza asko eukitzea, askoren jabe izatea..., oiek dira gaur jendearen ametsak: “Dirurik gabe ez dago ezer... Dirua euki ezkerro, dana lortzen dute... Diruaren bidez, dana lortu genezake... Dirua da mundu ontako jainkoa...”

Ez al ditugu orrelako esaldiak eta itzak entzun? Eta geurok ere ez al ditugu esaten? Auxe da begien aurrean ageri dana, auxe da etxe askotan seme-alabek aurtzarotik ikusten dutena, auxe da beren etxeetan eta andik kanpora artzen duten giroa.

Diruaren trukean edozer gauza saltzen eta erosten dute askok. Eta begien aurreko ta eskuarteko gauzak bakarrik ez, baita... adiskidetasuna ere. Iritziak, pentsaera, erria, etxea, adiskideak, sinismena, kristautasuna... dana saltzera eldu gindezke gaurko giroan. Ala ez ote da? Eta zenbati gertatua?

Diru-zalekeriaren loturak nola etengo, eta diruarekiko morrontza nola autsiko dugu? Nola elduko gera gizatasunari, sinismenari, Jainkoari, gure kidekoei, erriari, geure nortasunari

balio aundiagoa ematera, diruari baiño? Daukagunetik besteei ematen ikasiz: ez dago beste biderik.

Eredu bikaiñak daukagu Liburu Santuetan. Sarepta'ko alargunak, bizitzeko berentzat bear zutenetik eman zion Elias'i. Gauza bera egin zuan beste alargun beartu batek ere, Ebanjelioan ageri danez: Jerusalem'go elizan opariak eskeiñi aal izateko, limosnatzat, zeuzkan diru-apur guztiak eman zituan.

Diru-kutxara limosna mardulak sartzan zituzten dirudunek. Begira zegoan Jesus. Eta alako batean alargun batek, ain beartsu zanez, apal eta erdi-lotsatan, bi xox eman zituan.

Ori ikustean, ona emen Jesus'en aitorpena: "*Beste guztiek baiño geiago bota du alargun gaixo onek*". Zergatik? Geiegi zutenetik eman bai-zuten beste guztiek, eta ala ere asko gelditu zitzairen berentzat. Beartsuak, berriz, Jesus'ek neurtu zuanez, "*bizitzeko zeukan guztia eman du*". Oso zaila da ori egitea, baiña ikasbide ederra! Zer ematen dugu? Zenbateraiño ematen dugu?

Emate-kontuan badaude mailla batzuk, auek adibidez. Lenengo mailla, gutxienekoa: geiegi daukagunetik, ez daukate nei ematea. Eta nork ez daukagu zerbaitetan bear-bear baiño geixeago?

Bigarren mailla: geuk bear dugunetik ere ematea, gu baiño beartsuago diranei. Nork esan, zenbat diran gu baiño beartsuago?

Irugarrena, goragokoa ta askatzailleagoa: geure buruak ere besteen serbitzuan jartzea, gure orduak eta lanak emanez. Zer maillatan gaude? Zer ematen dugu? Eman gabe ez dago kristautasunik, ez senidetasunik, ez barruko zorionik.

## Eta gero, zer?

*Lau aizeetatik bilduko ditu bere aukeratuak, lur-ertz batetik besteraiño. Mk 13, 24-32*

Iraganak edo joanak ez gaitu larritzen: Oiñazeak, ez-bearrrak, naigabeak naiz nekeak, bein igaro edo joan diranez gero, ez dira guretzat bildugarri. Zergatik ez? Joan ziralako, eta libre utzi gaituztelako. Joanak ez gaitu larritzen, etortzekoak bai.

Gauzarik mingarrienak diralarik ere, igaro edo joan diran ondorenean, "au lasaitasuna!" esan oi dugu, arnasa sakonki artuz. Eta gauza latz oiek bildurtzen ba'gaituzte, gauza bakarraigatik da: etorkizunean berriz etor daitezkealako. Bildugarria ta larritzen gaituana, beraz, etorkizuna da, eta ez, igarotakoa.

Abereak ez, baiña gizakiak bai, etorkizunari begira bizi gera. Biar eta etzi ta urrengoan, zer egingo dugu? zer lortuko dugu? Eta... gero? Zer izango gera? Zer gertatuko zaigu? Kezkarriak dira galdera auek, gauzak beren sakontasunean artu ezkeru.

Urte asko-asko baiña leen, eriotza etorriko zaigula, ori ziur dakigu, eta alperrik litzake ezetz esatea. Gaiñera, zu ta ni bakarrik ez: beste gizon-emakume guztiak ere bai. Baiña baita munduko gauzak, mundua bera, illargia ta eguzkia berak ere amaitzera edo bukatzera doaz. Noiz? Gero. Besterik ez dakigu.

Gizakion lanak, borrokak, ametsak, nekeak, egiñaalak, aurrerapenak, zer izango dira azkenean, edo zertan amaituko dira? Gizadi osoa bere millaka urteetako iraute ta aurreratzeen ondoren, zertan geldituko da?

Dana utsean, deus-ezean geldituko dala, diote askok gaur. Eta ori esanda, lasai gelditzen dira. Ez dira ausartzen, azken beltz orren ondorenak ateratzen. Bai alperrikakoa, uts biurtzeko egiten dugun lana! Nork ematen die ziurtasuna, dana uts biurtuko dala esateko? Usteak uste, ziurtasunik ez dago, uts izango dan ala ez, ezerez izango dan ala zerbaitek iraungo duan.

Ez da, ordea, dana beltz, Jesus'i esker, itz auetan ageri zai-gunez: *"Zeru-lurrak igaroko dira; nere itzak ez dira igaroko"*. Eriotza zapaldurik, zoriontsu piztu zana, bizi da. Eta bizi dan Jesus'en itzak ere bizi dira ta biziko dira.

Jesus'i esker, guk ere badakigu biziko gerala, eta ez gerala zearo bukatuko edo amaituko. Mundua amaituko da, noizbait, baiña ongi egiñak eta egite onak, ez dira galduko, ez dira amaituko: ori ere badakigu, baiña ikusita ez; sinismenez daki-gu, sinistu egiten dugu, gero-ta sendoago ta pozikago sinistu bear dugu.

Orrela, Jesus'engan dugun siniste orrek eragingo digu on egiten eta senidetasuna zabaltzen jarraitzera: ortan bai-dago gure poza, eta ortan dago gure zoriona, itxaropenaren argira, noski

## Kristo Erregea ta egia

*Ortarako  
etorria naiz mundura: Egiaren  
aitorpen egitera. Jn 18, 33-37*

Zapi gorri zaar bat jantzita, kaiñabera eskuan eta arantzazko koroia buruan, gezurrezko erregetzat artu zuten Jesus gudariak. "Kristo Erregea" izeneko irudiak ere ez dira guztiak egiazko Jesus'en irudiak: aulki dotorea, jantzi apaiñak, urrezko koroia ta aginte-makilla, ez dira Jesus'en ezaugarriak. Gezurrezko eraskiñak dira, lilluragarri ba'zaizkigu ere.

*"Errege naiz... Nere erregetza ez da mundu ontakoa"*, aitortu zuan Kristo'k Pilatos'en aurrean. Eta mundu ontako errege ta agintariak, indarraren bidez –eta geiegitan indarke-riaren bitartez– nagusitzen dira leen eta orain.

Indarkeriarik kaltegarriena, berriz, gezurraren eta engaiñua-ren bidez gizon-emakumeak batera ta bestera erabiltzea da. Zigorren eta arma-indarraren bidez, beso ta oiñak lotzen dituzte; gorputzak zauritzen eta oiñazez betetzen dituzte, batzue-

tan bizia gogorrean kentzeraiño. Orrelakoak, bai ekintza makurrak dirala!

Gezuraren eta engaiñuaren bidez lotzen dituztenak, zauritzen eta ilda uzten dituztenak, berriz, buru-biotzak eta giza-gogoak dira. Eskuak eta oiñak jarein edo libre dauzkate, baiña barne-tik lotuta daude, eta nola lotuta egon ere!

Au bai indarkeria, au bai kalte izugarria! Eta engaiñuzko indarkeriakgizakioi gaitz kaltegarriagoa egiten digu, atomo-indarrezko arma desegille ta bildurrgarri oiek baiño. Tamalez, ordea, ez zaigu iruditzen, begiz ikusten ez dugulako, eta ez dugu arduraz artzen; oarkabean iresten dugu baizik.

Agintarien, politika-partiduen eta sindikatuen erabaki ta jorkabide nagusien egi-egia, nork jakin lezake? Ixilkako zenbat gauza ta izkutuko zenbat engaiñu tarte ortan!

Egiaren aitortpena egitera etorri zan Jesus; egiaren erreinua zabaltzera, egiaren berri ona otsegitera. Eta au da Jesus'en egia: Jaungoiko Egillea, guztion Aita dala, eta gizon-emakume guztiok elkarren neba-arreba edo senide generala. Orra egiaren egia! Ori da Jainkoarekiko egia, eta orixe da gizakion egia.

Gauza guztien asiera ta bukaera, Alfa ta omega, lenengoa ta azkena, guztien jaun eta jabea. Baiña munduan, zein nagusitzen zaigu? Zeiñen menpera jotzen dugu: aginte ta indarraren babesera, ala Jainkoaren esanera ta maitasun-bideetara? Orra aukera!

Jesus'ekin batera, Jainkoa maitatzen saiatuz, gure inguruan eta errian senidetasuna egiten eta indartzen ba'dugu, egiaren bidean gabiltza. Eta azkenean, Jesus'ek esan bezala "*egiak askatuko gaitu Jainkoaren seme-alaben askatasunean*".

Lukas Donearen Berri Ona dugu aldi ontako ardatz.

Argibide batzuk, datozen urteetan noiz eta nola erabili C aldia:

Abendu-aldia: 1991'ko Gabonillaren 1'ean asi, eta jarraitu ondoren

**1992'gn urtean:**

Urteko Igandeak, Urtarrillaren 12'tik, 8 Igande  
Auster eguna, Epaillaren 4'an  
Pazkoa eguna, Jorraillaren 19'an  
Espiritu Santua, Ekainillaren 7'an  
Urteko Igandeak, Ekainillaren 21'ean, 12'gn Igandea

Abendu-aldia: 1994'ko Azillaren 27'asi, eta jarraitu ondoren

**1995'gn urtean:**

Urteko Igandeak, Urtarrillaren 1'etik, 8 Igande  
Auster eguna, Epaillaren 1'ean  
Pazkoa eguna, Jorraillaren 16'an  
Espiritu Santua, Ekainillaren 4'an  
Urteko Igandeak, Ekainillaren 18'tik, 11'gn Igandea

Abendu-aldia: 1997'ko Azillaren 30'ean asi, eta jarraitu ondoren

**1998'gn urtean:**

Urteko Igandeak, Urtarrillaren 11'n, 7 Igande  
Auster eguna: Otsaillaren 25'ean  
Pazkoa eguna: Jorraillaren 12'an  
Espiritu Santua, Lorailaren 31'n  
Urteko Igandeak, Ekainillaren 14'an, 11'gn Igandea

Eta era berean izango dira 2000-2001, 2003-2004 urteetan ere.

## Askatasunaren zai

*Urbiltzen ari da zuen askatasuna.  
Lk 21, 25-36*

Askatasuna nork ez du nai? Ainbeste gauza dira, izan ere, lotzen gaituztenak! Kateek eta espetxeko giltzapeak bakarrik ez gaituzte lotu oi. Legeek, indardunek, indarkeria-zaleen erasoek eta dirurik ezak ere lotzen gaitu. Guzti oien bildur aundiak ere lotzen gaitu, onek barrutik lotzen gaitu, gaiñera.

Gauza geiago ere badira askatasuna kentzen digutenak: era askotako zapalketak, zuzengabekeriak eta, azkenean, eriotzaren atzaparrak. Baiña gauza guztiotatik askatu nai gaitu Norbaitek. Ezagutu ba'geneza argi ta garbiro!

Gu gizon-emakumeok barnetik lotzen gaituzten beste lotura batzuk ere badira bildurraz gaiñera. Auek bai dirala sakanak eta indartsuak! Gure buru-biotzak moteltzen dituzten lotura ugari dauzkagu: jan-edankeria, aundinaia, besteren inbiria, diruzalekeria... Nola etengo ta askatuko ditugu lokarri auek guztiak?

“Zutitu zaitezte, jaso buruak! Urbiltzen ari da zuen askatasuna” ... Jesus'en itz bikain auek, itxaropena pizten digute barnean. Egunen batean lotura itogarri guztiak etengo ditugun itxaropen pozgarria da.

Nolako itxaropena, ordea? Geroko askatasun ustean, lilluraturik eta ametsetan, deus egin gabe zai egon-eraziko gaituan itxaropena? Orrelako itxaropena, ez! Ori ez litzake itxaropena. Izan ere, komunistek egozten diguten erlijioaren antzekoa izango litzake orduan: gerokoaren pozean, emengo egin-bearretatik kanpora, lotarazten gaituan lo-belarra bezala izango litzake. Eta ori ez da Jesus'ena, nolabaiteko sasi-erlijioa baikik, geienaz ere.

“Ez moteldu zuen biotzak. Erne bizi ta egin otoitz”. Begiak argi ta arretaz beterik ibilli bear dugu beti, gure inguruko okerak eta gaitzak ezagutzeko. Eta gogo biziz saiatu bear dugu on egiten eta okerrak zuzentzen. Gure egiñaalak benetan baliokoak diran itxaropenak emango digu indar, aspergabe jarraitzeko. Ori da askatasunerako bidea Kristo'ren asmoetan.

Eredu jatorra dugu Xabier aundia, itxaropenaren geroko pozean, emen lurrean sinismen-lan bikaiñak egin zituana. Lagun dezaigula zerutik, beti erne ibil gaitezen eta askatasun osora eldu gaitezen. Ain juxtu ere, gaur dugu bere eguna, Napparroa osoan gogotsu ta aundikiro ospatzen dugun eguna.

Zer esango ote liguke, bere errikide geran napparroi gaur, 1985'gn urte ontan, Abendu santuan aurrera goazenean? Nolakoa ikusiko ote luke gaur bere sorterri au? Bere garaian Europa'ko ikasleei bezain bizi ta zorrotz ez al liguke eskatuko, egiazko askatasuna ta itxaropena munduan zabaltzen lagundu dezagula? Orrela lortuko genuke geuretzat ere askatasunik egiazkoena.

## Basamortuan oiubat

*Ikusiko dute guztiak Jainkoaren salbazioa. Lk 3, 1-6*

Basamortua edo eremua, iñor bizi ez dan tokia da; dana lur idor eta ondar, abererik eta landarerik ere ia gabe, toki uts, soil eta bakartia. Orrelakoak dira gaur bertan ere Judea'n sail aundiak, geienak menditsu, oso goituak ez ba'dira ere; urrutira ageri dira mendixka zapal eta borobilduak. Zertarako da, beraz, basamortuan mintzatzea, zertarako da an irrintzi ta oiuegitea?

Eta orra Joan Bataiatzaillea Judea'ko basamortutik irtenda-ko gizon bat bere mintzoa agertzen eta jendaurrean otsegiten; basamortutik zetorren mintzoa zan, jendeari oiuka zerbait adierazten. Zer esaten zuan, ordea, oiue arek? Auxe zan mezua: “Ikusiko dute guztiak Jainkoaren salbazioa”.

Jainkoaren mezua artu duanak, Jainkoaren asmo bikaiñak ezagutu dituanak, Jainkoaren ontasun-maitasunak nabaitu ta sinistu dituanak, ez dezake iñola ere ixilik iraun. Ain guza aundi ta bikaintzat nabaitu dituanak, ez ditzake bere biotz-barnean gorde: kanpora atera bearra nabaitzen du, besteei zabaldu bearra eragiten dio bere barnean biziki ta gaiñezka.

Alaxe mintzatu ziran Igerleak; adibidez, Abakuk mintzatzan zaigu Igande ontako irakurgaiari: “*Jerusalen, erantzi dolu ta atsekabetako soiñekoa, eta jantzi betiko, Jainkoaren aintzaren ederra... Jainkoak izen au emango dizu bein betirako: Pakea Zuzentasunean, Ospea Jainko-zaletasunean*”.

Eta guk, zer? Sinisten dugunok, zer? Giza-ondasunak geien aberasten eta edertzen dituan gauza bikaiña al da, guretzat, sinistea? Ala izan bear luke. Eta orrela artzeiraiño sinistu bear genuke sakonki Jainkoaren salbazioa, gero gure gizartean eta gure inguruan pozik erakutsi ta otsegin aal izan dezagun.

Basamortuan oiua norbaiti entzun-eraztea bezain zailla da gaurko gizartean gure sinistea beste norbaitzuei agertzea. Batetik, eskola ta kultura, sinismenik gabeko giroan dabilta. Bestetik, munduari, bizitzari ta gizakiari buruz irakasten duten toki geienetan, sinismenik gabeko giro otza dabil nagusi. Non ditugu bestelakoak, non ditugu sinismen-girokoak?

Gure etxeetan ere zer giro ari da sartzan, naiz kanpoko lagun artetik, naiz kaiola iztuna, berriketaria dan barruko ikustirradi edo telebisiotik? Giro ontan nork eta nola aipatu Jainkoaren izena? Gazteen buruan nola sortuko da Jainkoaren galderarik?

Kristauoi giro onek berak eragin bear digu sinismenean argitzera, sakontzera, eta sinismena elkartean bizitzera. Guztiontzat dago zer-egia. Gurasoek, etxean kristau-giroa egin bear dute. Sinisten dugunok, parroketan lagundu bear dugu ospakizenetan eta sinismen-etzketan. Eta biziki arduratu bear dugu eskoletara ta lagunartera, jolasera ta lanera ere sinismen-giroa eramaten. Lagundu dezaigula Bataiatzailleak, gaurko munduan basamortuko oztasuna austen.

## Indarkeriarik ez! Pakea bai!

*Gogorkeriaz iñor ez beartu.  
Lk 3, 10-18*

Indarkeriarik ez duala nai, ori edozeiñek esaten du. Izan ere, besteen ekintzei esaten diegu indarkeia, eta beste iñoren indar-ekintzarik ez du iñork beregan jasan nai. Baiña bestalde, bakoitzak bere gogorkeria ta indar-ekintzak, arrazoizkotzat jotzen ditu askotan. Or dago ez-berdintasuna, or dago koska!

Abendu-aldi osorako egokia litzake, gutxienez kristauok beintzat, jarrera au artuko ba'genu: “*Indarkeriarik eza, orixe bera pakerako bidea*”.

Arazo, korapillo ta istillu asko izaten ditugu gizakiok maila geienetan: etxean, auzoan, lantokian, jolasekoan, errian, politikan... Eta guztien iturubua, geure barnean daukagu. Ain zuzen ere, zenbat gizonezko ta emazteki diran, beren barnean baretasunik eta orekarik ez, eta orde z borroka daukatenak?

Baiña arazo ta istilluen aurrean, nondik nora abiatuko gera konponbidearen billa? Ezagueraren, adimenaren, arrazoiaren,

pentsatze ta izketaren bidea artzen al dugu? Ala... zirt eta zart, indarrezko bideak artzen ditugu?

Begiratu besterik ez dago mundura, eta begiratu Euskalerra osora: gizartean eta errian dauzkagun arazo larriak konpontzeko, indar-ekintzak darabizkitez lenengo, beste arrazoirik eta irtenbiderik ez ba'lego bezala. Indarkeria beti.

Eta ori ez da jasotzea. Gauzak desegitea da ori, ilketak ilketi pillatzea, bildurra ta izua nagusitu-eraztea. Gizakiaren ondarena da ori, buruaren eta zentzu onaren gainetik, leerkai ta armak erabiltzen bai-dituzte. Gizakiak buruz beera ibiltzera beartzea bezala da okerreko jokaera ori.

Guztion kalterako gaitza da. Baiña batez ere komunismoaz kutsutuak diranek, bestela ikusten dituzte gauzak: oiek, izan ere, desegin eta txautu bearreko etsaitzat artzen dituzte "besteak", eta desegitea, indarraren indarrez ere lasai egiten dute. Eta nola utziko dute bide ori, ain berena izaki? Eta nola lortu, bide ori utzi-eraztea?

Indarkeriarik eza, ez da gozoro egotea, ez da dana uztea. Eskubideak eta egin-bearrak uztea ere ez da. Ez da begiak ixtea ta burua makurtzea. Indarkeriari arrazoi ematea litzake.

Bakoitzak bere burua ta bere erria, zuzentasunean egoki zaintzea da lenengo. Eta urrena, beste au guztia: "*Bi daukanak, -bai jana, bai jantziak, e.a.- eman dezaiola ez daukanari... Ez eskatu, erabakita dagoana baiño geiago... Ez beartu iñor gogorkeriaz, ez salatu...*" Gure jarrerak aldatu bear ortarako.

## Sinistea ta pake-gintza

*Zorionekoa zu, sinistu duzulako.*  
*Lk 1, 39-45*

Bizpairu egun barru, Eguberriak ditugu: Gau ona ta Egun berria datozkigu, ain zuzen. Poztu ta alaitzeko egunak, egun bereziak, guztiontzat egokiak barruz aberastu gaitezen.

Antziñatik datozkigun oiturak ongi betetzea, ez da kaltegarri. Jaiotzak eta Olentzero diralakoak, kaleetako ta etxez-etxe-ko abestiak, sendi-billera jatorrak, ez ditugu galdu bear, zaindu ta aberastu egin bear ditugu baizik.

Baiña ez da naikoa. Oitura oien sustraian eta sorreran, Jesus'en Jaiotzari ongi-etorri egitea dago. Ori bai dala garrantziko! Belen erri txiki artan gertatuak oiñarritzat artuta, an jaio zan Aurtxo-Jainkoa obeki ezagutzea ta Arengan sinistea ditugu elburu.

Eredu bikaiña dugu ontan Nazaret'eko Maria: "*Zorionekoa zu, sinistu duzulako!*" Ain ziñez eta benetan sinistu zuanez, Jesus'ek bezala esan zuan berak ere: "Ona emen ni, zure naia



egiteko". Biotz barnetik sinistu zuanez, egite onak ugari egin zituan guztienganako maitasunez.

Gizakion maillara jetxirik, gurekin errukituta, gizon egin zan Jainko-Semeak, aserre ta zatiketak oinperaturik, pake-bideak ireki dizkigu: gorrotoak, indarkeriak, banaketa zatitzailleak eta etsaikeriak zapaldurik, artu-eman eta elkar-izketa jarri ditu pakerako bide egokitzat.

Ilketak eta indarkeriazko beste ekintzak dirala-bide, gure erria ta jendeak zatitzen, desegiten eta ondatzen ari dira. Alde bietatik sortzen dira indarkeriak, eta oiek aserrea ta gorrotoa pizten dituzte; ez dago pakerik orrela, gero-ta borroka geiago baizik.

Ezagueraz eta burutsuki jokatu, nork bere akatsak ezagutu, besteen gauza onak aitortu... Orra lenengo pausoak. Eta urrena, artu-eman jatorrak eta elkar-izketak asi bear ditugu baita taldeen artean ere: sendian, auzoan, lagunartean, errian, lantegietan, kristau-errian..., baiña ez, danen gaiñetik bakoitza berearekin ateratzea elburutzat artuta.

Beste zerbait artu bear genuke jomugatzat: etxean eta gabiltzan edozein tokitan, albokoak eta ingurukoak eta beren bearrak ezagutzea, aien izaera ta jokaerak jatorki ulertzea, dezakegun neurrian egiaz lagundu aal izateko. Ori egin zuan Nazaret'eko Maisuak eta ori bera irakasten digu.

Jaungoikoa gizon-emakumeekin elkar-izketara ta elkar-lanera etorria danez gero, orixe da guretzat ere ziñezko pake-bide. Maria'ren antzera, gurea dugun Salbatzaillea sinistu, eta elkartasunaren alde jokatu gartsuki. Eguberriak gure buru-biotzentzat mesedegarri izan daitezen, gertutzeko biderik onena, auxe genuke.

**Eguberri Eguna  
Jesus'en Jaiotza**

## **Jainkoa gizon egiñik**

*Gure artean  
jarri du bere bizilekua.  
Jn 1, 1-18*

Atzo Gabon eguna, gaur Eguberri... Atzo-gaurretan ospatzen duguna, aspaldiko gertaera bat da: Jaungoiko aundia, aurtxo egiñik jaio zanekoa. Gertaera bat guztiz berezia, besterik ez bezalakoa.

Urtero ospatzen dugu, pozik eta jai-giro alaian ospatu ere. Baiña jakin, bai ote dakigu zeinen gertaera aundia, sakona, bikaiña ta arrigarria dan Jesus'en jaiotza? Lenengo, Jaungoikoa nor dan usmatu bear genuke; ulertu ez, baiña zuzeneko eran usmatu beintzat bai.

Gu, gauden tokitik, gauza gutxitara irixten edo eltzen gera; gure begien bidez, urrutirago eltzen gera, gugandik urrutiko gauzak ikusten bai-ditugu. Eta adimenez, gure ezagueraz, gure pentsamentuaz, askoz gauza geiagotara eltzen gera, izkutuko ta urrutiko gauzak ere ezagutzen bai-ditugu... Nolabait esate-

ko, gure pentsamentuaren antzekoa da Jaungoikoa, baiña gauza guzti-guztiak beren sakontasun osoan ezagutzera irixten dana.

Aundi ta txiki, gauza guzti-guztiak ezagutzera irixteraiñoko ezaguera edo jakinduria da Jainkoa. Guztiak ezagutuz gaiñera, guztiei beren izaeran eta bizian iraun-erazteko indar edo aalmen aundia da Jainkoa; eta gaiñera, maitasun guztia. Baiña jakinduria, aalmena ta maitasuna, izkutukoak dira ta gureztat ikusteziñak, eta ezagutzen oso zaillak, ain ere ain sakonak diranez.

Eta orra Jaungoiko aundiak, bere maitasunean gurekin errukiturik, erabaki arrigarria artu zuan: gizon egitea, aurtxo biurtzea, eta Maria Birjiña'gandik Jesus Aurtxo eginda jaiotzea... Gu, gizaki aul eta errukarrion gizatasunera jetxi zan, gure mailako ta antzeko biurtuta. Gugana jetxi zan, gure auleria, oiña-ze, neke, lan eta eziñetan gurekin elkartzeko.

Batetik, Jaungoiko aundi izkutuaren berri guri emateko jetxi zan, maitasunez zeñen aundia dan adierazteko; eta bestetik, bear guztietan gurekin elkartasuna egiteko. Ortarako jaio zan Belen'en: "*Gure artean jarri du bere bizilekua...*" Garai aieta-ko aundizkiek beren bizilekua erritar xeengandik oso urruti euki oi zuten; baita gudalburuek ere beren gudariengandik oso berezita. Baiña norbaitek beretarren artean jartzen ba'zuan bere oial-txabola, maitasun-agerpen bikaiña zan eta jendeentzat poz aundia.

Ortatik atera kontu, zeñen beeratze aundia ta maitasun izugarria, eta zeñen pozbide zoragarria israeldarrentzat, Jaungoiko ain aundiak "bizilekua edo oial-txabola gure artean jartzea".

Orrela eman zion "*Aintza Jainkoari zeru-goietan*" eta orrela ekarri zigun "*pakea lurrean, Berak ain maite dituan gizon-*

*emakumeei*", guzti-guztiori alegia, onartu nai ba'dugu, noski. Gurekin elkaturik dugu egi-egiaz. Elkartu gaitezen gu Berarekin, ezagutzeko ta sinisteko argia eskatuz; maitatzen saiatuz.

Guk ere Jainkoari aintza emango diogu, gure senideekin zuzenbidean eta elkartasunean pakeak egiten ba'ditugu. Guztiak maite ditu Jainkoak, maita ditzagun guk ere, barkatuz, lagunduz, dirua ta jana ta bear dutena emanaz; beartsuenei geiena lagunduz.

Eta orduan izango gera gu Jainkoarekin benetan pozik.

## Sendiaren elkartasuna

*Jesus' ek aiekin eta aien menpean  
jarraitu zuan. Lk 2, 41-52*

Barnera bakarrik begira ta zearo itxia ez du izan bear sendiak. Eta ez du egin bear, noski, “gauden gu emen bero-bero ta besteak or konpon!” Itxiegi izateak, egia esan, kaxkartu egiten gaitu bai bakarreko gizakiak eta bai elkarteak. Ori ez dago ukatzerik.

Baiña bear ba'da gaurko sendiak ez dauka itxitasunerako arrisku aundirik. Izan daitezke sendi gutxi batzuk, kanpoko borroka ta leiaketa-giro gogorraren aurrean, beren banera biltzen diranak. Zenbat, ordea, orrelako sendiak gure artean?

Beste alderako arriskuak askoz ugariago ta indartsuago dirala esango nuke. Gaurko sendiak geienetan ez al dabilta elkartu eziñean? Aita ta ama biak lanean, bakoitza bere ordue-tan eta bere aldetik; seme-alabak ere bakoitza beren ikasketak egiten eta beren lagun-arte berezietan... Noiz eta nola elkartuko dira?

Gurasoek beren garaian artu zuten eziera ta gazteek gaur artzen dutena, oso ez-berdiñak dira; eta oso nekez eta gutxie-gitan datoz batera, edo elkar artzera. Orregatik, bai zailla dala ziñezko elkartasunean baturik jokatzea! Asko al dira elkartasunetik poztuta ateratzen diran senditarrak, naiz guraso ta naiz gazte?

Bestalde, etxez kanpoko giro arrotza sartzen da egunero, sukalderañño ta sendiaren biotzeraiño sartu ere, ikustirratia edo telebisioaren bidez. Askotan aberasgarri ta bearrezkoa, baiña sendi-giroa banatu ta ozten duan bixitari arrotza da sendian.

Sendiaren bearreko egin gaitu guztiok Egilleak, sendiko guztiok elkarren babes eta aberasgarri izateko eran antolatuak bai-gera. Eta gu salbatzera etorri zan Jesus'ek ere sendi baten barnean egin zituan bere bizitzako urterik geienak: irutatik bi beintzat bai, sendi-giroan burutu zituan.

*“Nazaret’ a jetxi aiekin eta aien menpean jarraitu zuan Jesus’ek”*. Ez morrontzapean, noski, baiña semeari zegokion maitasun-giroan, eta gurasoekin bere gogoz elkartuta. Or daukagu eredu bikaiña gaurko mundu-aldirako ere.

Sendiko elkartasunean, batak bestea babesteko ta aberaste-ko gai baldin ba’gera, orduan gaiago izango gera, –sendiaren barnean elkarrekin indartuta– beste gizon-emakumeak eta beste sendiak ere gure laguntzaz pozteko ta jasotzeko.

## Aurtxo egiñik Jainkoa

*Itza, aragi egin zan: au da, Jainkoa  
aurtxo. Jn 1, 1-18*

Eguberriak ospatzen ditugun egun auetan maiz entzun izan dugu, Jaungoiko aundia umetxo egiñik jaio zala Belen’en. Eta Jesus jaio-berriari “Aurtxo-Jainkoa” esan oi diogu. Astiro ta patxadaz pentsatu ote dugu zeñen gauza arrigarria dan ori?

Gure biotzak bigunduta, aurtxo beartsu ta apalaren iruditxoari, pozik eta errukiz muin ematen diogu aldi ontan; bear ba’da, umetxoaren otzaz errukiturik, biotz osoz musu eman izan diogu.

Konturatzen al gera, ordea, Jaungoiko aundia nor danik? Jabetzen ote gera Jaungoiko aundi ta aalgutzidunak zer egin duan? Jaungoikoa gugana jetxi da, gure maillara, gure gizatasunera, guk bezalakoxe ezur eta mamiak artuz.

Mugarik gabeko jakinduria da Jainkoa, gauza guzti-guztiak ezagutzen dituana. Neurririk gabeko aalmena da Jainkoa, ez diranak sortzen dituana, diranak zaintzen eta erabiltzen dituan

indar azken-gabea. Izaki guztietan ezarri du bere zantzua, baiña guk nola ezagutu?

Ain izkutua danez, bear bezala ez zuten ezagutu gizakiek. Geienez ere, norbait izugarri ta bildurgarritzat artu zuten. Aunditasun ortaz baliatu izan dira zenbait erlijiotako gidariak, jendeak bildurrez menpean eukitzeko. Eta erlijio-gizon guztiok dugu arrisku ori, orain ere.

Baiña aldi berean Maitasuna da Jaungoikoa, gizaki deusezak geranokin errukiturik, maite gaituana. Eta bildurrik izan ez dezaiogun, gugana jetxi da gure maillara, eta aurtxo egiñik agertu zaigu Belen'en Jesus'engan.

Aundikeriak bear izaten ditugu, zerbait bagerala azaltzeko. Jaungoiko aundiak, ordea, bere aalmen neurrigabeak, Jesus'engan izkutatu ditu, danen gaiñetik maitasuna azaltzeko. Baiña... maitagarritzat al daukagu Jaungoikoa? Ala, bildurgarritzat?

Jesus'ek zuan maitasun apal eta garbian ezagutu bear dugu Jaungoikoa, eta guk ere ziñez maitatu. Orixe da Jaungoikoaren argia, maitasunezko argi bizia. Ez dezagula illuna maiteago izan, argia baiño. Aurtxo-Jainko Orrengan izan dezagula sinismen argia, alaia, pozez betea, esker onezkoa.

## Urte Berri Maria, Jainkoaren Ama

### Bere pakea

*Jesus ezarri zioten  
izena. Lk 2, 16-21*

Pakea ez da utsaren urrengo gauza. Guztiok nai dugun zerbait da pakea, bai leen eta bai orain. Baiña nolako pakea? Borrokariek eta iltzailleek ere pakea nai dute; iraultzaille ta "erreboluzionario" diranek ere pakea eskatzen dute: "Beren" amets eta asmoen neurrikoa, ordea, "beren" pakea...

Orrelakoen pakea, berentzat lasaitasun eta zorion izango da, bai noski, baiña beste guztientzat pakerik-eza gertatuko litzake. Eta emen bear duguna, guztiontzako pakea da; ez batzuentzako bakarrik. Orixe da ain zuzen, gaurko ospakizunetan eskeintzen diguna Belen'go Aurtxo-Jainkoak: "Pakea lurrean..." baiña guztientzat, gogo oneko guztientzat, Aren aldetik mugarik gabe.

"Bedeinka zaitzatela Jaunak, eta zaindu... Eman dezaizuela bere pakea". Nola-naiko pakea ez, Jaunaren pakea baizik, Moises'ek esan bezala. Eta Jesus'ek ere guztiontzako eskeintzen digu: "Nere pakea ematen dizuet..." guztientzat etorria bai-zan Bera.

Pakea eskatzen dute judutarrek “shalom” agur-itza esanez, pakea mahomatarrek “salam” esanez, pakea eskatzen dugu gizaki guztiok. Baiña ez dago pakerik, ez mundu zabalean eta ez gure errian. Eta pakerik ez da izango, ez-berdintasun mingarriak, go-seak, elkar zapaltzeak, elkar iltzeak eta indarkeriak gertatzen diran arte. Zuzengabekeriak dira, eta oiek diran tokian ezin izan pakerik.

Maria ta Jose'rekin aurkitu zuten Jesus ura da Jainkoaren pakea. Izan ere Jesus'engan adiskidetu ta pakeratu da gizadia Jainkoarekin: “Pakezko erregea” dugu Jesus, “Pakearen Erregiña” da Maria.

Jesus, ain zuzen ere, “*emakumeagandik jaioa ta legepeko egiña*” etorri zitzaigun, gure mailla berean gizaki egiña, alegia. Guk ere, legepean jokatzuz eta gizon-emakumeak elkarren begirunean ibilliz, egin eta lortu bear dugu egiazko pakea. Eta aspertu gabe, egunero saiatu bear dugu pakearen billa, gure kidekoekin elkar artuta.

Gauza asko ta balio aundikoak jarri ditu Egilleak gu gizakion esku, zaindu ta obetu ditzagun guztiontzako mesedetan. Baiña gizakiok gure buruak, beste gizakiak eta gaiñerako gauzak, ez ditugu era egokian antolatzen eta erabiltzen; batzuen onerako ta besteen kaltean baizik, pakea autsiz eta uxatuz.

Asmo ta gogo txarreko agertzen gera askotan. Aldatu ditzagun gure asmo ta gogoak, orain Urte-Berri onen asieran, eta biurtu ditzagun asmo garbi ta gogo on. Barkatzeko, on egiteko ta elkarri laguntzeko gogo ona berritu ta indartu dezagun, “gurea” ez-baiña, Jaunaren pakea nagusitu dadin, lenengo gure biotzetan eta urrena, guztion egiñaalez, baita beste gaiñerako guztien biotzetan ere.

Zer egingo dugu Urte-Berri ontan? Jesus Aurtxoak lenengo odol-tantoak ixuri zituan. Eta guk zer eskeiñiko dugu Arekin batera?

## Opari eman zizkioten

*Kutxatillak irekita,  
opari eman zizkioten. Mt 2, 1-12*

Eskuerakutsiak edo erregaliak opari emateko oitura berezia dugu gaurko egunez. Obeki esanda, bart gauetik gaur goiza bitartean ain juxtu ere. Eta gure artean onela mintzatu oi gera: “Erregeen erregaliak... Erregeenetako opariak... Erregeei zer eskatu diezu? Erregeek zer ekarri dizuete? Errege onak izan dira aurtan...”

Beste esaldi bat euskaldunon artean oso ezaguna dugu: “Oiñetako jarri al duzu?” Zapata baiño obe oraindik bota, aundiagoa dalako, eta umeek aal duten aundiena ipintzen dute garbi-garbi leioan, beren usteetan “Erregeek opariak jar ditzaten”. “Erregeak” zein diran jakin arren ere, pozik begiratzen diote goizean-goiz beren oiñetakoari, an zer aurkituko, irrika bizian.

Ortaraiñokoa ongi legoke bere neurrian, baiña saltzailleek asma-aalak eta bi asmatu dituzte aldi ontan, beren salgaiak erosi-erazteko. Eta or ibiltzen da jendea eromen aundian nork baiño nork geiago ta gauza garestiagoak erosiko, naiz berentzat

eta naiz elkarrentzat, eta era berezian umeentzat. Edozein nekato naiz mutiko, berriz, oso txikitandik garesti-zaletuta, oiñetako, jazkiña ta jostaillurik bitxienak aspergabe ta setati eskatuz ikus dezakezu etxerik-etxe.

Ondorio batzuk atera-errazak dira: gauzarik garestienak eskuratzeko irrika ta zaletasuna umeengan sortzea; asko dituztenen poz arroa ta gutxi iritxi zaienen goibeltasun inbiritsua; elduen arteko norgeiagoka berekoa... Eta opariak egiteko oituraren itur-burua, ez ezagutzea, edo-ta ezaguturik ere aaztutzea.

Sortaldeko aundizkiek Belen'go Aurtxoari egindako oparietan du oiñarria edo sorrera. Nor gogoratzen da, ordea? Eta bestetik beti oso ongi dago ta mesedegarria da, elkarri eskuerakutsi ta oroigarriak egitea; baiña ez aundikeriaz, biotzeko ongi-naiaren agerpen izateko baizik, gauzen garestia ez bai-da maitasunaren neurri.

Dirutan ordaindu bearrik ez duten beste gauza asko dira guztion esku daudenak: agur atsegiña, itz alaiak, barkatzea, adiskidetasuna... Auek bai dirala biotz-barneko giroaren agerpen jatorrak! Baiña auek guztiak ez dira jendaurrean ikusgarri, eta muzin egin oi diegu, ageriko itxura arroetara murgilduz.

Senar-emazteei, erosketa garestiak elkarri emateabaiño askoz mesedegarriago ta bearrezkoago zaizkie, elkar-izketa, itz gozoak, babesa, adiskidetasuna, eguneroko elkar onartzea... Zergatik ez aztertu ta aldatu bakoitzak bere jokabidea? Oiek bai opariak!

Seme-alabei opari garestiak egitea ere errazago da, beraiekin lasai ta adiskidekiro askotan itzegiteko denbora artzea baiño. Au dute, ordea, ume ta gatzetxoek bearrezkoena. Eguneroko ardura bizia, babesa, beraiekin batera goibeltzea ta poztea ere bai. Eta seme-alabek, berriz, gurasoak pozik eukitzeko eguneroko egiñaala.

## Bataioa berritzea

*Zu zera nere  
Semea, Zugan dut nere atsegiña.  
Lk 3, 15-22*

Bataioa ez da jolasa. Senitarteko ta aaideen billera goxo bat egitea aurtxo jaio-berriaren inguruan... Jai-giroko ospakizun atsegin bat... Besterik, zer geiago da Bataioa guraso askorentzat? Ongi daude gauza oiek, baiña ori ez da Bataioa.

Umetxo jaio-berriari Bataioa emateak, egia esateko, baditu bere alderdi onak. Bereala Jainkoaren seme-alaba biurtzea batetik, kristau-elkartean sartzea bestetik. Orrela, ain zuzen ere, ar dezake sinismen-giroa gurasoengandik bere sendian bertan.

Baiña sinismen-giroa seme-alaba txikiei emateko eginkizunik, artzen al dute benetan gurasoek? Batzuek bai, noski. Eta beren umeen Bataiokoan bai, baiña beste jai-egunetan elizkizunetara agertzen ez diran gurasoek, zer? Nolako sinismen-giroa, etxean?

Sinistearen pozik eta otoitz-girorik ez ba'dute gurasoek, nola emango diete aurtxoei? Beraiek ez daukatena, nola kutsatuko ta bizi-eraziko diete beren seme-alabei?

Bataiatu ginduztenean, ez giñan ezertaz jabetu, iñolako ezaguerarik ez bai-genuan artean. Urteak joan aiñean, ezagueran sartu geranean, aztertu ta ikasi al dugu zer dan Bataioa? Eta zer dan Jesus'engan sinistea, aztertu ote dugu?

Beste pentsaera ta jokabide guztien artean, Jesus'en bideak aukeratzea da; beste pentsalari ta gidari guztien gaiñetik, Jesus autatzea da. Eta gure uste osoa Jesus'engan jarrita, Berari sinistea ta jarraitzea: orixe da kristautasuna ta orixe da gure Bataioaren betetasuna.

*"Zu zera nere Semea, nere maitea: Zugan dut nere atsegina",* esan zion Jesus'i goietako aotsak, Jordan ibaian Bataioan. Jainko Aitaren aitorten uka-eziña zan. Eta gure Bataioan, zer? Jesus'ekin batera gu ere Jainkoaren seme-alaba egiten gaitu Espirituak: aurrerakoan, Jainkoari "Aita" esateko eskubidea ta bultzada ematen dizkigu, eta Aren antzeko izate-ra dei egiten digu guztioi. Bataioaren aberastasuna ongi eza-gutu ba'geneza...

Jesus'en antzera, Aitaganako leialtasun zintzoan eta gure senideenganako maitasunean bizitzen saiatu bear dugu danok. Bide ortan sartu ginduan Bataioak. Gauza auek guztiak go-goan erabiltzea, bai mesedegarri izango zaigula!

Bataioa gogorazteko, oroigarriarik ez dugu tamalez. Bataio-eguna ospatzea, ez da alperrikakoa; oso aberasgarri litzaioke gure sinismenari. Bataioko kandela ta zapi zuria etxean arretaz jasotzeak asko lagunduko lieke gurasoei, gero beren seme-alabei Bataioa berritzeko ta ospatzeko giroa egiten.

## Ogiz bakarrik ez da bizi

*Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi.  
Lk 4, 1-13*

Bizitzeko bear-bear duten ainbat janari-edari ez daukatelako, gosearen gosez iltzen dira milloika lagun munduan barna, aurreko astean –gosearen aurkako ekiñaldian– gogorazi zigitenez. Oiek ogia nai izatea, eta dana ogi biurtu nai izatea ere, ez da noski arrigarri: ulertzekoa ta barkatzekoa da oiena.

Bizi eziñeko gosearen menpean ez gaudenok, gu gera gu dana ogi biurtu nairik gabiltzanak. Bakoitzak bere gose-egariak eta irrikak asetzea beste ametsik gabe, janari-edari garestiak, tresnak, gauzak, jolasak, gozamenak, liburuak, dotoreziak geureganatu ta irentsi nai ditugu, aspergabe ta asetzeko.

Ortarako joera aundia dugu geurenez, eta ortaraxe eragiten digu inguruko giroak alde guztietatik: sabela betetzera ta gorputzaren irrika guztiak asetzerara. Azkenean, maitasuna ere, besteei on egitea dan maitasuna ere, "ogi biurtu" digute, goza-



men-egarria asetzea bakarrik ba'litz bezala ikustaraziz eta sinistaraziz.

Eta ondorioz, or dabil gaurko gizakia –bai gizonezkoak eta ez gutxiago emakumezkoak!– alaitasunik eta pozik gabe irrika biziz. Ori bai, etengabeko leiaketan eta borrokan, nork baiño nork geiago bereganatu nolabaiteko “ogi” ortatik. Baiña aspertuta, bizi-pozik gabe, gogaituta, illun dabil. Ez al da ala?

Ortara eragin nai izan zion Jesus'i deabruak. Alperrik, ordea. Ona emen Jesus otoizlari ta baraugillearen erantzun mamitsua: “*Ogiz bakarrik ez da bizi gizakia*”.

Jesus'en barauaz oroituta, asko izan dira ta orain ere badira ez gutxi, “ogi” guztiak utzita, barau egiten dutenak; asko dira otoitzez eta Jainkoarekiko artu-emanetz beren barruak argitzen dituztenak; asko dira, besteei on egiñez, poz emanetz, lagunduz eta senidetasuna zabalduz, beren buruak aberasten dituztenak. Eta auek bai alai ta pozik bizi dirala! Nork ukatuko digu olakorik?

Basamortuko bakardadera jo zuan Jesus'ek... Gu, berriz, or gabilta bestelako ibilli askotan, beti geure buruari igeska: toki berriak ezagutuz, baiña geure barrua oso ez-ezaguna zaigu. Gure barrura begiratzeko ta gure buru-biotzak sakonki aztertzeke, egokiera bikaiña datorkigu Garizuma osoa.

Jo dezagun geure barnera: zer “ogi”, zer “janari”, zer-nolako “jainkoa” dira, ni billa nabillenenak? Egiazkoa ote da ni billa nabillenen Jainkoa? Galdera oiei dagozkien zuzeneko erantzunak aurkitzen, ederki lagunduko digu Garizuma'rako atera duten Gotzai-idazkiak.

Nabaitu al dut, besteak poztutzearen alaitasuna? Noiz arte ni nereko? Norbaiti laguntza ematearen poza; neure buruari zerbait ukatu ta besteri ematearen zoriona, bai al dakit nik zer diran?

## “Jainkoaren aztarnak kendu!” eta gero?

*Au da nere Semea. Entzun ezaiozute.  
Lk 9, 28-36*

Gauza asko ta arrigarriak jakitea lortu du gizakiak bere adimenaren argiz; tresna ta aurrerapen ikusgarriak asmatu ditu gizakiak munduari ta bertako gauzei neurriak artzeko; gaixotasun eta gaitz asko menperatu ditu. Itz batean, izadiaren indarrak neurtu ditu zati aundi batean beintzat.

Eta guztia badezakeala iruditzen zaio gaurko gizakiari. Bera baiño gorago ta bera baiño aaltsuago danik, ez dala beste iñor uste du; ez du nai iñor gaurko gizakiak bera baiño geiago danik.

Euskalerra osoan begirune ta itzal aundiz artu oi genuan Jaun-Goikoa, baiña gaurko askori, lotura itogarria dala iruditzen zaie. Geiago ere bada oraindik: Jainkoaren izena bera ta Aren aztarna guztiak kentzea nai dute zenbaitek euskaldunen buru-biotzetatik. Eta ez uste bañ edo bi bakarrik diranik orrelakoak.

Baiña eta orduan zer?

Orduan aske ta libre izango omen dira euskaldunak; orduan izango omen du askatasuna Euskalerra osoak. Orrela diote ez gutxik. Ain erraza ote da? Ain xamur eta arin ote dira gauzak?

Ondorio batzuk ikusi besterik ez daukagu: Dirua beste jainkorik ez dutenek, lanik gabe ta zanpaturik dauzkate ainbeste euskaldun, eta Euskalerra bera ere bai. Beren gorputz-atsegiña beste jainkorik ez dutenek, neurri aundian usteltzen ari dituzte umeak, gazteak eta sendiak. Beste zenbaitek, askatasunaren izenean, beren armen indarrez, bildurpean gauzkate alde askotatik. Au al da askatasuna? Au al da norbera bere buruaren jabe izatea?

Gauza izkutu ta sakon asko argitu ba'ditu ere gizakiak, bere sorrera ezin du argitu, eta azkena ere ezin du ulertu. Eta oraindik askoz gutxiago dezake, bere sorrera ta bere azkena bere esku eukitzea bete-betean lortzerik.

Nai izan ala ez, izkutu sakon aundiaz inguratuta gaude gaurko gizakiok ere: "misterio" aundia daukagu gure inguru, giza-adimena ta gizakion indarren gaiñetik dagoana. Eta ori ez ezagutzea, geure kalterako da. Zer egiten dugu ori sakonki argitzeko?

Euskalerra'ko Apezpiku edo Gotzaiek sakonki argitzen digute gai au: "Jainkorik gabeko mundua, basamortu itogarria da gizakiarentzat... Guk babestu bearrik ez du Jainkoak: gu gera Jainkoak babestu bearrekoak eta ortan dago gure zoria..."

Gure ta munduaren eta izadiaren sorrera ta izaera, -egia aitortzeko- ez daukagu garbi ulertzerik, ez ba'litz bezala, Jainkoa baztertuta. Ulertu ta eskuratu ezin dugun misterio aundi ori, orixe da guretzat Jainkoa: maite gaituan Aita, eta Berarengan dago gure izate osoa, gure sustraietatik asita. Onen berri ematen digu Jesus'ek. Entzun dezaiogun uste osoz, Tabor mendian Apostoluek entzundako aotsak goietatik esan bezala.

## Erruak salatzea, ez da aski

*Biotz-berritzen ez ba'zerate,  
guztiok galduko zerate.  
Lk 13, 1-9*

Erruak, akatsak eta pekatuak ezagutzea, bearrezkoa da noski, zuzeneko bideak eta jokaerak artuko baldin ba'ditugu. Baiña joera aundiegia dugu askotan, besteen okerrak ikusteko; eta aldi berean, geure pekatu ta erruak ez ditugu ikusten. Besteren begian lastoa ikusten dugunok, geure begian ez dugu abe aundia ikusten.

Eta beste joera bat, gizarteko erakundeak eta egiturak salatzea dugu. Udalak, Aldundiak, Jaurlaritza, Agintaritza, Eliza, Gotzaiak... oso erraz astintzen ditugu gure itz eta jardunetan, oker eta akats aundiak egotziz. Bitartean, begiak ixten dizkiegu geure buruen utsegite ta erruei, orrela garbitu ustean.

Jesus'en garaian ere besteei aixta egotzen zizkieten erruak: Pilato'ri, galilear batzuk il zituala leporatzen zioten; ildakoei, berriz, gisa artan il ziranez, pekatari ziralako noski gaiñeratu zitzaizela eriotza... Eta onela beste askotan ere.

Besteen erruak salatuta, lasai zeuden entzuleei, itz zorrotzak esan zizkien Jesus'ek: *“Biotz-berritzen ez ba'zerate, berdin galduko zerate guztiok”*. Biotzak, gogoak eta sinismena indar-berriturik, ale ta frutu onak eman bear ditugu, pikondo alperra bezala izan ez gaitezen: ondotik ebaki ta sutarako.

Biotzez eta barruz berrituko ba'gera, frutu on ugari ematera elduko ba'gera, Jainkoa aurkitu bear dugu sinismen biziaren argira. Aurkitu zuan Jainkoa Moises'ek eta bere bizitza osoa erriaren serbitzuan eman zuan. Jainkoagan sinistea ez da lo-zorro gozoan arduragabe ta lasai egotea, ekintzarako indartzea baizik.

Apezpiku edo Gotzaiek egoki esaten digutenez, bakoitzak geure sinismenaren uts eta akatsak ezagutu bear ditugu. Lenengo beintzat, sasi-jainkoak uxatu bear ditugu: dirua, geure gorputza, agintea ta indarra, erria ta aberria... eta erlijioa bera ere ez bai-ditugu jainkotzat artu bear. Baiña zenbaitetan nola gabiltza?

Eta egiazko Jaungoikoa, Jesus'ek azaldu zigun bezalakoa, eta ez bestelakoa, ezagutu bear dugu: Biziaren aldekoa, apala, gure billa dabillena, presarik gabe gure onaren zai dagoana, gurekin batera on egin nai duana, maitasunez betea, gu beartsu deusezak geranon Aita errukitsu ta barkatzailea...

Orrelakotzat al daukagu benetan Jainkoa? Orrelakoa al da egiaz guk daukagun jainko-irudia? Bai garrantzizkoa zaigula, zuzeneko iritzia ta jainko-irudi garbia eukitzea!

Onela ezagutu ta sinistu ba'geneza, orduan pozik barkatuko genieke besteei; orduan ederki berrituko genituzke argi ortara gure biotzak, eta orduan aixago emango genituzke frutu onak.

## Seme galdua, ala aita ona?

*Altxa, eta banoa nere aitarengana.  
Lk 15, 11-32*

Aitaren etxetik urrutira joan zan gazteari “seme galdua” esan oi diogu, eta aren jokabidea aztertu izan dugu askotan. Eta garrantzizko irakaspenak atera ditzakegu: askatasun kaltegarria, lasaikeria, gordinkeria, bere burua ondatzea, gero bere baitaratzea ta damua, eta azkenean aitarengana itzultzea...

Baiña irakaspenik sakonenak, aitari dagozkionak dira, Jesus'en asmoetan beintzat. Izan ere, Jesus'entzat nolakoa da Jainkoa? Au bai benetan garrantzizko arazoa! Okerreko iritzia baldin ba'daukagu, zuzeneko sinismen jatorrik ezin euki guk Jainkoagan.

Norbait zorrotz eta bildurgarritzat baldin ba'daukate Jainkoa, bildurrez larrituta ibilliko dira; eta iges egiten saiatuko dira ta aaztutzen. Jainko bildurgarriaz aaztutakoan, berriz, libre ta lasai daudela irudituko zaie. Tamalez, auxe da aurtzaro-

tik askok daukaten iritzia... pentsaera... irudia... ustea... edo zerbaít.

Orain, ordea, norbait lasaia, dana libre uzten duana, benetako eskakizunik sortzeko indargabea dala Jainkoa iruditzen zaie askori; eta orrelakotzat artzen dute ta ala esaten. Orduan zer? Deusetarako ez du balio, orrelakoa litzakean jainko-irudiak; eta orduan dana libre, edozer eginda ere ajolarik ez zaie.

Jesus'entzat ez da orrelakoa. Norbait oso berezia da, baizik, eta gu gizakiok ez bezalakoa: aaltsua ta ona, ondasun ugari oparo ematen dizkiguna, lotzen eta estutzen ez gaituana; auke-ramena ta askatasuna uzten dizkiguna, gure kaltean ba'da ere, aita arek bere seme "galduari" utzi zizkion bezala...

Beti gure ardurarik aundiena duana, zin-ziñez maite gaituana; presarik gabe, gure zai daukaguna; barkatzeko ta adiskidetzeko beti gertu; gure auleria ta utsegiteek aspertzen ez dutena...

Gure bizia ta zoriona nai dituana, eta gure ziñezko zoriona, elkar poztean eta maitatzean jarri diguna. Orrelako da Jainkoa Jesus'entzat, orrelakoxea azaldu digu guretzat.

Orrelaxe sinistu ta ezagutu ba'lezate kristauek, -Gotzaiek gogorazten diguten bezala- errazago maiteko lukeke; pozikago otoitzean mintzatuko litzaizkioke Aita ain onari. Pozikago billa joango litzazkioke Igandero Mezatarra, eta pozik jai egingo ere.

Orduan alaiago izango lirake ta giñake gure bizitzan, eta senideen artean adiskidetasuna ta poza zabalduko genituzke. Ez giñake Jainkoaz aaztu nairik ibilliko, ez Beragandik igeska ere. Jainkoarekiko adiskidetasunean aurkituko genuke gure benetako askatasuna. Orra, bada, "seme galdu" aren jokabidea baiño askoz baliotsuago zaigula Aita barkatzaille onaren maitasunezko irudi argia, aberasgarria, jasotzaillea.

## Ezkontza-naastea ta Jesus

*Pekaturik ez duanak, bota beza lenengo arria. Jn 8, 1-11*

Betiko gaitza da gizakiongan, gure buruak zuritu nairik, besteak salatzeke ta gaitzesteko joera. Eta joera orrek, geure erru ta okerrak besteengan ikustera ta zorrozki epaitzera eramaten gaitu.

Zenbait lege ta arau aotan artuta, oien neurrira besteak epaitzea ere oso erraz egin oi du gizakiak. Eta epaitu bakarrik ez, baita arriak jaurtiz, besteak zigortu ere. Orrela, bere burua ta bere erruak garbitzen dituala uste izaten du. Zenbat aztertzaile ta gaitzesle dabilzan gaur ere "beren" lanean!

Salaketak egiazkoak eta epaietak zuzenekoak ba'lira ere, besteak gaitzesteak ez gaitu aldatzen, ez gaitu obetzen, eta ez gaitu salbatuko. Alperrik gabiltza: ez gaitu zintzoagotzen, eta ez gaitu, beraz, salbatuko ere besteekiko epaietak.

Bestalde, bakoitzak bere burua egiaz eta zorrozki aztertu ba'leza, uste baiño erru ta akats geiago aurkituko lituzke bere bamean. Eta geure pekatuak ikus ba'genitza beren neurri zeatzean, orduan ez genuke besteak salatzeke ausardiarik izango.

Jesus'en garaiko idazlari ta farisearrek erraz salatu zuten emakume ura, ezkontza-naastea dalakoan egiaz aurkitua noski. Agian, pozik arrikatuko zuten lege-betetzaille zorrotz aiek.

Bakoitzari so egin zion, noski, Jesus'ek bere begiratu garbi ta sakonez, eta ala esan zien: "*Zuen artean pekaturik ez duanak, bota bezaio lenengo arria*". Eta emakumeari arria botatzen ez zan iñor ausartu. Izan ere, nor pekaturik gabe? Guztiek iges egin zuten, epaitu zutena arrikatzeko iñor gelditu gabe.

Bestetik, ezkontza-naastea ez du ontzat ematen Jesus'ek, ez emakumeengan eta ez gizonezkoengan: "*Pekaturik ez egin geiago*" esan bai-zion, antxe lotsaturik zegoan emaztekiari. Nazaretarrak bere aalmena ez zerabilkian iñor zigortzeko; alderantziz, barkatzeko, berritzeko ta jasotzeko baizik.

Oker dabilta, beraz, beren gorputzaz nai duten guztia egiteko eskubidea dutela diotenak. Izan ere, gorputzak eta ezkontza, ezkonduak eta ezkongabeak, eta gaiñerako gauzak, norberaren osotasunerako dira, eta aldi berean besteen onerako. Eta era ortan erabilli ezik, -erabiltzez, bakoitzak nai duan erara erabil dezakean arren- ez da nork bere osotasunaren onerako ta besteen giza-mesedetarako izango.

Gauza bikaiñegia da ezkontza, arinkeriaz artzeko, eta norbaiten berekoikeria ta eldu-gabetasunari arrazoi emateko, ezkontzaren beraren ondamen gaitzean, ezkonduen eta ondorengoen kaltean.

Emakume aren poza, nork neurtu lezakean! Berekoikerien jostaillu izatetik, egiazko maitasunaren osotasunerako bidean jarri bai-zuan Jesus'ek bere biotz on eta errukitsuz. Eta noiz izan ote zan askeago edo bere buruaren jabeago, eta zorionsua-go?

## Jainkoa Gurutzean

*Jesus, Gurutzean josi zuten.  
Lk 22, 14 - 23, 5*

Oiñazea, miña, gaitza, ez-bearra, gosea, atsekabea, nekea ta beste gauza asko dira gizakioi sufritu-erazten digutenak. Gure mundu au benetan negar-erri da: begiak zabaltzea naikoa da ori ikusteko gure inguruan.

Eta gu baiño askoz gaizkiago bizi dira geienak mundu zabalean: gu baiño sufrimentu mingarriagoen artean bizi dira errialde atzeratuetan, Afrika'n eta Asia'n bereziki.

Egoera larri oien aurrean galdera zorrotzak egiten dituzte askok: "Jainkoa, baldin ba'da, ez al da bearrezkoa, on-ona ta zuzena izatea? Eta Jainkoak, ona ba'da, nolaz uzten ditu ainbeste oiñaze ta sufrimentu, batez ere batzuk gosez iltzeraiño? eta beste zenbait zigorpean leertzeraiño? Nun da Jainko ori? Zergatik gauzka sufritzen gizon-emakumeak? aur errugabeak, jaiotakoak eta jaiogabeak, zergatik sufritzen?"

Galdera oiek, egia esateko, bapo ta lasai bizi diranek egiten dituzte askotan; gaiñera, oiñazez dagoanari laguntzeko asmoz

baiño areago, beren buruak zuritzeko ta beren sinismenik eza aitzakiz zuritzeko, asmatzen dituzte galderak, besterentzat.

Baiña arrazoirik badago galdera zorrotz oiek egiteko. Izan ere, zuzengabekeria ta oker izugarrien aurrean, nolaz dago ixilik Jainkoa? Eta, zerbait esan ba' du, bai al dakigu zer esan digun?

Kezka ta galdera sakon oien erantzun betea, auxe da: Jainkoa Gurutzean, Jainkoa gurutz-iltzatuta. Bai, Jesus, egiazko Jainkoa ta egiazko gizon, Gurutzeko eriotzaz mintzatu zaigu: alperrik gabiltzake geiagoren billa, ez bai-zaigu beste erantzunik emango.

Oiñaze ta gaitz batzuk, jatorrizko auleriari ta mugatu izateari zor dizkiogu: txikiak gera ta izadiko indarren menpean gabiltza. Onelakoak jasateko, itxaropenaren argia ta laguntza damaizkigu Gurutzetik, guztiei iges egiterik ez bai-daukagu orain-aldian.

Eta beste oiñaze geienak, guk, gizaki batzuek besteei ezartzen dizkiegunak dira, gerekoikeriak eraginda ta zuzentasuna zapalduz. Onelakoen aurka jokatu zuan Jesus'ek, oiñazetu ta gurutzez zamatuena adiskide ta laguntzaille egiñik. Orregatik ez zioten bar-katu, Gurutzean josi arte ez zuten etsi beren gorrotoan.

Aginte, diru ta armen indarrez zapaldu ta zukutu zuten Jesus Gurutzean. Eta Berak indar bakarra erabili zuan erantzunez: indarrak gabeko maitasunaren kemen guztiaaltsua.

Gurutzean iltzez jositako Jesus da, sinismena dugunontzat, Jainkoaren ziñezko erantzuna: Jainkoa gurekin dago, gure oiñazeetan sufrutuz eta, Jesus'ekin batera, egunen batean pizturik, biziera berria izango dugun itxaropen argitsua piztuz gudan. Sinismenik ez duten guztiei ere erantzun auxe eskeintzen die, kristauoi jarraituz, sinistu nai ba'lezate.

## Pazkoa eguna Jesus'en Piztuera

### Bizi da! Biziko gera!

*Piztu egin  
bear zuan illen artetik.  
Jn 20, 1-9*

Barne-muiñetaraño sarturik daukagu egarri bat, irrika sakon bat, eta auxe da: gure bizi-naia. Iltzerik, bukatzerik, azkenik ez dugu nai iñola ere. Bizi... bizirik iraun... betiren beti bizi nai dugu. Aalmen guztiz eutsi nai diogu biziari. Bizia galtzeko arriskuan, orduan-eta intziri larriagoa: Bizi! Bizia!

Baiña bestetik ziur gaude, il bearrari iges egiterik ez daukagula, urtetik urtera urbiltzen goazkiola eriotzari. Il-bear ziu-rrak goibeltzen gaituanok, zer egin dezakegu bizirik irauteko?

Nork oinperatu ta zapaldu lezakean eriotza! Eta nor bizi daitekean beti, eriotzaren bildurrik gabe! Zeiñen gauza aundia ta bikaiña dan bizia! Eriotza urbiltzean, orduan jabetzen gera.

Egia esateko, bada norbait eriotzaren gain nagusitasuna agertu duana, eta ori, Jesus piztu zuan Jaungoikoa da. Jesus'en

Piztueran, izan ere, biziaren Sortzaille ta Egille ez-ezik, baita biziaren eusle ta iraun-erazle ere agertzen zaigu, eriotzatik aruntza ere bizi-eraziz ildakoak.

Kristo'ren Piztueraren argira, gauza bikain asko dakizkigu orain: gizadia ez dijoala utsaren eta deusezaren illunpean amiltzera; gizakion mundu-aldia ez dala biderik eta irterarik gabeko illunpe beltzean bukatzen dan zerbait utsala.

Neke ta oiñazeak, erori-aldi ta zailtasunak izango ditugu, baiña oiek ez dira nagusituko, Jesus piztuak oinperatu bai-ditu betirako. Ez gaude bakarrik: geure gurutzea Jesus'ekin batera daramagunok, piztuera zorionsuan ere Arekin batera berrituko gaitu betirako gure Jaungoiko guzti aaldunak.

Jainkoaren maitasuna guztiz aaltsu agertu ba'zan Jesus'en Piztueran, aldi berean baita Aren zuzentasuna ere garaille azaldu zan. Izan ere, Gurutzean illa ber-piztean, auxe egi biur-tu du Jaungoikoak: gurutzerik eta zamarik aski ezartzen dutela gizakien bizkarrean okerrak eta zuzengabekeriak, baiña ez dirala betiko; azkenean, gurutzea daramatenen alde aterako dala Jaungoikoa bere aalmen betean.

Au da Pazkoetako irrintzi alai ta sarkorra: Bizi da Kristo! Bein betirako piztu da, ez da geiagoren geiago ilko. Biziduna da garaille. Bizia da, eriotza zapaldurik, garaile ta nagusi!

Eta Jesus, zearo era-berriturik piztuta, bizi-bizirik eta zorionsu daukagunez, gu ere dagoaneko Arekin batera nolerebait piztuta gaude; gu ere garaille gera Ari esker. Orain sinismenaren argira ta itxaropenaren pozean, gogoz eta biotzez elkartu gaitzke Piztuarekin, betiko Bizidunarekin. Elkartu gaitzela, bada, uste osoz orain, eta izate osoz gero azkengabeko biziera zorionsuan.

## Pakea ta barkatzea

*Aien erdian zutik, au esan zien:  
Pakea zuekin! Jn 20, 19-31*

Pakea nai ez duan iñor askorik ez da noski. Pakea... Orixe da ainbeste gidari, buruzagi ta agintarik aotan darabilten itza. Zenbait talde, gaiñera, pakearen aldeko borrokari omen dira. Nork ulertuko, pakea ta borroka elkaturik eta elkarrentzat izatea?

Guztiak pakearen billa dabilta, –eta gabiltza– baiña bitartean ez dago pakerik munduan; eta gure artean ere ez. Zer gertatzen da, ordea? Pakea oiukatu guztiek, eta guztien artean pakerik ez.

Bakoitzak “bere” pakea nai du beretzat eta besteentzat. Eta ori naikoa ez ba'litz bezala, bakoitzak “bere” pakea ezarri nai die beste guztiei; eta zenbaitetan, indarrez ezarri nai ere.

Eta or dabilta elkarri pakea ezarri nairik, batzuk besteei borroka egiten, gogorrean eta indarkeriaz beteta. Gudaldietan

bakarrik ez, gaiñera. Gure erri ta kaleetan ere bai, urrutira joan bearrik gabe... Toki onean dago egiazko pakea!

Gaur bertan ere, bai arrigarri ta berri gertatzen zaizkigula onako itz auek: *“Pakea uzten dizuet, nere pakea ematen; baiña ez dizuet ematen munduak bezala”*.

Zer pake ematen digu, bada, eta nolakoa? Jesus piztuaren itzak eta jokabidea aztertu bear ditugu arretaz, noski, ori zuzeneko eran ulertu aal izan dezagun. Beraren lagunik kutunen eta miñenek, iges egin eta bakarrik utzi zuten Nekaldikoan. Ez al zan saldukeria aski aundi ta mingarria? Ukatu egin zuan, gaiñera, batek, aukeratuenak, Pedro’k.

Eta Jesus piztuak ez zien konturik esakatu, ez zien muziñik egin, itz-erdirik ez zien aurpegira bota, ez zien ordaiñik eskatu, koldarkeriazko ta bildurrezko igesa ez zien gogoan artu. *“Pakea zuekin!”* esan zien bein eta berriz, barkapen betea emanez. Au bai zala jokabide arrigarria!

Orra itz berezia, itz berria: barkapena, barkatzea. Aul, koldar eta deusezak diranen gauza dala barkatzea, uste dute gaur jendeek; eta barkatzeko orde, erasotzea ta ordaiña ematea dala uste dute aaltsu, trebe, kementsu ta ausarta izatea.

Bitartean, ez barkatzea bai dala aul eta kaxkarrena! Ea nork duan beti ta benetan barkatzeko indarra edo aalmena bere barnen! Bai biotz aundia ta kemen sendoa bear dirala barkatzeko! Barkatuz egin ditu pakerako bideak Jesus’ek, eta gauza bera irakatsi digu.

Eliza’n eta kristauon artean, sendietan, taldeetan, indardunen artean eta politika-ekintzetan ere, barkatuz asi bearra daukagu. Eta elkarri barkatzeko gai ez geran bitartean, pakerik ez dugu izango: alperrik gabiltzake! *“Pakea zuekin!”* Pakea...

## Nork ixildu-eraziko?

*Bota sarea eskubi-aldera, eta aurkituko duzute. Jn 21, 1-19*

Atergabean eta ixildu gabe ari oi da izketan gaur jendea. Lana, pakea, dirua, ezkontza-austea, aur-galtzea, gozamina... eskatuz ari dira taldeak toki askotan deadarka. Gauza oiek guztiak eta beste geiago eskeiñiz mintzo dira zenbait buruzagi, politikari, kaleetako saltzaille, “salbatzaille” ta abar.

Era guztietako itzak eta mintzoak datozkigu edonondik eta alde guztietatik gure begietara ta entzumenera. Burrundara aundia ateratzen dute. Askotan lilluratzen gaituzte, zori txarrez. Beste zenbaitetan bildurtu-erazten ere gaituzte.

Bitartean, zeñien gutxi mintzo diran Jesus’en izenean eta Aren berri emanez! Apalki, zaratarik gabe, bildurrez bezala mintzo dira auetakoak. Eta askotan erraza da, onelako mintzo ta izketei entzungor eta muzin egitea; erraza da mintzalariak ixil-eraztea. Arrantzuan zebiltzan Pedro ta bere lagunak Gensaret aintziran. An agertu zitzaien norbait *“Bota sareak eskubi-aldera”* esanez. Eta bai arrain-pilla aundia atera zutela sareak betean, leen toki berean bat bakarrik ere arrapatu ez zuten



aiek. Bereala jabetu ziran nor zitekean, laister igerri zioten agindu-emailleari.

Legorreatu ziranean, "Zatozte ta jan" esan zien, arrain errea ta ogia eskeñiz. Nork jakin lezakean, zeñen izketa alaia, mamitsua ta atsegiñez betea egin zuten! Antxe zeukaten, ain zuzen, beren Irakasle ta gidari babeslea, ostera ere bizirik eta beren artean, leen bezain adiskide; eta orain garaille, gairera.

Jesus piztuarekin izan zituzten artu-emanak, ain bizigarri, ain sakon eta pozgarriak izan zitzaizkienez, iñolako zalantzarik eta bildurrik ez zuten izan aurrerakoan. Ziurtasun osoaz beteta zebiltzan itsasoan eta legorrean, bakarrean eta jende-aurrean.

Pedro ta aren lagun Apostoluak asi ba'ziran asi Jesus'en berri ematen, nork ixildu-erazi zezazkean? Agintariak, bildurak, espetxeak, oiñazeak, erio-zigorak... ez zuten indarririk gizon aiek ixil-erazteko. "Ekin, zabaldu itza, egokiera duzunean eta ez duzunean..." Paulo'k Timoteo'ri esan bezala egiten zuten guztiek.

Non gaude gaurko kristau sinistunok? Aiek ixil-eraztea bezain zailla ez ote da, gaurko kristauok mintzo-eraztea, gu izketan eta Berri Ona zabaltzen jarri-erazta? Jesus piztua gurekin aurkituko ba'genu benetan... Ziñez sinistuko ba'genu Jesus piztua...

Bitartean, gure itzek, gure jokabideek, gure bizitzak berak... zer adierazten dute? zer aitortzen dute? Zeren eta noren aldeko aitortpena egiten du gure bizierak? Gure biziera ikusten duanek, Piztuaren aztarnarik eta kristau-kutsurik artzen ote du? Obe bai! Noiz aterako ote gera gure ixiltasunetik?

## Nori entzuten diogu?

*Nere ardiek entzuten dute nere mintzoa. In 10, 27-30*

Bada norbait itz arrigarri auek esan zituana: "Nere ardiek entzuten dute nere mintzoa. Nik ezagutzen ditut... eta betiko bizia emango diet". Gaur bertan ere agerian eta indartsu zabalduak itzak dira, mundu osoan elizaz-eliza zabalduak.

Norbaitek gauzak argi ta garbi esatea, beste gabe, ez da aski. Entzuten duanak ere egiñaalak egin bear ditu gauzak garbi-ro artzeko ta ulertzeko. Eta ontan dago koxka: bakoitzak geure erara artzen ditugula itzak, baita Jesus'en itzak berak ere.

Esate baterako, mendi bat bera gisa oso ez-berdiñean ikusten dute aurretik eta atzetik begiratzen diotenek, beetik eta goitik ikusten dutenek; baita oso bestelakoa ikusten dute artzaiak eta kaletarrak, mendigoizaleak eta egurgilleak ere. Gauza bera gertatzen zaigu gairik geienetan.

Ebanjelioko irakaspen eta itzak, nola artzen eta ulertzen ote ditugu? Osasuntsuak eta gaixorik dagoanak, agintariak eta

menpekoak, langilleak eta alperrak, aberatsak eta beartsuak, gozoro bizi danak eta beti eziñean dabillanak, era ez-berdiñetan eta bestelakoetan ulertzen dituzte, ez-berdin artzen dituzte.

Zergatik ote da? Bakoitzak jarrera berezia dualako, bakoitzak bere aldetik begiratzen dualako, bakoitzak geure egarri ta amets ez-berdiñak ditugulako, bakoitza bakoitz geralako geure akats eta guzti. Eta orregatik, bakoitzak geure egoera ta berekoikeriatik ikusita ulertzen eta artzen dugu Ebanjelioa bera ere.

Aspergabe entzun eta irakurri bear ditugu Jesus'en itzak. Baiña beti Aren mintzoa entzutearen billa jokatur. Oso erraza bai-da, izan ere, norberak nai duana, Jesus'ek uraxe esaten duala uste izatea. Zuk eta nik eta besteak, benetako sinismen-giroan oiñarrituta, elkar-izketa egin bear genuke, bakoitzaren uste okerrak taldean elkarrekin zuzenduz. Bestela... bakoitzak "bere astoari arre!" esaten bai-dio, eta bere-bereari eusten.

Nori entzuten diogu egi-egiaz: Jesus'i ala geure buruari? Gai oso mamitsua da au kristauontzat sakonki aztertze. Gaurko giroaren eragiñari ez al diogu entzuten eta errazegi jarraitzen? Ez ote gaitu geiegitan lilluratzen ainbeste zarata engaiñagarrik?

Bestalde, Jesus'ek deitzen eguna dugu Igande au: Jesus'ek bere itza ta bizia zabaltzera dei egiten dien aukeratuen eguna. Barne-muiñetako entzumena zorrotzuz, askok eta askok entzun dezatela Artzai Onaren mintzoa deika, eta jarrai dezaiotela leialki.

Ugaritubitez alde guztietan entzule arretatsu ta jarraitzaille leial zintzoak. Eta auen artetik izan daitezela ugari, bearrak gero-ta ugariago diranez, Jesus'en izeneko berri-emaille onak.

## Kristauak nola ezagutu?

*Nere ikasle zeratela ezagutuko dute,  
elkar maite ba' duzute. Jn 13, 31-35*

Gure gizartean edozein taldek badu bere ezaugarria, geienetan oso pozik azaltzen eta erakusten duten ezagupidea: politika-alderdiek, sindikatuek, kirol-taldeek, eiztariek, arrantzaleek... Eta ezaugarri edo ikur ori ikusita, beste gabe igertzen diegu zeñi zein taldetako diran. Ikurra bera ezagutzea aski da.

Ageriko ikur oietaz gaiñera, zenbait kristau-elkarte berezik batez ere, jazkera ez-berdiñak erabiltzen dituzte. Ezaugarri oiek guztiak oso erraz aldatu ditzakegu ta trukatu, bata utzi ta beste bat artuz, eta beste itxuraren bat egitea ere ez da zailla.

Badira, ordea, beste ezagupide batzuk sakonagoak, jantziak eta ikurak bezala aldatu eziñekoak, eta ezagutzen zaillagoak: baiña egiazkoak. Esate baterako, izketak, jarrerak eta jokaerak ikustea naikoa da, zalantza aundirik gabe igertzeko zeñi zein dan eta nongoa. Onela, ezagun izaten zaio naparrari napar dala; era berean nabari zaie euskaltzaleei ta erdalzaleei ere zer diran.

Eta kristau-erriari, zertan nabari zaio zer dan? Zertatik ezagutzen ditugu kristauak? Nola ta zertan ezagutzen gaituzte? Zertatik igertzen digute, kristau gerala? Bakoitzak esatea bakarrik, ez bai-da aski. Eta kristauen ezaugarria, Gurutzea dala-ta, gurutze-irudi ederrak erabiltzea bakarrik ere ez zaigu aski: Ori oso axaleko gauza da.

Ona emen galdera bat sakona, eta zuzeneko erantzuna eskatzen duana: kristauak, zertatik eta nola ezagutu? Ez ageriko gauzetan, ez jakindurian, ez otoitzetan, ez itzetan, ez limosnetan, eta ez elizkizunetan, ezta lege-betetzean ere. Zertan, bada?

Gauza oiek guztiak onak eta bearrezkoak dira, baiña beste zerbait jarri zigun Jesus'ek bere jarraitzaileen eta kristau-erriaren ezagupidetzat: *“Ontan ezagutuko dute guztiek, nere ikasle zeratela: elkar maite ba' duzute”*.

Eta ez dago beste ikurrik. Auxe da kristautasunaren neurria, Jesus'ek emandako agindu berria: *“Maita ezazute elkar, Nik maitate zaituztedan bezala”*. Baiña nola maite izan zuan Jesus'ek?

Bereizkeriarik gabe, etsaiak ere maitatuz; ez bere buruaren onari begira, besteen bearrari ta onari begiratuz baizik; bere eskubide ta bere buruaz aaztuta, besteen eskubide ta bearrak neurritzat arturik, guztiei on egiñez.

Jesus'entzat maitasuna ez da, bakoitza bere kutizi, gozamen eta atsegiñaren billa dabilleneko jolasa. Jesus'entzat maitasuna, dana barkatuz eta besteen onerako bizitzea da. Ontan agertu zan arrigarri ta gure eredu bikain.

Eta gu nola gabilta? Jesus'en bidea jarraituz, era berriko artu-emanak sortu bear ditugu elkarren artean, eta guztiok era berriko gizartea eratu, elkar-maitasunean eta pakean.

## Gizakia barruz utsik dago

*Espiritu Santuak oroitaraziko dizue,  
Nik esandakoa. Jn 14, 23-29*

Gauza asko ikusten ditu gaurko gizakiak; oso aurra danetik asten da, gaiñera, gauza asko ta arrigarriak ikusten. Bestalde, zenbat itz, uste ta iritzi ez ote ditu aditzen alde guztietatik zarrata bizian eta etengabean datozkionak?

Gauza oiek guztiak, egia esateko, kanpotik barnera sartzen zaizkio indar aundiz oraingo jendeari. Gertaerak eta jokabideak izango dira batzuetan, sartzen dizkiotenak; eskeintza ta dei engaiñagarriak izango dira beste askotan. Eta zer egiten dute gizon-emakumeek eraso guztien aurrean?

Dana artu, gauza guztiei sarrera eman... orixe egiten dute geien-geienek. Baiña bai al dakite aukera egiten? Bai al dakite aztertzen eta neurtzen, zer dagokion beren nortasunari? Zer dan egia ta zer ez, ezagutzeko gai al dira?

Lana, ikasketak, jolasak, lagun-arteak, otorduak, telebista-orduak, joan-etorriak, kirolak eta presaka bizian ibiltzea dira-

la-bide, gure egun auetako gizakiak ez daki bere buruz pentsatzen; ez dauka betarik edo astirik ortarako. Orregatik, bere inguruko zurrunbilloak erabiltzen du batera ta bestera, au esatera ta ura egitera, gaur onela ta biar bestela jokatzera.

Bere buruz pentsatzeko ta bere buruz erabakitzeko ordez, kanpotik bestek erabilia ta astindua gertatzen da: benetan besterendua edo alienatua dago gaurko jendea, eta bera ez da oartzen, tamalez. Ain juxtu ere or dago errua: ez dala oartzen, eta oartzeko, pentsatu egin bear, eta pentsatzeko, beta artu bear.

Politika-gidarien eskeintza ederrak eta itz politikak, -egia esateko-, ez dira indarrrik txikienekoak, barruz ustutzeko ta buruz pentsatzea eragozteko. Eta zer esanik ez, gauzak eta tresnak, jolasak, gozamina, seksua ta gauza lilluragarriak saldu nai dizkiguten diruzaleen eskeintzak ere, zearo engaiñagarriri dirala. Orrela, barruz uts eta aul gertatzen da gizakia, bere buruaren jabe izatetik oso urruti, bestek darabilkian jostaillu.

Arinkeriazko giro ontatik ateratzeko egiñaalean, laguntzaille dan indar bat badugula, ziur gaude kristauok. Eta indar berezi ori, sinismenaren argia da guretzat, guztiz aaltsuarengana bai- garamazki zuzenean.

Sinismenari esker, pozgarri ta indar-emaille zaizkigu Jesus'en itz auek: "*Espiritu Santuak erakutsiko dizue dana, eta oroitu-eraziko dizue, Nik esan dizuedan guztia*".

Ain zuzen, gure barrua argituko digu ta barne-muiñetan egingo digu argi, Jesus'en irakaspenak gogorazteko. Ortarako ere, ordea, geure barrura jo bear dugu, geure barruenean aurkituko bai-dugu Espiritua, gure argi ta bizilagun.

## Zeruaren billa

*Bedeinkatzen zituan bitartean, zerura eraman zuten. Lk 24, 46-53*

Zerua aipatzea bera ere, ameskeria iruditzen zaie askori gaur. Irudimenezko ta ametsetako gauza dala uste dute zerua: oso ederra agian, baiña urrutiko ta gerokoa, izkutukoa, ikusten ez dutena...

Eta bitartean, gauza asko bear dituzte egunero beren eskuen artean: lana, jatekoa, jolasa, dirua, ikasketak, saldu-erosketak, gaixotasuna, lanik eza, aserreak, gora igo bearra, borrorak etaleiaketak agintearen billa... Auek guztiak dira egunero gizon-emakumeei dei bizia egiten dieten arazoak, gertuko ta egiazkoak, utzi eziñeko arazoak.

Zenbat gauza gertatzen diran kaltezko ta mingarri, egunero gure bizitzan! Eta geienetan, gizaki batzuen berekoikeriaz eta okerreko jokaeren erruz: zapalketak, ez-jakin eta aul diranak baztertzea, ilketak eta beste indarkeriak, adibidez. Auek, auek bai dirala arazo bizi ta larriak! Eta gizakion esku daudenak.

Eta giro onek inguratuta bizi geralarik, zerua gogoraztea be-  
ra, bildurti ta koldarren jokaera dala esaten dute zenbaitek; be-  
netako arazo ta bear bizien artetik iges egitea dala, eta bearrei  
bizkarra ematea... Alaxe gertatzen zaigu zenbait aldiz.

Baiña zer esan bear dugu Jesus'en jokabidearen aurrean?  
"Zerura igo zan eta Jainkoaren eskubi-aldean jarririk dago"  
idatzi zuan Ebanjelariak. Jesus piztuaren goralpen nagusia ta  
betea aitortzen dute itz arrigarri oiek.

Nola bizi izan zan, ordea, eta zer egin zuan Nazaretarrak bere  
bizitzan, goralpen bikain ortara eldu aal izateko? Zeruko Aitaren  
naia egiñez bizi izan zan gizartean: Aitaren berri ematen ibilli zan  
aspergabe ta gogotsu batetik, eta gizon-emakumeen artean seni-  
detasuna aitortzen eta oiñarritzen saiatu zan leiatsu bestetik.

Gizarteko bearrik larrienei ta latzenei sendabidea eskeintzeko  
bizi izan zan; beartsuei ta errukarriei, baztertuei ta zapaldu-  
beren artera ta maillara jetxita, babes pozgarria eman zien eta  
jasokuntza-bidea ireki zien. Orrela jokatzuz eman zuan bere bi-  
zia Gurutzean, oiñaze ta odoletan eman ere.

Jainkoaganako leialtasunean eta gizakien serbitzuan bizia oso-  
osorik emanez, ain beeraiño getxi zana, Uraxe goratu zuan Aitak  
gauza guztien gaiñetik goruntz. Jesus ber-berak esana egi biurtuz  
noski: "Bere burua beeratzen duana, goratua izango da".

Guretzat ere, Aitaganako sinismenean irauteko, eta gizartean  
senidetasuna ta pakea jartzen saiatzeko, itxaropena pizteko bidea  
da zeruaz pozik gogoratzea. Izan ere, gure neke ta lan guztiak  
deus ez dira, oien bidez iritxiko dugun zeru ederraren aldean. Au  
guztia sakonki sinisten dugularik, zeruan betiko zoriona lortzeko  
itxaropenak eta pozak, -ziur egon baietz!- asko arinduko ta  
erraztuko dizkigiteu emengo saiatu-bear neketsuak.

## Espiritu beragan bataiatuak

*Pakea zuekin... Ar ezazute Espiritu  
Santua. Jn 20, 19-23*

Gaurko munduan ez, eta gure Euskalerrri ontan ere ez, Espiri-  
tua aipatzea, ez dute nai askok eta askok; izan ere, begiz ikusten  
ez duguna ta eskuartean artzen ez duguna danez, ameskeria dala-  
koan jotzen bai-dute. Ez al dabilta ainbeste ta ainbeste, ain juxtu  
ere, dana diruaren eta gozamenaren neurrira artzen eta mugatzen?

Agintearen, indarraren, gozamenaren eta diruaren billa itsu-itsu  
dabiltzan bitartean, zero berekoi biurtzen dira, ori guztia ba-  
koitzak beretzat nai bai-du. Geuretzat nai dugu ta ez besteen  
onerako, eta aal dugunean, besteei kentzera ere irixten gera.  
Eta ortatik datoz aserre ta zatiketak, borrokak eta gaiñerakoak

Euskeraz eta gazteleraz mintzatu oi gera gu, beste batzuk beste  
izkuntza batean. Izkuntza berean ari gera taitz ber-berak esaten  
ditugu guztiok, baiña ez dugu elkar ulertzen. Zergatik ez? Bakoitzak  
bere alderako izkera edo mintzaera-modua erabiltzen du, eta orre-  
la ez dute besteek ulertzen; eta guk ere ez besteena: ezin uzta-  
tuak, ezin elkartuak gertatzen dira sarritan beintzat.

Arako Babel artan gertatu zana: torretzar aundi bat jaso nai, baiña ezin ulertu elkar. Eta ulertu ezik, ezin elkar artu, lan bat bera burutzeko, ezin elkartu jasokuntza-lanean. Lurrera botatzen, apurtzen, deusezten bai, erraz asmatzen dugu bakoitza bere aldetik eta elkarren aurka izanik ere. Orixe gertatzen zaigu politikari ta langille-taldean artean ere: elkar deuseztea.

Oso ez-berdiñak ziran Jerusalem'en, bertako ta atzerritarrak, baiña "guztiak beren izkuntzan entzun zieten Apostoluei Jainkoa goraltzen". Izan ere, "Espiritu bat Berarengan bataiatuak bai-ziran". Arengandik zetozkien ulermena ta elkartasuna.

Ez-berdiñak batera bilduz, elkartasun berri bat egitera etorri zan Espiritu Santua. Guztiak gogo bateko, asmo bereko ta biotzez bat egiñik, talde berri bat eta elkartasun berri bat sortzera eragin eta bultzatzen ziren Espirituak Apostoluei ta sinistedunei. Eta bai, talde bat estuki elkartua sortu ere sortu zuten beren artean.

Espiritu bat Beragan bataiatuak izan ziranez, gorputza bezain estu elkarturik bizi ziran. Inork ez zuan ezer beretzat, ez diru ta ez beren gauzak, ezta beren burua ere: guztiak eta bakoitza, besteen izkuntza ta bearrak ezagutzeko gogotsu bai-ziran. Atera berekeriatik eta besteengana irekita jokatzen zuten.

Gure sendietan, errietan, langille-artean, kristau-elizan, eta berdin politika-gintzan eta erri-gintzan ere, zerbaitziñez onik egingo ta jasoko baldin ba'dugu, barnetik atera bear dugu indarra elkartasunean jokatzeko.

Jesus'ek irakatsi ta Espiritu Santuak eraginda, guztiak elkar ulertzeko izkuntza bakarra, maitasuna dugu, on egiñez eta elkar poztuz. Elkartu gaitzala Espiritu bat Berak, ez-berdintasun askoren artetik eta gaiñetik, kristau-maitasun bat berean.

## Nor, Jainkoa bezala?

*Aitak duan guztia, nerea da.  
Jn 16, 12-15*

Gure iritzi, uste ta irudipenen itxurakoa ta neurrikoa nai izaten dugu Jainkoa. Eta gu kaxkarrak geranez, gure uste ta irudietako Jainkoa ere oso mugatua ta kaxkarra gertatzen da, egiazkoaren aldean. Gero, orrelako ori, ez dala deus esaten dute, ondorio au ateratzeko: Jainkorik ez da.

Gauza bat da, Jainkoa dala guk uste duguna, eta oso besterik da benetako Jainkoa. Gure iritzi, uste, irudipen eta burutapen guztiak baiño askoz aundiagoa ta bikaiñagoa da Jaungoikoa. Nork ezagutu-eraziko digu bere egiazko izaeran?

Dan bezala ezagutzen duanak, Jainkoaren barne-izaera ezaguna zaionak erakutsi digu: Jesus'ek alegia, Jainko izkutuaren berri ematera etorri zanak. Eta zer erakutsi digu? Maitasuna bera dan Aita dugula Jaungoikoa, Semea ta bien arteko maitasun-misterioa dalarik Espiritu Santua; eta aalmen, jakinduria ta on guzti-guztien iturri ondogabea ta agortu-eziña dala guretzat.

*"Irutan santu dan Jainkoari naparrak dio jaiera:  
Ez liburutik, amen altzoan gerez ikasiak gera".*

Orrela idatzi zigun ORIXE olerkari aundiak. Zorionekoak, Jainkoari jaera ta maitasuna ziñez agertzen saiatu oi diran napar eta gaiñerako! Baiña beste itz auek ere olerkari berarenak dira:

*“Gure aitonen Jaungoiko aundi, irutan santu zerana:  
Zure semeek lizundu dute ats ez diteken izena”.*

Egia esateko, sinismen-argira ez dugu bear bezala ezagutzen Jainkoa, eta okerreko iritziak dauzkagu askotan: norbait urrutikoa, estua ta zorrotza, lege itogarriz zanpatzen gaituana ba’litz bezala iruditzen zaigu. Eta gero, bildurrezko zama ori gaiñetik kendu nairik, Jainkoa ez dala esateak, askatasuna ematen digula, uste dute askok. Orregatik saiatzen dira aaztutzen, eta aaztu eziñean, ukatzera ta ez dala esatera jotzen dute.

Baiña errua gudan dago. Izan ere, norbait kaxkarra baldin ba’da guk jainkotzat daukaguna, zertan agurtu ta aren menpeko jarri? Ez noski, orrelakoa izatekotan. Baiña Jesus’ek erakutsi digun bezala, elkar maite duten Aita, Semea ta Espiritu Santuaren nor-izate edo nortasun irukoitza da Jaungoikoa, norbait txit bikaiña.

Bai, guretzat on guztien iturria, seme-alabatzat maite gaituan maitasun betea da Jaungoikoa. Zenbat-eta aundiagoa dan, orduan-eta aundiago gera gu ere, Aren seme-alabok. Ez gaitu kaxkartzen Jainkoa aitortzeak, ez Ari men egiteak. Jaso ta baikaindu baizik.

*“Nor Jainkoa bezala?”*, dio Aralar’ko galderak. Iñor ez ain aundi ta bikain, iñor ez gu ainbeste maite gaituanik. Nork egin gaitzake gu aundiago? Jaungoiko irukoitzak, beste iñork ez.

## Ardorik ez daukate

*Kana’n egin zituan Jesus’ek bere  
lenengo ezaugarriak. Jn 2, 1-12*

Naparroa’n ardo onik aski badugu, maasti ederrek emandako “ardo gorri naparra”. Ardo onak ditugun Araba ta Naparroa’rako ere balio du, Jesus’i bere ama Maria’k esanak: *“Ardorik ez daukate...”*

Kana’ko eztaiak ziran: ezkon-berrien inguru, etxeakoak, senitartekoak, adiskideak eta Jesus ere bai bere lagunekin. Uste baiño bazkaldar geiago izaki, ardorik gabe gelditu ziran. Aztertzekoa litzake Maria’ren arreta bizia, iñork itzik esan gabe, berez jabetu bai-zan ezkon-berrien larriaz, eta arduratu.

Baiña gaurkoan Jesus’en jokaerak emango digu zer-ikasirik aski. Bakarti ez zan izan Jesus, beti lagunarteko baizik. Eta orra eztaitar alaien artean pozik Bera ere. Jai-giroaren arintasunean soil-soillik gelditzeko asmorik gabe, ordea. Asmo sakonez beteta zebillen, noski, gizon-emakumeen artean zegoan guztian bezala.

Senar-emazte aien ezkontza onetsiko zuan eta aien zoriona pozez beteko zuan ziur aski. Zeiñen besarkada maitekorraz sendotu ez ote zituan, maitasunean elkarrekin leial iraun zezaten? “*Ez da maitasun aundiagorik, elkarrentzat bizia ematea baiño*”, esango zien ziurki. Eta bizia ematean daude maitasuna ta zoriona, beste iñon eta ezertan ez bezala.

Orrela berritu zuan eta gogorazi, Jainkoaren eta Israel erriaren arteko ezkontza: maitasun sakon aberasgarria. Eta ezkontza berri baten asiera jarri zuan: Jesus'en eta Eliza'ren arteko maitasun-lotura estua alegia.

Eta senar-emazteen ezkontzaz, zer? Ardorik gabeko lagun-artak alaitasunik ez duan antzera, maitasunik ez duan ezkontzak ere ez duala pozik, ez zorionik. Ardoa bezala, maitasuna akitu ezker, maitasuna urritu ta agortu ezker, akabo ezkontza!

Maitasunik ez dute aintzat artu nai gaurko askok. Arazo ta mailla danetan, eskubideak nai dituzte ta eskubideak eskatzen ari dira: “*emakumearen eskubideak... gizonaen eskubideak...*” Eta eskubideen billa jartzen diran senar-emazteak, bakoitza bere alderako borroka setatien sartzen dira: eta orduan, agortu dira maitasuna ta poz-ardoak, agortu da elkartasuna, il da ezkontza.

Eskubideak, bakoitzak berak naita utzirik, bere burua ta bere bizia ematen ba'ditu ezkon-lagunaren poz eta zorionerako, orduan bakarrik izango dute zoriona. Baiña biek utzi bear dituzte beren eskubideak, maitasunez utzi ere, eta bestearen onerako.

Bata bestearen onerako, –eskubideak eta griñatxoak bazter-tuta!– biak sakrifikatzen diran neurrian, aberastuko ta poztuko dute elkar. Ori bai dala benetako ardo ona! Eta zorione-koak, ardo on ori agortzen uzten ez dutenak!

## Beartsuei Berri Ona emateko

*Berak gantzutu nau, beartsuei Berri  
Ona eman dezaiedan. Lk 4, 14-21*

Gure mundu au bitan banaturik dago: beartsuak eta aberatsak. Egia esateko, mailla ta neurri askotakoak dira aberatsak; era berean beartsuak ere. Baiña bereizketa nagusia onela egin dezakegu: beartsuak batetik, eta beartsu ez diranak bestetik.

Batzuen alde jokatzea, besteen aurka egitea gertatzen da. Eta Jesus nazaraterraren garaian ere bai. Arrigarri ez-ezik, mingarri gertatu zan askorentzat Jesus'en jokabide osoa, bete-betean beartsuen alde jarri ta nabarmendu bai-zan beti, bai itzez eta bai egitez. Eta gauza bera eskatu zien bere jarraitzailliei.

Ez al zan, bada, guzti-guztiak salbatzera etorria? Bai, iñor ere alde batera baztertu gabe, guztiei dei egin zien eta guztiei eskeiñi zien salbazioa. Baiña jakiñeko bidean, au da, zuzentasunean eta maitasunean bizitzekotan; ez, ordea, nola-nai ta edozein eratarata jokatzuz ibiltzekotan.

Lurreko ondasunak eta aberastasunak, guzti-guztien onerako izatea da Jainkoaren asmoa; guztien bearrei egoki erantzuteko eran banatuta egotea da Jainkoaren naia. Orrela ez dan



bitartean, ez dago zuzentasunik ez gure artean eta ez munduan.

Asko daukatelako batzuek, gutxiegi gelditzen da geien-geienentzat. Eta ori ez zuan ontzat eman Jesus'ek. Zuzenbidea nai izan zuan oiñarriztat, eta zuzenbidearen gaiñean, maitasuna.

Beartsuen alde jokatu zuanean, ez zan izan, ez beartsuak obeak diralako, eta ez beartsuen indarra aberatsen aurka borrokatzera eramateko. Baiña orrela jokatu zualakoan-edo, ori uste izan dute batzuek azken-urteotan eta orrela jokatzen azaldu dute Jesus, beraiek ere beartsuei borroka gogorrera dei egiñez.

Beste asmo garbiago batek eraman zuan ala jokatzerat: Bearrrik aundienak zeuzkatelako, baztertuta zeudelako, errukarriena ziralako, orregatik atera zan Jesus beartsuak bete-betean babestera ta jasotzera, baiña ez iñoren aurka xaxatzera.

Guztientzat zuzenbidea otsegitea, guztiei maitasuna eskeintzea, ori izan zan Jesus'ek bere bizitzan guztiei irakatsi ziena ta Berak leialki bete zuana, eta ez bestelakorik ezer.

Baiña zuzentasuna ta maitasuna, zeñientzat dira “berri ona”? Gauza askoren jabe diranentzat, aberatsentzat, indardunentzat, nai dutena egiteko aukera ta erraztasunak dauzkatentzat? Ez, oiek berekin daukate naikoa ta ederki babesten dute elkar.

Bearrean zeudenentzat, beartsuentzat, ez-jakiñentzat, baztertuentzat eta zapalduentzat izan zan eta da orain ere “berri ona” ta pozgarria. Besteentzat mingarri zan eta da orain ere.

Zeren alde jokatzen dugu? Zuzentasunaren alde jokatzea, beartsuenak maitatzea, goserik eta erarik errukarrienean dau denak poztea, orixe da gaur ere Jesus'en Berri Ona zabaltzea.

## Gaur bete da...

*Gaur bete da Liburu Santuko itz au.  
Lk 4, 21-30*

Nazaret'eko sinagogan –otoitz-etxean– guztien aurreanagertu zan Jesus eta Liburu Santuetako zati bat irakurri zien, Isaias'en liburuko itz auek ain zuzen: “*Jaunaren Espiritua neregan dago: Berak gantzutu nau, beartsuei beri ona otsegiteko... Jaunaren grazi-urtea otsegitera bidali nau...*” Itz laburrak, baiña mamitsuak dira benetan.

Guztien begiak erne zeuden Jesus'i begira, zer geiago esango zien, zai. Eta onela mintzatu zitzaizen: “*Gaur bete da, orain entzun duzutena*”. Bai, Bera zan Jainkoaren Semea, berri ona otsegitera bidalia. Eta une artan, beartsuei, katigui, itsuei ta zapalduiei berri ona otsegiten ari zan; guztiei Jaunaren grazi-urtea, au da, barkapena ta adiskidetasuna eskeitzen ari zan. Gauza oberik eta bearrezkoagorik, zer zitekean?

Baiña gauza ain ederrak, zeñientzat? Zintzo ta garbi uste koentzat bakarrik? Ez. Baztertuentzat, pekatariantzat, erruka-

rrientzat, iñork maite ez zituanentzat ekarri zuan grazi-urtea; au bai zala berri ona edo albiste pozgarria beartsuentzat! Eta munduko erri ta atzerri guztientzat ere bai. Ez al zan, entzule guztiak poztutzeko mezu goitarra?

Aserretu egin zitzaizkion entzule erritarrak. Zergatik? Jainkoaren maitasuna ta babesa, berentzat bakarrik nai zituztelako; judutarrentzat eta auen artean ere zintzo-ustekoentzat bakarrik nai zituztelako; baiña besteentzat, ez.

Gaiñera, nork esaten zien Jainkoaren izenean izketa ain mingarria? Beren arteko batek, berak bezalako batek ematen zien Jainkoaren albistea. Eta ori geiegi zan, aiek sinistu aal izateko. Sinai mendian otsik aundienaz Jainkoa mintzatzea, ongi; baiña beren kideko baten aoz esanda, ori ez.

A! zeñen ikasbide zorrotza guretzat ere! Gaur, bi milla urteren burura, bete al da Jesus'en mezua, beartsuentzako berri ona? Ez, noski. Toki onean dago! Gero-ta geiago dira beartsuak.

Bestetik, guk ere oso ontzat artzen dugu zero goietako Jaungoiko aundia. Nazaret'eko Jesus, aspaldi il eta piztua, zerruetan gure alde otoiizean ari dana, oso ontzat daukagu.

Baiña... gure lagun urkoengan “gose naiz... gosez iltzen nago... bakarrik nago...” esaten didan Jesus, nola artzen dut? Eta “barka ezaidazu... elkartu gaitezen... ondoegi bizi zera... gauza geiegi daukatzu... bizitzara jaio nai nuke... gaixorik nago... erorita nago... kutsatuta nago...” eta antzekoak esaten dizkidanean, nola artzen dut Jesus lagun urkoengan?

Nazaretarren jokaeraz arritzen geranok, gero geure bizitzan berdin jokutzen dugu gure kidekoekin: Jainkoari zuzenean baietz esango diogu, baiña gure lagun urkoengan, “ezetz” egiten diogu.

## Errugabe ote naiz?

*Jauna,zoazkit nere ondotik, pekatari naiz-ta. Lk 5, 1-11*

Gure mundu ontan okerrak eta zuzengabekeriak, gezurrak, lapurretak eta ilketak ugari ikusten ditugu: ez daukagu ukatzeko, eta guzti ori ez dago ukatzerik, begien aurrean daude-ta. Baiña nork uste du berak ere ortan errurik baduala?

Zaarrei, gazteei, agintariei, erakundeei, Eliza'ri, apaizei, eskubikoei, ezkerrekoei...nori ez diogu errurik egozten? Erru guztia beti besteri egozti ta erantsi oi diogu. Geuron buruak errudun aitortzeari, bildur eta gorroto izugarriak dizkiogu.

Esan bai, esaten dugu Mezatan “bai, pekatari naiz”. Baiña beste guztiekin batera esaten dugu, eta lasai gelditzen gera. Gaiñera, onelatsu pentsatzen dugu: “Bakarrik ez naiz... besteak ere pekatari dira... danok gera errudun...” Eta besteen pekatuz geuron buruak zuritzen eta lasaitzen ditugu. Ez al da egia?

Bakoitzak geure okerrak ikusi ezik, ez daukagu zuzentzerik; geure pekatua ezagutu ezik, ez daukagu geure biotzak eta bizitzak berritzerik. Alperrik ibilliko gera izkutatu nairik, ez ikusia egin eta ukatu naiean. Geure buruari ta erantzukizunari iges egin nai izatea besterik ez da ori. Eta orrek ez gaitu obeak egiten.

Isaias dugu eredu jatorra: *“Ezpain zikiñeko gizona naiz”* aitortu zuan argi ta garbi. Pedro dugu beste eredua: *“Nere ondolik zoazkit, Jauna, pekatari naiz-ta”*. Ortatik asi zan aien berritua: batari ezpaiñak garbitu zizkion Jaunak eta besteari au esan zion Jesus'ek: *“Ez bildurtu. Gaurtik aurrera, giza-arrantzale izango zera”*.

Ortara elduko ba'ziran, Jainkoaren aunditasuna aurkitu bear izan zuten aurrena. Orduan bai, Jainkoarekin topo egi-tean, orduan ikusi zuten beren pekatua. Baiña aldi berean, Jainkoaren erruki maitekorra ikusi zuten, nolerebait nabaitu egin zuten.

Giro ortan esan zuan Isaias'ek: *“Ona emen ni, bidal nazazu”* eta Pedro'k *“danak utzita jarraitu zion Jesus'i”*. Eta aurrerakoan, zearo berrituta, besteen pekatuetaz errukiturik, guztiei barkapena, pakea ta poza eramateko bizi izan ziran biak ere.

Geure erru ta pekatuak apalki ezagutzen eta aitortzen ditugunean bakarrik izango gera gai, zerbait okerrik zuzendu aal izateko. Eta orduan bakarrik izango gera gai, mundu onen eta bertakoen alde zerbait ona egiteko ta pake-bideak zabaltzeko.

## Zorionekoak!

*Zorionekoak, beartsu zeratenak.  
Zoritxarrekoak... Lk 6, 20-26*

Zoriona... Bai ote da itz atsegiñagorik eta aotan geiago erabillia danik? Eta besterik zer ote da, gizakiok irrika biziagoz billa gabiltzan gauzarik? Zoriona nai dugu, aren billa gabiltza, eta zorion-egarriak eragiten digu gure egon-ezin eta billaketarra.

Baiña ez gera zoriontsu, beti-beti ez beintzat. Eta beste zenbait are gutxiago. Zergatik, ez? Erabakita ote dago, batzuk zoriontsu ta besteak zoritxarreko izatea? Alabearrak jartzen ote gaitu batzuk zorionean eta besteak txarrean? Zozketaz bezala ote datozkigu zorionezko biziera ta zoritxarrezkoa? Ez! Gauzak ez dira orrela. Guk geurok egiten dugu geure ta inguruko zoria, zatirik aundienean beintzat. Nola asmatu, ordea, zorion-bidea?

Eta orra, Jainkoak gurekiko dituan asmoak ere gizakion zorionezkoak dirala. Jesus'ek ekarri zuan mezuak ere ez du gu-

retzat zoritxarrik adierazten inondik ere. Alderantziz baizik: gure zoriona nai du, guri zorion-bidea erakustera etorri zan. "Aintza Jainkoari ta pakea gizakiei" eskeintzean, zorion-me-zua zekarren.

Erriz-erri irakasten zebillenean, zer egin zuan, zoriona zabaltzea ta zorion-bidera eragitea baizik? Argi ta garbi esaten digu, nortzuk edo zer egiten dutenak diran zoriontsu, baiña zoritxarrekoak ere izendatu dizkigu: "Zoritxarrekoak zuek, aberatsak... zuek, orain aserik zaudetenak... parre egiten duzutenak... guztiek zuentzat ondo itzegiten dutenean..."

Eta onela erakutsi digu zuzeneko bidea: "Zorionekoak zuek, orain beartsu zeratenak... goserik zaudetenak... negar egiten duzutenak... Gizonaren Semeagatik gorrotatzen zaituztenean..." Gerekoi izatea ez dala zorionerako bidea, alegia; gauza asko eskuratzea ere ez. Alderantziz baizik: daukagunaz pozik egoten jakitea, ematen digutena onartzea, goseak eta nekeak jasatea, negarrez daudenekin negar egitea, daukagunetik ematea gu baiño beartsuagoei, zuzen eta Jesus'en bidean gabiltzalako datozkigun erasoan artean ez sumintzea...

Zorixarrekoak gaur ere, dirua beste ametsik gabe, besteak baztertzen eta zapaltzen dituztenak; beartsu errukarrien aurrean ere lasai ta aberats, geiegikerietan bapo bizi diranak. Baiña benetan zorionekoak, ilketa ta zuzengabekeriak diralata, bear latzen aurrean, itza ateratzen eta negar egiten dutenak; daukaten apurra, beren irriparra, alaitasun-itzak, begiratu argia, bostekoa, poza... alde guztietara ta guztiengana zabaltzen dituztenak. Saia zaitetz ontan, eta ikusiko duzu benetan egia dala, zoriona or dagoala. Norberak ikusita jakiten da ongienik.

## Ordaiñaren zai egon gabe

*Pekatariek ere aurreratzen dute...  
ordaiña artzekotan. Lk 6 27-38*

Itz mamitsua da euskaldunontzat ordaiña. "Odolkiak ordaiñetan" esaten dugu itzetik ortzera. Eta jatorriz beintzat, oso egoki esana zegoan. Izan ere, txerria iltzen zuten baserrietatik jakiñeko etxeetara eramaten bai-zituzten odolki ta txerri-muniak edo txerriki pusketak, jaki goxo aien poza elkar-banatu. Gauza egokia zan, noski, artzen zituanak urrengoan berak ere eramatea.

Orixe zan ordaiña: artutako opariari gero opariz erantzutea. Beti gauza egokia izango da, artutako mesedeari mesede egiñez erantzutea, egin diguten onari guk ere on egiñez ordaiña ematea.

Orra, ordea, gauzak okertu! Ordaiña, onerako erabiltzeko orde, txarrerako erabiltzen du gure gizarteak; eta zu ta ni ta gaiñerakoak, guztiok gera gizartea. Egin diguten gaitz edo

kalteari, neurri bereko ta areagoko kalteaz erantzutea da gaurko ordaiña.

Onari onez erantzuteaz gaiñera, askoz goragora jota, Jesus'ek zerbait bikaiñagoa esan digu, gaizki egiñari ere guk on egiñez erantzutea eskatu digunean: “Gorroto dizuetenei, egin on; madarikatzen zaituztenak, bedeinkatu; gaizki-esaka ari zaitzkitzuenentzat, zuek egin otoitz; masail batean jotzen zaituanari, eskeiñi bestea; soin-gaiñekoa kentzen dizunari, ez ukatu jantzia”. Zenbat ezagutzen, orrela jokutzen dutenak?

Oraindik geiago eskatzen digu Maisu onak: “Maita itzazute zuen etsaiak; egin on, eta aurreratu, ordaiñaren zai egon gabe”. Gaitz egin digutenei on egiñez ordaintzea, gauza aundia ta zailla ba'da, areago eskatzen digu Jesus'ek: on egiteaz gaiñera, maita ditzagula gure gaizkilleak. Gizakiok gure indar soillez, ez gera gai, edo ez dugu ortaraiñoko kemenik; askotan, adiskideak ere ez bai-ditugu benetan maitatzen... Laguntza eskatu bear Berari!

Guztia diru-trukean, irabaziaren billa ta etekiña ateratzeko bakarrik egiten du gure gizarte ontan jende geienak. Eta diruaren bidez, jatekoa, jantziak, ibiltresnak, etxeak, agintea ta “guzti-guztia” eskuratzen duala uste du gizarteak. Orrela, esan besterik ez dago orain edozeiñi, txiki naiz aundi, egiteko zerbait, baiña mesedez, maitasunez, utsean, ordaiñaren zai egon gabe... Artuko duzu ustekabeko erantzunen bat, baiña laguntza garbia... nekez.

Jakiña, gero goibel, aspertuta, barruko alaitasun eta zorionik gabe bizi dira ainbeste: ez bai-dezakete eskuratu, nai ainbat diru, ezta diruaren bidez guzti-guztia ere. Ordaiñaren zai egon gabe ematen duanak, askatasuna, poza ta zoriona izango ditu.

## Biotzetik datoz frutuak

*Biotzean ugari dagoanetik mintzo da aoa. Lk 6, 39-45*

Mintzatzea edo itz egitea, indar aundiko aalmena dugu gizakiok. Itzaren bidez egiten ditugun mesedeak, ziñez aundiak izan daitezke. Baiña itzaren bidez –esanez eta idatziz– egiten ditugun kalte ta gaitzak, nola ta nork neurtu ditzake? Gezurak, engaiñuak, isekak, gaizki erakusteak, salaketak, gaitzespenak eta besteekiko epaiketa zitalak... Biotz-muiña urratzen duten itzak!

Bestetik, bakoitzak gure itzak eta izketak aztertu bear ditugu: diru ta aberastasunak, gordinkeriak, atsegin-jolasak, “ondo pasatzea”, aundizkien geiegikeriak eta aiekiko inbiria... Ez al dira gauza auk, jendearen eta gure izketa askotan agertzen diran gai nagusiak eta ugariak? Zenbait paperetan ere ageri al da bestelakorik? Obeak eta ongille izaten ez digute asko lagunduko!

Izketa, idazketa, irakurtze ta entzute oiek, zer adierazten dute? Jesus'ek ematen digu erantzuna: “*Biotzean ugari dagoanetik mintzo da aoa*”. Garbi ageri da, beraz, gure gizarte ontan jendeen biotz-barnea zerk betetzen duan. Eta aldi be-

rean, Jainkoa, sinismena, otoitza, zuzenbidea, pakea, maitasuna, elkar-laguntza, barkapena, Jesus'en Berri Ona, e.a. artzeko, ez dagoala tokirik giza-biotzetan; askoren biotzetan ez beintzat. Tamalgarri da, baiña egi-egia.

Giro auxe da nagusi gure gizartean, goiko ta beeko, aberats eta beartsu, guztiak batean artuta beintzat. Eta kristauok zer daukagu barnean? Bakoitzak aztertu bear dugu zorrozki: Nik zer daukat biotz-barnean? Zer ateratzen zait jarioka, berez bezala?

Itz guztiak garbi, goitar eta jainko-zaletasunezkoak esango ba'genitu ere, ez litzake naikoa izango gure ontasuna adierazteko. Landare ta zugaitzen ontasuna ez bai-da beren adar, osto ta loreetatik igertzen eta neurtzen; beren ale ta frutuetatik baidzik. Eta gure ontasuna nundik neurtuko? "*Gizaki onak frutu ona ateratzen du bere biotzeko gordailu onetik; eta gaiztoak, txarra ateratzen du bere biotzetik*". Jesus'en aitopena dugu.

Frutu onak... Garbi dezagun gure biotza, zuzendu asmoak eta kendu gure begietako abe aundia. Orduan, biotza garbi ta begiak argi ditugularik, lagun urkoaren utsak eta okerrak, askoz txikiago ikusiko ditugu; eta orduan beste gizon-emakumeak garbiago ikus ditzakegu; eta epaitzeko ordez, beraien alde aterako gera, eta laguntza emango diegu nola edo ala.

Garbitu dezagun gure barnea, besteak ere garbi ikusi aal izan ditzagun. Geurok garbi egon ezik, ez bai-dezakegu besterik garbi ikusi. Eta orrela, geurok barruz garbi baldin ba'gera, iturri garbitik ur garbia bezala, maitasunezko, pakezko ta laguntzazko egintza onak sortuko zaizkigu: eta auek bai frutu onak! Jesus'i jarraituz eta Arek lagunduta, zenbat frutu on eman dezakegun, ez daukagu asmatzerik ere; ustu dugun baiño geiago.

## Sinismena nola bizi gaur?

*Israel' en ere ez dut aurkitu orrelako sinismenik. Lk 7, 1-10*

Gauza asko ta asko aldatzeko joerak indar aundia artu du urte auetan. Oiturak, lana egiteko erak, pentsaerak, biziera ta beste geiago, aldatu egin dira; eta areago aldatu nai ditu gaurko gizarteak. Baiña zein da gizartea? Guztiok ikutu ta bultzatuz, guztion artetik nagusiki nabarmentzen dan joera indartsu bat da.

Eta zergatik aldaketak? Guztiak gaizki zegoalako? Bai ta ez. Zenbaitetan, bearrezkoa zan gauza batzuk zuzentzea, oraingo aurrerapenek beste bide batzuk egin dituztenez gero. Beste zenbaitetan, ordea, ongi zeuden gauza ugari aldatu dituzte, naiz errazenaren billa ta naiz aldaketa-aize itsuak eraginda: okerrera b' da ere, "leenetik atera beintzat!" bai-diot.

Giro ontan bizi bear dugu kristauok gure sinismena: aldaketa-giroan alegia. Eta egia esan dezadan: onerako ala txarerrako, baiña... gauza asko dira gure inguruan, leen ez bezala

daudenak, zearo beste era batera jarriak, ukatzerik ez dagoanez.

Kristauak, berriz, gaur nola biziko du bere sinismena? Leen aspaldian bezala? Oñez ibiltzen eta okerrago jazten giñan; jaten genuana ere ain landua ez zan; eskola geiago ikasiak gera, presakago bizi gera... Urrutietako albisteak eta oso bestelako pentsaera-irritziak bereala sartzen dizkigute begi-belarrietatik.

Bizitzeko ta ibiltzeko giroa aldatu zaigunean, bearraren erara ta inguruaren eragiñera aldatu bear izan ditugu gure bizikera ta ibillerak. Era berean, bearrak eta zailtasunak aldatu diranean, betiko sinismen ber-bera bizitzeko era ere aldatu bearra daukagu. Bestela, ezin sinisturik gertatuko gera.

*“Israel’ en ere ez dut aurkitu ainbesteko sinismenik”* esan zion Jesus’ek euntari arrotzari. Izan ere, Israel’ en askok leengo erlijio-giroan jarraitzen zuten; eta bitartean erlijio-biziera berria ta sakonagoa ekarri zien Jesus’ek. Orra atzerritarra era berrian sinisten eta bertako buruzagiak leenari eusten...

Eta guk zer? Bizia ta gure nortasuna maite dituan Jainkoagan sinistu bear dugu; gu geure buruen jabe, eta okerrari aurpegi emateko kementsu nai gaituana: gure senideei barkatzeko ta laguntza emateko trebe nai gaituan Aitagan sinistu bear dugu. Au bai litzakeala sinismen berritua!

Argiagoa ta alaiagoa izango litzake kristauen bizitza; gure gizarte gaixo edo eri onentzat askoz osasungarriagoa izango litzake. Orduan, berriz, guretzat pozgarriago ta beste guztientzat zuzpergarri gertatuko litzake gure sinismena, aldaketen zurrunbilloan argi egiñez. Zergatik ez? Bakoitzaren esku dago orren billa gogotsu saiatzea.

## Eriotza ta ilketak

*Mutil, zuri diozut: jaiki zaitetz!*  
*Lk 7, 11-17*

Gure izatea neurtua dalako, gure burua ta bizia gureak ez diralako, geure biziaren jabe ez geralako, bizia bestek emana dugulako, egunen batean eriotza etorriko zaigula, badakigu guztiok; zalantzarik gabe, jakin ere. Ain zuzen, jaiotzeak iltzea zor bai-du, gizakion izate-lege ortatik ezin iges egin dezake iñork, ez gaur eta ez biarko geroan.

Gure mundu-aldi ontan gero-ta ugariago gertatzen dira, garaiz-leen edo ustekabeen eriotzak gure artetik eraman dituanak: au da, laneko ta ibillietako ez-bearrez joanak, alegia. Eta bai naigabe aundien iturri gertatzen zaizkigula!

Bestelako eriotzik ere bada, ordea, gizakion zoritxarrez. Batetik, gosearen gosez illak eta gudaldietan bizia galdu dituanak. Eta bestetik, indarkeriaz, milla eratako izkillu edo armen eraso, biziaren aria eten dietenak: bizirik bear zutenak, bizia zor genienak dira, baiña... Zer erru ote zuten? Baiña bai al da

errurik, bizia ordainetan eman bear izateraiño irixten danik? Ez eta ez! esan bear dugu buru-biotzak elkaturik.

Eta zerk ekarri ditu ilketak? Aserreak, gorrotoak, politikazko itsumenak, gizartea gorroto-borroka agindura antolatu nai izate okerrak... Oiek dira indarkeriazko ilketak ugaritu dituztenak. Beste errialdeetan bakarrik ez, gure artean ere bai.

Onelako ilketen ondorioz sortzen diran atsekabe, oiñaze ta biotzeko zauri sakonen miñak, nork neurtuko? Alargunaren seme illa piztea, Jaunari otoitz egiñez lortu zuan Elias'ek. Ama alargunaren naigabe ta negarraz errukiturik, semea piztu egin zion Jesus'ek Naim errixkan.

Iñor pizteko aalmenik ez dugunok, zer egiten dugu ilketen aurrean? Ez al gera oitu? Garrantzirik eman gabe, lasai ez al gera gelditzen bakoitza bere txokoan? Biziazen balioa, nola neurtzen ote dugu? Geuretarrena ba'da, gauza aunditzat jo, eta bestelakoena ba'da, uskeria bai'litza zokoratzen ote burutik ere? Bizia, edonorena ere, bizia da. Gora bizia!, oiukatu bear genuke.

Ilketak dirala-bide atsekabetuak, zer? "Erruki izan zuan Jesus'ek" Ebanjelioak esaten digunez. Eta errukitzea ez da kaxkargarri izan, ez Elias'entzat eta ez Jesus'entzat. Buru ta biotz aundikoen aalmen edo trebetasun bikaiña da errukitzea. Baiña bai zailla dala benetan errukitzea, biotz txiki estuentzat!

Biziazen aldeko erlijioak eraginda, naigabetuenganako maitasun-aginduak bultzata, joka dezagun borroka kementsua, ilketen aurka ta biziazen alde. Eta beti adiskidekiro arindu ditzagula biotz urratuen oiñaze sakonak, errukiaren agerpenik ederrena bai-da.

## Jesus eta emakumea

*Barkatuak dituzu zure pekatuak.  
Zoaz pakean. Lk 7, 36-8, 3*

Gizonezkoa ta emakumezkoa nola daude gure gizartean? Bakoitzak bere toki egokia ote dauka gure mundu ontan? Ez-berdiñak diran neurrian, elkarren osagarri ote dira? Gizonezkoaren indarrez eta eragiñez menperatua dago emakumea alor askotan.

Begi zorrotzez aztertzea besterik ez dago, zuzengabekeria bildurgarriak ikusteko. Gure gizartea ta mundua, egia esateko, gizonezkoek beren erara ta beren neurrira antolaturik dauzkate. Emakumea zertarako? Ama izateko, etxeko lanak txukun egiteko, etxea txoko goxo biurtzeko, gizonezkoen jostailu, begien asegarri ta griñen atsegin izateko... Zer geiagotarako?

Orrelaxe dago gaur zati aundian, eta leen ere alatsu izan zan. Eta gaiñera, gizonezkoen ondartzaille diralazko izena edo otsa leporatu izan diete, batez ere kaleko emagalduek diralabide. Euskaldunen artean esan oi zuten ustea da au: "Etorriko da garai bat, emakumeengandik igeska, gizonezkoek zugaitz-gaiñera igo bearko dutena". Baiña... orrela izango al lirake, gi-



zonezkoak aingeru ba'lira guztiak? Ez noski. Toki onean dago, ordea, gizonezkoen aingeru izate ori!

Oso bestela dira Egillearen asmoak: gorputzez eta izakeraz ez-berdiñak bai, baiña biak elkarren aberasgarri, elkarren zorion, elkarrentzat benetako osagarri gorputzez, buruz, biotzez eta era guztietara. Ortxe bien osotasuna, ortxe zoriona!

Baiña... Dabid erregek bere griñen asegarri artu zuan Betsabe, gero damutu ba'zitzaion ere zin-ziniez. Era berean erabilli zuten noski, Jesus'en oiñak garbitzera, damaturik eta negarrez urbidu zan emakume ura ere. Eta areago gaur, milla eratara oinperaturik bai-dago emakumezkoa, baita indarkeriaz ere ainbat tokitan.

Edozein emakumezko oso bestela artu zuan Jesus'ek, eta guztiak era berean: begirune aundiz, berdintasunez eta maitasunez artu ere, bere garaikoek ez bezala. *"Barkatuak dituzu zure pekatuak. Zoaz pakean. Zure sinisteak salbatu zaitu"*.

Oiñazetik ateratzeko, pekatutik askatzeko, erori-alditik jasotzeko erabiltzen zuan Jesus'ek bere aalmena, emakumeekin izan zitu artu-emanetan ere. Gogoratu gaurko emagaldua, emakume ezkon-naasten aurkitua, samariarra, Maria magdalarra...

Gizonezko ta emakumezkoen arteko arazoak, ez-berdintasunak eta elkar menperatzeak, ez dira bien arteko borrokaz konponduko. Batak bestea desegitea besterik ez dakar eskubide-borrokak, gaur moda-modako gauza miraritsua ba'litz bezala eskeintzen duten arren "feminista" deituriko borrokariek.

Batak bestea obeto ezagutzea, elkar osotu naia, eta bakoitzak bere griña ta berekoikeriak neurriturik, elkarri on egitea; bestearen onerako, nork bere burua sakrifikatzea, eta batak bestea zorioneko egitea... Au da Jesus'en bidea. Eta azkenean, au da egiazko berdintasun-bidea, eta auxe zorion-bide bakarra.

## Izen bat ala norbait?

*Eta zuek, Ni nor naizela diozute?  
Lk 9, 18-24*

Ona emen galdera sakon bat: *"Nor naizela diozute zuek?"* Auxe galdetu zien Apostoluei Jesus'ek. Eta kristau bakoitzari gaur beste galdera au egiten digu: *"Zuretzat nor naiz ni?"* Komeriak izango genituzke erantzutekoan. Izan ere, pentsatu al dugu bakoitzak sakonki, 'nor da neretzat Jesus?'

Izen asko emango genizkioke Jesus'i, au ta bestea dala esanez: Jauna, Salbatzaillea, Jainkoaren Semea, Artzai Ona, Jainkoaren Bildotsa, Kristo, Mesias... Eta aldi ontan beste izen berri batzuk ere emango genizkioke: Adiskidea, Anaia, Askatzaillea...

Baiña ikasitako itzak dira; egoki jarritako izenak eta deiturak, baiña izen batzuk. Aoa betean ematen dizkiogun izen aundi ta bikaiñak dira, oiek Jesus'i esan eta lasai gelditzeko.

Eta izen eder oiek ematen dizkiogun Norbait orrek, bai al du ikuskizunik gure bizitzan? Zer-nolako eragiña edo bultzada

du gure bizieran Jesus orrek? Zer egiten dugu Jesus ori obeki ezagutzeko? Bai al dugu ziñezko adiskidetasunik Berarekin? Adiskide onarekin itzegiten dugun bezala, itzegiten al dugu Jesus'ekin gure otoitzetan biotz-biotzez mintzatuz?

Bataiatuak geranok, Kristo dugu ixpillu edo eredu. Onela esaten digu Paulo Doneak igande ontan: "*Kristo' gan bataiatuak zerraten guztiok, Kristo duzute soiñeko*". Soiñean jarri ta kendu, jantzi ta erantzi erabiliko dugun soiñeko jazkiña bat ez da noski.

Askotan, ordea, ortan gelditzen gera: izen batzuk ikasi, oitura batzuk artu, otoitz batzuk esan, eta... Kristo'ren jarraitzaile on eta jatorrak gerala uste dugu. Jantzia bezala, gaiñeko zerbait izateko orde, gure izaera osoa aldatzen duan jarrera eskatzen digu kristau izateak. Eta au gauza sakona da, ez txantxetako.

Nortzat daukat nik Jesus? Bene-benetan nor da neretzat? Norbait bizia, maite nauana, ohea ta alaiagoa izaten laguntzen didana... Orrelakotzat al daukat biotz osoz eta nere barru-barruan?

Ez dira gutxi gure gizarte ez-kristautu ontan, Jesus aaztutzeko ta baztertzeke egiñaalak egiten dituztenak. Zerbait naiz norbait, kaltegarri ta txarra dala benetan argibidetu ondoren, orduantxe baztertzea, bidezko da. Baiña ezagutu gabe? Burugabekeria latza da, noski, ezagutu gabe baztertzea. Eta orixe egiten dute askok eta askok gure artean, ez bai-dute Jesus urrutitik ere ezagutzen.

Apostoluen antzera, Jesus ziñez adiskidetzat artzen ba'dugu, orduan bai, Aren antzeko izango gera; bestela ez. Gure buru-biotzak irabazi dizkigun Norbait aunditzat ezagutu ba'geneza, orduan pozik ukatuko genituzke geuron buruak eta leialtasunez jarraituko genioke, gure bizitzak Aren erara aldatuta.

## Sutan erretzera ez, salbatzera

*Ez naiz etorri gizakiak galtzera, salbatzera baizik. Lk 9, 51-62*

Aurkakoak, arerioak, etsaiak edo aurkalariak ez zaizkigu atsegin gertatzen iñori. Adiskide ta lagunak ere ez dira beti gauza guztietan gure gustoko agertzen. Zerbaitetan gaitz edo kalte egin digutenak, berriz, mingarri gertatzen zaizkigu. Eta zer egin, mingarri zaizkigunen aurrean?

Era askotako jokoerak artu izan ditu gizakiak, beretzat kaltegarri iruditzen zaizkionen aurrean. Or dugu giza-kondairaren asieran Kain'en ekintza makurra: bere begien aurretik betirako kendu zuen Abel bere anaia, betirako ta indarkeriaz kendu ere.

Eta gerokoan zenbat aldiz gauza bera? Geienetan bakoitzak bere lasaitasunaren billa, eragozpenak eta aurkakoak aurretik kendu nai izaten ditualako. Eta bakoitzak bezala, taldeek ere.

Beste batzuetan baita Jainkoaren izena ta goralpena zaintzen dituzten ustean ere: orrela sinistuta, beintzat. Uste orrek eraginda sortuak izan dira erlijio-gudaldiak eta sinismen-naasle zenbait sutan erretzeak. Baiña ori ote zan Jesus'en irakaspena, orrelakoa

ote Aren jokabidea? Ez noski. Zearo ta guztiz bestelakoa izan zan baizik, Ebanjelioan ageri danez.

Santiago'k eta Joan'ek zeruko sua eskatu nai izan zuten samariarrak erre ta kiskaltzeko, ain juxtu ere Jesus eta Aren izen ona goraltzeko ustez. Baiña... EZ! esan zien Arek: "*Ez dakizute nolako espirituarenak zeraten*". Nolako espiritua? Edo zertara etorri zan, bada, Bera? "*Ez naiz etorri gizakiak galtzera, salbatzera baizik*". Eta erretzea, ez da salbatzea.

Aurkariei su ematen jarraitzen du oraindik gaurko indardunak. Arerio edo aurkakoak su-armaz garbitzea ez bai-zan bukatu Hitler eta Stalin'ekin, ez frankistekin, ezta Polonia'n, Hungria'n eta Txile'n gertatuekin ere. Or jarraitzen dute Irak'en eta Iran'en, Ego-Afrika'n, eta oraintxe bertan gar bizian ari dira Txina aundian ikasle ta langille armagabeak su-izkilluz botatzen. Gure artean ere, aurrena nolerebait etsaitzat jo, eta bereala atzetik gizakiak balaz iltzen jarraitzen dute "armatuen" taldekoek.

Oiñak oztopo edo estrapuzu egin ez dezan, arriak kentzen ditugun antzera, kendu nai izaten ditugu aurkakoak. Eta kendu ezin ditugunean, itz kiskalgarriz sutzen ditugu. Baiña ez dira politika-alderdiak bakarrik elkarren aurka suzko itzak jaurtitzen dituztenak: zenbait erritar eta eliztar ere bai geiegitan.

Jesus'en antzera, iñoren galera ta ondamenik ez dugu nai izan bear, guztien ona ta salbazioa baizik. Gogoan artu ta bete egin bear genituzke Paulo'ren itzak: "*Askatasunera deituak zerate, baiña ez norberekoikerirako... Ibil zaitzte Espirituari dagokionez*".

Gure askatasunik garbiena ta egiazkoena, barkatzeko ta on egiteko indarra izatea dugu. Eta orixe da gure buruak eta gure lagun urkoak salbatzeko bide nagusia ta bakarra, Jesus'en bidea.

## Pakea etxe ontan

*Arkumeak otso-artera bezala bidaltzen zaituztet. Lk 10, 1-20*

Nork ez du pakea nai? Pakea nai dute beartsuek eta aberatsek, aulek eta indartsuek, errialde atzeratuek eta aurreratuek... Pakea nai dute Ipar-Amerika'k eta Errusia'k. Baiña nolako pakea? Ortan dago kokka: nolako pakea nai du bakoitzak, gaur 1986'an?

Bakoitzak bere erakoa, bere neurrikoa, bere gogokoa, bakoitzak beretzat aberasgarri dan pakea nai du. Itz batean esateko, bakoitzak "bere" pakea nai du. Eta zeiniek nai du bestearen ona, bestearen pozbidea? Nork nai du bestearen pakea? Ez da arritzekoa, pakea urruti egotea mundu zabalean, besteren onik nai ez ba'dugu.

Gure artean ere gauza bera gertatzen da: Madril'ek, PSOE'k, PCE'k, AP'k, UPN'k, HB'k, EE'k, ETA edo "Euskal Komunista Harmatuek", EA'k, EAJ'k... bakoitzak bere gisako eske ta ametsak ditu: eta oiek beretzat lortzea, orixe dau-

ka paketzat, orixe du bere pakea. Tamalez geienetan, beste guztien arazoak, or konpon!

Argi ta garbi ageri da ondorioa: aserreak eta elkarren aurkako borrokak dirala nagusi; ez dagoala pakerik. Gizaki bakoitza ta taldeak eta partiduak, otso bihurturik goaz besteei erasotzera ta "gurea" ezartzera. Eta orrela, pakea ez-baiña, etengabeko borroka bizia sortzen dugu ta sutan euki-erazten.

Oso bestelakoa da Jesus'en agindua: *"Zoazte! Arkumeak otso-artera bezala, bidaltzen zaituztet"*. Iñori gaitzik egiteko aalmenik ez du arkumeak, ain xotil, biguin eta goxo danez. Gaitz egiten dionari gaitzez erantzuten ez daki arkumeak, ain aul eta ain apal, ain xume ta gaitz-gabea danez.

*"Ez eraman diru-sakelik, ez bide-zorrorik..."* esaten du Jesus'ek. Au da, ez eraman ezer zeurokin: ez diru, ez indar, ez arrazoi, ez aginte. Esku-utsik bidali zituan Jesus'ek bere lagunak, eta biotzez garbi. Ori da pakerako bidea. Garbi ta soil doazenak dira ziñezko pake-egille. Eskuak utsik, baiña aurpegiak irribarrez eta biotzak maitasunez beteta, noski.

*"Pakea etxe ontan"* ... eta pakea sendi ontan, pakea erri ontan, pakea Euskalerrian. Zer egiten dugu, ordea, pakea izan dezagun, guztiontzat izan ere ta iraunkorra izan dezagun?

Otoitz egin dezaiogun uzta-jabeari, langilleak eta pake-egilleak bidal ditzan bere uzta zabalera. Eta gutako bakoitza ere ziñezko pakegille izateko bidean zuzpeltu gaitzala.

Aldi berean ken ditzagula gugandik arrokeriak, inbiriak, aserreak, setak eta indarkeriak. Eta jar ditzagula gogo ona, barkapena, besteei entzutea, maitasuna... Eta orduan ariko gera ziurki ta zalantza-biderik gabe, pake jatorra zabaltzen.

## Nor da nere lagun urkoa?

*Zoaz, eta egin zuk ere beste orrenbeste. Lk 10, 25-37*

Oso erraz egiten ditu lagun urkoen artean maillak eta bereizketak, bai leengo ta bai oraingo jendeak: Odol edo jatorri berekoak, izkuntza, erri ta pentsakera-talde berekoak, auek lagun urko, eta beste guztiak ez. Ikustagun, ordea, ala ote dan.

Judutarrek ere beren bereizketa egiñik zeukaten: beraiek ziran onak, eta beste giza-talde guztiak, eta bereziki samariarrak, etsaitzat zeukaten; eta etsaitzat ez ba'zan ere, nolabait beintzat nardagarritzat. Jesus'en garaiko erlijio-gizonak berak ere bereizketan sartuta zeuden, "etsaitzat" jota zeuzkatenentzat gogorrenak berak izateraiño.

Eta gure artean zer? Odol, erri ta izkuntza bereko izanik ere, politika-taldeen giroa sortzen ba'da; batez ere marxismoaren ikutua sartu ezkerro, lagun eta adiskideak ere etsai bihurtzen dira, zapaldu ta desegin bearreko ETSAI. Orrela gabiltza elkar larrutzen eta zukutzen.

“Nor da nere laguna?” galdetzeko orde, ez al gabiltza “nor da nere etsaia?” galdezka? Giro illun eta beltz ontarako, argi arrigaria da Jesus'ek ekarri ziguna: Samariar ona, bere “etsaie-tako” judutar zaurituagana makurtu, olio ta ardoz igurtzi ta goxoki lotu zauriak, abere-gaiñean artu, ostatura eraman eta ango gau-egunak ordaindu bere sakeletik... Zer geiago zezakean?

Neke, denbora-galtze, arrisku, etsaitasun eta bere diruak berak ere ez zituan gogoan euki. Guztien gaiñetik, zaurituaren bearrik bakarrik neurtu zituan eta... bete-bete erantzun zien. Jokaera arrigarria! Jesus'ek Berak, berriz, areago egin zuan, iltzailleen alde bizia eman.

Jarraitzaileak baditu gaur ere: ainbeste misiolari, gaixozain, aur eta zaarren zaintzaile, ez-jakiñen argi, iñolako diru-saririk gabe, baldintzarik jartzeke, “bearra dutenen” alde beren bizia ematen ari diranak, bai gizonezko ta bai emakumezko. Auek dira gaurko “samariar onak”, oraingo bearren neurrikoak, berriak.

“Nor da nere lagun urkoa?” Orra or betiko galdera. Erantzuna, berriz, ulertu nai duanarentzat, argi ta garbi dago: *bearrik duan guztia*. Beraz, beste bat da egin bear dugun galdera: *Zer bear du nigandik lagun urkoak?* Bakoitzak geure aldetik kontu au ateratzen ez dugun bitartean, or izango dira lagun urkoak beren bearrik larrienaz zanpaturik, baiña ez gatzazkie laguntzera urbilduko: gu ere beste bide-ertzean aurrera igaroko gera.

Ona emen benetako galdera bizi-bizia: Nor da, nere barkapena, nere dirua, babesa, poza, errukia, adiskidetasuna, nere... laguntza bear duana? Au da zuzeneko galdera, gure biotzak urratu ta bigundu ditzakeana. Galdera zorrotzari, eman dezaiogun zuzeneko erantzun jatorra ta betea.

## Bakarra da bearrezkoa

*Gauza askorekin zabilta, Marta, estu ta larri. Lk 10, 38-42*

Gauza asko dira gure begiei ta entzumenei dei egiten dietenak. Eta ondorioz, or gabiltza ikusitako ta entzundako gauza guztien billa, irrika biziak ibilli ere, beti presaka ta larri. Ainbeste gauza daude alde guztietan! Ainbeste gauza nai ditugu geuretzat!

Lanean, ibillian, bazterrak ikusten, jolas eta erromeri, dantzatoki ta itsas-ertzeko ondartzak, talde-billera ta politika-borroka... or gabiltza guztiok edo geienok zoramen bizian ibilli ta ibilli batetik bestera.

Laisterkaria, ibilliago-ta egarriago izan oi dan antzera, gaurko gizakiok ere gero-ta gauza geiagoren egarri gera. Nola ta noiz aurkituko ote dugu, gure egarria aseko digun zerbait egokia, ona, bearrezkoa? Ziñez bear ez ditugunen atzetik ibiltzea utzirik, egi-egiaz bearrezko zaizkigun gauzen billa bakarrik joko ba'genu... orduantxe giñake zorion-bidean.

Gaur, ordea, zori txarrez eragozpen aundiak daude ortarako. Batetik, diru-zalekeria, kapitalismoa, aberastu-naia, saldu ta erosteko irrika... zirika ta bultzaka ditugu alde guztietatik, pentsatzeko ta aukera egiteko bideak ixten dizkigutelarik.

Bestetik, era guztietako diktadurak, –ainbeste daude gaur 1986'an oraindik– eta bereziki komunistenak, pentsatzearen eta aukera egitearen etsai dira: dana erabakirik, dana egiñik ematen dute, gidari-buruzagiek pentsatzen dute erri-erriaren izenean. Eta gauza bera ez al da gertatzen politika-alderdietan ere?

Marta izeneko emakume ura ere estu ta larri zebillen gauza askoren kezkaz beterik; eta ez ziran gauza txar eta kaltegarriak, emakumea larritzen zutenak, gauza onak baizik. Bere etxean artu zuan Jesus'i ostatua ematean, arrerarik onena egin nai zion: oso-osorik Jesus'engatik zebillen noski.

Bitartean aren aizpa Maria, presak utzita, larritasunik gabe, entzuten eta ikasten ari zan, pentsatzen eta Jesus'ekin izketan.

Jarrera ta jokabide ain ez-berdiñen artetik, zer aukeratu zuan Jesus'ek? "*Bakarra da bearrezkoa... Maria'k aukeratu du alderdi onena*". Au da, larri ta itsu-mustuan ibiltzeko orde, entzutea, ikastea, pentsatzea; esku-oiñak baiño areago, burua erabiltzea.

Beta edo astia artu bearra daukagu pentsatzeko, gauzak aztertzeko, aukerak egiteko; jakiña, artalde izan nai ez ba'dugu beintzat, eta besteren eskuak darabilkian "robot" ez izatekotan.

Eta pentsatzekoan, argirik onena, mesedegarriena, indarrez beartuko ez gaituana, Jesus'ek eskeintzen digu: "Egizu on... Billa ezazu zuzenbidea, billa ezazu Jainkoaren Erreinua... Beste guztia, utsean eta oparo, gainez etorriko zaizu..."

## Eskatzen duanak, artzen du

*Jauna, erakutsi ezaiguzu otoitz egiten. Lk 11, 1-13*

Artzea oso atsegin izaten zaigu guztioi. Bi eskuak ere etxe-alderuntz kakotuak ditugu, artzeko jarreran eratuak, artzeko beti zai ta beti eske. Ez da arritzekoa, beraz, gure artu-naia edo artzeko irrika ori oso barnetik sortua izatea.

Gauza asko artu nai ditugun gizon-emakumeontzat, orra or bide erraza Jesus'en itzetan: "*Eskatzen duanak, artzen du*". Eskatu egin bear, artuko baldin ba'dugu... Eskatu gabe, ezin artu. Eskatu ezker, baietz: Jesus'en itza da.

Eskatzen oso trebe ta saiatuak gera askotan. Karguren bat, sariren bat, irabazpidea, lan-tokia ta antzeko gauzaren bat lortu nai duanean gaurko gizakiak, zer ez du egiten ori eskuratzeko? Eskatu batari ta besteari, aspergabe eskatu bestea aspertu-erazi arte, eske ta eske bizian. Eta nai duana lortu arte, ez du etsitzen.

Zenbaitek berriz, –eta ez dira gutxi–, beren iritziak, beren pentsaera, beren erria ta baita beren gurasoak ere salduko di-

tuzte agian, baiña, azkenean, lortu edo eskuratu egingo dute beren ametsetako gauza irrikaz eskatua.

Orrelakoak gera elkarren arteko arazoetan. Eta eskatzeak ez ditu lotsatzen, zenbait-zenbait kutizi ziñez berenganatu nai dituztenean. Zerbait lortzeko, besteren aurrean belauniko jartzeak ez ditu ez lotsatzen eta ez kaxkartzen: ezetz uste izaten dute beraiek beintzat orrelakoetan.

Eta bitartean, Jainkoari otoitz egiteko, aundiegi gera, arroegi, eta nor-bere buruaren usteaz beteak. Ez dio otoitz egiten Jainkoari gaurko jendeak, ez dio eskatzen. Otoitzak utzita bizi da mende ontako gizakia. Nork egiten du otoitz? “Zertarako otoitz egin?”, galdetzen dute arriturik eta lasai.

Jaungoikoa, urbil eta adiskide aurkitu zuan Abraham'ek bezala; zeruko Aita adiskidekiro maitatu zuan Jesus'en antzera, guk ere aurkitu ta ziñez ezagutu ba'geneza... Eta maite gaituan Aita on eta adiskidetzat ba'geneuka, –alaxe dan bezala– orduan bai, mintzatuko gintzaizkioke biotz-biotzez; orduan bai azalduko genizkioke gure beirak eta egingo gure eskariak; eta orixe litzake otoitza, Aitarekin elkar-izketa sakon aberasgarria.

Gure muga ta neurriak, gure eziñak ezaguturik, guztia dezakean Aitarengana eskean urbiltzeak, ez gaitu kaxkartzen. Alderantziz baizik: jaso egiten gaitu gu baiño askoz aundiago ta bikaiñago dan Norbaitengana, eta Aren adiskidetasunera jaso ere.

Jesus'en antzera ta Arekin elkartuta egin bear genuke gure otoitza; eta aldi berean, gure senide guztiekin elkartuta: “Gure Aita.... emaguzu gaur gure eguneroko ogia... barkatu gure zorrak... ez utzi gu tentaldian erortzen...”

## Ondasunak, norentzat?

*Pillatu dituzunak, norentzat izango dira? Lk 12, 13-21*

Gizon-emakumeok jatorriz daukagu barnean, gauzak pillatze-ko irrika bizia. Zenbat-eta geiago daukanak, arek-eta geiago pillatu nai du. Gauza asko eukitzeaz asetzeko orde, gero-ta areago azitzen da giza-griña asekaitz ori.

Eta gauza askoren pillaketan ari da gaurko gizakia: dirua, ondasunak, lurak, etxeak, karguak, ospea edo fama... Pillatu egiten du gaurko jendeak baita etorkizuneko ziurtasuna edo segurantzia ere, “aseguruak” egiñez eta abar.

Zertarako egiten dute pillaketa ori? Bakoitzak beretzat babesa, ziurtasuna, segurantzia ta iraupena nai ditualako luza-roan, au da, zaartzarorako noski. Izan ere, zenbat-eta gauza geiago eskuratu, orduan-eta ziurrago ta babestuago daudela iruditzen bai-zaie. Gauza oietan al dago, ordea, egiazko ziurtasuna?

Aletegi berri aundiak egin eta aietan naikoa pillaturik, luzarorako lasai ta ziur egon zitekeala, ustei zan gizon aberatsak. Onela esan zion bere buruari: “Ago lasai. Jan, edan eta egizak jai!”

Baiña egun artan bertan Jainkoaren deia: “Zoro alena! Gaur gauean datoz zure biziaren billa. Eta norentzat izango dira, pillatu dituzunak?”

Begien aurreko ta eskuarteko gauzak, onenak eta geienik dauzkagularik ere, eriotzaz bestaldera ez ditugu geurekin eramango: emen utzita joango gera. Emengoak eta galkorrak diranez, ez digute gerorako balio izango: alperrik ibilliko gera. Ez gera gauzen jabe, ezta geure buruaren jabe ere: gutaz kanpotik, gutaz goitik daude erabaki nagusiak.

Ez gaitezen, bada, pillaketan alperrik nekatu. Jesus’i jarraitzeko bidean, pillatzea ez da kristauena. Ematea da kristauen bidea, ematea da ziñez aberats izatea. Geienek dagitena-  
ren alderantziz: pillaketa, galtzea ta ondatzea da. Ematea, berriz, on egiteaz gaiñera, geure buruak aberastea da.

Ondasun pillatuak, norentzat? Geuretzat ez dira izango, eta gaiñera, geure kalterako gertatuko zaizkigu. Norentzat? Besteentzat ari geran neurrian, barkapena, poza, adiskidetasuna ta laguntza emanez, orduan ari gera Jainkoarentzat aberats izaten. Saritzaille oberik, nor?

“Aldegin ondasun-gosetik... Il ezazu diru-gosea”, esaten digute Jesus’ek eta Paulo’k. Baiña guk ez al daukagu gose ori barne-muiñetan sartua? Ondasunak, dirua, gauzak, gure denbora ta geure burua ere besteei ematen ba’geneki, askeago ta alaiago biziko giñake. Emanaren emanez ustuta, askoz aberatsago izango giñake gizakien eta Jaungoikoaren aurrean.

## Erne ta prest bizitza

*Lapurra noiz datorren ba’ leki nagusiak... Lk 12 32-48*

Lasai bizitza, atsedena, patxada ta nekerik eza, guztiz atsegin izaten zaizkigu geienoi. Nekutzen gaituzten zailtasunak ez ditugu nai izaten, aal dala beintzat. Iges egiten diogu nekeari, iges oiñazeari, iges lan zaillari. Onelakoak gera.

Eta gorputzeko nekeak baiño are gutxiago nai izaten ditugu geuretzat, barrukoak: buruausteak, kezkek, ardura ta antzekoak oso gogaitgarri zaizkigu. Gizakiari beti ere astun gertatzen ba’zaizkio gauza oiek, gaurko gizon-emakumeei ez al zaizkie ziñez bildurgarri ta gorrotagarri gertatzen? Baietz esango nuke.

Bear ba’da, gaztetan amets politegiak eta aundiegiak, oiñarrik gabeko ametsak egin zituzten; eta amets aiek kale edo uts egitean, etsipenean erorita gelditu dira gaurko gizon-emakume ugari.

Jeiki goizean, eta zer? Jan-barrak eta oiturak eraginda, ba-koitza bere lanera, baiña joan aurretik, askotan aspertuta. Go-



gorik gabe etxean, alaitasunik gabe lagunartean, besteak bezala taldean ibilli kaleetan, elizkizunak utzi ere taldean...

Ez du pentsatu nai gaurko jendeak, ez du bururik nekatu nai: dana bestek eginda nai du, bestek pentsatuta. Burua nekatzeaz gainera, arriskua jokatzera bai-da pentsatzea, eta arriskurik ez dute nai, bakoitzak bakarka beintzat.

Non aurkitu, nagitasun ortatik eta etsipenetik aterako dituan argi bizia? Nora jo, indar bizigarriaren billa? Ardurarik eza, gogorik eza, taldekeria, itsutasuna, besteren bultzadaz ibiltzea, barneko utstasuna, ez al dira gizon-emakume askoren barne-giroa agertzen duten ezaugarriak?

Zerk atera ditzake lo-zorro ortatik? Argitu ditzakeanik, bai al da iñor? Bizigarri dira Jesus'en itzak: "*Zaudete erne!... Lapurra noiz datorren ba' leki nagusiak, prest legoke. Zuek ere prest egon!*" Eta Bera izan da zuzpertzailerik ziurrena, erne ta prest bizi izan diran gizon eta emakumerik prestuenentzat.

Abraham'ek eta Paulo'k bezala sinistea da erne ta prest bizitzeko biderik onena, ori da beintzat lenengoa ta oiñarrizkoa. Ziñez eta benetan sinisten saiatu bear dugu, beraz.

Gogotsu ta pozik sinistetik aterako dugu argia, eta indarra ere bai, nagikeria ta itsutasuna uxatzeko. Sinistetik aterako dugu saiatzeko gogoia, eta sinistetik aterako dugu itxaropenaren poza.

"Zorionekoa, erne ta prest bizi dana!" Beti zai, beti argi ta gogotsu, beti zerbait obearen ametsetan bizitzen saiatzen dana, uraxe egiaz zorionekoa. Eta ziur egon, ez dala ain zorionekoa, bere bizitzan "ondo pasatzea" beste ametsik gabe dabillena, tarteka lortzen eta gozatzen ba'du ere.

## Pakea ala zatiketa?

*Lurrean sua jartzera etorria naiz.  
Lk 12, 49-53*

Buru-buruan jarri ditugun itz oien arteko aukera, norik eztabaidatu lezake? Pakearen eta zatiketaren artean, zalantzarik gabeko aukera egiñik dagoala, esango du edonork. Galdera bera ere oker egiña ez ote? Ain ez-berdiñak dira gauza biak!

Mailla ta era askotakoak dira zatiketak gure gizartean. Zenbat alderdi, partidu ta talde dabilta politika-borrokan batzuek besteen aurka? Nagusi ta langilleak, aberats eta beartsuak, agintari ta menpekoak, goikoak eta beekoak ere or dabilta elkarren aurka leia bizian.

Sendi geiegitan ez al dabilta senar-emazteak sokatiran, eta guraso ta seme-alabak elkar ulertu eziñik? Zaar eta gazteen artean ez al dabil borroka biziegia? Emakumeen eskubideak dirala, Irakaskintza ta Ikastetxeak dirala, errialde aurreratu ta atzeratuen goera ez-berdiñak, era askotako kristau-taldeak eta er-

lijio-sinisteak... Ez al dira zatiketa ugariren agerpenak eta ezaugarriak? Eta mundu osoan dute beren eragiña.

Azkenik, euskaldunon artean ere ez al dira zatiketa mingarriak sortu, erlijioa ta sinistea dirala-bide, naiz sendietan eta naiz errietan? Oraindik urte gutxi dirala, guztiak giñan sinistun eta elizkoi. Gaur, berriz, batzuek era batera bizi dute beren kristau-sinistea, besteek gisa oso bestelakoan; zenbaitek sinisten jarraitu dugun bitartean, talde aundiak kanpora atera dira, eta zenbait, kristau-izatearen aurka borrokatzeraiño eldu ere bai.

Giro ontan zer bide erakusten digu Jesus'ek? Batasuna nai zuan Arek: sinismen bera izateak eta elkar maitatzeak eraginda, kristauek elkarren artean *beren gogoz egingo duten batasuna*. Baiña iñola ere ez zuan nai, batzuek besteei gogorrean ezarrirako batasuna. Gogorreko batasuna, zatiketara leertzen bai-da.

Guztien artean gogoz eta naita egindako batasuna da, noski, benetako pakea. Ori nai izan zuan Jesus'ek, baiña ona emen zer dioan: "*Lurrera pakea ekartzera etorri naizela uste al duzute? Ezetz diozuet, zatiketa baizik*". Gorrotoz, indarrez, zuzengabekeriaz ezarrirako pakerik ez du nai.

Jesus'engan sinistea, elkarri barkatzea, senidetasunean elkarri serbitzu egitea, nork bere burua aazturik besteei on egiñez bizitzea... Auxe da Jesus'ek ekarri zuan sua: ortan sutu nai gaitu ta sutu nai du mundu osoa.

Sinistearen eta maitasunaren sua nai ez duanak, arek egiten du zatiketa. Gezurrezko sasi-pakea litzake, iñork zatiketara jo ez dezan, sinismenean eta maitasunean atzera egitea. Auek dira lenengo ta bearrezkoenak, sinismena ta maitasuna, eta auek eraman gaitzakete egiatzko pakera; beste ezerk ez, ordea.

## Ate estutik Aitarengana

*Saia zaitetze ate estutik sartzen.  
Lk 13, 22-30*

Lasai bizi, deusetaz arduratu gabe, gezurrari amor eman, indarkeria gogorrari burua makurtu, okerrari begiak itxi, zailtasunei iges egin, eta gauza errazak eta atsegiñak bakarrik egi-tea... Orixe dala pakea uste dute askok. Ezin ukatu, batzuentzat "pakea" dala, baiña guztientzako pakea ez da ori.

Eta orrelako "pakea" EZETZ! esaten digu Jesus'ek: "*Lurrera pakea ekartzera etorri naizela uste al duzute? Ezetz diozuet Nik, zatiketa ekartzera etorria naizela baizik*".

Lasaitasuna ta erosotasuna nai ditu gaurko jendeak gauza guztien gaiñetik: arriskurik ez du nai, zailtasunik ere ez. Gauza errazak, ariñak, legunak eta gozoak bakarrik nai dituzte gaur geien-geienek. Jakiña, beti izan du gizakiak ortarako joera, baiña oraingoa oso nabarmena da: giroa aztertu besterik ez dago.

Eta ez du pentsatu nai gaurko jendeak, ez du bururik nekatu nai: dana bestek egiña nai du, bestek pentsatua ta bestek erabakia. Ekintza aundi ta zailletarako nagi izatea, gauza uler-

garria da. Baiña bakoitzak bere buruz pentsatzeko ere alperre-  
gi izatea, gaur ez da bat eta birena bakarrik.

Zuzeneko jokabidea ote da ori? Erantzunik jatorrena, Je-  
sus'ek ematen digu beti bezala: "*Saia zaitetze ate estutik sartzen;*  
*asko izango dira sartu nai izango dutenak, eta ezin izango di-*  
*ra sartu*". Dana gozo, dana zabal eta libre nai dutenentzat, oar  
zorrotza da, ate estutik sartu bear ori.

Badira legezko ta bidezko atsegiñak ere: neurrizko jan-  
edanak, lan ondoko atsedena, edertasuna, adiskidetasuna, la-  
gun-arte, ongi egindako lanaren zoriona... Ate esturako ez di-  
ra eragozpen.

Baiña orain legerik gabe, gizabidearen mugen gaiñetik,  
atsegin-gozamenik aundienak, berrienak, garestienak nai ditu  
bakoitzak, besteen bearrei begiratu gabe, milloikak ilko ba'di-  
tu ere goseak.

Aitaren etxean, Jesus'en Erreinuan, maitasunezko ta pozez-  
ko biziera zabala izango dugu: ori eskeintzen digu Jesus'ek  
guztiori. Baiña izaera bikain artara sartuko ba'gera, ate estuan  
barnera sartu bear dugu. Ataka estuan igaro aal izateko, gauza  
asko utzi bear eta gugandik kendu; bestela, sartu eziñean ger-  
tatuko gera.

Geiegizko dotorezia ta apainduriak, jan-edan garestiak, itxura  
uts ederrak, gozamen-jolasen aparrak, aberastasunak eta diru-  
txartelak... kendu egin bear gugandik: guzti oiek izan ere, era-  
gozpen izango zaizkigu ate estuan sartu aal izateko.

Orrela, eragozpenik gabe, garbi ta soil, sinismenez argitu-  
rik eta itxaropenez poztuta baldin ba'gabiltza, errazago lortu-  
ko dugu, Aitagarako ate estuan aurrera, zorion eta pozezko  
argi zabalera beti-betirako sartzea.

## Lenengo tokien billa

*Bere burua goratzen duana, beeratua  
izango da. Lk 14, 6-14*

Era askotakoak dira kirolariak, eta bakoitza bere maillan,  
lenengo izan nairik ibiltzea, ez da arritzekoa. Laisterka, ige-  
rian, jauzika, jaurtiketan eta abar dabilzanek, lenengo tokia-  
ren billa jokatzeko, bidezko gauza da. Ortarakoxe dira-ta, leia-  
ketak edo norgeiagokak kirol-jokuetan.

Ortan izan ere, bakoitzak bere burua zainduz, gorputza bere  
osoan trebatuz eta jokaldiak egoki egiñez, ez duteiñoren aurka  
jokatzen; ez beintzat iñoren kaltean. Izatekotan ere, zerbaiten  
aurka: neke, zailtasun eta eragozpenen aurka jokatzen dutela  
esan bear. Nork baiño nork kirol-lan edo ekintza ohea dute el-  
buru.

Gure gizarteko gauzak ere gisa berean ba'lira, obeki giñake  
guztiok. Baiña ez dira orrela, guztiz bestela baizik. Kontu egin  
dezagun, gure mundu au, -naiz bazkaria, naiz afaria- otordu  
aundi baten antzekoa dala; eta maikide guztiak, irrika bizian

bultzaka, lenengo tokien edo lekurik onen billa dabiltzala... Zer esango genuke, ori ikustean?

Erotuta jokatzen dutela, burua galduta dabiltzala... esango genuke noski. Jendea ez dugu orrela ikusiko otorduetan, baiña bai beste mailla askotan. Laneko tokian gora igotzeko, karguetan lenengo izan nairik, mailla guztietan besteen gaiñetik egotearen billa... Zeiñen borroka gogorrak jokatzen dituzten! Eta borroka guztietan, dirutzarik aundiena eskuratzearen billa.

Eta lenengo maillak lortzeko bidean, diruz eros ez ditzakegun beste gauza on bikaiñak saltzen dituzte: sinistea, maitasuna, gurasoak, adiskideak, kristautasuna... Ez al da auxe, gure inguruan ageri zaigun giroa? Giro kaltegarria noski!

Jesus'en bizitzan ageri zaigunez, mailla ta karguak ez dira iño-la ere, gu gizakiok jasotzen eta obetzen gaituztenak. Alderantziz baizik: guk izan bear dugu, gauza oiei edertasuna ta balioa emango dizkiegunak; gutxienez ere, ala eman bear genizkieke.

Eta Jesus'ek bere aukera egingo duanean, nortzuk jarriko dizkigu lenen-lenengo? "*Bere burua beeratzen duana, gortua izango da... Beartsuak, elbarriak, errenak eta itsuak bere maira artzen dituana*". Bai, orrelakoak bere adiskidetasunera ekartzen dituana, uraxe goralduko du Jesus'ek.

Besteak baiño atzerago, beartsuak baiño beerago jartzen dana, bere aalmenen neurrian aurrera ta goruntz aiei laguntzeko, uraxe izango da lenengo serbitzurik geiena egiten eta uraxe izango da lenengo Jesus'en adiskidetasunean: onelakoari esango dio: "*Adiskide, zatoz gorago!*" Sari-egunean ere onelakoa izango da sarituena. Besteei guk gauzarik onenak ematea, orixe da zuzeneko bidea, Jesus'en erreinuan tokirik onena iritxi aal izan dezagun.

## Uztearen aberastasuna

*Dituan gauza guztiak uzten ez dituana... Lk 14, 25-33*

Askatasuna oso atsegiña zaigu guztioi, baiña zeñen zailla dan barruko askatasuna, edo gure buruen jabe-jabe izatea! Bai al dakigu zer dan egiazko askatasun ori, eta non aurkituko dugu?

Zenbat-eta diru geiago ta gauza ugariago dauzkan batek, orduan-eta askatasun geiago daukala uste izaten du; orduan-eta askeago, libreago dala, eta libreago giñakeala, iruditzen zaigu. Gauza asko eukitzeak, ziñez libreago ta gure buruen jabeago egiten ote gaitu? Gai ontan, zer da egia, eta zer da irudipena?

Gizakiak ez daki, bear duan zorion guztia bere baitan edo bere barnean aurkitzen. Eta zer egiten du? Billa ibiltzen da gauzetan aurkitu nairik. Eta gauza asko eukitzeak, -uste du gizakiak- emango dizkiola zoriona ta askatasuna. Obeki esanda, askatasunean lortuko duala zoriona; ala uste du beintzat.

Baiña gauza asko eukitzea, ez al zaio kaltegarri txoriari egan arinki ta bizkor egiteko? Zenbat-eta gauza geiago dauz-kagun, ez al litzazkiguke lotura kaltegarri gertatuko, igerian errazki egin aal izateko? Adibide auek biak erraz ulertzen di-

tugun arren, geure buruari lotura ta zama zaizkionik, ez dugu ala ikusten...

Danen gaiñetik, dirua, osasuna, indarra, gozamina, agintea, jolasa, karguak e. a. nai dituzte gizon-emakume geienek irrika biziz. Eta guzti oietatik oparo edo naikoa euki ezkerro, aske ta libre lirakeala uste izaten dute askotan.

Eta bitartean, zearo estu lotuta daude. Batetik, geiago eskuratu naiaren irrikak lotzen ditu. Bestetik, gauza oiek galduko zaizkien bildurrak larritzen ditu. Askatasunaren orde, lotura itogarri gertatzen zaizkie ez gutxitan.

Nork erakutsiko digu askatasun-bidea? Jesus da ezeren loturarik gabea, eta guztientzat askatzaillea. Nazaretarraren jarraitzaille zintzo dan guztiak izango du askatasuna: *"Dituan gauza guztiak uzten dituana... Bere gurutzea artu ta Nerekin datorrena, ura da nere ikasle"*.

Zituzten ondasun guztiak utzita, ezer galtzeko bildurrik gabe, loturetatik libre, orrela jarraitu zioten Asis'ko Franzisko'k, Loiola'ko Iñazio'k, Xabier'ko misiolari aundiak eta beste ugari.

Aiek ere bazituzten loturak, eta ona emen: jende askoren gogo txarra, agintarien eragozpenak, beartsu errukarriei oparo lagundu nai ta eskuak utsik eukitzea... Aien barrua, aien gogoa, ain naime-na, jarein eta libre, ezer galduko zuten arriskurik gabe.

Bide zaila erakusten digu Jesus'ek. Orixe bakarra da, ordea, ziñezko askatasunera eramango gaituana, Berak lagunduta, gaiñera. Beste guztia, geure buruak engaiñatzea ta lotzea besterik ez da.

Lotura ezagutzen dugu, baiña askatasun ori ez zaigu askatasuna danik iruditzen...

## Galduen billa

*Onek ( Jesus' ek ) ongi artzen ditu pekatariak. Lk 15, 1-32*

Sagar ustel bat naikoa da, sagar piñen artean jarri ezkerro, guztiak usteltzeko. Gauza bera gertatzen dala kristauen artean ere, ziurki uste zuten garai batean: biurri edo gaizto bat naikoa, on edo zintzo asko oker-bideratzeko, alegia. Orregatik esaten ziguten zorrozki : "Ez ibilli alako ta alako gaiztoekin!"

Jerusalen'go farisaitarrek eta kidekoek gogor salatzen zuten Jesus, *"Onek ongi artzen ditu pekatariak eta jan ere jaten du aiekin"*, esanez. Beren buruak oso zintzotzat bai-zeuzkatzen, beste zenbait zorrozki gaitzesten zituzten pekataritzat; eta aiekin ez zuten artu-emanik nai, beren buru "garbiak" ez kutsatze arren. Sagar piñak, ustelen ondotik urruti egon bear...

Ez ziran orrelakoak Jesus'en irakaspenak eta jokabideak. Gaizto, pekatari edo kutsatua zalako beintzat, ez zuan iñor baztertu ta gaitzetsi. Ausnartu ditzagun Beraren itzak: *"Ez*

naiz zintzoei dei egitera etorri, pekatarietara baizik, biotz-berritu daitezten". Pekatarien billa etorri zan, beraz.

Itzez eta egitez erakutsi zigun Jesus'ek Jainkoaren biotz guztiz ona. Amar diru-txanponetatik bat galdu zuan emakumea, eta eun arditatik bat galdu zitzaion artzai ona jartzen dizkigu begien aurrean. Zer egin zuten? Indar guztiz saiatu ziran galduaren billa, aurkitu arte etsi gabe; eta aurkitu ondoren, gainezka poztu ziran, laguneren artera zabalduz beren poza.

"Orrela poztuko dira Jainkoaren aingeruak, biotz-berritzen dan pekatari bakar batengatik", esaten digu Jesus'ek. Jaungoikoa ez da gu bezalakoa, zorionez! Errukitsua ta errukiduna ez-ezik, errukia bera da, eta orregatik dabil galduen, pekatarien eta errukarrien billa, ardurarik aundienaz ibilli ere. Eta ain ona dalako, pekatariak ontzeak pozten du geien, aientzat bai du biotz ona ta errukiz betea.

Nor ez gera pekatari? Nor ez gabiltza noizbait edo geiagotan, galduta? Non gabiltza? Onik, zer egiten dugu? Eta zenbat uts? Ala ere, gora biotzak! Jesus'ek aitortzen eta ziurtatzen digunez, gure billa dabil Jainkoa errukirik aundienaz, gu aurkitu arte.

Piztu ditzagun gure sinismen-itxaropenak; poztu ditzagun gure biotzak, "galduen billa" dabillena, gu guztion billa dabil ziurki, inortxo ere ez bai-du aaztu nai, eta baztertu ere ez.

Bestetik, utzi ditzagun inor gaitzesteak eta salaketak: gu ta besteak, geiegitan bai-gera "galduak" eta pekatari. Eta poztu gaitzela besteen onaz, ikas dezagula besteen onaz poztutzen.

Eta billatzaille on eta errukitsuari otoitz egin dezaiogun us-te osoz, gure billa jarrai dezan aspertu gabe; eta aurkitu gaitzela, eta guk ere Bera aurkitu dezagula.

## Jainkoa, ala dirua?

*Bi nagusiren serbitzari, inor ez daiteke izan. Lk 16, 1,13*

Galdera ori orrela eginda, gaizki egiña dagoala esango dute askok. Bietatik bat aukeratzekotan, Jaungoikoa aukeratu bear duala, burua bere tokian daukanak beintzat: ala esango digute gure irakurleek. Geiago oraindik: galdera orren aurrean, Jainkoa obetzat eukiko dutela beraiek ere dirua baino, esango digute.

Bear ba'da bai, galdera orri itzez erantzutekoan, zuzeneko erantzuna emango dugu ia guztiok. Baiña arazoaren giltza ez dago itzetan, gauza eder eta aukera on asko egiten bai-ditugu itzez. Eta egintzetan, zer? Or dago koska guztia.

Amos igerlearen garaian bezala, orain ere ez dira gutxi onelako jokabideak artzen dituztenak: "Neurriak txikiagotu egiten dituzute, balioak aundiagotu, okerreko pisuak darabilzikizute, beartsuak diruz erosten dituzute, eta pobreak oiñetako pare baten trukean erosten..."

Orrela jokutzen dutenek, diruaren alde egiñik daukate beren aukera. Diruaren bidez eta diruagatik, zer ez dute egiten? Beartsuak zapaltzea, pentsakera ta bizierak aldaeraztea, agintariak erostea, emakume ta gizonezkoak saltzea, kristau ta eliz-gizonak naastea, eta abar luzea.

Ez dute oker esaten euskaldunek, “dirua da mundu ontako jainko-txikia” diotenean. Eta egiazko Jainko aundia aaztu-eraztea ta baztertzea lortzen ditu diruak, beartsuenen eta aulenen kaltean. Au ikusi bear du itsuak ere: zenbat-eta dirudun aberatsago diran, ainbat-eta laguntza gutxiago beartsuei, eta zapalketa geiago.

Kristauak ere geiegitan kutsatzen gaitu diruak eta bere aurrean makurtu-erazten. Eta Jesus’ek jarritako aukera autsi nai izatera eragiten digu, aukera benetan autsi-eziña jarri ba’zigun ere: “Ez daiteke iñor, bi nagusiren serbitzari izan... Ez zindez-teke Jainkoaren eta diruaren serbitzari izan”.

Bata ala bestea, baiña biak batera ez daukagu elkartzerik, eta ez daukagu bie serbitzu osoa egiterik. Ala ere ortan ibiltzen gera geiegitan, biekikoa egin nairik: Jainkoari otoitz egin eta aldi berean dirutik eta diruarentzat bizi. Zenbat onelako, gure gizartean! Zu ta ni ere kutsaturik ez ba’geunde, gaitz-erdi!

Gaurko munduak eskeintzen dizkigun bideak utzirik, jokabide berriak dauzkagu artu bearrak, Jesus’en aukera bera egiñez: Jainkoa lenengo, guretzat maitasuna ta askatasun-bidea zaiguna.

Eta aldi berean, Jainkoaren seme-alaba diran gure seni-deentzat, maitasuna, eta ez itzez bakarrik: lagunduz, on egiñez, eta daukagunetik oparo emanaz, gure diruak ere beartsuagoen serbitzuan jarritz. Ez dezakegu aukera oberik egin, ez aientzat mesedegarriagorik eta ez guretzat aberasgarriagorik.

## Aberats eta beartsu, betiko?

*Lazaro izeneko eskalea, zauriz josia.  
Lk 16, 19-31*

“Bazan gizon aberats bat, purpura ta liñu fiñez jazten zana, eta egunoro otordu ederrak egiten zituana...” Bizitzeko, beartzkoa zaigu jatea, eta bizitzeko jan bear dugu. Aberats ura bere sendi ta lagunekin, jateko bizi zala dirudi, ez bestetarako.

“Bazan eskale bat, Lazaro izenekoa; aberatsaren etxe-atarian egoten zan etzanda, zauriz josia. Aberatsaren maitik erortzen ziranogi-apurrak nai zituan jateko, baiña ez zizkion ematen iñork...” Orra eskalea, bizitzeko bear zuan janik ere gabe.

Norbait ortaraiño itsutzea, eziñezkoa irudituko zaigu bear ba’da. Baiña ez da bakarra, ortaraiño ta geiago ere itsutzen dana. Begiak lausotu, biotzak gogortu ta adimena illundu egiten ditu aberastasunak. Zenbat-eta aberatsago, orduan-eta itsuago: beraiek aberats eta besteak beartsu izateak, beti orrela bear dutela uste dute. Ain ongi dijoakienez, nola ez dute uste izango?

Baiña aberastasunak –dauzkanak dauzkala– ez dira geiegi-kerietan erretzeko, ez dira ezta nai duanak nai duana egiteko ere; ez bai-ditu iñork bere-bereak, ongi ta neurri egokian era-

biltzeko “bestek utziak” ditu baizik, edozein aberats eta dirudun dalarik ere.

Beti izan dira –eta izango ere bai– diru ta aberastasun geiegi berenganatu dituztenak, eta geiegikeriak egingo dituztenak. Eta aldi berean, zori txarrez, beti izango dira gutxiegi goseak ilko dituanak. Baiña ori ez da, orrela bear dualako. Guztien Egillearen asmoak oso bestelakoak dira: neurri egokian guztiengana irixteko asmoz jarriak ditu ondasunak.

Zenbat aldiz, aberatsak eta ez ain aberatsak ere bai, beren kideko diran giza-senide beartsuentzat errukirik gabe, eta bitartean, zakurrak berak errukitsuago: “zakurrak joaten zitzaizkion eta zauriak milizkatzen zizkieten”, Lazaro beartsuari. Geiegizkoa? Galdetu Jesus’i. Arek esana da. Zerbaitegatik!

Gaur bertan ere zenbat gizonezko ta emakumezko, dirutza aundiak erretzen dituztenak, beren zakurrak zaintzen eta goxatzen! Dirutza izugarriak, dotorezi ta lujotan, eta aldamenean zaar, gazte ta umeak gosez iltzen... Zakurrentzat baiño umeentzat eta gizon-emakumeentzat ardura gutxiago dute zenbait zakurzalek.

Zuk eta nik ere ez ote ditugu gauzak betiko orrela nai? Dauzkagun gauzatxoak osorik guretzako, eta geiagoren inbiritan bizi geran bitarteran, gu baiño askoz beartsuagoak eta errukarriagoak, ez al ditugu aazten, baztertzen? Ezin ukatu, Ebanjelioko aberats arekin antzekoago generala, Lazaro beartsuarekin baiño.

Emen senide beartsuak “ikusten” ez dituztenek, gero Aita ona bere zorionean ikusterik ez dute izango: “*Leen ondasunak naikoa, geiegiz gaiñezka, orain oiñazea...*”

## Gure sinismena geitu, Jauna!

*Mostaza-azia aiñako sinismena  
ba'zenute... Lk 17, 5-10*

Oraindik urte asko ez dirala, “euskaldun fededun” esan oi genuan danok; eta benetako euskaldun jator izateko, kristau fededun izatea bear-bearrezko zala uste genuan. Asko aldatu dira gauzak eta orain or dabilta, sinistun ez dana, euskaldunago dala esanez, sinisgabeago-ta euskaldunago ba'giña bezala.

Zenbaiti buruan auxe sartu diete: Sinistea utzita, Jainkoa ukatuz edo ez dala Jainkorik esanez, askeago edo libreago izango dirala... Baiña ori ez da orrela. Izan ere, Jesus ez al da Jainko askatzaillea? Bera ez al da, gure askatzaille danez, gure askatasun eta nortasunaren babeslerik ziurrena?

Zenbat eta zenbat kristau ari diran mundu zabalean –beren sinistreak eraginda– askatasun-giroa egiten eta askatasunik ez dutenei laguntzen eta serbitzu egiten askatasun-bidean! Or ditugu misiolariak eta beste kristau ekintzaille asko.



Sinistea utzirik eta Jainkoarik ez dala esanez, beren buruen jabeago al dira? Gizatasun geiago azaltzen al dute beren ekintzetan? Jainkoaren babesik ez daukanak, oso nekez aurkituko ditu beste gizakien nortasunari ta askatasunari benetako begirunea izateko bear dituan ezaguera argia, baretasuna ta barru-indarra.

“*Gure sinismena geitu guri, Jauna!*” eskatu zioten Apostoluek Jesus’i. Elkarri sinistea, elkarrengan sinismena izatea, guztiz bearrezkoa zaigu; bestela ez daukagu gizartean bizitzetik, babesa bear bai-dugu besteengandik, elkarren babesa.

Era berean, gaitzaren eta okerraren aurrean, eta eriotzaren aurrez-aurre jartzean, gure kezka ta larrietan, babesa bear dugu; gure zalantza ta illunpeetan, egiaren argia bear. Eta Jainkoagan sinistea da gure zalantza ta bildurrentzat argia; sinistea da indarra gure aultasunarentzat.

Sinistea utzi egin du jendeak, Jainkoa baztertu egin dute gaur askok. Baiña orrela, egizaleago al dira, zintzoago ta jatorrago al dira? Elkarrentzat eta beartsuentzat, serbitzari ta laguntzaille obeak al dira? Ez itzez bakarrik. Egitez ere bai?

Kristau fededun geranon esku dago, Jainkoaren aitorten garbia, egokia egitea. Gure sinistearen agerpen zintzo ta sinisgarria egitea ere gure esku dago. Baiña sinisgarri al gera besteentzat?

Sinistunok alai, pozik, laguntzaille ta serbitzari leial, ongi-ile ta barkatzaille, elkarren maitale agertzen ba’gera, orduan ikusiko dute ta sinistuko argi ta garbi, gure sinistek zerbait onerako balio duala. Bestela, osoko zintzotasun ori, eziñezkoa dala usteko dute. Orregatik eta beti, “*Gure sinistea geitu, Jauna!*”

## Esker txarra ta esker ona

*Ez al dira amarrak garbitu? Non dira besteak? Lk 17, 11-19*

Besteak gurekin eskertsu agertzea, pozgarri zaigu; besteen esker ona, guztiz atsegiña da guretzat. Baiña gu besteentzat ez al gera geiegitan esker txarreko izaten? Guretzat nai duguna, bai zailla dala askotan besteei opa izatea! Esker ona eskatu, eta esker txarra opa kidekoei..., okerreko jokabidea noski.

Gure gizartean, gure pentsakera ta oituretan, sinistean eta bizikeran, aldaketa aundiak gertatu dira urte gutxiren buruan. Eta giro ontan, batzuek leengoa ta berena bakarrik daukate ontzat; beste guztia, oraingoa bere aldaketa ugariz jantzita, ez dute ontzat artzen; geiago oraindik: dana kaltegarri ta okertzat, dana txartzat jotzen dute. Larri, gozorik gabe ta beren barruan erreta bizi dira urteetan aurrera doazen zenbait.

Leengorik ezagutu ez duten gazteak, berriz, oraingo gauza ta aldaketaz zearo itsuturik daude. Gurasoena, zaarragoena, urte batzuz leenagokoena, atzeratutzat eta txartzat jota, ez dute

ezagutu ere nai. Aztertu gabe borrokatzen dituzte leengoen gauzak eta oiturak, eta ez diete ezer onik aurkitzen ezertan ere.

Besteak beste, ortatik sortzen zaizkie gazteei beren illuntasuna, pozik eza, besteekiko aserrea, beren buruekin aserretzea ta txartzea... Eta bitartean, bakarka ta guztia bakoitzak asmatu ta sortuz, ez daukagu bizitzerik. Bizia ez-ezik aurrerapena ta beste gauzarik onenak, aurrekoengandik artuak ditugunez, esker ona zor diegu. Eta sendatu egingo ginduzke esker onak, besteekiko garraztasun eta aserretik sendatu ere.

*“Ez al da atzerritar arrotz au besterik, Jainkoa goraltzeko?”* Amarretatik bakarra agertu zan esker oneko. Gaur ere ez al da berdintsu gertatzen? Larru-azala garbi daukagu ta osasuntsu, baiña biotzeraiño sarturik ez al dago gerekoikeriaren legenarra? *“Jesus, Maisu, erruki zakizkigu!”*

Biotza bear dugu garbi, eta ez errea ta txartua; biotza bear dugu ona, eta ez arrizkoa, gizarte-borrokan gogortua. Orduan izango giñake esker onekoak gurasoekin eta aurrekoekin, esker onekoak Eliza'rekin, eskertsuak kideekin eta ingurukoekin.

Oso bestelakoa da gaurko giroa, joera indartsu bi auen artean: dana indarkeria ta borroka batetik, eta dana irabazia ta etekiña bestetik. Eta giro ontan bai zailla dala, gauzak utsean egitea, nork bere gogoz eta opari egitea, duan, saririk eta ordaiñik eskatu gabe, besteren onerako, on egitea beste asmorik gabe...

Dana utsean eta guganako maitasunez egin duan Jainkoarekin eta bere Seme Jesus'ekin, izan gaitezen esker onekoak, doai ta ondasun guztien iturri ta emaille ditugunez. Onela bai erraztuko lirakeala gure bizitzak eta gozatuko elkarrekiko artu-emanak.

## Otoitza, zertarako?

*Beti egin bear dugula otoitz,  
eta ez etsi. Lk 18, 1-18*

Orixe da ainbeste ta ainbestek egiten duten galdera: Zertarako balio du otoitzak? Etekiña, emaitza, irabazia, eta azkeanean dirua: oiek dira gaurko munduan neurri nagusiak. Eta gauza oiek lortzeko balio duten lanak eta ekintzak bakarrik dira onak; bestelakoak, balio ez dutenez gero, alperrikakoak omen dira...

Eta jakiña danez, otoitzak ez du ortarako baliorik: ez irabazirik eta ez aberastasunik, ez aginte-indarririk eta ez dirurik ez digu emango otoitzak. Baiña ala ere alperrikakoa ote da? Ez eta ez! Baliotsua da baizik, Nazaretarraren eskolan beintzat.

Senar-emazteen leialtasuna, seme-alaben jatortasuna, poza, adiskidetasuna, soiñu alai ta baregarriak entzutea, eguzkiaren sarrera gorrixkaren zoragarria, umetxoen irriparrea... ez dira irabazia ematen digutenak, eta ez dira diruz neurtzeko ta eros-

tekoak. Ala ere nork esango du, baliorik ez dutela? Gauza oiek gabe, nola eratu gizarte-bizitza jator eta atsegiñik?

Era berean, otoitza ere gizakion buru-biotzetarako gauza bizigarri ta aberasgarria da. Otoitz egitea, izan ere, izaki guztien gaiñeko Norbait aitortzea da; benetan aundia, gauza guztien asiera ta bukaera dan Norbaiti men eta agur egitea da.

Eta orrela, bi gauza aitortzen ditugu gure otoitzaz: gu geu ez gerala gure buruen jabe, gu ez gerala Jainko. Eta gure inguruko beste iñor ere ez da Jainko. Beraz, gu deusezak eta aulak gerala, baiña Jaungoikoak bere seme-alabatzat maite gaituala, bereziki zaintzeraiño maite ere. Ainbeste maite gaituanarekin esker onezko ta adiskidetasunezko izketak eta artu-emanak izatea, bidezkoa da.

Jainkoarekin dugun adiskidetasuna azaltzen eta indartzen digu otoitzak. Argia, poza, zailtasunetan iraupen-indarra ta illun-aldietan itxaropena ateratzen ditugu otoitzeko artu-emanetik gure bizitzaren aberasgarri.

Gure buruaz arrotzen ez digu utziko otoitzak, eta aldi berean ez digu utziko ezta gure deusezean larriturik itotzen ere. Gure neurri ta mugu estuak ongi ezagutuz, gure poza ta babe-sa Jainkoagan jartzen ditugu otoitzean ari geranean.

“*Egidazu zuzenbide!*” eskatzen zion alargun errukarriak bein eta berriz epailleari, zor zioten zuzentasuna lortu zuan arte eskatu ere. Iraupen auxe jartzen digu Jesus’ek eredutzat, guk ere otoitz egin dezagun iraupenez, etsitzeke ta aspergabe, zuzenekoa dana guri emateko gogotsu bai-daukagu Bera.

Otoitz egin dezagun gogo onez, pozik eta aspergabean, izan ere, “*Gau ta egun otoitzean ari zaizkion seme-alabei zuzenbide egingo die Jainkoak*”, emailerik onena bai-da bere seme-alabentzat.

### Norbera on eta besteak txar?

*Zergalaria, zintzotarik jetxi zan bere etxera. Lk 18, 9-14*

Pakerik ez dugu izango orrela. Zuzentasuna, egia, pakea ta berdintasuna nai ditugula, esan oi dugu guziok maiz. Baiña ortarako bidean, beti besteei eskatzen diegu zintzotasuna; besteei eskatzen diegu garbi jokatzeta. Besteei salatzen dizkiegu okerrak eta eskatzen diegu aldaketa

Iñork ez dugu, noski, zuri ta gezurti geranik entzun nai. Farisaitar azal-uts geranik ere ez dugu iñork entzun nai. Or gabiltza, izan ere, gure gizartea ta Eliza aldatu nairik; or gabiltza, bai, agintariak eta egiturak, ugazabak edo nagusiak eta langilleak aldatu daitezela eskatzen.

Jesus’en garaian baziran —eta ez gutxi!— beren buruak zintzotzat zeukatenak eta bitartean besteak txartzat baztertzen zituztenak. Gure gaurko mundu ontan ere, deadarrrik eta zaratarik aundienak ateratzen dituztenak, orrelakoak dira beren jokabideetan. Ikusi besterik ez dago.

Gidari edo buruzagiak, agintariak, politikariak bereziki, eta “erreboluzionario” omen diranak, nola agertzen dira? Beraiek bakarrik dute egia oso-osorik, beraiek zuzentasuna; beraiek dakite dana, beraiek dute arrazoa ta beraiek dute indarra. Beste guztiak, berriz, ondatzaille omen dira.

Eta gero zer gertatzen da? Indarrez eta gogorrean ezartzen dietela beste guztiei “beren” bidea, “erriaren onaren” izenean ezarri ere. Besteak aldatu-erazi nai, besteak ondu ta obetu-erazi nai, baiña berak ez dira aldatzen, bear bezain on ba’lira bezala.

Orrela jokatzuz, ordea, pakea ez-baiña etengabeko borroka sortzen da. Zuk eta nik ere ez al dugu ori bera egiten geiegitan? Bakoitzak ez al dugu, “*ni ez naiz beste oiek bezalakoa*” pentsatzen? Farisaitar azal-uts besterik ez gera askotan, bestelako itxurak egiten ba’ditugu ere.

“*Ene Jainko, erruki zakizkio pekatari oni!*” aitortu ta otoitz egin zuan zerga-biltzaille pekatariak. Eta Jesus’ek esaten digunez, “*pekataria zintzoturik etxeratu zan*”, au da, Jainkoarekin adiskideturik eta pakean noski.

Mundu osoan eta bereziki Asis’en Urrillaren 27’an pakearen aldeko otoitz-eguna da. An bilduko da Aita Santua beste erlijio-gidariekin batean otoitz egitera, munduarentzat pakea eskatzera. Guztien gaiñeko Norbait onaren aurrean makurtuko dira beren ezereza ta erruak ezaguturik, eta elkarren babesean guztientzat errukia ta pakerako laguntza eskatuko dituzte.

Gure otoitz-itzak aizeak eramango dizkigu, “oker nabil, arro ta pekatari naiz” aitortzen ez ba’dugu ziñez eta benetan, eta une berean aldatzeko asmo sendoa ta zuzeneko bidea artu ezik.

## Diruak ez du salbatzen

*Salbazioa sartu da gaur etxe ontan.*  
Lk 19, 1-10

“*Bai nekez sartuko dirala dirudunak edo aberatsak Jainkoaren erreinuan!*”, esan zuan Jesus’ek, eta ala galdetu zioten ikasleek: “*Nor salba daiteke orduan?*” Eta Jesus’en erantzuna: “*Gizakientzat eziñezkoa dana, Jainkoak badezake*”. Beste aitorten zorrotz au ere Berarena da: “*Zoritzarrekoak, zuek, aberatsok, arturik bai-duzute zuen poza*”. Gaur ba’letor, zer esango ote liguke?

Aberatsa zan Zakeo, zergak edo erri-diruak biltzen zituzten zergalarien burua. Lapur eta pekataritzat zeuzkaten zergalariak judutarren artean, eta areago aien burua. Eta ez zuten ukatzen ori zergalariak beraiek ere. Auekin artu-emanik ez zuten nai judutar “zintzoek”, beren buruak pekatuz ez kutsatzearen, ain bai-ziran “garbi” beren ustez eta esanetan.

Kristauok ere antzeko kezkarik izan dugu askotan, beste batzuek gu kutsatuko edo beren erara makurtuko gaituzten bildurrez. Gure sinismena ta zintzotasun-apurrak, guretzat bakanrik gordetzen saiatu izan gera, arrokeriaz baiño geiago, bildu-

rrez: gure kristautasunean ziurtasunik ez geneukanez, galtzeko bildur giñan.

Oso bestela jokatu zuan Jesus'ek, itz auek ederki adierazten digutenez: *“Ongi daudenek ez-baiña, gaixo daudenek bear dute sendagillea. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, pekatariet baizik”*. Orregatik joan zan, ardi galduaren billa bezala, Zakeo “pekatari” omen zana, zuzeneko bidera ekartzeko asmoz.

Zakeo ez zan pozik bizi bere aberastasun guztien artean ere; zerbaiten kezka eragin zion Jesus ezagutu nai izatera. Bere burua guztien parregarri jartzeko bildurrik gabe, zugaitz baten gaiñera igo zan. Txikia baiña buru argikoa ta ausarta zan noski, eta biotza ez zion asetzen diru-arteko bizitza arek.

*“Zakeo, jetxi laister, gaur zure etxean gelditu bear baitut”*, esanez joan zitzaion Jesus, jendearen gaizki-esaka guztien gaiñetik aurrera. Nork jakin lezazkean une artako itzak, begiratuak, jarrerak eta giro osoa! Aldaketa arrigarria gertatu bai-zan gizon aren buru-biotzetan eta bizitzako jokabidean.

Judutarrek asko uste gabeko jarrera ta itzak dira Zakeo'renak: *“Jauna, nere ondasunen erdiak, beartsuentzat ematen ditut; eta iñori bidegabek ezer kendu ba' diot, lau alako biurtuko diot”*. Itz oiek entzutean, onela aitortu zuan Jesus'ek egia: *“Salbazioa sartu da gaur etxe ontan”*.

Diruaren loturatik askatu zanean, orduan lortu zituan salbazioa ta poza, dirutzak ez bai-du salbatzen. Oparo emateak askatuko gaitu gu ere. Bestalde, Jesus'en antzera, sinismena ta maitasuna eramaten saiatu bear dugu; baiña batez ere, ez dauzkatenei eramaten. Kristau sinistunok ongi elkaturik eta Jesus'i otoitzez lotuta, geurok kutsatzeko bildurrik gabe jo bear dugu sinismen-giroa besteei eramatera.

## Bizien Jainkoa ta piztuera

*Ez da ildakoen Jainkoa, bizieta da baizik. Lk 20, 27-38*

Galdezka asi zitzaizkion Jesus'i *“saduzear batzuk, ildakoen piztuerarik edo berpizterik ez dala diotenak”*. Egia esateko, Liburu Santuetan bazeuden piztueraren aldeko aitopenak, baiña Jesus'en garaian eztabaidatua zan gai au: saduzearrek ezetz zioten bitartean, farisearrek baietz.

Eta gaur? Ildakoak berpiztuko al diran galdetu ezkerok, zer erantzungo liguke gaurko jendeak? Zer esaten dute kristau askok, batez ere gazteek? *“Ildakoak ez dira pizten eta gu ere ez gera berpiztuko”*, esango dizute askok –uste genezakean baiño geiagok– eta lasai geldituko dira. Jabetzen ote dira, zer dioten?

Orain urte gutxi dirala, zalantzarik ez zan gai ontan: guztiek sinisten zuten kristauen artean. Aldaketa aundia gertatu da: gaur oso erraz esaten dute *“ildakoen berpizterik ez dut sinisten”*. Bai al dakite zeri esaten dioten ezetz? Ez dakite; oso arin mintzo dira, baiña ezetz diote. Zertatik ote datorkie ez siniste ori?

Berpiztearen eta biziaren iturria, Jainkoa da, eta Jainkoa sinistu ezik, ez da arrizketa: nola onartuko dute piztuera? Bai-

ña arazorik sakonena, ontan dago: sinisterik eza edo ez sinis-  
tea, zearo zabaldu dala, udazkenean gripe kutsatzen dan antze-  
ra, oarkabeen eta zergatik danik pentsatu gabe.

Onela mintzo dira asko: "Ez dakit... ez da ageri... ez dut  
ikusten... Non dago, bada? Nolakoa da? Jainkoa, baldin ba'da  
ere, ez zait iruditzen... ez dut sinisten..." Sakonki pentsatzen  
saiatu danak, ez du orrela itzegiten. Galdera oien erantzun-bi-  
lla benetan aalegindu bear du, burutsuki jokatu nai duanak.

Eguneroko jan-edan, jolas eta lan, atsedean eta gozamen...  
ori guztia biziki irrikatzen du jendeak. Baiña gauza oiek baiño  
goragoko maillakoak, izkutukoak, espirituari edo gogoari da-  
gozkionak, erlijio-kutsukoak, baztertzeko giroa nagusitu da.  
Aurkako borrokarik ez dute egingo, baiña utzi, aaztu, zokora-  
tu...

Ontan erantzukizun aundia dugu kristau sinistedunok. Gure  
bizitzan gerekoi, arro, diru-zale, aserrekor eta illun agertzen  
geraneko orde, kristau garbi, alai, ongille ikusiko ta aurkitu-  
ko ba'ginduzte, ikusiko lukete orduan sinistearen balioa. Bai-  
ña... zer-nolako ikusten gaituzte?

Ausnar ditzagun Jesus ber-piztuaren itzak: "*Jainkoa ez da  
ildakoen Jainko. Bizien Jainkoa da, Arengan bizirik bai-dau-  
de guztiak*". Bera da gure oraingo bizitzari zentzua ematen eta  
argi egiten diona. Bestela, bai motza ta illuna mundu-aldiko  
bizitza!

"*Bizien Jainkoa*" benetan sinisten ba'dugu, erraz sinistuko  
dugu Jesus ziurki piztu zala, eta ondorioz, sinisgarriago izan-  
go zaigu gure piztuera ere. Bizien iturri dan Jainkoak, bade-  
zake guri piztuera ta betiko bizia ematea."Sinistu nai dut, Jau-  
na. Zuk argitu ta sakondu nere sinismena!"

## Saiatu ta iraun!

*Zuen iraupenez, onik aterako duzute  
zuen bizia. Lk 21, 5-19*

Orain du azkena eliz-urteak, Jesus'en bizitza igandez-igan-  
de gogoratu ta ospatu ondoren. Eta Eliza'k, gure biziaren az-  
kena ta munduaren bukaera gogoraziz, kontuak aurrez ongi  
aterata jokatzera dei egiten digu kristauoi, eta entzun nai dio-  
nari.

"Azkena noiz izango da?", auxe da gizaki burutsua kezka-  
razten duan galdera bat, sakonena ez ba'da ere, larriena bai  
agian. Izan ere gure lanez egindako eliza bikaiñak eta beste  
etxeak, tresnak eta aurrerapenak, garaipenak eta agintaritzak,  
baita gure gorputz-bizitza bera ere, guztiak eroriko dira ta de-  
segingo.

Azkena noiz izango dugunik, ez dakigu, baiña azkena eto-  
rriko dala gure bizitzarentzat eta gure gauzentzat, ziur gaude  
zalantzarik gabe. Ori ez dago ukatzerik. Eta begien aurreko

gauzak eta esku-arteak, galduko diranez gero, zer egin?  
“Lanik egin gabe, berrikeran ibilliko ote gera?”

Baiña ez gaude bakarrik, onela mintzo bai-zaigu Jesus: “Ez ikaratu!... Nik emango dizkizuet izkuntza ta jakinduria, eta zuen aurka ezer ezin egin aal izango dute zuen etsai guztiek”. Eta nor izan dezakegu babesle ziurragoa ta ohea?

Jainkoa ezik, beste gauza guztiak galkor eta igeskor dira; azkenean, baita adiskide ta senitartekoak ere galduko zaizkigu, edo uts egingo digute. Ez al digute askotan uts egin? Guk geurok ere ez al diegu besteei bein baiño geiagotan kalte egin, gutxienez ere uts egin? Jesus bakarrik dugu utsik egingo ez diguna, Jainkoaren ziurtasun betea Berekin bai-dauka.

Galduko ez diran eta inork desegingo ez dituan gauzak, asko dira ta gure esku daukagu. Ona emen batzuk: sinistea, otoitza, barkatzea, on egitea, besteei poz ematea, laguntza, maitasun-egintzak... Onelako ondasunak ez dizkigu sitsak jango ta ez dizkigu inolako lapurrek kendu aal izango: betirakoak ditugu.

Onelakoak ugaritu bear ditugu; onelako egintzak dira betirako aberastasun. Auek geitzen saiatu bear dugu etsi gabe ta iraupentsu, izan ere, “zuen iraupenez, onik aterako duzute zuen bizia”, itz eman bai-digu Jesus’ek.

“Gure buruko ille bat ere galtzen utziko ez digun Aitak” ez digu sekulan uts egingo. Sinismen sendoz eta itxaropen osoz zeruko Aitari gogo-biotzez lotuta bizi bear dugu. Eta zailtasun eta eraso guztien artean ere, Aitari sinistuz eta Aren seme-alabei on egiñez irauten ba’dugu, gurea da garaipena ziur baiño ziurrago, gurea da betiko saria. Iraupenak salbatuko gaitu.

## Kristo, Gurutzetik da Errege

*Nere Erregetza ez da mundu ontakoa.  
Lk 23, 35-43*

Gure elizetan “Kristo gure Errege!” abesten dugunean, nolako irudia ote daukagu buruan? Gudari aundi ta agintari nagusi ba’litz bezala, dotore ta apain jantzia, bere nagusitasuna guztien gaiñetik daukana, garai bateko erregeen itxura be-rean...?

Izan ere orrelako irudiak ikusi izan ditugu elizetan, enparentzetan eta mendi-gaillurretan. Eta guztion gaiñetik dagoan norbait aaltsua dala uste izango dugu bear ba’da; nundu osoan pakea ta lasaitasuna jar ditzakean norbait dala irudituko zaigu agian. Ain aaltsua danez, pake osoa berak ezarriko duana...

Orrelako irudia edo ustea daukagun bitartean, abestiak eta elizkizun bikaiñak eskeiñiko dizkiogu; bear ba’da eliz-bira edo prozesio galantak ere bai. Baiña gure biotzik eta bizitzarik ez dugu aldatuko, ez dugu berrituko. Alderantziz baizik: gure joera ta oituren babesletzat artuko dugu zenbaitetan; edo beintzat ortarako arriskua daukagu.

Beste zenbaitek, berriz, Jesus beartsuen maitale zala-ta, beren erara ulertzen dute ta beren aldera artzen. Badira gaur an eta emen, gudaritzat, iraultzaille borrokaritzat artzen dutenak, armen indarrezko "erreboluzionario" bat izan ba'litz bezala, edo ustean. Orrela zuritu nai dituzte beren indar-ekintzak.

Uste ori dutenek ere besteak aldatu nai dituzte, besteak baidauzkate txartzat. Baiña Jesus'i dagokionez, okerreko irudia baldin ba'daukate, ez dira biotzez berrituko, ez dira bizieraz aldatuko. Besteak aldatzera ta obetzera jo aurretik, bakoitzak geure buru-biotzak berritzeko esan bai-zigun Arek.

Ez da, beraz, orrelakoa gure Errege zerutarra. Ez du nai, ez iñor menperatu ta zapaltzerik, ez iñor iltzerik; gaitzik ere ez dio iñori egin nai. Ain zuzen ere, galduak billatzera ta pekataria on-bideratzera etorri bai-zan. Besteek zapaldu ta baztertuak jasotzera etorri zan, eta ortarako jetxi zan Gurutzeko eriotz lotsagarria jasateraño. Nork uste zezakean orrelakorik?

Lotsa ta oiñazea, zigorra ta eriotza, Berak bere gain artu zitan eta ez beste iñori ezarri; eta oien bidez eldu zan Piztuera zorionsura. Aberastasunez, armen indarrez eta besteak zapalduz bera gora igotzetik ez-baiña, Gurutzetik dei egiten digu; bai, Gurutzeko apaltasunetik dei egiten digu Berari jarraitzera ta Beraren antzeko izatera, aurrena apaltasunean eta gero betiko zorionean, orain eta gero Berarekin batera.

Eta Gurutzetik da Errege, gaiztakeria ta okerrak zapalduz, eta maitasunezko bere Erregetza garbi ta argitsua zabalduz. Lapur onak bezala, esan dezaiogun guk ere: "*Oroi zaitez nitaz, Jauna, zure erreinura irixtean!*" gu ere Berekin ar gaitzan betiko.

## JAIK

Kandelario eguna: Otsailak 2 .....	385
Jose Donea, Epailak 19 .....	387
Gorputz-eguna: Jesus'en Gorputz-Odolen eguna.....	391
Padua'ko Antonio Donea, Ekainillak 13.....	393
Joan Bataiatzaille Donea, Ekainillak 24.....	397
Petro ta Paulo Doneak, Ekainillak 29.....	399
Loiola'ko Inazio Donea, Uztailak 31 .....	401
Maria'ren Jasokundea, Dagonillak 15.....	405
Gurutze Santu eguna, Irailak 14.....	409
Erkizia'tar Domingo Donea, Irailak 28.....	411
Santu Guztien eguna, Azillak 1 .....	415
Letran'go Eliza Sagaratzea, Azillak 9 .....	419
Maria Sortzez Garbia, Gabonillak 8.....	421



## Kandelak eta argia

*Ikusi dute nere begiek... atzerriak  
argitzeko argia. Lk 2, 22-40*

Egun alai ta bitxia izan da beti “Kandelario” eguna euskaldunon artean. Otsaillaren 2’an elizan bedeinkatu kandelak eta gero etxera eraman oi zituzten etxeoandreek. Orain ere bai. Eta kandela bedeinkatuak toki berezian jaso oi zituzten gure etxeetan, bereziki baserrietan.

Bear aundiren bat zanean, naiz larri-aldiren bat, orduan jaieratsu pizten zuten etxeko guztien aurrean. Eta ekaitzen aurka bakarrik ez; giaxo-aldi ta beste estuasunetan ere bai. Gauza agurgarria zan kandela bedeinkatua. Zenbat otoitz eder, itxaropenez beteak, kandela piztuta zutelarik!

Gaur ere gauza asko gogorazi bear lizkiguke kandela bedeinkatuak. Izkutuko indarrik bere barruan dualako ez; kandela berak ez bai-du aalmenik, ezta bedeinkapen guztiz jantzita ere. Une guztietan gurekin daukagun Jainkoa da aalmen guztiak dituana. Ori gogorazi bear digu kandela bedeinkatuak.

Orren sustraia, berriz, Jesus Aurra Jerusalem'go eliza nagusira eramán eta an aurkeztu zuteneko ospakizunetik dator. Izan ere, jaio ta berrogeigarren egunean elizan aurkezturik, Jainkoari eskeiñi zioten Maria ta Jose'k, lenengo semeari zegokionez legeak agindua betetzeko. Zer burutazio ta gogoeta ote zerabilzkiten une artan guraso berri aiek?

Iñork ezagutu zituanik ez zuten uste, eta orra or Simeon izeneko aitona zintzo ta jainkozalea urbiltzen zaiela; bere besoetan artu Jesus Aurra, eta Espirituak argituta, onela esan zuala: *"Ikusi dute nere begiek, Jauna, Zugandik salbamera, erri guztien aurrean jarri duzuna: Atzerriak argitzeko argia..."*

Atzerriak eta errialde guztiak argitzera etorri zan Argia, ain zuzen ere Jesus da, Simeon'en aoz Espirituak aitortu zuanez. Ortatik dator egun ontako elizkizunean kandela piztuak eskue-tan ditugula egitea elizkizunaren zati bat.

Jesus'en antzera, egian, zuzenbidean, elkar-laguntzan, maitasunean zintzo saiatzen dana, ez dabil illunpetan: argitan dabil baizik, bera ere argitsu kanpo ta barruz.

Gezurretan, saldukerian, lapurretan, lizunkerian, "gaueko lanetan" dabillena, beti gauez dabil, beti illunpean da bere bizi-giroa. Eta bildur dio argiari. Jesus'en argiari begiak itxita dabil. Ai! illunpeak gudan itzalik egingo ez ba'lu!

Kandela bedeinkatuaren argiak, Jesus gogorazi bear digu, aurrena elizkizunean eta gero etxean, Bera bai-da gure biotzen argi: sinismenaren argia ta itxaropenaren poza ematen bai-dizkigu. Ibil gaitezen argiaren billa; eta Berak oparo argiturik, ibil gaitezen gure alaitasunaz besteei argi egiten.

## Nolako senar eta aita?

*Aren senar Jose, gizon zintzoa zan.*  
*Mt 1, 16-24*

Itun Berria irakurtzean, Jose Donea askotan aipatzen dutenik ez dugu aurkituko; eta izendatzen dutenean, beste norbait loturik edo beste norbaiten serbitzuan, au da: Jesus'en aita-ordekoa, Maria'ren senarra... Baiña nor zan bera, besterentzako norbait?

Egia esateko, alaxe izan zan Jose bere bizitzan, besterentzat jarria ta besterentzat bizi izan zana: Maria ta Jesus'entzat beti ta osoro, aien senar eta aita, aien lagun, adiskide, babes, gidari, ogi-irabazle, zaindari... Eta ortatik datorkio bere ospe guztia, bere eginkizuna zintzo ta zuzen betetzetik.

Jatorri onekoa, Dabid'en ondorengo zanez, baiña ez aberastasun, ez jakinduria, ez aginte ta ez ospe; eguneroko bere esku-lanaren jarduketa latzetik ogia atera zuan erri-arotz apala zan. Gauza berezirik, zer igertzen ote zioten nazaretarrek Jo-

se'ri? Iñolako ezer dizdiratsurik ez aiek, biotza dakusan Jainkoak bai, ordea.

Orregatik, Ebanjelioan goralpen au ageri da, soilla bezain sakon eta bikaiña: "*Aren senar Jose'k, gizon zintzoa bai-zan, ez zuan bere emaztea salatu nai izan...*" Gizon zintzoa, besteak gaizto jotzen ez zituana. Maria, bere emaztetzat itz-ema-na, ulertzen ez zuan eran aurdun aurkitu arren, ez zuan txartzat jo ta ez salatu, gizasemeek gai ontan izaten duten arrokeriaren gaiñetik.

Aingeruaren bidez Jaunak arazo astuna argitu zionean, zorionez bete zitzaion barrua. Aurrerakoan, gauzak ulertu ez arren, bere uste osoa Jainkoagan jarri zuan, zetorrena zetorrela. Eta bere "emaztea" arrigarri ta maitagarri ikusten asi zan, leen baiño areago maitatuz. Biak elkarrekin, berriz, "Etortze-koa" noiz begiz ikusiko, zai ta zai jarri ziran irrika bizian bat eginda.

Bata Jainko-Semea ta bestea Jainkoaren Ama, giza-neurriz gorako bi aien ondoan, Jose bera gizaki uts zan, baiña izaki ain maitagarri ziranekin maitasun berean elkartuta, zorionsu zan gaiñezka. Iñor ez da izan eguzkipean, mailla ortako zoriona izan duanik.

Eriotz onerako zaindaritzat otoitz egin izan diote kristau askok eta arrazoi osoz. Ain zuzen, bere eriotz-orduan Jesus eta Maria izan bai-zituan laguntzaille, une larri artan argi egiten eta betiko zorionerako sarrera ziurra ematen. Gurutzean lapur onari "*gaur nerekin izango zera zoriondegian*" esan zionak, ziurtasun osoa emango zion, Aitak bere betiko zeru ederrean artuko zuala.

Azken-une nagusirako laguntzaille ta Jesus'en aurrean bi-tarteko izan dezagun, otoitz egitea, oso ederki dago. Baiña aurrena bizi geran bitartean artu bear dugu ispillu ta zaindaritzat. Jose, izan ere, sendi-bizitzako jarraibide dugu, baita senar eta aita diranen eredu ere. Emaztea ta sendi osoa pozten, pakean zorionsu egiten, indar guztiz saiatu zan, ortantxe aurkituz bere zoriona.

Buruaste ta atsekabeak ugari izan ba'zitian bere beartsu-bizitza latzean, gauzarik onenak nai zitualako Jesus eta Maria'rentzat, iruen elkar-maitasunak legundu zien beren bizitza. Besteak poztuz bera zorionsu izateko, ez zuan ez aberastasun, ez aunditasun, ez jan-edan garesti, ez "seksu-askatasun" eta antzekorik bear izan, gaur gizon-emakumeek irrikatzen dituzten bezala, oietan ez bai-dago maitasunik. Eta Jose'k maitasuna zuan bere aberastasun.

Jose Donea: Maria'rekin otoitz egiozu Jesus gure maitaleari, zure antzera zintzo izan gaitezen Aitaganako sinismenean, eta zintzo joka dezagun elkarren serbitzuan eta elkarri on egiten.

## Ematen ba'duzu, danentzat badago

*Ogi ontatik jaten duana, beti  
biziko da. Jn 6, 51-59*

Korputz-eguna edo mugaz Iparraldera duten "Festa-Berri", egun aundi, ospetsu ta oso berezia izan da kristau euskaldunentzat. Ostegun batean oso-osoko jai egiñez ospatu izan dugu oraintsu arte, Jesus'en Gorputz-Odolen eguna. Ontaz aurrerakoan, -1990'gn urtetik asita- ostegunez ez-baiña, Igandez izango dugu ospakizun ori. Aste-eguneko jaia kentze au, axaleko aldaketa besterik ez da. Leen bezain gartsu bizi bear dugu kristauok ospakizuna bera.

Jesus'en Gorputz-Odolen inguru, garrantzizkoena ez da ageriko jaia bere abesti alaiz, eta lore ta soiñuz apaindutako elizkizun ederrez. Gauza atsegiña ta gogoangarria gertatu izan zaigu orrelako Meza, gure biotzak pozez dardaratu-eraziz. Baiña ori ez da naikoa, biotza-ren gaiñeko axalean gertatzen bai-da ikutu edo kilima alai ori.

Askoz barnerago ta sakonago burutu nai du Jesus'ek bere lana Meza bakoitzaren bitartez gutako bakoitzarengan, bereziki egun ontan. Sinismenaren maillako ospakizuna danez, ori oso sakona da.

*"Artu ta jan: Au nere Gorputza da. Artu ta edan: Au nere Odolaren kaliza da"*. Askotan entzun ditugun itz auek, egia biurtu zituan

Jesus'ek, eta Aren aginduz eta Aren aalmenari esker, egi-egia dira gure aldareetako Mezetan. Bai al dakigu, ogi-ardoan itxurapean Jesus ber-beraren billa etortzen? Lortzen ote dugu Jesus piztua bizi-bizirik aurkitzen? Ontarako da Meza.

Eta Gorputz-Odol berak artzeak, batetik Jesus'ekin egiaz elkartzen gaitu, baiña bestetik kristauok ere, -Jesus'en jarraitzaile geranok ere- benetan elkartu bear gaitu gure artean. Meza bakoitzean, Jauna artzen dugun bakoitzean, lortzen al dugu Jesus'ekin elkartuago izatea? Lortzen al dugu kristauok elkarrekin lotuago izatea, elkarren laguntzaileago biurtzea?

Goibel daudenak, bizi-pozik gabeak, lanik gabekoak, gaitxoak eta elbarriak, zaartzaroz aulduak, aserreak biotzean zaurituak, ez-ikasiak, beartsuak, gosearen gosez il-zorian daudenak, ainbeste milloika dira... Zer egiten dugu oien alde?

Meza entzun, Jauna artu, eta ala ere leen bezalaxe, gerekoi ta ajolakabe jarraitzen al dugu? Gure-guretik, zer ematen dugu? Benetan emango ba'genu, guztientzat naikoa izango litzake.

Bearrezko duten aiña diru, ondasun, jateko, poz eta zorion izango luteke guztiek, eman ere guztiok emango ba'genu bear aiña.

Zer ematen dugu, ordea? Jesus'ek guztia eman zuan bitartean, eta Aren jarraitzaile sutsuek ere bai, zer ematen dut nik? Zuk zer ematen duzu? "Karitas-eguna" dala-ta, bi txanpon eman, eta gauza aundia egin dugula iruditzen zaigu. Ez al da ala? Gure buruak iruzurtzea, engaiñatzea da ori, eta besterik ez.

Eukaristia edo Mezatan, Kristo'ren Gorputza artzen dugunok, ematen asi bear dugu: gero-ta geiago ematen. Lenengo, gure diruak eta gauzak ematen asi bear dugu; eta bereala baita gure lanak eta gure buruak ere, besteen serbitzuan eta besteen bizi-pozerako.

## Sinismen aundia

*Uzta ugaria da, baiña langilleak  
gutxi. Lk 10, 1-9*

Ezagunak dira Eskalerra osoan "Padua'ko San Antonio... Urkiola'ko San Antonio..." Ain ezaguna ez dalarik ere, oso maitea duzute emen "Errezil'ko San Antonio" bere ermitatxo zuri ta argian. Eta inguruetan ere bai. Begiratu besterik ez dago: orra zenbat lagun bildu zeraten gaur eliza betean eta atarian are geiago, zeruko laguntzak zuen Zaindari maiteari eskatzera.

Ongi ikasirik daukazute, noski, Antonio Donearen bizitzako gertaera ta zeatasun ugari. Ez ditugu, beraz, banaka bertutuko: nagusienak laburki aipatzea egingo dizuegu, gero ondorioren bat edo beste atera ditzagun gure bizitzarako.

Aspaldikoa dala esan bear, txantxetan ere orain ia 800 urte dirala jaio bai-zan. Jaio, berriz, Padua'n ez, "Padua'ko San Antonio" esatean alkaxe dirudian arren. Portugal'ko Lisboa'n jaio zan, Katedral bikaiñaren ondoko etxe batean. Antxe dago

etxe artako gela bat, Santua jaio zanekoa, bere gaiñean eliza eder bat egiñik daukala, jende askoren otoitz-leku atsegiña.

Baiña gero Italia'n bizi izan zan eta bereziki Padua'n; antxe dauka eliza bat guztiz dotorea berari eskeiñita. Orrela gertatu da Padua'ri loturik eta izenaren jabe.

Bera franziskotar zintzoa izan zan, jakintsu aundia ta sinismenez are aundiagoa. Sinismenez eta maitasunez, benetan aundi ta arrigarri izan zan. Ortan du meriturik jatorrena. Baiña kristauon artean, mirari aundiak egiten zitualako, iruditzen zaigu aundia. Ez da, ordea, orrela; alderantziz da baizik: mirariak egitea, ondoren bat besterik ez da; ain sinismen eta maitasun aundikoa zalako, Jaunak saritzat emandako aalmenez egin zituan mirariak.

Ziur asko, guk ez dugu miraririk egingo, baiña beste batzuek egin dituztenak gogoratzea, pozgarri gertatzen zaigu. Laburki esanda, ona emen batzuk: Itsaso aserretua baretzea; beste entzulerik inguratu ez zitzaion batean, itsaso aldera begira ekin omen zion itzaldiari, eta arraiak pillan agertu omen ziran entzuten bezala; gaixoak sendatzea, deabruak bidaltzxea, galdutako osasuna ta ondasunak ostera berriz aurkitzea; bere besoetan amairu orduz Jesus Aurra euki omen zuaneko zoriona...

Bada beste bat begirune aundiz esan oi dutena. Arako sinisgabe arek, alegia, Osti santuan Jauna benetan egon daitekeanik ez zuan sinisten; eziñezko gauza iruditzen zitzaion, jendeari onelatsu mintzatuz: "Izan ere begiek ikusten ez dutena, nola egon daiteke Ostian? Eta ain osti txikian, gaiñera?" Izketaratu zan Antonio Donea sinisgabe arekin eta azkenean ontarra etorri ziran: Korputz egunez kalez-kale erabiltzen genuanean bezala, Osti santua aurrean jarri, eta sinisgabearen abe-

rea, nola-edo-ala antxe belaunikatzen ba'zan, sinistuko zuala berak ere Antonio'k esana.

Otoitz sutsu ta sakona egin zuan Antonio doneak eta, bere uste osoa Jaunagan jarrita, an irten zan Osti santua artuta. Larritasun aundia nabari zan jendearen artean. Eta antxe aberea bat-batean belaunikatu egin omen zan eta gizona artatik asi sinisten: alaxe diote beintzat.

Guk, senideok, gure begiz ez dugu alako miraririk ikusiko. Eta ez daukagu bearrik ere, Jesus'ek onela esaten bai-digu: "*Zorionekoak ikusi gabe sinisten dutenak*". Jesus bera ikusi gabe ta miraririk ere ikusi gabe, guk benetan sinistu bear dugu. Baiña zer sinistu? Gurutzean il zuten Jesus ura bera, pizturik eta bizirik, gurekin daukagula, bai emen gure kristau-elkarte ontan, bai gure Mezatan ogi-ardoan itxurapean, eta bai gure lagun-urkoengan.

Sinismen bizia bear dugu, eta suari egurrak eusten dion antzera, otoitzak eutsiko dio bizirik gure sinismenari. Gure otoitzetan lenengo eskatu bearrekoa, sinismena bera da: geitu ta sakondu dezaigula, Bera egiaz eta benetan aurkitu aal izan dezagun.

Sinismen biziak eragin zion indar aundiz Antonio Doneari egite onak ugaritzera. Sinismen biziak lagunduko digu guri ere, Antonio otoizlari onari bezala, maitasunezko egiteak, barkapen eta adiskidetasun-egintzak, elkartasun-lanak, on egiteak, poz emateak eta aserre-gorrotoak gugandik kentzeko egiñaalak, gero-ta geiago egin ditzagun. Auek bai-dira siniste biziaren frutuak.

Guk, ordea, kristauok, mirariak nai genituzke, alperrik ordea. Guretzat zailena ta miraririk ongarriena, egiazko sinis-

men bizia eukitzea da; eta ori, gure esku daukagun miraria da. Baiña ain da aula gure sinismena, ain koloka ta balantzan dabil... ez dugu indarrrik ateratzen. Sinismena sendotzeko laguntza eskatu bear diogu Antonio Doneari beste ezer baiño leen.

Eta urrena beste gauza guztietarako babes: on egiñez ibiltzeko, elkar poztutzeko, gure etxe ta errian pakea jartzeko, Euskalerra ta mundua pakeratzeko, mundu-aldi ontako eragozpenak garaitzeko, eta betiko zoriona irixteko bear ditugun languntzak danoi iritxi dezaizkigula orain emen. Eta gero elkartu gaitzela betiko zeru ederrean Jesus'ekin Aitaren etxean zorionsu. Ala izan dadilla.

Joan Bataiatzaille Donea  
Ekainillak 24

## Basamortuko gizona

*Zer izango da aur au?*  
*Lk 1, 57-66. 80*

Joan Bataiatzaillea oso maitea izan dute kristauek aspalditik, eta euskaldunok ere maitasun berezia izan diogu antziñatik. Gogoratu besterik ez, zenbat eliza bikain eta ermita dauzkagun Euskalerra osoan berari eskeiñiak; eta Joan'en zenbat irudi eder dauden gure elizetan. Orain gutxiago ba'dira ere, zenbat euskaldun dira Joanes, Juan, Joan, Jon, era batera edo bestera, izen ori dutenak?

Gaitz eta txarrerako indar izkutuetatik babestu gaitzala eskatzeko, oitura bitxi ugari ditugu gure artean, eta zabalduena, bere egunaren bezperako sua. Erri guztietan eta baserri geienetan pillatzen dituzte errekiñak, aiek erretzeaz batera kutsu txarrak, eta sorgiñen eta gaiztozkoen kalteak erre ta kiskali ditzan suak.

Etxeko atreetan jartzen dituzten elorri ta lizar-adarrek ere, etxe ta etxe koentzat babes adierazten dute Joan Donearen laguntza zerutarrari esker.

Ori baiño sakonagora jota, nor dugu Joan eta zer ikas dezakegu beragandik? Etxe oneko seme zanez, garai artako atsegin-zaleen antzera bizi zitekean Jeriko'n, aberats-uri zoragarrian jolas eta gozamen

guztiz inguratuta. Baiña ez. Inguru aietan bizi izan zan, noski, eta ala ere bera basamortuko gizon, bakarti, Jainko-zale, otoitzlari gartsu, biziera latzeko gizon: izkutuan bizi izan zan, Jaungoikoa beste izketa-lagunik gabe urte askoz.

Azken-urteetan, ordea, sasoiko gazte ura, Igerle agertu zan, jendei mintzaldi sakonak egiñez, eta, nai zutenak, Jordan ibaian bataiatuz. “*Ezpata zorrotza ta gezi zorrotua bezala*” izan zan Joan’en itza, Herodes iltzaillearen bildurrik gabe esanez: “*Ezkontza-naasterik ez da zillegi*”. Osoko gizon izaki, itzez eta egitez dei egin zien guztiei biotzez berritzera, bizieraz aldatzera ta obetzera.

Beretzat ez zuan deus ere eskatu, beste baten serbitzuan bizi izan bai-zan: Jesus’i bidea prestatzera etorri zan eta Arengana eragin zien bere ikasle ta entzule guztiei. Basamortuko gizon, ez diruaren eta ez agintearen menpe, loturarik gabe, kemen aundiz egin zuan Egiaren eta argiaren aitorra, au da, Jesus’en aitorpena:

“*Ni baiño aaltsuago da, ondoren datorrena... Nik urez bataiatzen zaituztet: Arek urez eta Espirituaz bataiatuko zaituzte... Neri gutxitzea dagokit, eta Ari geitzea dagokio...*”

Jesus’enganako bide ta lagungarri izan zan jendeentzat, eta ez eragozpen. Gu, kristauok, zer ote gera, lagungarri ala eragozpen? Gure biziera ongillea ikusita, Kristo’gana jotzeko gogorik eta bultzadarik nabaitu-erazi ote diogu norbaiti?

Gerekoi ta eroso-zale geranok, griña, bildur eta irrika geiegik lotzen gaituzte, Jainkoa aurkitzeko bideak zailduz. Kristau askok naikoa nekez aurkitzen dute Jaungoikoa... Nola lagundu besteei?

“Joan Bataiatzaille donea, loturatik gabeko gizona, irudietan dotorezi gabe billutsik ikusten ziatuguna: Argi egiguzu, Jesus ona aurkitu dezagun gure argi ta gure salbamen!”

## Dana eman zuten Apostoluek

*Arri orren gaiñean eraikiko dut  
nere Eliza. Mt 16, 13-19*

Pedro Doneari jaiera ta eraspén aundiak izan dizkio Euskalerrri osoak antziñatik. Or dauzkagu eliza bikaiñak “giltzaduna” zaindari dutenak eta irudi ederrak ere bai ugari gure elizetan. Izen orren jabe ziran kristauak ere asko izan dira gure artean. Eta lan guztiak utzita, zeñen jai aundia egiten genion, nork ez daki? Jairik gabe ere zor diogu kristauok esker on beroa.

Mateo’reñ Ebanjelioan dauzkagun Jesus’en itz auek, ziñez sakonak dira, eta zorrotzak bezain pozgarriak: “*Bere bizia beretzat gordetzen duanak, galdu egingo du; eta bere bizia Nigmatik galtzen duanak, beretzat aurkituko du*”.

Ez da, izan ere, sinismen eta maitasun aundiagorik, batek bere bizia, sinisten eta maite duan aren alde ematea baiño. Bizia Gurutzean emanik, Piztueran aurkitu zuan benetako bizi betea Jesus’ek, eta bide bera erakusten digu guri ere.

Eta nazaretar Maisuari jarraituz, dana eman zuten Apostoluek ere azkeneko odol-tantoraiño. Orrela zabaldu zuten Jesus’en Berri



Ona, eta ez itez bakarrik: baita beren egitez, bizieraz, jokaeraz eta eriotzaz ere. Aiengandik etorri da guganaiño, aiek beren ondorengo bidez alde guztietara zabaldua, guk gaur dugun kristau-sinismena. Ez diegu, beraz, zor txikia.

Ez da guk asmatua, ez da or edo emen gure aurrekoek sortua, ez da jakintsuek orain aurkitua ere. “Apostolutarra” da kristau-sinismena, Apostoluek artu zutelako Jesus’engandik; aiek aalmen guztiz eta gartsuki bizi izan, zabaldu ta bizia emanez aitortu zutelako. Aiengana jo bear dugu gaur ere sinismen billa, ur garbiaren billa iturburura jotzen dugun era berean.

Bereziki Pedro dugu, ordea, mundu guztiko kristau-elkarte osoaren oiñarria, Jesus’ek alaxe izendatuta: “*Arria zera, eta arri orren gaiñean eraikiko dut nere Eliza*”. Ortatik dute Pedro’k eta onen ondorengo Aita Santuek eginbear bikoitz au: kristauak sinismenean sendotzea eta elkartasun estuan bildutzea.

Aita Santua –garaian garaikoa ta gaur Joan Paulo II’gna– ez dezakegu, beraz, beste edozein erri-agintari bezala ulertu ta eztabaidatu. Sinismen-giroan artu bear dugu, eta ortatik izan bear dizkiogu begirunea, itzala ta maitasuna, seme-alabek gurasoentzat izan oi dituzten antzera. Baiña beti sinismen-maillan jokatu.

Otoitzez laguntzeaz gaiñera, eskupeko berezia edo diru-laguntza ere emateko eguna dugu, Eliza osoko bearrik larrienera zabaldu ditzan Erroma’tik. Onela sendotuko dugu egokienik, kristau-seni-deekin eta aitarekin izan bear dugun elkartasuna. Pedro ta Paulo Doneek dana eman zuten bitartean, aien jarraitzaileok, zer emam oi dugu besteren onerako ta Eliza’ren laguntzarako? Zergatik ez ditugu eskeiñiko geuron buruak, zenbait eliz-lan egiteko?

## Aundienaren billa

*Nerekin etorri nai duanak...  
jarrai bezait. Lk 9, 18-26*

Santuen bizitzak benetan eredu ta jarraibide zaizkigu, arretaz aztertzen ba’ditugu. Ortarako jartzen ere ditu Eliza’k kristauon begien aurrean; baiña gure elizetako irudi ederrak bakarrik ez: Aien bizitzak jartzen dizkigu bereziki. Ainbeste eratakoak diranez, aukera ugaria da, guztiengandik zerbait ar dezagun.

Euskalerra txiki au, ain txikia danez, osorik maite bear dugu bertako seme-alabok, bertan diran gauza on guztiak aintzatzat artuz, ez bai-dira geiegi izango. Kristauok, berriz, bertako Santuak sakonki ezagutu bear ditugu, gartsuki maitatu aal izan ditzagun. Ez al dira, bada, bertako seme-alabarik leiñargienak?

Eta orra Santu euskaldun bat, lau mende ta erdiren joanean on aundia egin diona munduari; eztabaidagarri ta maitagarri, baiña beti arrigarri gertatu zaiona mundu orri bere zabalean. Zergatik

dan ez dakidan arren, euskaldun askok maiteegi ez dutena: ezagutu gabe, okerreko irudia daukatelako? Loiola'ko txiki aundia da, gure Santu eztabaidatu ori, Inazio Donea, alegia.

Egia esateko, Telletxea apaizari ez diogu gutxi zor euskaldunok gure buru-biotzetan okerreko irudia zuzenera ekartzeko bidean. Gu bezalaxe euskalduna, giro berean sortu ta azia, euskeraz mintzatua, gure buru-egitura ta gizakera ber-berak bizitza osoan berekin izan zituana bai-dugu ziur baiño ziurrago; eta berezitasun oien eragin aundia nabari zitzaion beti, aztertzaile sakonek garbi aurkitu dutenez.

Euskal-sendi ugari amairugarren aur ura, amarik gabe gelditu zan oso umetan; amabost urte besterik gabe, Gaztele-rriko aundizki-etxe batera eramán zuan aítak; eta an, aaide ziraneraz, etxekotzat arturik ezi zuten, ain juxtu ere aundizki-gi-roan. Baiña aiekin biziz, aberats-giroa baiño areago artu zuan eziera onekoen erabidea, eskale zarpa-jario zebillenean ere igertzen ziotena.

Urte aietatik nabari zaizkio jakiñeko zenbati jarrera. Bate-tik, erabakikor ageri zala, au da, erabakitzaille ta betetzaille. Esku garbiko ere bai bestetik, eta biotz aundiko, gudaldian oi diran arrapakiñak ez bai-zituan ikutu ere. Eta urrena geiagora-ko joera, aundiago ta goragokoen irrika, billaketa etengabea. Ez, ordea, giroak aundi-naia piztu ziolako bakarrik: sakona-goá zuan egarria.

Jarrera oiek berekin zitualarik ere, giroak eraginda, sinis-mena zertxobait oztutzeaz gaiñera, garaiko erru ta okerrei iges egitea eziñezko gertatu zitzaion. Aldi artako ibillerak benetan pekatu aundizat jotzen zituan gerora, onbiurtzea gertatu ondorenean. Eta jakin-min aundizgaldetu izan dute beti, Inazio aundia aipatzekoan, zer eta nolakoak ote ziran, bada, pekatu

latzak omen ziran aiek. Geienera ere zalantzak: emakumeren bat edo besteri lotu izana... seme-alabaren bai omen zualaz-koa... ziur jakiteke gelditu bear, ordea, argibide garbirik aurkitu ez dutenez.

Iruña'ko gudal-borrokan, ( napparren artekoan, bein geiagoz ere euskaldunen artekoan ) zauriturik gertatu zan loiolatar au-sarta, zanko edo berna-egur bat autsi bai-zion aurkarien jaurti-kiak eta bestea zauritu. Antxe asi zan austen Inazio'ren barru-ko amets aundien mundua. Loiola'ko bere jaiotetxera ekarri zuten, gaixo-aldi luzearen joanean, Jesus eta Santuen bizitzak irakurtzera jo zuan, beste irakurgairik ezean.

Irakurri aiñean, “gogoetan gelditzen zan noizik-beinka” eta bere buruari galdezka: “Zer izango ote litzake, Franzisko Doneak egin zuan au, eta Domingo Doneak egin zuan au, nik ere egingo ba'nu?” Eta urrena erantzun auek: “Domingo doneak au egin zuan; nik ere egin bear dut. Franzisko doneak au egin zuan, nik ere egin bear dut”. Eta alaxe, Jainkoaren deiak bate-tik, leengo bere bizitzako loturak bestetik, borroka latza jokatu zuten Inazio gaztearen barne-muiñetan; luzea ta biotz-urratzai-llea gaiñera.

Ez gutxi kostata, baiña Jainkoaren aldera makurtu zan loio-latar pentsatzaillearen erabakia. Orregatik dago idatzita jaiotetxean, eliza egiñiko gelan: “Iñigo emen biurtu zan Jainko-gana”. Bai ongi biurtu ere! Aurrerakoan etengabeko billaketa-ri ekin bai-zion egon-eziñik bizienean: Arantzazu, Monserrat, Manresa, Erroma, Jerusalem, Paris, Salamanca... osterá Erroma'n gelditu arte.

Joan-etorri ugari ta luzeak egin zituan gure ibiltari aundiak, baiña bere barruko billaketan joan zan urrutienik beti geiagoren eta zerbait obearen billa. Oiñez eta bakarrik, eskale beartsu

egiñik, apaltasun aundian, berak eskean bildutik eman ez  
egiazko beartsuei, galduen billa, umeei kristau-ikasbidea ira-  
katsiz... Auek bai ibillerak! Eta bere buruaren ukapenean eta  
laztasunean, barau ta zigorkadaz osasunari erasateraiño egin  
zuan aurrera.

Latz eta gogorra bere buruarentzat, besteentzat biotzbera ta  
xamur, guztientzat jarraibide biurtuta ageri zaigu bai jainko-  
zaletasunean eta otoitzean, baita egi-zaletasunean eta guztien  
serbitzu leialean ere. Iztun ez ugaria ta itz-jariorik gabea, bai-  
ña bai sarkorra bere itz gutxiz ere. Pentsatzen, aztertzen eta  
neurtzen zorrotza, orrela eratu zuan “Gogo-Jardunak” izeneko  
liburua, ainbeste gizon-emakume osoki Jainkoagana biur-  
erazteko bide egokia, itzak ere bat-banaka aukeratuz egiña,  
txit landua.

Ezertan ere ez zuten asetzen gauza txiki ta kaxkarrek. Guz-  
tia aundi nai zuan, bere burua bakarrik txiki, baiña Jainkoare-  
kin ain estu elkartuta, beti aundiagoen billa. Giro ortan eratu  
zuan bere sorkaria, “Jesus’ en Lagundia”, jesulagunen elkar-  
te, elburu nagusi au ezarrita: “Guztia, Jainkoaren aintzarik aun-  
dienerako”.

Gure gaurko mundu au ikusiko ba’lu, eta bere Euskal-  
erri au ere bai, gauza askoren eta beti geiagoren billa gabiltzala,  
aurkituko luke; baiña ez luke onartuko, gauza ugari bezain  
kaxkarren billaketan itsututzat joko ginduzkealako. Ez arra-  
zoirik gabe!

Gure zaindari zerutar orrek, otoitz egiozu gure alde Aita  
onari, zure antzera biotz-berrituta, gu ere gauza ta egintza  
obezen billa, beti on geiago egitearen billa, ibilli gaitezen as-  
pergabe.

## Maria’ren Jasokunde Dagonillak 15

### Ama zeruratua

*Pozaren pozez daukat nere barruna,  
Jainkoa bai-da nere salbâmena.  
Lk 1, 39-56*

Pozez eta alaitasunez betetzeko eguna dugu gaurkoa; baiña  
ez bakarrik egun polita dalako, ez jai dalako ta ez abesti ede-  
rrak kantatuko ditugulako. Sustrai sakonak izan bear ditu gure  
alaitasunak. Eta sustrai sakon oietakoak, auek ditugu batez  
ere: zeruko gure Amaren eguna dala, batetik; gure ixpillu ta  
laguntzaille maitati ta maitagarria dugula Ama ori, bestetik;  
piztuta zoriontsu zeruan dagoan ezker, gure piztueraren eta  
zorionaren itxaropen pozgarria ematen digula, gaiñera.

Zergatik ote da Maria, Ama Birjiña, mundu osoan gizaldiz  
gizaldi ain goratua, jai aundiak egiñez? Ez aberats zalako, ez  
jakintsu zalako, ez bere edertasunagatik, eta ez bere kargu edo  
aginteagatik. Izan ere munduan baziran garai artan emakume  
aundizki ta ospetsuak, eta aien izenak gaur ere ezagunak dira.  
Baiña aietako iñor ez dugu goratzen jai egiñez. Zergatik orre-

lako aldea? Jaungoikoak ez bai-zituan aiek aukeratu bere Seme Jesus'en Ama izateko, eta Maria bai: ortatik ez-berdintasuna.

Eta zergatik aukeratu zuan Maria, Nazaret'eko neskatxa beartsu ta apal ura, munduan ez-ezaguna? Auxe arrazoi nagusia: Jaungoikoak ez diela munduko aunditasunei begiretzen. Ama Birjiña'k berak aitortu zuan Isabel bere lengusiñaren aurrean, Ebanjelistik entzun dugun bezala: *"Aundiesten eta goraltzen du nere animak Jauna, eta pozaren pozez daukat nere barruna, Jainkoa bai-da nere salbamina, eta Berak ikusi baidu nere ezereztasuna"*.

Bai, apal eta ezerezak aukeratzan ditu Jaungoikoak gauza aundietarako, gizon-emakume oiengan beren balioak ez-baiña, Jaungoikoaren aalmena ta indarra azaldu daitezen. Eta Jaungoikoaren aalmen aundia ta doaien aberastasuna, bai ederki azaldu zirala Ama Birjiña'rengan! Berez apal eta ezereza, baiña Jaunak gauza aundietarako aukeratua izan zan: bate-tik, Salbatzaillearen Ama da, Maria'ren bidez etorri bai-zan Jesus mundura; eta bestetik, Salbatzaillearen laguntzaillea da, Jesus'i bere eginkizunean lagunduz.

Isabel bere lengusiñak, Jainkoak emandako argitasun bereziaz, aitopen eta goratarre arrigarriak egin zizkion Maria'ri, Ebanjelistik entzun ditugunez; eta itz oietatik atera bear dugu argia gure bizitzarako, gogoangarriak bai-dira: *"Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna, beteko dala sinistu bai-duzu"*.

Maria'ren benetako aunditasuna ta zoriona, ortatik datoz: *"Sinistu bai-duzu"*. Zailtasun guztien artean eta itxura guztien kontra ere, bene-benetan sinistu zualako Jaungoikoak esana. Nazaret'en gauza aundi arrigarriak esan bai-zizkion Jaunak aingeruaren bidez:

*"Agur, Maria, graziaz betea... Jauna zurekin... Seme bat izango duzu, eta Jesus ezarriko diozu izena. Aundia izango da, eta Goi-Goikoaren Semea deituko dute... Errege izango da ta Aren erregetzak ez du azkenik izango..."* Baiña nola sinistu bear zuan Maria'k, norbait ain aundi ta agurgarriaren ama izan bear zuanik berak, emakume apal, beartsu ta ezerezak? Nola sinistu ori dana?

Ez bere aunditasunari esker, baizik-eta Jaungoikoak guztia dezakealako, sinistu egin zuan Maria'k, sinismen sakon eta txalogarriaz sinistu ere. Eta bere burua eskeiñi zion Jaunari, nai zuana egin zezan: *"Ona emen ni, Jaunaren mirabea: gerta bekit zuk diozun bezala"*. Eta Jaungoikoa aur egin zan Maria'ren erraietan, Maria une berean Jainkoaren Ama biurtuz edo gertatuz.

Baiña gero, Jainkoaren Semea jaiotzeko, Belen'en etxe apal bat ere ez; bereala, Herodes'en igeska, urrutiko Ejipto'ra joan bear, erbestean bizitzera. Andik gerora, berriz ere Nazaret errira, eta antxe, erriko iñork ezer berezirik igertzen ez zielarik, beartsu ta ixillean bizitzen... Jainkoaren Semea izanik, nola zebillen ain errukarriro, ezer arrigarririk azaldu gabe? Eta ala ere sinistu egin zuan Maria'k, onela pentsatuz: *"Ez da nik artutako bidea. Jainkoak berak jakingo du zer nai duan, eta Berak daki nola egin gauzak"*.

Are zaillagoa izan zan Maria'rentzat sinismena, Jesus gurutzean il zutenean. Onela pentsatuko zuan: *"Baiña nola daiteke, Jainkoaren Semea era ontan gorrotatzea, era ontan gurutzean josita iltzea?"* Zailtasun guztien gaiñetik, sinistu egin zuan Maria'k Jainkoaren naia orrelaxe zala. Eta oiñaze ta miñez beterik, baiña biotz osoz eta indar guztiz esango zuan askotan: *"Ni zure mirabe ezereza naiz. Gerta bedi Zuk nai duzun beza-*

la. Nik nere uste osoa Zugan jartzen dut. Zuk dakizu zer ari zeran. Sinisten dut, Jauna”.

Benetan aundi ta zoriontsu da Ama Birjiña, egi-egiaz sinistu zualako. Baiña, “sinisten dut” aoz esanda bakarrik ez. Baizik-eta sinisten zuan eran, bere bizia Jaunaren bidean jarri zualako; bere bizia oso-osorik Jaunaren naia ta erabakiak betetzen eman zualako.

Guretzat ere gaur oso zailla da benetan sinistea; oso zailla da gure bizitzak, sinismen-bidean zuzen eramatea; eragozpen asko dauzkagu, batez ere auk: jendeen esanak, ainbeste kristau ta bestelakoren utzikeria, gure epelkeria, gure gogorik eza, gure presak, askoren jolasak, griñak, okerreko joerak eta abar luzea.

Zeruan zoriontsu gure alde otoitzean ari dan Amari, eska dezaiogun argia, benetan sinisteko. Eska dezaiogun indarra, sinismen sendoan irauteko. Eska dezaiogun laguntza, guk ere beraren antzera, gure bizitza sinismenaz argitzeko, itxaropenaz pozteko ta maitasun-egintzaz aberasteko.

## Gurutze Santu eguna Irailak 14

### Gurutzea, zertarako?

*Jesus' i sinisten dion guztiak  
betiko bizia izan dezan. Jn 3, 13-17*

Gurutze Santuaren goralpen-eguna ospatzen du Eliza'k egun ontan. Eta Gurutzea, oiñaze-iturri ta eriotz-bide da beti: eriotzera zeramazkiten gaizkilleen eta zenbait gizagajoren erio-tresna bildurgarria bai-zan. Zeiñen gauza illuna dirudian, eriotza emateko, au da, bizia kentzeko zan tresna bat, jai-giroan goralduz gogoratzeak!

Batez ere gaur, dana goxo ta xamur, dana nekerik gabe ta erraz nai duten jendeentzat, ulergaitza da. Oiñazea ta miña, goraldu nai ote ditugu, bada? Ez da orrela. Oiñazea ta eriotza garaitu zituana, uraxe da goraltzen duguna: Gurutze soilla ez, Gurutzean il zana goresten dugu aundikiro.

Judutarrak basamortuan zear, sugeen ziztadaz iltzen ziran aldi jakin batean. Sugeen pozoi ilgarria menperatu ta desegiteko, tupikizko suge-irudi bat jarri zien Moises'ek, agerian eta goruntz jasota. Eta ari begiratzen zioten guztiak, zearo ta erabat sendaturik gelditzen ziran.

Sugearen antzera, guztien aurrean goruntz jaso zuten Jesus, Gurutzean josita. Zertarako? "*Jesus'i sinisten dion guztiak, betiko bizia izan dezan*". Eta orra, berriz ere erio-tresna bat, latz eta makurra, izugarria benetan, bizi-iturri bihurturik, sugerudi bitxi aren antzera.

Izan ere, Gurutzean il zuten ondoren, zoriontsu piztu zan Jesus eta orrela, eriotzatik Piztuera bizigarria atera zuan Beretzat eta guretzat. Orrela gertatu zaigu, ain zuzen, piztueraren eta betiko biziaren itxaropen eta iturri, Kristo'gan sinisten dugun guztiontzat.

Orregatik da kristauon ezaugarri; au da, Gurutzea darabilkiana ta Gurutzea bere buruagan egiten duana, agerian beintzat kristau da. Izan ere, kristau ez danak ez bai-luke gurutzerik erabiliko.

Or dauzkagu Gurutzeak etxe ta geletan, or darabilzki jendeak Gurutze urrezkoak eta politak lepotik zintzilik. Or daude euskal-mendietako gaillur bakoitzean bat, eta beste batzuetan asko, Ernio gaiñean bezala. Aski ote zaigu, apaingarri ta oroi-garriztat erabiltzea bakarrik? Geiagotarako da Gurutzea.

Ez apaingarri bakarrik, eta ez oiñaze-tresna bakarrik ere. Gurutzeko oiñazeak, odol guztia ixurtzea ta bizia ematea, gure Jesus'en maitasunaren agerpenak dira; ukatu eziñeko ta zalantzan jarri eziñeko maitasun aundiaren agerpen jatorrak dira.

Izan ere, "*Aitak ainbesteraiño maite gaitu: bere Semea emateraiño... eta Jesus'ek ainbesteraiño maite gaitu, bere bizia oiñazetan guretzat emateraiño...*"

Gurtzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen zaitugu, zure Gurutze Santuaz mundua bir-erosi ta salbatu duzulako, eta munduan gu ere bai.

## Euskaldun Kijote bat

*Ar ezazute nere uztarria ta ikasi Nigandik. Mt 11, 25-30*

Mantxa'ko Kijote, izen oso ezaguna zaigu, baiña egiaz eta benetan beñere iñon ez da izan, españar idazle Zerbantes aundiaren irudimenean edo sormenean izan ezik: bete-betean arek asmatua bai-da. Izena, "norbait" ura ta ekintza ugariak, oso-osorik Zerbantes'en asmameneko sorkari dira.

Ala ta guztiz ere, ekintza aundi ta arrigarriak, ongintza ederrak burutu nai dituzten guztien eredu gertatu da. Ekintzara eramane eziñak eta egi biurtu ez ditzazkegunak izan arren ere, asmo txit ederrak eta amets bikaiñak dituanari, eta egon-eziñez ameslari bezain urduri dabillenari esan oi digu orain 'Kijote'.

Eta orra Errezil'ko Bildain baserrian 1589'ko otsaillaren 8'an jaio zan Erkizia'tar Domingo, Santu izendatu-berria, bere buruari izen orixe ematen ausartu zala urrutiko Japon'en, Nagasaki'n. Onela idatzi bai-zuan 1630'eko urrillan: "Beste as-

kotan gertatu naiz salduta; eta zezenaren adar-artean ere bai, baiña atxilotu nazaten gai ez naiz izan oraindik. Zu ez aspereraztearren, ez dizkizut esango 'Don Kijote' ren nere ibillera ta arriskuak".

Geienen neurritz gorako gizona izan zan gure errezildarra, bai buruz, ausardiz eta iraupenez, bai sinismenez eta apaiz-lan ez. Amasei urte zituanean domingotarren artean "nobizio" zegoan Donosti'n. Ogei urte inguru zituanean Filipinas'etara joan zan, itsasoan urte bete eginez; denborarik galdu gabe orde: ordu jakiñak zeuzkan otoitzerako, ikasteko, besteei bai eskola ta bai kristau-dotriña irakasteko.

Manila'n apaiz egiñik, misiolari sutsu, izlari edo sermolari gartsu ta Unibersidadean irakasle zalarik, bazuan eskuak bete lan eta bazuan izen on edo osperik ere. Arriskurik gabe jarrai zezakean lan eta lan, baiña... ziurtasunak utzirik, arrisku artera joan zan Japon'a 1623'an berak 34 urte zitularik.

Japon osoan eraso-aldi latza izan zan 50 urtez, misiolari ta kristauak il zituztela etsi arte; oiñazetan il, ala kristautasuna ukatu, ez zuten beste aukerarik. Amar urte egin zituan Japon'en batetik bestera, Nagasaki inguruetan bereziki. Eta beti izkutuka, igeska, beti arriskuan eta gudari edo ziralakoen eskuetan erori-zorian. Eskutizetan aitortzen duanez, mirariz bezala, askotan era arrigarrian iges egiten zien.

Portugaldar itsasgizonek esatera, beste misiolari guztiak baiño lan eta ekintza geiago burutzen zituan berak bakarrik. Alakoxea zan nunbait! Kristauei ta beste misiolariei eusten eta laguntzen, aitorketak eta mezak gauzez kristauen etxeetan eginez, ez bi egun eta ez bi gau etxe berean irauñ eziñik; askotan, ezta erri berean ere egun bi egoterik ez. Eta jarrai beti aurrera!

Egiaz, "Kijote" izan bear zuan, baiña Jainko-zaletasunak eragiña. Bestela nola irauñ ain kementsu? Bere azkena ain gertu ikusten zuanetako batean, Jaunarekin bere kontuak garbitzeko, aitortzea nai zuan, baiña ez zeukan norekin aitorturik. Zer egin? Lo gelditzea ez beintzat. Salatariak diru-trukean berean billa zebiltzala jakiñik ere, ausartu egin zan espetxe-zaiñak diruz eroatera; eta ala, barrura sartu, bere burua lasaitu aitorketaz, angoei berak pozberritua ta kemena emanda, kanpora berriz ere.

Beri auk 1630'eko Urrillaren 18'an idatzitako eskutiz luzean daude. Une aietan ez zuan asko pentsatuko, ain juxtu ere beste urte bateko egun berean, 1987'koan, amabost martiri-lagunekin batean 'Santu' izendatuko zuala Aita Santuak Erroma'n.

Misiolarien buru zan eta Gotzai egitea ere erabakita zeukaten eliz-agintariak, baiña alakorik batean lortu zuten erasotzaille setatiek irrika biziz nai zutena: Erkazia arrapatzea. Dirutza aundiak eta karguak ere eskeiñi zizkioten kristautasuna ukatzearen trukean, eta bestela oiñazerik latzenak. Oiñetatik zintzilik, buruz beera gerriraiño zuloan sartuta, gerria oolez eta arriz es-tuta, ogei ta amar orduz irauñ zuan, odola zeriola ito arte. Gorputza erre ta autsak itsas zabalera jaurti zituzten, kristaudentzat aztarnarik geldi ez zedin.

Orrelaxe jaio zan zerurako 1633'ko Dagonillaren 14'an gure martiri aundia. Kristauen eta sinisgabeen artean itzal aundiko gizona zan, bere trebetasunez, jakinduriaz eta ontasunez. Sinismen gartsu ta sakonaren argira, Jesus'ekin ongi elkartuta bizi izan zanak, gogotsu ta pozik eramane zuan bere Maisuaren uztarria. Eta ez zitzaion ain astuna gertatu, berak aitortzen duanez, poz eta zorion aundiak nabaitzen bai-zituan biotzean.

Aspaldi ontan, berriz, uztarria betikotasunean sari bikain biurtuta daukanak, lagun egin dezaigula emen arrastaka ta eziñean gabiltzanoi, guk ere azkeneraiño alai ta zintzo eraman dezagun gure uztarritxo, arenaren ondoan ariña bai-da. Ala bedi.

Santu Guztien eguna  
Azillak 1

### “Santu Guztiak”, zein dira?

*Poztu zaitezte ta alaitu, aundia  
izango da-ta zuen saria zeruetan.  
Mt 5, 1-12*

Egun berezia da kristaudentzat Azillaren lenengoa; eta bear ba'da, bereziagoa izan da Euskalerra'ko elizetan... “*Omia Saindu*” edo Santu Guztien egunak urtean bein berarizko giroa izan du, eta zirrara sarkorra sortzen zuan kristauen biotzetan. Izan ere alakoxe poz bitxi ta alaia zekarren beti...

Oztu edo atzendu egin da giro ura gure artean azken-urte auetan. Baiña zeintzuk dira “Santu Guzti” oiek? Zerutar guztiak sartzen ditugu deitura ortan. Bi eratakoak dira, ordea, zerutar santuak, Aingeruetaz gaiñera.

Batetik, Eliza'k Aita Santuaren bidez “*Santu*” izendatu dituanak, eta Santuen zerrenda luzean sartuak. Au da, beren bizitzan Jesus'en jarraitzaille zintzo arrigarri izanak, guretzat jarraibide diranak; eta auekin batean, beren bizia odoletan martiri eman zutenak sinismenaren alde ta aitorpenerako.



Or ditugu aldareetan oien irudiak; eta ez dira elizen apain-garri bakarrik. Zeruan gure bitarteko ta babesle ditugunez, irudi oiek zerura begira jartzen gaituzte, Santu oien laguntza eska dezagun. Eta auetako bi ditugu berri-berriak Euskalerrri'an, *Erkizia' tar Domingo ta Aozaraza' tar Mikel Doneak.*

Beste aldetik, ordea, Eliza'k santutasun-aitorpenik egin ez dienak dira ildako geienak, baiña zeruetako zorionean Aitaren ondoan betirako daudenak. Ospe ta izen aundirik gabe il diran milloika kristau zintzo, beren bizitzan sinismenaren argira bizitzen leialki saiatu ziranak. Oien artean ditugu gure aitona amona ta guraso ugari, apal eta ongille izanak.

Guzti oien eguna dugu, beraz, "*Omiásaindu*" ere deituriko egun alai ta zerutarra. Izan ere, aiek lortu duten zorion betea, guk ere lortu genezakean itxaropena pizten bai-digute. Dei bi-zi ta sarkorra egiten digute: "*Zuentzat ere zabalik daude zeru-rako bidea ta atea. Saiatu zuek ere. Zatozte gugana!*"

Emen lurrean Jesus'en zorion-bidea jarraitu zuten: beartsu, otzan, zuzentasunaren gose ta egarri, errukitsu, biotzez garbi, pakegille ta zuzenagatik erasotuak izan ziran. "*Zorionekoak zuek! Poztu ta alaitu, aundia da-ta zuen saria zeruetan*". Ain aundia ere, betikoa ta bete-betea, osoa, galdu-eziña bai-da.

"*Bildotsaren odoletan garbitu zituzten eta zuritu beren jantziak*", au da, beren bizitzak. Ainbeste laguntzaillek babes-tuta, jo dezagun Kristo'rengana gure biotzak garbitzera ta in-darrez betetzera, aientzat bezain ona bai-da guretzat ere.

## Letran'go eliza sagaratzea Azillak 9

### Jainkoaren etxe biziak

*Nere Aitaren etxea ez biurtu  
azoka-etxe. Jn 2, 13-22*

Ospe ta izen aundiko eliza bikaiña da, "Letran'go San Joan" deitua, Erroma'ko ta munduko eliza guztien buru ta ama esaten diotena. Azillaren 9'an ospatzen dugu, ain zuzen, "basilika" deitura duan eliza onen sagaratze-eguna. Ori dala-ta, egokiera ona datorkigu gogoeta batzuk egiteko elizaren inguru.

Arrizko eliza aundirik ez zuten lenengo kristauak beren batzar eta otoitzak egiteko. Baten eta bestearen etxeetan biltzen ziran. Bearrik ere ez zuten, talde txikiak ziralako asieran. Gero ugaritu ziran talde aundiak.

Eta orduan egin zituzten elizak, arrizko eliza aundi ta bikai-ñak; batetik aundiak, kristau asko biltzeko; bestetik bikaiñak, Jainkoari gauzarik onenak opa zizkiotelako. Ain zuzen, erro-matarrek sasi-jainkoei opa zizkieten eraikintza aundiak baiño ederragoak egin nai izan zituzten, gaiñera. Orrelaxe jaso zuten Erroma'n Letran'goa, Salbatzailleari eskeiña.

Jauretxe edo eliza uraxe zan Erroma'ko Gotzai ta Aita San-tuaren eliza berezia, antxe bai-zegoan beraren aginte-egoitza,

eta antxe irakasle-aulkia ere. Arrizko elizarik zaarrena danez, beste guztien “ama” ba’litz bezala artu izan dute beti. Antziñakoaren ospakizuna egitekoan, azter ditzagun oraingo ospakizunak.

Batetik, gure kristau-elizak, arrizko eliza dotoreak, zer dira guretzat? Otoitz-etxe al dira? Jainkoaren itza apalki ta gogotsu entzuteko tokiak? Orrela artzen al ditugu? Ez ote gera batzuetan, nai duguna entzutera joaten? Sinismena argitzeko, itxaropenaz pozteko ta maitasunerako indartu-asmo zintzoz joaten ote gera beti? Jainkoa aurkitzeko tokia al da neretzat eliza?

Zenbait ilketa ta eriotz gertatu diranean, ez ote dute askok zatiketa egiten? “Gurea” ba’da onela, “besteena” ba’da bestela, ez al gabiltza orrela, edo ez al dago orrelakorik gure artean? “*Ken oiek ortik! Nere Aitaren etxea, zer biurtu duzute?*”, esango liguke Jesus’ek.

Bestetik, berriz, “*ez al dakizute, Jainkoaren etxe zeratela, eta Jainkoaren Espiritua zuengan bizi dala?*” Kristau bakoitza, ain zuzen, Jainkoaren bizi-toki da, gurekin eta guregan bai- daukagu Jainkoa. Ederrak dira arrizko elizak, baiña zu ta ni agurgarriago gera, eliza biziak geralako. Oartzen ote gera, kristau bakoitza, eliza bizi-biziak gerala?

Azkenik, errietako elizak, arriz, egurrez eta oolez egiñak diran antzera, Jesus’en Eliza aundia, kristau sinistedunez egiña da. Bai: Jesus’engan siniten dugun guztion batzarra edo famili aundia da Eliza osoa; eta zu ta ni ere Eliza bizi ortako zati edo arri biziak gera, munduko kristau guztion elkartasunean.

Pentsa dezagun zer geran: arri illak, besteentzat zama ta era-gozpen al gera? Ala, Jaungoikoagandik bizi geranak eta besteentzat bizigarri ote gera? Ala izan bear genuke.

## Emakumeen artean onetsia

*Poztu zaitez, Maria, graziaz  
bete ori. Lk 1, 26-38*

Mundua mundu danez gerokoan bat da beste emakume guztien artean goraldu ta onetsia: besteak baiño jaierratsuago ta aldi luzeagoan maitatua, eta ori, Nazaret’eko Maria dugu. Zergatik eta nolaz, ordea, ain aundikiro ta ainbeste gizon-emakumek ospatua?

Jakinduriaz, edertasunez, aberastasunez eta aginpidez emazteki oso ospetsuak baziran garai aietan Erroma’n, Grezia’ eta Ejipto’n bereziki. Baiña aietako iñor ez dezakegu Maria’reñ maillako goralpena urbildu ere, beste goitasun bikain batean bai-daukagu.

Gaur bertan ere zenbat emakume ote dira aldizkarietan, ikustirratian eta egunkarietan agertzen diranak? Baiña noiz arte? “Egun bateko lorearen antzera igartuko dira” emakume txalotu oien ospe, izen eta aunditasunak, antziñakoenak bezala.

Eta Maria’reñ izenak garbi ta maitagarri irauten du mendezmende ta berdin iraungo ere. Ala jarraituko du, bai, aren doaiak ez bai-dira ustelkorrak, argitsu ta goitar dira baizik. Emakume

guztien artean onetsia edo bedeinkatua izan da orain artekoan eta ala izango da mundua bukatu arte kristauen buru-biotzetan.

Erri txiki ta kaxkartzat baztertua zan Nazaret; eta errixka artan ezer berezi ta arrigaririk nork nabaitu ote zion Maria'ri? Beartsu, apal, langille ixil eta zintzoa zala, beste gaiñerakoen antzeratsu. Besterik zer geiago esango zuten nazaretarrek Maria, Ana ta Joakin'en alabari buruz?

Eta guztia dezakeanak, emakume ezerez edo deusez uraxe aukeratu zuan gauza aunditarako: "*Zugandik jaioko dan Santua, Jaungoikoaren Semea deituko dute*". Arrotu gabe erantzun zion Maria'k ainbesteko eskeintza bikaiñari: "*Ona emen ni Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk diozun bezala*".

Sinistu zion Aingeruaren bidez mintzatu zitzaion Jaunari, eta Arengan jarri zuan bere uste osoa; eta orren ondorioz, lanean eta on egite ixillean eman zuan osoro bere bizitza.

Emakume euskaldun ugari izan ditugu Maria'ren jarraitzaille leial eta Sortzez Garbiaren antzekoak, Lekaime-etxe ta Mixioetan bereziki; baita etxeetan ere, naiz apaiz-etxeetako serbitzuan eta naiz eliz-lanetan, naiz umetxoen sinismen-eziketan lan egiñez.

Sendietan ere bai, izan ditugu ama zintzo ta saiatuak ugari, etxeetan sinismen-giro jatorra egin dutenak, ainbeste seme-alaba Jainkoaganako bidean ezi ta bultza dituztenak. Ez die zor txikia Eliza edo kristau-erriak! Nork eskertuko die? Eta jarraipenik izango? Aspalditik jakin du euskal-emakumeak bere benetako aunditasuna non aurkitu, zenbait gauzetan beintzat gizonezkoekin berdinkatzera jo gabe.

Bedeinka bitza zerutik Maria Sortzez garbi ta graziaz beteak gure Euskalerra osoko emakumeak, egiazko aunditasunerako ta zorionerako bidea, apaltasunezko lan-eskeintza alai ta ixillean aurkitu aal izan dezaten, beren eta guztion onerako.

## AURKIBIDEA

## AURKIBIDEA

Aurkezpena .....	9
A, ALDIA: MATEO DONEAREN BERRI ONA ARDATZ DALARIK (1993, 1996, 1999, 2002, 2005, 2008.... urteetan)	21
ABENDU-ALDIA	
<b>1'go Igandea</b> Esnatzeko ordua da: Mateo 24, 37-44 .....	23
<b>2'gn Igandea</b> Biotzetik dator pakea: Mateo 3, 1-12 .....	25
<b>3'gn Igandea</b> Egintza salbagarriak: Mateo 11, 2-11 .....	27
<b>4'gn Igandea</b> Erria salbatuko duana: Mateo 1, 18-24 .....	29
EGUBERRI-ALDIA	
<b>Eguberri eguna: Jesus'en Jaiotza</b> Eguberria, alperrik ote? Lukas 2, 1-14 .....	31
<b>Sendi Deuna</b> Guraso ta seme-alabak: Mateo 2, 13-15. 19-23 .....	33
<b>Urte Berri: Maria, Jainkoaren Ama</b> Maria'k gogoan jaso ta ausnartu: Lukas 2, 16-21 .....	35

<b>Eguberri ondoko 2'gn Igandea</b>	
Beretarrek ez dute onartu: Joan 1, 1-18 .....	37
<b>Errege-eguna: Jaunaren Agerkundera</b>	
Sinistea ta ikustea: Mateo 2, 1-12 .....	39
<b>Jesus'en Bataioa</b>	
Era berriko biziera: Mateo 3, 13-17 .....	41

GARIZUMA-ALDIA

<b>1'go Igandea</b>	
Jainkoari igeska: Mateo 4, 1-11 .....	43
<b>2'gn Igandea</b>	
Gure begiz ikusia: Mateo 17, 1-9 .....	45
<b>3'gn Igandea</b>	
Beti egarriz, zeren billa? Joan 4, 5-42 .....	47
<b>4'gn Igandea</b>	
Begiak argi, biotzak itsu: Joan 9, 1-41 .....	49
<b>5'gn Igandea</b>	
Il eta gero? Bizi! Joan 11, 1-45 .....	51
<b>Erramu-eguna</b>	
Gurutzean gure salbazioa: Mateo 27, 30-61 .....	53

PAZKO-ALDIA

<b>Pazkoa: Jesus'en Piztuera</b>	
Piztuarengan sinistea: Joan 20, 1-9 .....	55
<b>2'go Igandea</b>	
Ikusi gabe sinistea: Joan 20, 19-31 .....	57
<b>3'gn Igandea</b>	
Piztua, nola aurkitu? Lukas 24, 13-35 .....	59
<b>4'gn Igandea</b>	
Buruzagirik trebeena: Joan 10, 1-10 .....	61
<b>5'gn Igandea</b>	
Ni naiz bizia, egia ta bizia: Joan 14, 1-12 .....	63
<b>6'gn Igandea</b>	
Egiaren Espiritua: Joan 14, 15-21 .....	65
<b>7'gn Igandea: Jesus'en Igokundera</b>	
Zoazte... Ni zuekin: Mateo 28, 16-20 .....	67

<b>Espiritu Santuaren Etorrera</b>	
Barneko irakaslea: Joan 20, 19-23 .....	69

URTEAN ZEARREKO ALDIA edo URTEKO IGANDEAK

<b>Irutasun Donea</b>	
Gure Jainkoa: Joan 3, 16-18 .....	71
<b>2'gn Igandea</b>	
Pekatuak kendu: Joan 1, 29-34 .....	73
<b>3'gn Igandea</b>	
Dei bizia: "Zatozte!" Mateo 4, 12-23 .....	75
<b>4'gn Igandea</b>	
Non dago zoriona? Mateo 5, 1-1277 .....	77
<b>5'gn Igandea</b>	
Lurraren gatza ta argia: Mateo 5, 13-1679 .....	79
<b>6'gn Igandea</b>	
Legea bete ala osotu? Mateo 5, 17-3781 .....	81
<b>7'gn Igandea</b>	
Indarra ta borroka, ala... Mateo 5, 38-4883 .....	83
<b>8'gn Igandea</b>	
Ez larritu biziak: Mateo 6, 24-3485 .....	85
<b>9'gn Igandea</b>	
Sendo ala kolokan? Mateo 7, 21-2787 .....	87
<b>10'gn Igandea</b>	
Meza zertarako? Mateo 9, 9-1389 .....	89
<b>11'gn Igandea</b>	
Garbitu, sendatu, piztu...Mateo 9, 36—10, 891 .....	91
<b>12'gn Igandea</b>	
Ez bildurtu! Mateo 10, 26-3393 .....	93
<b>13'gn Igandea</b>	
Ematearen zoriona: Mateo 10, 37-4295 .....	95
<b>14'gn Igandea</b>	
Xume ta apalen zoria: Mateo 11, 25-3097 .....	97
<b>15'gn Igandea</b>	
Azi onari, lur ona: Mateo 13, 1-23 .....	99
<b>16'gn Igandea</b>	
Txarra ta ona, elkarren ondoan: Mt 13, 24-43 .....	101

<b>17'gn Igandea</b>	
Sinistearen poza: Mateo 13, 44-52	103
<b>18'gn Igandea</b>	
Zatozte! Jan guztiok! Mateo 14, 13-21	105
<b>19'gn Igandea</b>	
Zergatik asi zalantzan? Mateo 14, 22-33	107
<b>20'gn Igandea</b>	
Aundia da zure sinismena: Mateo 15, 21-28	111
<b>21'gn Igandea</b>	
Jesus, nor da neretzat? Mateo 16, 13-20	115
<b>22'gn Igandea</b>	
Dana errazetik, ezer onik ez: Mateo 16, 21-27	117
<b>23'gn Igandea</b>	
Irabazi duzu senidea: Mateo 18, 15-20	119
<b>24'gn Igandea</b>	
Biotzez barkatzea: Mateo 18, 21-35	121
<b>25'gn Igandea</b>	
Jainkoa, guk uste ez bezalakoa: Mt. 20, 1-16	123
<b>26'gn Igandea</b>	
Itzak ala egintzak? Mateo 21, 28-32	125
<b>27'gn Igandea</b>	
Erriak eta beren emaitzak: Mateo 21, 33-43	127
<b>28'gn Igandea</b>	
Zatozte eztaietara: Mateo 22, 1-14	129
<b>29'gn Igandea</b>	
Misiolarien eta Martirien aukera: Mt 22, 15-21	131
<b>30'gn Igandea</b>	
Zuzen asmatzeko, zer egin? Mateo 22, 34-40	133
<b>31'gn Igandea</b>	
Bat esan, bestea egin: Mateo 23, 1-12	135
<b>32'gn Igandea</b>	
Zenbat zentzugabe! Mateo 25, 1-13	137
<b>33'gn Igandea</b>	
Morroi gaizto ta alperra: Mateo 25, 14-30	139
<b>34'gn Igandea: Kristo Errege eguna</b>	
Kristo, guztien Errege: Mateo 25, 31-46	141

B, ALDIA: MARKOS DONEAREN BERRI ONA ARDATZ DALARIK 143  
(1991, 1994, 1997, 200, 203, 206...urteetan)

#### ABENDU-ALDIA

<b>1'go Igandea</b>	
Zeren zai? Markos 13, 33-37	145
<b>2'gn Igandea</b>	
Ziñezko berri Ona: Markos 1, 1-8	147
<b>3'gn Igandea</b>	
Argiaren aitorle: Joan 1, 6-8. 19-28	149
<b>4'gn Igandea</b>	
Erri osoarentzako poza: Lukas 1, 26-38	151

#### EGUBERRI-ALDIA

<b>Eguberri eguna: Jesus'en Jaiotza</b>	
Jaungoikoa aurtxo egiñik: Lukas 2, 1-14	153
<b>Sendi Deuna</b>	
Familia ta pakea: Lukas 2, 22-40	155
<b>Eguberri ondoko 2'gn Igandea</b>	
Jainkoak bizilekua gure artean: Joan 1, 1-18	157
<b>Urte berri: Maria, Jainkoaren Ama</b>	
Pake-eguna: Lukas 2, 16-21	159
<b>Errege-eguna: Jaunaren Agerkundera</b>	
Izarra ikusi, Aurra aurkitu: Mateo 2, 1-12	161
<b>Jesus'en bataioa</b>	
Gaurko Bataioa: Markos 1, 6-11	163

#### GARIZUMA-ALDIA

<b>1'go Igandea</b>	
Garizuma, gaur ere bai: Markos 1, 12-15	165
<b>2'gn Igandea</b>	
Entzun ezaiozute: Markos 9, 1-9	167
<b>3'gn Igandea</b>	
Azoka-etxe, ala otoitz-etxe? Joan 2, 13-25	169
<b>4'gn Igandea</b>	
Galtzera ez, salbatzera baizik: Joan 3, 14-21	171

<b>5'gn Igandea</b>	
Bildurretik atera gaitzazu: Joan 12, 20-33	173
<b>Erramu-eguna</b>	
Gurutzean josi! Markos 15, 1-47	175

PAZKO-ALDIA

<b>Pazkoa: Jesus'en Piztuera</b>	
Jesus'ekin piztea: Joan 20, 1-9	177
<b>2'gn Igandea</b>	
Gaur nola sinistu? Joan 20, 19-31	179
<b>3'gn Igandea</b>	
Zuek testigu: Lukas 24, 35-48	181
<b>4'gn Igandea</b>	
Gidari on bat bear: Joan 10, 11-18	183
<b>5'gn Igandea</b>	
Sinistu ta frutu eman: Joan 15, 1-8	185
<b>6'gn Igandea</b>	
Alaitasun berezia: Joan 15, 9-17	187
<b>7'gn Igandea: Jesus'en Igokundea</b>	
Zerura begira? Bai! Markos 16, 15-20	189
<b>Espiritu Santuaren Etorrera</b>	
Zatoz biotzen argi! Joan 20, 19-23	191

URTEAN ZEARREKO ALDIA edo URTEKO IGANDEAK

<b>Irutasun Donea</b>	
Jainkoa, bakarti? Ez! Mateo 28, 16-20	193
<b>2'gn Igandea</b>	
Zeren billa zabiltzate? Joan 1, 35-42	195
<b>3'gn Igandea</b>	
Sinistu Berri Ona: Markos 1, 14-20	197
<b>4'gn Igandea</b>	
Itzal aundiko itza: Markos 1, 21-28	199
<b>5'gn Igandea</b>	
Eriotza ez, bizia bai: Markos 1, 29-39	201
<b>6'gn Igandea</b>	
Nai dut: Zaitetz garbi! Markos 1, 40-45	203

<b>7'gn Igandea</b>	
Jeiki ta zoaz! Markos 2, 1-12	205
<b>8'gn Igandea</b>	
Senar-berria ta baraua: Markos 2, 18-22	207
<b>9'gn Igandea</b>	
Gizakia ez da legearentzat: Markos 2, 23-3, 6	209
<b>10'gn Igandea</b>	
Nor ez da errudun? Markos 3, 20-35	211
<b>11'gn Igandea</b>	
Txikiaren balioa: Markos 4, 26-34	213
<b>12'gn Igandea</b>	
Zergatik ain bildurti? Markos 4, 35-40	215
<b>13'gn Igandea</b>	
Zuk, sinistu bakarrik: Markos 5, 21-43	217
<b>14'gn Igandea</b>	
Bizitzen ikasi bear: Markos 6, 1-6	219
<b>15'gn Igandea</b>	
Zoaz, eta otsegin! Markos 6, 7-13	221
<b>16'gn Igandea</b>	
Zatozte... atsedeen artzera: Markos 6, 30-34	223
<b>17'gn Igandea</b>	
Artu, ala eman? Joan 6, 1-15	225
<b>18'gn Igandea</b>	
Gure amets nagusia...? Joan 6, 24-35	227
<b>19'gn Igandea</b>	
Bizia... Betirako bizia! Joan 6, 41-52	229
<b>20'gn Igandea</b>	
Ogi ontatik jaten duana... Joan 6, 51-59	231
<b>21'gn Igandea</b>	
Bizirako itzak: Joan 6, 61-70	233
<b>22'gn Igandea</b>	
Barrua garbitu, ez azala: Markos 7, 1-23	235
<b>23'gn Igandea</b>	
Ireki zaitetz: Markos 7, 31-37	237
<b>24'gn Igandea</b>	
Nor da Jesus? Markos 8, 27-35	239

<b>25'gn Igandea</b>	
Zein da aundiarena? Markos 9, 30-36 .....	243
<b>26'gn Igandea</b>	
On egitea ez galerazi: Markos 9, 37-47 .....	245
<b>27'gn Igandea</b>	
Ezkontza, zeinzentzat? Markos 10, 2-16 .....	247
<b>28'gn Igandea</b>	
Diruaren eta ezaren loturak: Mk. 10, 17-30 .....	249
<b>29'gn Igandea</b>	
Mugarik gabe serbitzari: Markos 10, 35-45 .....	251
<b>30'gn Igandea</b>	
Ikus dezadala! Markos 10, 46-52 .....	253
<b>31'gn Igandea</b>	
Danetan lenengoa: Markos 12, 28-34 .....	255
<b>32'gn Igandea</b>	
Bear zuanetik eman du... Markos 12, 38-44 .....	257
<b>33'gn Igandea</b>	
Eta gero, zer? Markos 13, 24-32 .....	259
<b>34'gn Igandea: Kristo Errege eguna</b>	
Kristo Erregea ta egia: Joan 18, 33-37 .....	261

C, ALDIA: LUKAS DONEAREN BERRI ONA ARDATZ DALARIK 263  
(1992, 1995, 1998, 2001, 2004, 2007, 2010...urtetan)

#### ABENDU-ALDIA

<b>1'go Igandea</b>	
Askatasunaren zai: Lukas 21, 25-36 .....	265
<b>2'gn Igandea</b>	
Basamortuan oiubat: Lukas 3, 1-6 .....	267
<b>3'gn Igandea</b>	
Indarkeriarik ez! Pakea bai! Lukas 3, 10-18 .....	269
<b>4'gn Igandea</b>	
Sinistea ta pake-gintza: Lukas 1, 39-45 .....	271

#### EGUBERI-ALDIA

<b>Eguberri eguna: Jesus'en Jaiotza</b>	
Jainkoa gizon egiñik: Joan 1, 1-18 .....	273

<b>Sendi Deuna</b>	
Sendiaren elkartasuna: Lukas 2, 41-52 .....	277
<b>Eguberri ondoko 2'gn Igandea</b>	
Aurtxo egiñik Jainkoa: Joan 1, 1-18 .....	279
<b>Urte berri: Maria, Jainkoaren Ama</b>	
Bere pakea: Lukas 2, 16-21 .....	281
<b>Errege-eguna: Jaunaren Agerkundera</b>	
Opari eman zizkieten: Mateo 2, 1-12 .....	283
<b>Jesus'en Bataioa</b>	
Bataioa berritzea: Lukas 3, 15-22 .....	285

#### GARIZUMA-ALDIA

<b>1'go Igandea</b>	
Ogiz bakarrik ez da bizi: Lukas 4, 1-13 .....	287
<b>2'gn Igandea</b>	
"Jainkoaren aztarnak kendu!" Lk 9, 28-36 .....	289
<b>3'gn Igandea</b>	
Erruak salatzea, ez da aski: Lukas 13, 1-9 .....	291
<b>4'gn Igandea</b>	
Seme galdua, ala aita ona? Lukas 15, 11-32 .....	293
<b>5'gn Igandea</b>	
Ezkontza-naastea ta Jesus: Joan 8, 1-11 .....	295
<b>Erramu-eguna</b>	
Jainkoa Gurutzean: Lukas 22, 14—23,5 .....	297

#### PAZKO-ALDIA

<b>Pazkoa: Jesus'en Piztuera</b>	
Bizi da! Biziko gera! Joan 20, 1-9 .....	299
<b>2'gn Igandea</b>	
Pakea ta barkatzea: Joan 20, 19-31 .....	01
<b>3'gn Igandea</b>	
Nork ixildu-eraziko? Joan 21, 1-19 .....	303
<b>4'gn Igandea</b>	
Nori entzungo diogu? Joan 10, 27-30 .....	305
<b>5'gn Igandea</b>	
Kristauak nola ezagutu? Joan 13, 31-35 .....	307



**6'gn Igandea**  
Gizakia barruz utsik dago: Joan 14, 23-29 ..... 309

**7'gn Igandea: Jesus'en Igokundea**  
Zeruaren billa: Lukas 24, 46-53 ..... 311

**Espiritu Santuaren Etorrera**  
Espiritu beragan bataiatuak: Joan 20, 19-23 ..... 313

URTEAN ZEARREKO IGANDEAK edo URTEKO IGANDEAK

**Irutasun Donea**  
Nor, Jainkoa bezala? Joan 16, 12-15 ..... 315

**2'gn Igandea**  
Ardorik ez daukate: Joan 2, 1-12 ..... 317

**3'gn Igandea**  
Beartsuei Berri Ona emateko: Lukas 4, 14-21 ..... 319

**4'gn Igandea**  
Gaur bete da... Lukas 4, 21-30 ..... 321

**5'gn Igandea**  
Errugabe ote naiz? Lukas 5, 1-11 ..... 323

**6'gn Igandea**  
Zorionekoak! Lukas 6, 20-26 ..... 325

**7'gn Igandea**  
Ordaiñaren zai egon gabe: Lukas 6, 27-38 ..... 327

**8'gn Igandea**  
Biotzetik datoz frutuak: Lukas 6, 39-45 ..... 329

**9'gn Igandea**  
Sinismena nola bizi gaur? Lukas 7, 1-10 ..... 331

**10'gn Igandea**  
Eriotza ta ilketak: Lukas 7, 11-17 ..... 333

**11'gn Igandea**  
Jesus eta emakumea: Lukas 7, 36-8, 3 ..... 335

**12'gn Igandea**  
Izen bat ala norbait? Lukas 9, 18-24 ..... 337

**13'gn Igandea**  
Sutan erretzera ez, salbatzera: Lukas 9, 51-62 ..... 339

**14'gn Igandea**  
Pakea etxe ontan: Lukas 10, 1-20 ..... 341

**15'gn Igandea**  
Nor da nere lagun urkoa? Lukas 10, 25-37 ..... 343

**16'gn Igandea**  
Bakarra da bearrezkoa: Lukas 10, 38-42 ..... 345

**17'gn Igandea**  
Eskatzen duanak, artzen du: Lukas 11, 1-13 ..... 347

**18'gn Igandea**  
Ondasunak, norentzat? Lukas 12, 13-21 ..... 349

**19'gn Igandea**  
Erne ta prest bizitzea: Lukas 12, 32-48 ..... 351

**20'gn Igandea**  
Pakea ala zatiketa? Lukas 12, 49-53 ..... 353

**21'gn Igandea**  
Ate estutik Aitarengana: Lukas 13, 22-30 ..... 355

**22'gn Igandea**  
Lenengo tokien billa: Lukas 14, 6-14 ..... 357

**23'gn Igandea**  
Uztearen aberastasuna: Lukas 14, 25-33 ..... 359

**24'gn Igandea**  
Galduen billa: Lukas 15, 1-32 ..... 361

**25'gn Igandea**  
Jainkoa, ala dirua? Lukas 16, 1-13 ..... 363

**26'gn Igandea**  
Aberats eta beartsu, betiko? Lukas 16, 19-31 ..... 365

**27'gn Igandea**  
Gure sinismena geitu, Jauna! Lukas 17, 5-10 ..... 367

**28'gn Igandea**  
Esker txarra ta esker ona: Lukas 17, 11-19 ..... 369

**29'gn Igandea**  
Otoitza, zertarako? Lukas 18, 1-18 ..... 371

**30'gn Igandea**  
Norbera on eta besteak txar? Lukas 18, 9-14 ..... 373

**31'gn Igandea**  
Diruak ez du salbatzen: Lukas 19, 1-10 ..... 375

**32'gn Igandea**  
Bizien Jainkoa ta piztuera: Lukas 20, 27-38 ..... 377

**33'gn Igandea**

Saiatu ta irauñ! Lukas 21, 5-19 ..... 379

**34'gn Igandea: Kristo Errege eguna**

Kristo, Gurutzetik da Errege: Lukas 23, 35-43 ..... 381

**JAIK ETA SANTUEN EGUNAK ..... 383**

Kandelario eguna: Otsailak 2 ..... 385

Jose Donea, Epaillak 19 ..... 387

Gorputz-eguna: Jesus'en Gorputz-Odolen eguna ..... 391

Padua'ko Antonio Donea, Ekainillak 13 ..... 393

Joan Bataiatzaille Donea, Ekainillak 24 ..... 397

Pedro ta Paulo Doneak, Ekainillak 29 ..... 399

Loiola'ko Inazio Donea, Uztaillak 31 ..... 401

Maria'ren Jasokundea, Dagonillak 15 ..... 405

Gurutze Santu eguna, Iraillak 14 ..... 409

Erkizia'tar Domingo Donea, Iraillak 28 ..... 411

Santu Guztien eguna, Azillak 1 ..... 415

Letran'go Eliza sagaratzea, Azillak 9 ..... 417

Maria Sortzez Garbia, Gabonillak 8 ..... 419

**HIZTEGIA**

## GAI NAGUSI BATZUEN AURKIBIDEA

- AINZA:** Jainkoaren aintza ta giza-kien pakea, 273. Aintza ta pakea, zorionerako bidea, 325. Guztia Jainkoaren aintzarik aundienerako, 401.
- AITA:** Aitaren etxean toki asko, 63. Seme galdua, ala Aita ona, 293. (Jainkoa aipatzen dan geienetan, Aita dala ere bai). Aitaren ondoan ditugu zintzo ildako guztiak, 415.
- ALDAKETAK:** Aldaketa-giroa, 89, 331. Aldaketak eta zalantza, 107. Aldaketak eta sinistea, 149. Aldatu bearra, 165. Age-riko aldaketak bai, eta barrukoak?, 235. Aldaketak nai, leengorik ezagutu gabe, 369. Osoko aldaketa, Loiola'ko Inazio'rena, 401.
- ALTXORRA:** ta arri bitxia, Jainkoa aurkitzea dira, 103.
- AMA ZERUKOA:** Nolako jaiera? 35. Jainkoaganako bidea, 35. Barruko pozez betea, 151. Ama Maria'renm Jasokundea, 405.
- APALTASUNA:** Apal eta xume iza-tea, zorionerako bidea, 97. Apalaren otoitza, 113. Apal eta ezerezak aukeratzen ditu Jainkoak gauza aundietarako, Maria bezala, 405.
- ARDURA:** Gauzen arduraz larriegi: Jainkoa arduratzen da gutaz, 85.
- ARGIA:** Kristo'gandik argirik artzen ote? 39. Argia nai du adimenak. "Ni naiz argia", 49. Zuek zerate munduaren argi, 79. Jesus, atzerrien argia, Kandelario egunean, 385.
- ARTZAI ONA:** eta buruzagi trebea, Jesus, 61. Artzai ta gidari ona, Jesus da. Nolako gidariak daude? 183. Lagun eta gidari on, 185. Bere ardi guztiak ezagutzen dituan Artzai ona, 305.
- ASKATASUNA:** Itzak eta egiteak, 27. Gezurrezko askatasuna, 29. Geiago danari men egitea, 45. Askatasuna ta legea, elkarren aurka? Diruak, askatasuna? 81, 359. Diruaren loturak austeak, askatasun garbiagoa, 249. Askatasunaren zai, 265. Askatasuna, Jainkoa baztertuta? 289. On egiteko indarra, ori da askatasuna, 339. Askatasunaren billa laguntzen, sinismenak eraginda, 367.
- ASMATZEA:** Zuzen asmatzea, oso zailla, 133.
- ATSEDENA:** Era askotako oporrak. Egiazko atsedena bear, 223. Atsedena ta atsegiña, badira bidezkoak. Geiegiak murriztu bear, 'ate estuan sartzeko', 355.
- AUKERAMENA:** Aukera asko gure aurrean: eriotz-bideak, bizira-

koak, 233. Beste gidari ta irakasle guztien artean, Jesus aukeratzea, 285. Jainkoa ta dirua, aukeran, 363. Sinismena ukatu, ala oñaze bizitan il, beste aukerarik ez Erkizia Doneak, 411.

AUNDITASUNA: ta aundi-naia: "Aundiek" ez zuten onartu Jesus, 97. Aunditasuna, besteak beeratuz? Nor-bera beeratuz, besteak jasotzea, 243. Aundiena ta onenaren billa, Inazio Donea, 401. Aunditasun jatorra, sinismenetik Ama Birjinak, 405.

AZI ONA: Lur onean, frutu ugari ematen azi onak, 99. Azi onaren ereilleak, Jesus eta gu ere bai? Arrera ez-berdina, 100.

BAKARDADEA: Pentsatzeko, bearezkoa da, 43. Bakardade utsa askoren barruan, 185.

BARAUA: Gorputzak liraintzeko, ala geiegikeriak murrizteko? 207.

BARKATZEA: Ez barkatzea ta ondorenak; barkatzeak, gizakiago egiten gaitu, 121. Barkatzeko ordez, besteen erruak arrotu, 211.

Barkatu gabe, pakerik ez, 301.

BATAIOA: Jesus'en ta gure bataioak, 341. Bataio-elizkizuna aldatu, bai etxeko giroa re, 163. Irutasun Donearen ize-nean bataiatuak, 193. Bataioa ta gurasoak. Bataioaren oroi-garriak, 285.

BEARTSUAK: Beartsu ta aberats, betiko orrela ote? 365. Zorionekoak, beartsuak, 77, 325.

BERRI ONA: Zifnezko Berri Ona, 147. Sinistu Berri Ona: Jainkoa da benetako Berri Ona, 197. Berri Ona, beartsuentzat

da onena, 319. Berri Onaren zabaltzaille, Pedro ta Paulo, 399.

BERRIA: Berri-zaletasuna ta biotz-berritzea, 25. Biziera berria, 41. Bide berria, 83. Berriak, albisteak eta pozgarriena... 197. Berria ta leengoa, bien arteko aukera, 207. Benetako berritza, barrutik, 235.

BIDEA: Zerurako bidea, Jesus, 63. Bide berria, 83. Zuzeneko bidea, 133. Jesus'enganako bide ta lagungarri, Joan Bataiatzaille; eta gu? 397. Emen Jesus'en bidean ibilliak, gero betiko zoriotsu, 415.

BIDE-LAGUN: Jesus beti gurekin, 67.

BILDURRA: Bildur geiegi gaur, 93. Bildurra dakarrena, ez da Jainkoa, 153. Leengo bildurrak eta gaurkoak, 171. Atera gaitzatu bildurretik, 173. Zergatik ain bildurti? Sinisteak uxatzen ditu bildurrak, 215. Igaroak ez; etorkizunak sortzen du bildurra, 259. Bildurgarri ote da Jainkoa? 279. Argiari bildurdio, illunpetan dabilenak, 385.

BILLA: Jesus'en billa, 9, 59. Jainkoaren billa, 43. Gauza askoren billa, 47. Billatu Jainkoaren Erreina, 85. Billa ibiltzea, aberasgarri, 195. Jesus'en billa al goaz Mezatara? 391. Eten-gabe billaketan, Loiola'ko Inazio D. 401.

BIOTZA: Giza-biotza, misterio, 37. Biotz-berritzea, 25. Erruak salatzea ez da aski; biotzak berri-tu bear, 291. Biotz-barrua utsik, 309. Biotzean dagoana, uraxe ateratzen da, 329.

BIZIA: Bizi-naia ta bizia maitatzea, 51. Jesus da Bizia, 63. Bizimaille ta biziaren iturri, Jain-

koa, 201. Guk bizi-naia, eta Jesus'ek betiko bizia, 229. Bizina sakona: Jesus piztua dugu erantzuna, 299. Bizia ematen duan ogia, 391.

BORROKA: Biziaren aldeko borroka, 51. Taldeen arteko borroka; borroka, legetzat artuta daukatenak, 83. Borrokak, zeren billa? 95. Borroka latza, Inazio'ren barruan, 401.

BURUZAGIA: Batzuen eskeintzak, 61. Buruzagi trebea, Jesus 62.

DEIA: Jesus beti deika ari zaigu, 75.

DIRUA; Diruaren askatasuna? 81. Diruaren loturak, 249. Diruaren trukean, dana saltzen: diruak guztia lortzen ote? 257, 327. Diru-gosea ta aberastasunak piltzea: danak emen utzi bear, 349. Dirua ta Jainkoa: itzez Jainkoa aukeratzen eta egitez dirua, 363. Diruz neurtzen ez ditugun gauza onak, 371. Diruak eta aberastasunek ez dute salbatzen, diruak ez du biotza asetzen: Bai zaila, dirudunak zeruratzea! 375.

EGARRIA: barruko egarria, 47.

EGIA: Jesus da Egia, 63. Egiaren espiritua, 65. Egiak askatuko gaitu, 259. Kristo, egiaren Errege, 261.

EGINTZAK: Salbagarri ez diranak, eta salbagarriak, 27. Agintari ta irakasleen egintzak, 135. Egintza onik gabe, alper eta gaizto, 139.

EGUBERRIAK: Alperrikakoak ote? 31. Ixil-unea barruan egin Aurtxo-Jainkoagana urbildu, 153. Jainko aundia, gure giza-kide, 273.

ELIZA: Eliza ta elizkizunak, nola-ko? 169. Eliz-lanerako geure

buruak eskeintzea, 399. eliza bikain arrizkorik ez zuten lenengo kristauak, baiña bai senidetan sendoa, 417.

ELKARTASUNA: Jesus'ekin elkartuta, frutu onak emango, 193. Elkartasunerako indarra, barrutik, Espirituagandik, 313. Elkartasun-bide, Jesus'en Gorputz-Odolak Mezatara, 391.

EMAITZAK: Biotza nolako, emaitzak alako. Biotzetik frutuak, 329.

EMAKUMEA: Doai bereziak ditu emakumeak, 35. Emakumeagandik jaioa, eta gure maillako egiña, 281. Emakumea, beerratuegia: jostailu?

Eskubide-borrokak ez du jasoko. Maitasunez artu zuan Jesus'ek, 335. Emakumeen artean onetsia ta goraldueña, Maria, 419. Emakume euskaldun asko, sinistun eta serbitzari aundi, 420.

EMATEA: Zorionerako bidea, ematea da. Kristautasuna, ematea da, 95. Jaunak guri emanak, guk Jaunari ematekoak, 225. Eman, bizitzeko bear zuanetik, eta ez geigarrietatik, 257. Ematea da aberastasuna, 349. Ematen ba'dugu, guztientzat naikoa, 391. Dana eman zuten Pedro ta Paulo'k, 399 eta euskal-martirik, 411.

ENTZUTEA: Ez dakigu entzuten. Bearrezkoa Jesus'i entzutea, 167. Nai duguna, ala zer entzuten dugu? Jesus'i entzuten ote? 305.

EPAITZEA: Kristaun epaiketa batzuk; guk geurea epaitu bear. Azkenean, epaiketa, 101. Epaitzekotan, besteak ez-baiña, geuron buruak epaitu bear errudun, 323.

EREITEA: Zer erein, ura jasoko, 127.

ERIoTZA: Bildurrezm aaztu egin nai, 51. Gurutzeko eriotza, 53. Guk ezin oinperatu eriotza, 55. Gizakiok eriotzaren alde, 201. Eriotz ondoren, gu ta gure egiñalak, zer? 259. Eriotza baino Jesus indartsuago, 299. Eriotza ta ilketak, 333. Eriotz-ordura-ko zaindaria, Jose Donea, 387.

ERNE: Erne ta prest bizitzea, 23, 145.

ERREGE-EGUNA: Judutarrek ez bezala, sinistu egin zuten atzeritar aiek, 39. Izarrari jarraitu zioten: guk zer izarri jarraitzen? 161. Opari garestiak eman eta artu... Gauzen irrika batzuei piztu, inbiria besteei. Diru-bearrik gabeko opariak dira ongariak gizakientzat, 281.

ERREINUA: Nolakoa da Jesus'en Erreina? 141. Kristo Erregea, egiaren aitopen egitera etorria, 261. Kristo, nolako Errege dugu? 379.

ERRIA: Errien emaitzak, eta Euskal-erriak, zer? 127.

ESKERRA: ona ta txarra; esker ona atsegiña, baiña bai zailla, 369.

ESNATU: Esnatzeko ordua, 23.

ESPIRITUA: "Espiritu" itzari ere uko. Espiritu Santua, biotzen argi, 191. Espirituak oroitu-eraziko Jesus'en esanak, 309. Espiritua, aipatu ere ez nai. Espirituak argituko ta elkartuko, 313.

ETSIPENA: Asko daude etsipenak jota: biziaren ogia jan bear, 229.

Ametsik gabeko itsuak, 253.

EZKONTZA: Senar-emazteek elkar ulertzeko bidea, 117. Ezkontza

austea, erraza da; irauteko bideak dira aberasgarri. Ezkontza ez da nola-nai edozeinrentzat, 247. Ezkontza-naastea ta Jesus. Bikaiñegia da ezkontza, arinkeritan artzeko, 295. Esku-bideak ez-baiña, sakrifikatzea ta maitasuna, ezkontzaren oiñari sendo, 317.

FEDEDUN: "Euskaldun fededun"... Fedegabea, euskaldunago? 149, 367. Fededunago ta bildur gutxiago, 215. Fededunak, erantzukizun aundia, jendearen sinismen-galtzean, 377.

GALDERA: Gizakia, galdera uts, 47. Galdera nagusiak, 167. Galdera kezkarria: gero zer? 259.

GALDU: Galtzeko ta salbatzeko bideak, 171.

GARBIA: Garbi-zale agerian; barruak ere garbi ote? 203. Azala garbi, barrua gabitu bear, 235. Sortzez garbia, 421.

GATZA: Gatza, gauza bizigarria. Gu ere besteentzat, gatz, 79.

GAUZAK: Gauzen irrikaz beteta, 161. Gauzak ariñegi artuta bizi gera, 165. Gauza txikiak ez zuten asetzen Inazio D. 401.

GEREKOIKERIA: Eskubide-borrokak ere gerekoiheria indartzen, 95. Gerekoiheriaz geiegikerietan erretzeko ez dira aberastasunak, 365.

GEZURRA: Zaratatsu dabil gezurra, 65. Gezurra, indarkeriarik makurrena, 261. Gezurti ta azalutsuak geranik, ez dugu esaten, eta besteak txartzen salatzen, 373.

GIROA: Inguru-giroaren agerpenak, 169. Gizartean, etxean, ikastetxean, e.a. nolako giroa? Kristau-giroa egin bear, 267.

GIZAKIA: Jainkoa gizaki egiñik, gu askatzeko, 29. Zer da gizakia? 45. Ulertezina ta galdera uts, al da gizakia? 47. Oso mugatua, 123. Gizakia ez da legearentzat, 209. Kanpotik dana artu, auke-rarik gabe, eta barrua utsik, 309.

GOSEA: Gizarte asean, goserik ez: Sabelak aseta, barruak utsik, 105. Gosez daudenak eta beartsuak, ugari, 391.

GURASOAK: Bearrezko dira, baiña zer emateko dira gurasoak? 33. Ezitzaille ala ondatzaille? 135. Gurasoen erantzukizuna, Bataioan, 163, 285. Gurasok eta sendiko elkartasuna, 277. Gurasoek eman bearrekoa, 283.

GURUTZEA: Salbazio-iturri da Gurutzeta, 55. Dana errazetik, onik ez, 117. Gurutzean zergatik? 175. Gurutzean Jainkoa, eta ixilik? 297. Gurutzetik da Errege, Jesus, 381. Gurutzea, zertarako? Oinazeko eriotz-bide bakarrik? Bizi-iturria da, 409. Gurutzea, kristau-ezaugarria, 410.

IKASLEAK: Ikaslearen egitekoak, 125. Nolako eziera emango diete ikasleei? 243.

IKUSI-NAIA: Ikusita sinistu nai, 57. Begiak argi, eta elkar ikusi ezin, 253. Mirariak ikusi nai, ziurki sinisteko, 303. Zorionekoak ikusi gabe sinisten dute-nak, 393.

ILLUNPEA: Illunpetako egiteak, 23. Gau-zale ta illunpetako, 49. Illunpean dabilenak, bildur dio argiari, 385.

INDARKERIA: Geiegitan erabillia, eta kaltegarria. Indarkeriarik eza, ez da pakea, 269.

IRAKASLE: "Irakasle" ugari dabilta. Barruko Irakaslea, 69. Irakasle oso berezia, 91. Bizitzen irakasten digu Jesus'ek, 219.

IRAUPENA: Arkaitz-gaiñeko etxea, 87. Betirako itz emandakoen iraupenik eza, 117. Irauten duten ondasunak, 227. Iraupenaz onik aterako dugu azkenean bizia, 379.

IREKI: Era askotakobideak ireki ditu gizakiak, baiña biotzak elkarrentzat itxita, 237. Geuretarrentzat irekita, besteentzat etsai? 245.

IRUTASUNA: Jainkoa ez da bakarti, 193. Nor Jainkoa bezala? Aundi, on eta maitagarri, 315.

ITSUTASUNA: Begietakoa, eta barruko, 49.

ITXAROPENA: Oraingoa? Gerokoa? 265.

ITZA: Giza-itzaren balioa. Jainkoaren Itza, 37. Itzak eta egintzak, 125. Itza itz, baiña... itza jatea, 199. Itz engaiñagarriak, asko; betirakoak, Jesus'ek, 233. Gu igaroko gera, Jesus'en itzak ez, 259. Itza aragi ein zan, 279. Itz asko, baiña gutxitan aipatu Jesus, 303. Itzaren bidez kalte makurrak, 329. Itz gutxi ta aiek ongi ausnartuak, Inazio loiolatarra, 401.

IZARRA: Sortaldean aztien argi. Zer da gure izarra? 39. Izarrari jarraituz, Jesus aurkitu zuten, 161.

JAIK: Atsedenerako ta Jainko-gauzetarako, asti izan dezagun, dira igande ta jaiak, 223.

JAINKOA: Jainkoari igeska... Jainkoa aiañ izan nai, 43. "Gure" Jainkoa ez, Jesus'ek agertua baizik, 71. Jainkoaz aaztuta, 93. Neurtzaille zorrotz ote da?

103. Jainkoa aurkitzea, 103. Guk uste ez bezalakoa da Jainkoa, 123. Jainkoari tokirik ez uzten, 131. Berri ona da Jainkoa, 147. Jainkoa, aurtxo egiñik, 153. Jainkoa, gugandik gertu, 157. Jainko-irudia, nolakoa ote daukagu? Maitasuna da Jainkoa, 193. Jainkoa maitatzea, lenengoa, 255. Jainkoa nor dan usmatzen edo nairik, 273. Jainko aundia aurtxo, 279. Jainkoaren aztarnak kendu nai, eta gero? 289. Jainkoa ta dirua, biak batera ezin, 363. Bizien Jainkoa da, ez eriotzarena, 377. Jainkoa aurkitzeko toki, elizak bakarrik ez, 417.

JANARIA: Buru-biotzen janaria, 105.

JARRAITZEA: Jesus'en jarraitzaille ta giza-arrantzale, 75.

JESUS: Jesus'en jokabide arrigariak: Deika ari zaigu, 75. Jesus nor da neretzat? 115, 337. Jesus, ezagutu gabe, baztertzen dute, 219, 337. Nortzat daukat Jesus? On egiteko indar ematen didana? 237.

JUDU-ERRIA: Ezagutu dezatela Jesus, 129.

KEZKA ta larritasuna: eguneko gauzetaz, geiegarik gabe, 85.

KOLOKAN: Sinismena ta oiturak, kolokan: ondar-gaiñeko etxea, 87.

KRISTAUTASUNA: ez da gordean eukitzeko, 139. Ematea da kristautasuna, 225. Kristauak, nola ta zertan ezagutuko? 307. Kristautasunean sendo ba'geunde, "kutsatu" bildurrik ez genuke izango, 375. Askok sinismena galtzea, kristauon erantzukizuna, 377. Kristau-elkartean oiñari, Pedro Donea, 399.

LAGUNA-ETSAIA: Norlagun, nor etsai? Zer bear du nigandik? 343.

LEGEA: Jainkoaren Legea, itogari? Legeen osotasuna, 81. Legeak, aulenak babesteko dira, 209.

LENENGO tokiak lortzeko, borroka bizian. Gauzarik bikaiñenak ere salduz, 357.

LOTURA: esku-oiñen loturak eta barrukoak, 265. Gauza geiago ta lotura aundiagoak, 359.

MAITASUNA: Senideak onez irabaztea, 119. Maite ez duana, galduta dago, 133. Danetran lenengoa, maitasuna, 255. Maitasuna "ogi" biurtuta, 297. (Eta... gogoeta-saiorik geienetan ere bai).

MARTIRI: Euskaldun martiriak, 131. Erkizia'tar Domingo D. 411.

MENPETASUNA: Jesus'ek Aitari, Guk? 45.

MEZA: Zertarako da? 89. Jesus'ek ikusiko ba'litu gure Mezak... 169. Mezatan gogotsu artu bear Jesus, bere Itza ta Gorputza, 229. Mezaren bidez Jaunak gudan zerbait sakona nai du, 391. Mezatan Jesus nola egon daiteke? 393.

MISIOIARI: Aurak misiolari, 75. Misioiariaren aukera, eta Misioiari euskaldunak, 131.

OGIA: Ogi-zatitzea, Jesus ezagutzeko bide, 59. Ogia alperrik galtzen... Ogi zerutarra... 231. Guztia ogi biurtu nai. Zer ogiren billa gabiltza? 287.

ORDAIÑA: Kalteari, on egiñez erantzun, 83. Ordaiña, txarrean? Ordaiñaren zai egon gabe, eman, 327.

SENDATZEA: Gorputzak, ala buru-biotzak? 91.

OTOITZA: Uste osoz, aspertzeke, 107. Mezatako otoitza, 177. Nai dutena lortzeko, agintariei eskean, eta Jainkoari otoitza egiteko lotsa, 347. Otoitza, zertarako? Etsi gabe egin bear otoitza, 371. Suari errekiñak bezala, otoitzak eusten sinismenari, 393. Otoitz- etxe al ditugu benetan gure elizak? 417

PAKEA: Pake jatorra, 23. Pakerako bideak, 25. Sendia, pake-iturri, 155. Pake-eguna. Biotzen egarria, pakea izatea, 159. Pake-gintza, sinisteanen frutu, 281. Aintza Jainkoari, ta pakea lurrean, 273. Ez "gure" pakea, guztientzatkoa, 281. Pakerako bidea, barkatzea, 301. Taldeek "beren" pakea nai dute, 341. Pakea ta zatiketak, 351. Pakea ta zatiketak, 353.

PEKATARIK: Jesus, pekatariaren maillan eta antzera, 41. Pekatari ta galduen billa dabil Jesus, 361. Pekataria zintzotzurik etxeratu zan, 373.

PEKATUA: Itza ere ez erabilli nai aotan. Zer da pekatua? eta pekatua, kentzea? 73. Pekatua ta asmo txarrak, biotzetik ateratzen dira, 235.

PENTSATZEA: Pentsatzeko astirik gabe. Pentsatzeko eragozpenak, bai kapitalismotik eta bai komunismotik, 345. Pentsatzeko arriskurik ez dute jokatu nai, 351. Pentsatzeko, alperregi, 355. Asko pentsatu, gutxi itzezin, Loiola'ko Inazio Doneak, 401.

PIZTUERA: Jesus'en piztuera, 55. Piztuera, indar-iturri, 57. Piztuertatik atera dute indarra mar-

tirik, 177. Piztuaren aztarnarik bai ote gure bizitzan? 303.

POZA: Sinisteanen poza, 103. Pozaren iturria, 151. Poza ta alaitasuna, berri ta iraunkorrak, 187. Jainkoa, "Aita ona" sinisteanen pozikago giñake, 293. Sinistunak, pozez ageri ote? 367. Pozaren pozez daukat barruna, 405.

SALBATZAILLEA: "salbatzailleak" eta egiazko Salbatzaillea, 29.

SALBAZIOA: Guruzetik dator salbazioa, 53. Salbatzera etorria, ez erretzera, 339.

SENAR-EMAZTEAK: Elkarri eman bearrekoak, 283. Eskubideak baiño oiñari obeak, maitasuna ta sakrifikatzea, 317. Senar leial, gizon zintzo, Jose Donea, 387.

SEME-ALABAK: Gauzak artzeko al dira? 33. Jainkoaren seme-alaba, 163. Opari garestia baiño bearrago, gurasoen ardura, 283.

SENDIA: Nazaret'eko sendia, maitasun eta otoitz-giroan, 33. Euskal-sendiak, eta sendiaren aurkako erasoak, 155. Sendiak elkartasunean du indarra, 277. Sendiaren serbitzari, Jose Donea, 387. Euskal-sendi ugariko seme, Inazio D. 401. Euskal-sendietan emakume agurgarri asko, 419.

SERBITZUA: Aundiena izateko, serbitzu egiten aundiena, 243. Serbitzura edo menpean besteak jartzeko borroka asko. Serbitzari izatea, aunditasun-bide, 251. Besteen serbitzuan bizi izan zan Jose D., 387. Jesus'en serbitzari etorri zan Joan, 397.

SINISGARRITASUNA: Ez dago gure trebetasun eta tresnen neurrian: Jesus'engandik datorkigu, 221.

SINISGOGOR: Batzuek esanak, erraz sinisten; baiña Jesus'entzat sinisgogor, 179. Sinisgogorra, sinstea utzi duana, galera aundian, 217. Sinisgogorra Antonio Donearekin, 393.

SINISTEA: Jesus piztuagan siniste, 55. Ikusi gabe siniste, 57. Sinistearen poza, 103. Judutar gidariek ez, emakume apalak bai, 111. Sinismenez eskatu bear otoitzean, 113. Sinisteaz lotsatuta? 149. Piztuera ezin sinistu? 177. Jesus piztua, sinistearen oiñarri, 179. Sinisteak uxatzen ditu bildurrak, 215. Siniste, ez dago modan; siniste, kalte askoren sendabidea, 217. Giza-bizitza aberasten du sinisteak, 267. Sinisteak, pakegintzara eragiten du, 271. Gaur nola bizi sinismena? 331. Sinismenak eraginda, laguntzen askatasun-billa, 367. Ez-siniste, zabaldurik: Jainkoa sinistu ezik, ezta piztuera ere, 377. Kristau-sinismena, ez da asma-tua: Apostoluengandik dator, 399. Zorionekoa, zu, Maria, sinistu duzulako, 405.

TESTIGU: Jesus piztuaren testigu gera, 189.

TXARRA TA ONA: Zer da txarra, zer ona? Biak elkarren ondoan, 101.

TXIKIA: Gauza txikien balioa, 213. Guza txiki kaxkarrez ez zan asetzen Inazio D., 401.

URTE-BERRI: Urtearen asiera? Jainkoaren Ama, 35. Jesus izena ezarri zioten: Onak salbatuko du erria pekatuetik: Pake-egu-

na, 159. Urte berriaren asieran, gogo asmo berriak, pake-bideak, 281.

USTE OSOA: Jainkoagan gure uste osoa, 93.

UTSEAN: Utsean, ordaiñaren zai egon gabe, 327. Dana utsean ematen digu Jaunak, 369.

UZTEA: Kristau-gauzak uztea, gauza aundizat? 89.

ZAI: Askatasunaren zai, 265.

ZALANTZA: Sinismen gutxiren ondorena, zalantzak, 107.

ZENTZUDUN: Zentzugabe asko; zentzudun izatea, 137.

ZERUA: Zeruaz aaztuta, obeak al gera? 189. Zeruaz gogoratzea, poz eta indar-iturri, 311. Zerurako jaio zan Erkizia Donea, martiri il zutenean, 411. Zerutar guztiak ditugu "Santu Guztiak", 415.

ZORIONA: Itzez, Gabonetan zoriona opa oi, 31. Jesus'en zoriontasunak, 77, 325. Non dago zoriona? 77. Zorion-bidea, ematea da, 95. Zorionik ez, eta billa dabil jendea, 129. Eman gabe, ez dago zorionik, 257. Zorionik gabe, ta maitasuna "ogi" biurtuta, 287. Batzuk zorionsu, besteak ez: betirako erabakita? 325. Zorion-bidea: bear-bearezkoak bakarrik nai izatea, 345.

Zorionekoa, erne ta prest bizi dana, 351. Zoriona, nor bere barruan aurkituko, 359. Aberastanik gabe, zorionsu zan Jose D. 387. Zorionekoa, Maria, sinistu duzulako, 405.

ZORITXARREKOAK: Aberatsak, aseak... zoritxarreko, 325.

“JESUS’EN BILLA” liburu ontan, Iganderoko Berri Ona ardatz duten gogoetak eskeintzen ditu Gaztañaga’tar Jesus’ek. Gogoeta auek ez dira bat-batean libururako asmatuak. Aurrez eta iru urteren buruan Naparroa’ko “Diario de Navarra” egunkarian larunbat oroz argitaratuak dira baizik, eta egille berak bilduma egiñik, liburu biurtuta<sup>2</sup> eskeintzen ditu orain.

Euskeraz asko idatzi du Gaztañaga’k, bein “Euzko Gogoia” aldizkarian lenengoa 1957’an argitaratu zuanetik onuntz. Or daude Goiz-Argi, Zeruko Argia, Agur, Karmel, Zer eta Euskerazaintza aldizkarietan, eta “La Voz”, “La Hoja del Lunes”, “Diario Vasco” egunkarietan Gipuzkoa’n argitaratuak lekuko. Eta azkenik aste oroz “Diario de Navarra” egunerokoan idazten dituanak, zenbait euskeralpen zeazki izendatzeko jo gabe.

Arrigarririk deus ere asmatu duala esateko ametsik gabe, Jesus obeki ezagutzearen eta obeki ezagutaraztean billa egin ditu zenbait gogoeta, eta orain nai duten euskaldun guztiei eskeintzen dizkie.